Txosten hau egiterakoan, AMALek gure erkidegoan daukan benetako ondorioak ezagutu ahal izateko tresna bat sortu, nahastutako eragileekin harremanak izan eta administrazioekin, gure iritziak eta proposamenak helarazteko, harreman arina izan nahi izan dugu eta, azken batean, horrek denak mendetasuneko egoeran dauden pertsonen eta haien gizarte eta familia ingurunearen egoera hobetzen laguntzea ere bai.

Zintzotasunez eskertu nahi diet euren laguntza azterlan hau argitaratzea ahalbidetu dutenei; batez ere mendeko pertsoneri, haien zaintzaileei eta haiei laguntzen dieten gizarte elkarte eta erakundeetako giza taldeari; baita hiru foru aldundietako arduradunei, EUDELi (Euskal Udalen Elkarte) eta Eusko Jaurlaritzari ere (Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaie-tako Saila eta Osakidetza), adeitasunez eta ahalegin handia eginez, eskatutako informazioa eman baitigute.

Azpimarratu nahi nuke mendetasunak emakumeengan daukan eragin izugarria, agerian utzi ahal izan dugunez, baita autonomia sustatzeko eta mendetasuneko egoerari arreta emateko politikoa publikoak antolatzerakoan hura aintzat hartu beharra ere.

Jabetzen gara krisialditik etorritako murrizketek gizarte politikei eragin dietela, eta onartu behar dugu, batzuetan, finantzaketaren arazoa baliabide guztien bolumenetik baino gehiago ezarritako banaketa irizpideetatik datorrela eta, azken finean, norberaren autonomia sustatzeak eta mendetasuneko egoeran dauden pertsonak babesteak euskal herri-administrazioen lehentasuna izan behar dutela. Zinez nahi nuke, osorik erakundearen beraren baliabideekin egin den lan hau, xede hori lortzeko tresna eraginkorra izatea.

Iñigo Lamarca Iturbe
ARARTEKOA

2011ko martxoa



SARRERA



Mendeko pertsonatzat, adinetik, gaizotasunetik edo ezgaitasunetik datozen arrazoiengatik, gorputz, adimen edo zentzumen autonomiaren gabezia edo galerari lotuta, beste pertsona baten edo batzuen arreta edo eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak egiteko laguntza handiak edo, adimen ezgaitasuna edo gaitz mentala duten pertsoneri dagokienez, norberaren autonomiarako bestelako laguntzak behar dituenen jotzen dugu.

Mendetasunak, pixkanaka, babestu beharreko gizarte arriskutzat jo da azken hamarkadotan¹. Mendekotasuneko egoeran dagoen biztanleria hazten joan da eta horren zioa hamarkada horietan gertatutako zenbait demografia eta gizarte aldaketa izan da:

- Hilkortasunaren murrizketa, bizi itxaropen indizeen hazkundera eta gaitz kroniko eta sortzetiko asaldura batzuen biziraupen tasa handiagoak.
- Jaiotza-tasaren murrizketa.
- Ondorioz, pertsona nagusiek biztanlerian duten proportzioaren hazkundera (biztanleriaren zahartzea).
- Zahartzearen zahartzea (pertsona nagusi guztien artean, 80 urtetik gorakoen azpitalea gehiago hazi da).
- Lan eta errepede istripu indizeen hazkundera.

Mendetasuna hainbeste igotzeak, emakumea lan merkatuan sartzeko, gizonezko askok zaintza informaleko eginkizunak ez hartzeak eta familia egiturak aldatzeak (guraso bakarreko familiak ugaltzea, familia guneak eta etxebizitzak zatitzea eta murriztea²), egoera konplexua sortu dut eta bertan "laguntza informala" –mendeko pertsonen zaintzaren euskarri nagu-

¹ ARRIBA GONZÁLEZ DE DURANA, Ana eta MORENO FUENTES, Francisco Javier. *El tratamiento de la dependencia en los regímenes de bienestar europeos contemporáneos*, 19. or. Estudios bilduma. Dependencia saila. Gizarte Politika eta Kontsumoaren Idazkaritza Nagusia.

² SEMPERE NAVARRO Antonio V. eta CAVAS MARTÍNEZ, Faustino. 2007. *Estudio de la Ley 39/2006, sobre Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las personas en situación de dependencia*, 22. or. Thomson Aranzadi.

sia, batez ere emakumeek euren gain hartua– krisian sartu da³; egoera horretan ezinbestekoa gertatzen da autonomia sustatzeko eta mendetasuneko egoerari arreta emateko politika publikoak abiaraztea, Nazio Batuek, Europako Kontseiluak eta Europar Batasunak⁴ gaiari buruz dauzkaten testuekin bat etorritz.

Testuinguru horretan, Norberaren Autonomia Sustatzeko eta Mendetasun egoerako Pertsonen Laguntza Emateko [abenduaren 14ko 39/2006 Legeak](#) (AMAL), helburu hori herri bote-reentzat erronka saihestezina dela adierazten du. Legearen xedea, Zioen Azalpenean dioenez, honakoa da: *“ahultasun handiko egoeran egoteagatik, eguneroko bizitzako funtsezko jarduerak burutzeko, norberaren autonomia handiagoa lortzeko eta euren herritar eskubi-deak osorik erabili ahal izateko laguntzak behar dituzten pertsonen premiei erantzutea”*.

AMALek eskubide subjektibo berria onartzen die mendetasuneko egoeran dauden pertsonen: Legean bertan xedatutako prestazio eta zerbitzuak eskuratzeko eskubidea. Herri administrazioek, beraz, bere egiten dute autonomia sustatzeko eta mendetasuneko egoerari arreta emateko erantzukizuna, zuzeneko eta zeharkako kudeaketaren bidez.

Halaber, Autonomiarako eta Mendetasunarenganako Arretarako Sistema eratzen du, gizarte babes mota berria. Horren bidez, Estatuaren eta Gizarte Segurantzaren sistemaren ekintza babeslea zabaldu eta osatu eta gizarte zerbitzuen egoera hobetu nahi da.

Gizarte eta familia inguruneak mendetasuneko egoeran dagoen pertsonarenganako arretan duten eginkizuna onartzen du, baita gizarte ekintzako hirugarren sektoreko erakundee-na ere. Horren ondorioz, laguntza publikoa ematea proposatzen da.

Jarraian, AMAL inspiratu duten printzipioetako batzuk azpimarratuko ditugu:

- unibertsaltasuna mendetasuneko egoeran dauden pertsona guztiek prestazioak eskuratu ahal izateko, benetako berdintasuneko eta bereizkeriarik gabeko baldintzetan.
- administrazioen arteko lankidetzeta;
- pertsona onuradunek sisteman parte hartzea;
- mendetasuneko egoeran dauden pertsonen, posible den heinean, bizi diren ingurunean irautea;
- gizarte eta osasun zerbitzuen lankidetzeta AMAZen erabiltzaileei zerbitzuak emateko.

Euskal Autonomia Erkidegoan, hiru lurralde historikoetako foru aldundiek ([Araba](#), [Bizkaia](#) eta [Gipuzkoa](#)) hartu dute euren gain sistema berria euren lurraldean ezartzeko lana, norberaren autonomia sustatzeko eta mendetasuneko egoeran dauden pertsonen arreta emateko zerbitzuen eta mendetasuna baloratzeko behar diren baliabide eta zerbitzuen plangintza,

³ LAN ETA GIZARTE GAIETAKO MINISTERIOA (IMSERSO). *Atención a las personas en situación de dependencia en España. Libro Blanco*, 18. or.

⁴ BAVIERA PUIG, Inmaculada. 2008. *La Unión Europea y la dependencia: modelos comparados*.

antolamendu, koordinazio, zuzentze eta kudeaketaren bidez. Hala ere, EAEn administrazio eraketa berezia eta herri administrazio guztien beharrezko lankidetzeta eta partaidetzeta direla-eta, autonomia eta udal administrazioek ere zenbait eginkizun burutu behar dituzte arlo honetan⁵.

AMAL ezartzeko lan horrek ahalegin handia eta baliabide asko jartzea eskatu die hiru foru aldundiei eta, orokorrean, egokitzat joenezake, batez ere Estatuko beste autonomia erkidego batzuetan herri botereen aldetik antzeman diren atzerapenak eta erantzunik ez hartzea kontuan hartzen baditugu; esan dugunez, ezartzeko lan horretan foru aldundi bakoitzak bere bideari jarraitu dio, ez beti bat etorritz, eta horrek batzuetan euskal herritarrek nekez ulertzen dituzketen ondorioak eragin ditu.

Jakinaenez, AMALek jasotzen dituen prestazio gehienak (telelaguntza zerbitzua, etxez etxeko laguntzako, eguneko egoitzako, egoitza arretako zerbitzuak, eguneroko bizitzan normaltasunez jarduteko beharrezko laguntza teknikoak edo tresnak, zerbitzuari lotutako prestazio ekonomiko mota bat, etab.) lehenik ere ematen zituzten euskal administrazioek, mendetasunari emandako arreta eta babesa sendotzearen aldeko ahalegin irmoa eginez.

Legeak aurreikusitako beste prestazio batzuk, aldiz, berriak dira –esaterako, familia ingurunekeo zaintzetarako prestazio ekonomikoa, edo laguntza pertsonaleko prestazioa– edo finkatu gabe zeuden, inoiz eskaini baziren ere –gaueko egoitzako zerbitzuak–.

Gainera, EAEn, foru aldundiek eta zenbait udalek erraztu dute familia zaintzaileentzako laguntza zerbitzuak (arnasarako egonaldiak, autolaguntza taldeak, prestakuntza, laguntza psikologikoa, informazioa eta aholkularitza, etab.) finkatzea, erabilgarritasun eta garrantzi ukaezinak izan arren, AMALen berariaz jasota ez badaude ere.

Mendetasuneko egoeran dauden pertsonen alde lan egiten duen elkarte sareak (pertsonei nagusiei, ezgaitasuna, gaitz kronikoak, osasun mentaleko arazoak, etab. dituzten pertsonei laguntzeko erakundeak), gure autonomia erkidegoan, eginkizun erabakigarria dauka pertsona horiei emandako arretan eta zerbitzuetan, eta haien bizi kalitatean. Hortik dator erakundeek elkarte horiei emandako laguntzak daukan garrantzia.

Azterlan honetan, besterik gabe, EAEn arestiko paragrafoetan gainetik azaldu dugun araudiak izan dituen aplikazio eta garapenaren nolabaiteko balorazioa egin nahi dugu, sakonak izateko asmorik gabe.

Batez ere AMAL indarrean sartu zenetik erakundeak egindako lanari buruzko memoria da, baita, zailtasunak zailtasun, nahastuta dauden eragileengandik batu ahal izan dugun informazioaren laburpena ere.

⁵ Ikus txosten honetako esparru juridikoari buruzko [2.8. atala](#).

Hurbilketa hau abiapuntua izango da sistema berria "abiarazteko" fasea gainditu ondoren egin litekeen geroako azterketa sakonerako.

Azterlan hau egiteak aukera eman digu herritarren eskariak biltzeko, aztertzeko eta, beharrezkoa izan denean, erakunde arduradunei helarazteko. Erakundeek, askotan, begionez hartu dituzte hobetzeko egin ditugun proposamenak.

Txostena bederatzi ataletan dago antolatuta:

- Lehenengo atalean erabilitako lan metodologia azaldu da.
- Bigarren atalean labur heldu diogu mendetasunaren babesaren araubide juridikoari. Estatuko legedia aipatu eta euskal foru aldundiek bultzatutako arauzko garapenaren azterketa egin dugu.
- AMALen aplikazioaren azterketa hirugarren, laugarren eta bosgarren ataletan egin da. Hirugarrenean herri administrazioek emandako datuak sistematizatuta eman ditugu, haien hobeto ulertu eta interpretatzeko. Dagokien herri administrazioetatik jaso dugun informazio kualitatiboa era sartu dugu.
- Legearen ezarpenak ukitutako taldeek emandako balorazioak laugarren atalean landu dira.
- Bosgarren atalean legea indarrean sartu zenetik erakunde honetan herritarrek aurkeztutako kexen izapidetzeagatik heldutako kontu nagusiak laburbildu ditugu. Eskari horietan izandako gure esku-hartzearen berri ere ematen dugu.
- Seigarren atalak bost bizi-historia jaso ditu. Haien bidez mendeko pertsonen eta haien zaintzaileen bizipenetara, haien bizitzetan herri administrazioek mendetasuna babesteari eta norberaren autonomia sustatzeari buruz hartutako neurriek izan ditzaketan ondorioetara hurbildu ahalko gara.
- Zazpigarren atalean azterlan honen ondorio nagusiak aurkeztu ditugu.
- Erakunde honek emandako gomendioak zortzigarren atalean bildu dira.
- Bederatzigarren atalean kontsultatu den bibliografia nagusia jaso da.

1

METODOLOGIA

ararteko

Norberaren Autonomia Sustatzeko eta Mendetasuneko Egoeran dauden Pertsonei Arreta emateko [abenduaren 14ko 39/2006 Legeak](#) (AMAL) EAEn duen aplikazioari buruzko txosten monografiko honen xedea Arartekoak legea indarrean sartu zenetik gaiari buruz egin duen azterketa ezagutaraztea da.

Lan metodoak lau jarduketa mota biltzen ditu:

1.1. Norberaren autonomiari eta mendetasunari buruz Estatu, autonomia eta foru esparruetan indarrean dagoen lege gorputzaren eta zenbait agiri espezializaturen azterketa

Aztertutako lege xedapenak esparru juridikoari buruzko bigarren ataleko [4](#), [5](#) eta [7](#) koadroetan jaso dira.

Kontsultatu diren argitalpenak eta artikulua bibliografiari buruzko [bederatzigarren atalean](#) jaso dira.

1.2. Elkarrizketa biografikoak egitea eta aztertzea: bizi-historiak

Elkarrizketa horien bidez honakoak ezagutu nahi dira:

- Mendetasuneko egoeran dauden pertsonen, zaintzaile nagusien edo familia ingurunekeo pertsonen bizi esperientziak.
- Legediak haien bizi kalitatean izan ahal izan dituen ondorioak.

Elkarrizketa bakoitzean batez ere honako kontuei heldu zaie:

- Legearen aplikazioagatik egoerak izandako aldaketak;

- prozeduran aurkitu ahal izan dituzten zailtasunak (mendetasuneko egoera onartze-ko eskaeratik zerbitzua edo prestazioa esleitu arte);
- osasun, gizarte zerbitzu, hezkuntza edo mendekotasuna babesteko sistemek eskaintzen dituzten baliabideetatik, dauzkatena edo izan dituztenak.
- arretan antzemandako hutsuneak;
- eguneroko esperientziak eta aurkitutako oztopoak.

Bost elkarrizketa egin ditugu:

- mendetasuneko egoeran dagoen adineko pertsona;
- mendetasuneko egoeran egon eta ezgaitasuna duten adingabeen zaintzaile nagusia;
- mendetasuneko egoeran dauden adineko pertsona biren familia ingurune-ko zaintzailea;
- mendetasuneko egoeran egon eta ezgaitasun fisikoa duen adineko pertsona;
- gaitz mentala duen pertsona.

1.3. SISAADek (Autonomia eta Mendetasunarentzako Arreta Sistemaren Informazio Sistema) hilero argitaratutako datuen, dagokien euskal herri administrazioek emandako informazioaren, eta mendetasuneko egoeran dauden pertsona taldeak ordezkatzan dituzten elkarteek, gizarte erakundeek eta erakundeek eta haien familia eta gizarte inguruneak egindako balorazioen azterketa

Lan tresna, **IMSERSOk** (Nagusien eta Gizarte Zerbitzuen, Osasunaren, Gizarte Politikaren eta Berdintasunaren Erakundeak)⁶ ofizialki argitaratutako AMASen kudeaketa datuak erabili ditugu. Zehazki, EAERI buruzko datuak aztertu dira (2010eko urriaren 1ra), honako alderdiei buruz:

- eskaerak;
- eskaerak biztanleriaren proportzioan;
- eskatzailearen ezaugarriak: sexua eta adina;
- irizpenak;
- irizpenak autonomia erkidegoetako biztanleriaren proportzioan;
- onartutako mailak;
- onuradunak eta prestazioak;
- prestazioa duen onuradunaren ezaugarriak: sexua eta adina;
- prestazioak dituzten onuradunak biztanleriaren proportzioan.

Hasiera batean, **Arabako Foru Aldundiko** Gizarte Politika eta Gizarte Zerbitzuetako Sailari, **Bizkaiko Foru Aldundiko** Gizarte Ekintza Sailari eta **Gipuzkoako Foru Aldundiko** Gizarte Po-

⁶ Web orriaren helbidea: <http://www.imserso.es>.

Bidea: Norberaren autonomia eta Mendetasuna. Mendetasunaren ataria. Kudeaketa datuak.

litika Sailari 2007 eta 2008ko ekitaldiei buruzko informazio eskabide zabala bidali genien, zenbait koadro eta taulatan sistematizatuta, baita euren lurralde eremuan AMALez izandako aplikazioari buruzko alderdi batzuen gaineko galdetegi bat (2 eta 3 eranskinak).

Jakin badakigu hiru administrazioentzat ahalegin handia izan dela eskatutako datuak ematea eta adierazi behar dugu uneoro laguntzeko oso prest egon direla.

Foru administrazioek emandako informazioaren azterketak zalantza asko sortu zituen. Horrek informazio gehiago eskatzera eraman gintuen: argibideak behar zituzten berrogei bat kontu.

Argibideak jaso ondoren, informazio gehiago eskatu genuen, orduan 2009ko ekitaldiari dagozkion datuei buruz.

Sail bakoitzeko –Gizarte Zerbitzuen idazkaritza Arabaren kasuan, Norberaren Autonomia Sustatzeko eta Mendetasunari Arreta emateko zuzendariorde eta Bizkaian, eta Plangintza Atala Gipuzkoan– erreferentziazko pertsonekin bilerak eta harremana izan ditugu, informazioa zuzen jasotzeko.

Zenbait informazio iturri erabili denez gero, emandako datuen erreferentziazko data ez da beti bera izan. Datu horiek jasotzeko arazo asko eta era askotakoak izan ditugu: interpretazio irizpide desberdinak, informazio sistema integraturik eza, administrazioek, datuak sistematizatzeko arazoengatik edo sistema informatikoetan aurkitutako akatsengatik, haietako batzuk emateko ezintasun materiala, etab.

Hori dela-eta, informazio sistema hobetu, datuak lortzeko irizpideak batu eta arlo horretan erakundeen arteko koordinazioa bultzatu beharraz hausnartu ahal izan dugu.

Eusko Jaurlaritzako [Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailari](#), [EUDELI](#) –Euskal Udalerrien Elkartea– eta [Osakidetzari](#) –Euskal Osasun Zerbitzua– ere informazio eskaerak egin genizkien. Haiek denek berehala erantzun zuten.

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak emandako datuak, zehazki lurralde historikoen arabera informazioaren banakapenari dagozkionak –Saila IMSERSOren lotzen zaio hiru foru aldundietatik jasotako informaziotik abiatuta–, aztertutakoan, ikusi genuen ez zetozeela guztiz bat haiek emandakoeekin. Gauza bera gertatzen zen IMSERSOren argitaratutakoekin erkatuz gero. Horrek, berriz ere, baietzi zuten datuak jaso eta lortzeko sistemak hobetu beharra, arestian aipatu dugunez. Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak IMSERSOren 2010eko irailaren 27an ateratako informazio banakatua helarazi zigun berriro.

Azkenik, autonomia erkidego osoari buruzko azterketan IMSERSOren argitaratutako datuak eta lurralde historikoen arabera azterketari buruzko ataletan hiru foru aldundiek emandakoak erabiltzea erabaki dugu. SISAADen lurraldeen arabera datuak aztertzeko bai Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak emandako informazioa bai Sail berak igorritako IMSERSOren informazioa erabili ditugu.

Beste kontsulta iturri nagusietako bat mendetasuneko egoeran dauden pertsona taldeak eta haien familia eta gizarte ingurunea ordezkatzeko dituzten elkarteek, gizarte erakundeek eta erakundeek emandako informazioa izan da.

Hasiera batean, 1. koadroan adierazitako erakundeei informazio eskabidea bidali genien.

Bertan, honako kontuei buruzko ekarpenak eskatu genizkien:

- Norberaren autonomia pertsonala sustatu eta mendekotasuneko egoeran dauden pertsonen arreta emateko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen alde onak eta txarrak.
- Euskal herri administrazioek hari emandako garapenaren, aplikazioaren eta kudeaketaren balorazioa.
- Legea aplikatzerakoan sortutako eta antzemandako zailtasun nagusiak.
- Mendetasun sistematan sartu behar liratekeen aldiaketa nagusiak (egungo lege esparruari, erakundeak egiten ari diren kudeaketari, balorazio baremoari, Banakako Arreta Programaren prestaketari, erakundeen arteko koordinazioari... dagokienez) erakunde bakoitzak laguntzen dituen mendetasuneko egoerako pertsonen errealtateari eta premiei egokitzeko.
- Errealtatea hobeto ezagutzeko edo erakunde honek esku-hartze hobea izateko egokitzat jotzen den edozein datu edo informazio.

Guztira 31 erakunde erantzun zioten behar beste gure eskaerari, eta hausnarketa eta datu oso interesgarriak eman zizkiguten.

Haien balorazioak aztertu ondoren, haietako 24rekin bildu ginen, 16 bilera eginez, eta haietan konturik garrantzitsuenei eta sortu zitzaizkigun zalantzei buruz hitz egin genuen.

Gerora, beste kontsulta erronda bat egin zen antzemandako oztopo berriak eta haietako hobekuntza proposamenak aztertzeko.

Zalantza barik, jarduketan horiek beste lan bat ekarri diote gizarte elkarte eta erakundeen eguneroko zereginari, maiz eguneroko lanak gaindituta egon arren; horregatik haien laguntza baliotsuak berriz erakusten du talde horiekin hartu duten engaiamendua.

1. koadroa. Kontsultatutako elkarte, gizarte erakunde eta erakundeak

ERAKUNDEA	LAGUNTZEN DIOTEN KOLEKTIBOA
AEF / FAE Alzheimerraren Euskadiko Federazioa / Federación de Asociaciones de Familiares de Enfermos de Alzheimer de Euskadi	<i>Alzheimerra duten pertsonak</i>
AGIFES Alkarturik Gipuzkoako Familia eta Eri Psikikoak / Asociación Guipuzcoana de Familiares y Enfermos Psíquicos	<i>Gaitz mentala duten pertsonak</i>
APDEMA Adimen Ezintasuna duten Pertsonen Aldeko Arabako Elkarte / Asociación a Favor de Personas con Discapacidad Intelectual de Araba	<i>Adimen ezintasuna duten pertsonak</i>
APNABI Bizkaiko Autismoa eta Beste Autismo Espektoaren Nahasteak Dituztenen Gurasoen Elkarte / Asociación de Padres de Afectados de Autismo y otros Trastornos del Espectro Autista de Bizkaia	<i>Autismoa duten pertsonak</i>
ARAZOAK Arabako Autismoaren eta bestelako Garapen Trastorno Orokorren Elkarte	<i>Autismoa eta bestelako garapen trastornoak dituzten pertsonak</i>
ASAFES Arabako Gaixo Mentalen Senideen Elkarte	<i>Gaitz mentala duten pertsonak</i>
ASASAM Aiarako Familia eta Eri Psikikoen Elkarte	<i>Gaitz mentala duten pertsonak</i>
ASCUDEAN Arabako Mendeko Adineko Pertsonen Familia Zaintzaileen Elkarte	<i>Mendetasuneko egoeran dauden adineko pertsonak</i>
BIDEGAIN ELKARTEA	<i>Haurrenganako arreta goiztiarra</i>
ASPACE-Araba Elbarritasun Zerebralaren eta Antzeko Gaitzen Elkarte / Asociación de Parálisis Cerebral y Alteraciones Afines	<i>Elbarritasun zerebrala eta antzeko gaitzak dituzten pertsonak</i>
ASPACE-BIZKAIA Bizkaiko Elbarritasun Zerebralaren Elkarte	<i>Elbarritasun zerebrala duten pertsonak</i>
ASPACE-GIPUZKOA Elbarritasun Zerebralaren Elkarte / Asociación de Parálisis Cerebral	<i>Elbarritasun zerebrala duten pertsonak</i>
ATECE-ARABA Arabako Hartutako Kalte Zerebralaren Elkarte	<i>Hartutako kalte zerebrala duten pertsonak</i>
ATECE BIZKAIA Bizkaiko Hartutako Kalte Zerebralaren Elkarte	<i>Hartutako kalte zerebrala duten pertsonak</i>
ATECE GIPUZKOA Burezur eta Entzefalo Traumatismoaren eta Hartutako Kalte Zerebralaren Elkarte	<i>Burezur eta entzefalo traumatismoa eta hartutako kalte zerebrala duten pertsonak</i>

ERAKUNDEA	LAGUNTZEN DIOTEN KOLEKTIBOA
ATZEGI Gipuzkoako Adimen Urritasuna duten Pertsonen Aldeko Erakundea / Asociación Guipuzcoana en Favor de las Personas con Discapacidad Intelectual	<i>Adimen urritasuna duten pertsonak</i>
AVIFES Bizkaiko Familia eta Eri Psikikoen Elkartea	<i>Gaitz mentala duten pertsonak</i>
ARABAKO ADINEKO PERTSONEN KONTSEILUA	<i>Adineko pertsonak</i>
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO ADINEKO PERTSONEN KONTSEILUA	<i>Adineko pertsonak</i>
EGINAREN EGINEZ Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Elkartea / Asociación de Personas con Discapacidad Física de Araba	<i>Urritasun fisikoa duten pertsonak</i>
ELKARTEAN Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko Urritasun Fisikoa duten Pertsonen Konfederazio Koordinatzailea	<i>Urritasun fisikoa duten pertsonak</i>
ELKARTU Gipuzkoako Urritasun Fisikoa duten Pertsonen Federazio Koordinatzailea	<i>Urritasun fisikoa duten pertsonak</i>
EUSKADIKO ITSUGORREN ELKARTEA / ASOCIACIÓN PRO SORDOCIEGOS DE EUSKADI	<i>Pertsona itsugorrek</i>
EUSKAL GORRAK	<i>Pertsona gorrek</i>
FEATECE Euskadiko Hartutako Kalte Zerebralaren Elkartea	<i>Hartutako kalte zerebrala duten pertsonak</i>
FEDEFES Euskadiko Eri Psikiko eta Senide Elkarteen Federakuntza / Federación de Euskadi de Asociaciones de Familiares y Enfermos Psíquicos	<i>Gaitz mentala duten pertsonak</i>
FEKOOR Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Bizkaiko Federazio Koordinatzailea / Federación Coordinadora de Personas con Discapacidad Física y Orgánica de Bizkaia	<i>Urritasun fisiko eta organikoa duten pertsonak</i>
FEVAPAS Euskal Herriko Gorren Lagun eta Gurasoen Elkarteen Federakundea / Federación Vasca de Asociaciones de Padres y Amigos de los Sordos	<i>Pertsona gorrek</i>
FEVAS Adimen Ezintasuna duten Pertsonen Aldeko Elkarteen Euskal Federazioa / Federación Vasca de Asociaciones en Favor de las Personas con Discapacidad Intelectual	<i>Adimen urritasuna duten pertsonak</i>
EUSKAL HERRIKO DOWN SINDROMEAREN FUNDAZIOA	<i>Down sindromea duten pertsonak</i>

ERAKUNDEA	LAGUNTZEN DIOTEN KOLEKTIBOA
GAUTENA Gipuzkoako Autismo Elkarte / Asociación Guipuzcoana de Autismo	<i>Autismoa duten pertsonak</i>
GIPUZKOAKO ADINEKO PERTSONEN KONTSEILUA / CONSEJO DE PERSONAS MAYORES DE GIPUZKOA	<i>Adineko pertsonak</i>
GORABIDE Adimen-Ezintasuna duten Pertsonen Aldeko Bizkaiko Elkarte / Asociación Vizcaína en Favor de las Personas con Discapacidad Intelectual	<i>Adimen urritasuna duten pertsonak</i>
HARTU-EMANAK Etengabe Ikasteko eta Gizartean Parte Hartzeko Helduen Elkarte / Asociación para el Aprendizaje Permanente y la Participación Social de las Personas Mayores	<i>Adineko pertsonak</i>
ITXAROPENA Arabako Gurasoen eta Ikusmen Trastornoak dituzten Haurren eta Ukitutako Pertsonen Elkarte	<i>Ikusmen trastornoak dituzten pertsonak</i>
NAGUSIAK Bizkaiko Jubilatu eta Pentsiodunen Elkarte Asociación de Jubilados y Pensionistas de Bizkaia	<i>Adineko pertsonak</i>
NAGUSILAN Adin Nagusikoen Giza Boluntariotza Voluntariado Social de Mayores	<i>Adineko pertsonak</i>
ONCE EUSKADI	<i>Pertsona itsuak</i>

1.4. Herritarrek egindako kontsulten, aurkeztutako kexen eta ofizioz bultzatutako kexen azterketa

Arartekoak, AMAL indarrean sartu zenetik, herritarrek gaiari buruz egindako kontsultei erantzun die. Kontsultak telefonoz edo Bilbon, Donostian eta Gasteizen dauzkagun zuzeneko arretako hiru bulegoetako batean aurrez aurre egin dira. 2010eko abenduaren 31 arte guztira 121 kontsulta ziren eginak.

Tarte horretan, guztira, norberaren autonomiari eta mendetasunari dagokienez, euskal herri administrazioen jarduketei buruzko 72 kexa espediente izapidetu dira. Haietako 58 itxi egin dira, honako emaitzaz:

1. taula. Mendetasunari buruz izapidetutako kexa espedienteak

	ESPEDIENTE KOP.
Izapidetzen ari diren espedienteak	14
Espediente itxiak itxiera motaren arabera	58
Jarduera ez okerra	29
Jarduera okerra konpondua	11
Gerora sortutako ezespena-Bestelako zioak	6
Gerora sortutako ezespena-Kexa konpondua	5
Herritarrentzako aholkularitza eta argibideak	4
Jarduera okerra-Gomendio ezetsia	2
Konpondu gabeko jarduera okerra	1
GUZTIRA	72

Erreklamazio arrazoi nagusiak honakoak izan dira:

- Atzerapena eskatutako balorazioan.
- Ezadostasuna balorazioaren emaitzarekin.
- Atzerapena esleitutako baliabidea emateko.
- Prestazioaren erreklamazioa atzeraeraginezko ondoreekin (mendeko pertsona zendu ondoren).
- Ondorio desberdinak kasu berdinetarako aldundi bakoitzak mendetasuna baloratze-ko erabilitako tresna desberdinen aplikazioagatik.
- Prestazio batzuen arauketarik eza.
- Zerbitzuen eta prestazioen bateraezintasunak eragindako arazoak.
- Desadostasunak prestazio ekonomikoei egindako murrizketekin.
- Zenbait inguruabarretan prestazioak galtzea edo murriztea.
- Desadostasunak ezarritako zerbitzuekin.
- Baliabide publiko batzuen falta.
- Arazoak etxean bertako laguntza zerbitzuarekin (ELZ).
- Desadostasunak AMALen jasotako zerbitzuen eta prestazioen onuraduna izateko betekizunak betetzeari buruz.

- Pertsona horienganako arretaren zenbait alderdi hobetu beharra.
- Lehenago lortutako eskubideak murriztea.
- Bestelako laguntzak lortzeko arazoak.
- Desadostasuna prezio publikoaren kalkularekin.
- Beste alderdi batzuei buruzko salaketak.

Aurkeztutako kexa batzuek Arartekoaren gomendioak ekarri dituzte. Horren guztiaren berri eman dugu azterlan honetako [bosgarren atalean](#).

Bukatzeko, adierazi behar da txosten honetan zerbitzu eta prestazioei buruz egindako azterketak, batez ere AMALen berariaz jasotakoei heltzen diela. Hala ere, ezin dugu ahaztu euskal herri administrazioek beste zerbitzu asko eskaini dituztela eta, zalantza barik, haiek ere funtsezkoak direla norberaren autonomia sustatzeko eta mendetasuneko egoerari arreta emateko. Besteak beste, honako zerbitzuei buruz ari gara: orientabidea eta balorazioa, ostatua, okupazio-zentroak, enpleguko zentro bereziak, lagundutako enplegua sustatzeko laguntzak, aisia eta astialdiko programak, atsedenerakoak, etab.

**NORBERAREN AUTONOMIA SUSTATZEA ETA
MENDEBASUNEN EGOERARI ARRETA EMATEA:
ESPARRU JURIDIKOA. EUSKAL HERRI ADMINISTRAZIOEK
EGINDAKO LEGE GARAPENA.
HAREN APLIKAZIO PRAKTIKOARI BURUZKO ZENBAIT ALDERDI**

2.1. Sarrera

Norberaren Autonomia Sustatzeko eta Mendetasun egoerako Pertsonen Laguntza Emateko [abenduaren 14ko 39/2006 Legeak](#) (AMAL), prozesu luze baten emaitza da, eta hartan honakoek berebiziko garrantzia izan zuten:

- Gizarte babes sistema hobetzeko eta garatzeko hitzarmena (Gobernuak, CEOE/CEPYMEk eta CCOOek 2001eko apirilaren 9an sinatua); bertan, beharrezkotzat jo zen mendetasunarentzako arreta bermatzeko moduari buruzko azterketa eta gizarte eztabaidarako epea zabaltzea⁷;
- 2003ko urrian Toledoko Itunaren gomendioak berritzea; orduan, sistema integratua eratzea proposatu zen, mendetasunari orokortasunez heltzeko, eskumen banaketa aintzat hartuz, gizarteak eta herri administrazioak maila guztietan parte hartuz, babes sistema horrek bete behar lukeen eginkizuna definituz;
- 2004ko abenduan Espainiako mendetasun egoeran dauden pertsonenganako arretari buruzko [Liburu Zuria](#)⁸ argitaratu izana. Bertan, zenbait alderdi aztertu ziren, hala nola oinarri demografikoak, araubide juridikoa, laguntza informala, gizarte eta osasun baliabideak eta baliabide soziosanitarioak, mendetasunari ematen zitzaizkion aurrekontuak eta baliabide ekonomikoak, mendetasuna baloratzeko eta sailkatzeko irizpideak eta teknikak, sortutako enpleguaren eta Mendetasunarentzako Arreta Sistema Nazionala ezartzeak eragindako ekonomia eta gizarte itzulkinen estimazioa, eta Europar Batasuneko eta ELGAko zenbait herritan indarrean dauden mendetasunarentzako arreta ereduen azterketa. Halaber, mendetasunari arreta ema-

⁷ MONTOYA MELGAR, Alfredo et al. La protección de las personas dependientes: comentario a la Ley 39/2006, de promoción de la autonomía personal y atención a las personas en situación de dependencia. Zizur Txiki: Civitas, 2007.

⁸ *Atención a las personas en situación de dependencia en España. Libro blanco*. Madril: Lan eta Gizarte Gailetako Ministerioa, Gizarte Zerbitzuen, Familien eta Minusbaliotasunaren Estatu Idazkaritza. Adinekoentzako eta Gizarte Zerbitzuetako Institutua (IMSERSO), 2005.

teko etorkizuneko sistema integralak aurre egin beharko ziekeen erronka nagusiak adierazi ziren⁹;

- 2005eko abenduan, Gobernuak eta gizarte eragileek Mendetasuneko egoerentzako arreta babesteko ekintzari buruzko hitzarmena sinatu izana; bertan, honako helburua ezarri zen: *“oinarrizko araua izango den lege baten bidez Mendetasunaren Sistema Nazionala bultzatzea”*.

Prozesu hori Nazio Batuek, batez ere Zahartzeari buruzko Bigarren Mundu Batzarrean, ezarritako ildoek eta, Europar Batasunaren testuinguruan, Lisboan diseinatutako estrategiak bultzatu dute¹⁰.

Azkenik, AMAL 2006ko abenduaren 15ean argitaratu eta 2007ko urtarrilaren 1ean sartu zen indarrean. Legearen xedea, Zioen Azalpenean dioenez, honakoa da: *“lege honen helburu nagusia, ahultasun handiko egoeran egoteagatik, eguneroko bizitzako funtsezko jarduerak burutzeko, norberaren autonomia handiagoa lortzeko eta euren herritar eskubideak osorik erabili ahal izateko laguntzak behar dituzten pertsonen premiei erantzutea da”*.

Talde berezi hori babestu beharraren funtsik sakonena norbanakoaren duintasunean datza –[Espainiako Konstituzioko](#) (EK) 10. artikulua– eta honakoetatik dator:

- konstituzio ordenamenduaren balio gorenetakoa bat, hots, berdintasuna, artikulatze-tik (EK-ko 1.1 artikulua);
- hari lotuta dagoen norberaren izaera zehatzagatik baztertuta ez izateko funtsezko eskubidetik (EK-ko 14.1 artikulua);
- botere publikoek duten betebeharretik, alegia: *“baldintzak bultzatzea pertsonaren edo horiek osatzen dituzten taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eraginkorak izan daitezten, bai eta eskubide horien gauzapeña zailtzen dituzten oztopoak kentzea eta hiritarren politika, ekonomia, kultura eta gizarte mailako partaidetza erraztea ere”* (EK-ko 9.2 artikulua);
- EK-ko I. Tituluko III. Kapituluko gizarte oinarrietatik (batez ere 39.1, 49 eta 50. artikulua); bertan, gizarte Estatuaren gizarte politika azaltzen da (EK-ko 1.1 artikulua), gizarte aurrerapenaren, (EK-ko 40.2 artikulua), bizi kalitatearen eta talde elkartasunaren (EK-ko 45.2 eta 139.1 artikulua) alde.

Hortik dator botere publikoek bere herritarrek zaintzeko konpromisoa hartzeko premia, familiak edo merkatuaren eskaintzak ematen dituzten laguntzetatik harago, haiek, jatorrizko edo gertatzeko mendetasun batek eraginda, premia egoeran daudenean¹¹.

⁹ CAVAS MARTÍNEZ, Faustino eta SEMPERE NAVARRO, Antonio V. Ley de dependencia: estudio de la Ley 39/2006, de 14 diciembre, sobre promoción de la autonomía personal y atención a las personas en situación de dependencia. Zizur Txiki: Aranzadi, 2007.

¹⁰ Batzordeak osasun laguntzaren eta adineko pertsonenganako arretaren esparruan epe luzerako hiru helburu lortzea proposatu zuen: irisgarritasuna, kalitatea eta jasangarritasuna (BAVIERA PUIG; 2008).

¹¹ LAFUENTE BENACHES, María Mercedes. El reconocimiento de la situación de dependencia por silencio administrativo. *Revista general de derecho administrativo* 24, 2010.

Espainiar Estatuak bere egiten du gai hori arautzeko lana, 149.1.1 artikulua bere babespean, zeinek xedatzen baitu Estatuak eskumen eskusiboa daukala "*español guztiek eskubideak erabiltzeko eta konstituzio betebeharrak betetzeko berdintasuna izatea bermatzen duten oinarrizko baldintzak arautze[ko]*". Hori dela-eta, ez da gaiari buruzko ordenazio osoa eta bukatua¹²; hura osatzeko autonomia erkidegoek arautu beharko dute, gizarte laguntzari dagokionez, haiek bere egin dituzten eskumenen arabera (EK-ko 148.1.20). EAEk, hain zuzen ere, eskumen eskusiboa dauka gizarte laguntzari dagokionez, [Autonomia Estatutuko](#) 10.12 artikulua arabera. Foru Aldundiek, hurrengo ataletan azaldu eta aztertuko dugunez, AMALen arauzko garapena egin dute euren lurralde historikoetan aplikazio zehatza izan dezan.

AMALek eratuako sistema ez da Gizarte Segurantzaren esparruaren baitan geratzen, gizarte zerbitzu eta gizarte laguntzarenean baizik, Estatu Kontseiluaren martxoaren 23ko 333/2006 Irizpenak adierazi legez.

Araudi hori inspiratu duten printzipioen artean, besteak beste, honakoak daude:

- Mendetasunarentzako arreta prestazioen unibertsaltasuna.
- Prestazio horiek eskuratzeko berdintasuna eta bereizkeriarik eza.
- Prestazio horien izaera publikoa, zein ere diren zerbitzuen kudeaketa zehatzak hartzen dituen formak¹³.

Zioen Azalpen luze baten ondoren, honakoek osatzen dute AMAL:

- Atariko Titulua, non xedapen orokorreari hiltzen baitzaie.
- I. Titulua, zeinak bost atal baitaizka (sistemaren eraketa; Autonomia eta Mendetasunarentzako Arreta Sistemaren prestazioak eta zerbitzuen katalogoa; mendetasuna eta haren balorazioa; eskubidearen onarpena; eta sistemaren finantzaketa eta onuradunaren ekarpena).
- II. Titulua, hura ere bost atalek osatua (sistemaren kalitatea bermatzeko neurriak, mendetasunari buruzko prestakuntza, informazio sistema, iruzurraren aurkako jarduketa, eta AMASen kontsulta organoak).
- III. Titulua, arau hausteei eta zigorrei buruzkoa.
- Hamasei xedapen gehigarri, zeinetan AMALen eraketak estatuko araudian eragin dako aldaketak ezarri baitira.
- Xedapen iragankor bi.
- Bederatzi azken xedapen.

¹² MONTOYA MELGAR, Alfredo et al. La protección de las personas dependientes: comentario a la Ley 39/2006, de promoción de la autonomía personal y atención a las personas en situación de dependencia. Zizur Txiki: Civitas, 2007.

¹³ CALVO SAN JOSÉ, María José. Respuestas desde la Ley 39/2006 (RCL 2006, 2226) a las personas en situación de dependencia. *Sentencias de TSJ y otros tribunales* [Ierloan], núm. 12 (2007). 2007/1352. Westlaw.es webgunean eskuragarri.

2.2. Norberaren autonomiaren sustapenerako eta mendetasuneko egoeran dauden pertsonenganako arretarako eskubidea

AMALek norberaren autonomiaren sustapenerako eta mendetasuneko egoeran dauden pertsonenganako arretarako eskubidea herritarren eskubide subjektibo berri bihurtu du (1. artikulua).

4.1 artikuluaen arabera, “mendetasuneko egoeran dauden pertsonak, bizi diren espainiar Estatuko lurraldeko toki gorabehera, eskubidea izango dute, berdintasunez, Lege honetan aurreikusitako prestazioak eta zerbitzuak eskuratzeko, bertan xedatutakoaren arabera”.

Eskubidea erabili ahal izateko, lehenago prozedura bat behar da, mendetasuneko egoera eta sistemaren prestazioetarako eskubidea onartzen diren ebazteko.

Ekintza babeslea Banakako Arreta Programa (BAP) batean zehaztuko da. Bertan, pertsonaren eta haren familia eta gizarte ingurunearen egoera zehatza baloratu ez ezik, pertsona horren eta, hala balegokio, haren familiaren edo ordezkatzan duten zaintza erakundearen parte hartzearekin, hari arreta emateko egokiak diren prestazioak ezarriko dira.

Zalantzarik gabe, funtsezko aldaketa baten aurrean gaude, herritar gehienek zerbitzuak eskuratzeko aurrekontu erabilgarriari (eta, azken batean, administrazioaren erabakiari) lotuta dagoen sistematik, sarbiderako eskubidea aitortu eta administrazio eskudunei zerbitzuak emateko betebeharra ezartzen dien beste batera igarotzea baitakar¹⁴.

AMALek mendetasuneko egoeran dagoen pertsonak dauzkan zenbait eskubide jasotzen ditu, duintasun eta berdintasun printzipiotik eratorritakoez gain:

- Erabaki askerako eskubidea.
- Administrazioari erreklamatzeko eta ekintza judizialerako eskubidea.
- Informaziorako eskubidea.
- Isilpekotasunerako eskubidea.
- Parte hartzeko eskubidea.

¹⁴ ARARTEKOA, [Euskal Autonomia Erkidegoko oinarritzko gizarte zerbitzuen egoera](#). Gasteiz: ARARTEKOA, 2010.

2.3. Norberaren autonomiaren sustapenerako eta mendetasuneko egoeran dauden pertsonenganako arretarako eskubidearen titulartasuna. EAEn izandako aplikazioari buruzko erreferentziak

Eskubide horren titulartasuna legean xedatutako betekizunak betetzeagatik mendekotzat jo direnei dagokie¹⁵. AMALeko 5. artikulua eskubidearen titularra izateko bete beharreko betekizunak xedatzen ditu, funtsean bi:

1. Ezarritako mailaren batean mendetasuneko egoeran egotea.

Mendetasunagatiko babeserako eskubidearen titularra, edonola ere, era iraunkorrean haren eraginpean dagoena da, hots, adinetik, gaizotasunetik edo ezgaitasunetik datozen arrazoiengatik, gorputz, adimen edo zentzumen autonomiaren gabezia edo galerari lotuta, beste pertsona baten edo batzuen arreta edo eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak egiteko laguntza handiak edo, adimen ezgaitasuna edo gaitz mentala duten pertsonen dagokienez, norberaren autonomiarako bestelako laguntzak behar dituen (AMALeko 2.2 artikulua).

Mendetasuneko egoera horren onarpena [apirilaren 20ko 504/2007 Errege Dekretuaren](#) bidez onartutako balorazio baremoa aplikatu ondoren lortzen da¹⁶.

2. Espainiar lurraldean bizitzea eta bost urtez bizi izana; haietatik bik eskabidea aurkezteko egunaren aurre-aurrekoak izan behar dute. Bost urtez azpiko adingabekoentzat bizitzeko epea haren zaintza egiten duenari eskatuko zaio.

AMALek "espainiar" hitza aipatu arren, ulertu behar da haien parean geratzen direla Europar Batasuneko Estatu kideetako nazionalak, [Europako Erkidegoko Itunaren](#)¹⁷ Europar Erkidegoko Estatu kideetako eta Europar Esparru Ekonomikoari buruzko Ituna osatzen duten beste Estatuetakoa herritarrak Espainian sartu, aske ibili eta bizitzeari buruzko otsailaren 16ko 240/2007 Errege Dekretuaren arabera, Estatu kideetako herritarrak izanda, langileak askatasunez ibiltzeari dagokionez araubide iragankorra dagokienak izan ezik¹⁸.

Erkidegotik kanpoko atzeritarrei dagokienez, AMALek Espainian atzeritarren dituzten eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko [urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege](#)

¹⁵ LAFUENTE BENACHES, María Mercedes. El reconocimiento de la situación de dependencia por silencio administrativo. *Revista general de derecho administrativo* 24, 2010.

¹⁶ Txosten hau itxi ondoren, Norberaren Autonomia Sustatu eta mendetasuneko egoeran dauden pertsonen arreta emateko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak xedatutako mendetasuneko egoera baloratzeko baremoa onartzen duen [otsailaren 11ko 174/2011 Errege Dekretua](#) onartu da, baina ez da indarrean sartuko 2012ko otsailaren 18a arte.

¹⁷ CHARRO BAENA, Pilar, *Comentario sistemático de la Ley de la dependencia: Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de promoción de la autonomía personal y atención a las personas en situación de dependencia y normas autonómicas*. Zizur Txiki: Aranzadi, 2008. Aranzadi bilduma monografikoak. Lan-zuzenbidea.

¹⁸ ROQUETA BUJ, Remedios et al. La protección de la dependencia: comentarios a la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de promoción de la autonomía personal y atención a las personas en situación de dependencia. Valentzia: Tirant lo Blanch, 2007. Erreformak.

Organikoan (ELO), nazioarteko itunetan eta jatorrizko herriarekin ezarritako hitzarmenetan xedatutakora bidaltzen gaitu. Bidalketa horrek zailtasun bat dakar, Lege Organiko horrek ez baitu pertsona horiek eragiten dieten mendetasuneko egoeretan babestuak izateko duten eskubidea berariaz aipatzen; aitzitik, gutxi gorabehera hurbilak diren eskubideak, hala nola lanerako, Gizarte Segurantzarako, osasun laguntzarako edo gizarte zerbitzuetarako eskubideak aipatzen ditu han edo hemen. Eskubide horiek aitortzeko, eskatutako administrazio egoera ez da beti berbera¹⁹.

Hala ere, ELOk administrazio egoera erregularrean dauden pertsonen oinarritzko eta berariazko gizarte zerbitzu eta prestazioetarako eskubidea onartzen dienez gero, argia ematen du mendetasuna babesteko zerbitzu eta prestazioak ere eskuratu ahalko dituztela.

Administrazio egoera irregularrean dauden pertsonen dagokienez, ELOk oinarritzko gizarte zerbitzu eta prestazioetarako eskubidea baino ez die onartzen eta, beraz, erabaki beharko da mendetasunek prestazioak oinarritzkoak direnentz. AMASeko zerbitzu eta prestazioak pixkanaka gizarte zerbitzuekiko autonomiaz antolatzen badira, ez da erraza izango oinarritzko edo berariazko kategorietara birbideratzea, AMALek ez baititu batzuen eta besteen artean bereizten²⁰.

Euskal Autonomia Erkidegoko esparruan, Gizarte Zerbitzuen **abenduaren 5eko 12/2008 Legeak** xedatzen duenez, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzu eta prestazioetarako titularrak dira Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan errolatuta egon eta legezko eta benetako bizilekua duten pertsonak, eta sistema horretan sartzeko eskabidearen aurre-aurreko 12 hilabeteetan jarraian Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko edozein udaletan errolatuta egon eta benetan bizi izana frogatzen dutenak, haien administrazio egoera erregularra ez bada ere.

Foru aldundiek AMALi emandako lege garapenak ere ez du kontua argitu. Haiek mendetasuneko egoera onartzeko prozedura arautzeko onartutako araudiak eta prestazio ekonomiko berriei buruzkoak, orokorrean, AMALek ezarritako ELOra jotzeko adierazpena jasotzen dute.

Bizkaian, mendetasuneko egoera onartzeko prozedura arautzen duen abenduaren 1eko 162/2009 Foru Dekretuko 4. artikulua, bidalketa hori hitzez hitz jasotzeaz gain, xedatzen du bizilekuak legezkoa izan beharko duela. Eskakizun horri dagokionez, praktika, bat datoz Gipuzkoa eta Arabako aldundiak ere.

¹⁹ CAVAS MARTÍNEZ, Faustino eta SEMPERE NAVARRO, Antonio V. Ley de dependencia: estudio de la Ley 39/2006, de 14 diciembre, sobre promoción de la autonomía personal y atención a las personas en situación de dependencia. Zizur Txiki: Aranzadi, 2007.

²⁰ ROQUETA BUJ, Remedios et al. La protección de la dependencia: comentarios a la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de promoción de la autonomía personal y atención a las personas en situación de dependencia. Valentzia: Tirant lo Blanch, 2007. Erreformak.

Zentzu berean, Arabako eta Bizkaiko Foru Aldundiek, prestazio ekonomikoei buruzko araudietan, zehazten dute laguntza horiek eskuratu nahi dituenari eskatutako bizilekuak legezkoa izan beharko duela.

Espainiar nazionaltasunik ez duten adingabekoei dagokienez, AMALek manuak, bai Estatu bai autonomia esparruan, indarrean dauden Adingabearen Legeetara eta nazioarteko itunetara bidaltzen gaitu.

Nazio Batuen haurren eskubideei buruzko 1989ko hitzarmenak, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko **urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoak** eta Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko **Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 3/2005 Legeak** jatorriagatik baztertzeko debekua xedatzen dute. Gainera, hiru testuetan adierazten da adingabeari eragiten dioten erabaki guztiak haren interes gorenaren printzipioan oinarritu beharko direla, eta eskubide hura nagusitu beharko zaio harekin batera egon litekeen zilegizko beste edozein interes.

Bestalde, aipatu Lege Organikoak, Espainian dauden atzerritar adingabeei –zein ere den haien legezko egoera, eta arrisku egoeran edo Administrazioaren zaintzapean badaude–, hezkuntza, osasun laguntza eta gainerako zerbitzu publikoetarako eskubidea aitortzen die; adierazpen zabal horrek erraz biltzen du mendetasuneko egoeraren aurreko babesa²¹.

Horiengatik guztiengatik ondorioztatzen dugu Espainian bizi eta mendetasuneko egoeran dagoen atzerritar adingabeak mendetasuneko egoera onartzeko eta onarpen horretatik eratorritako prestazioak eta zerbitzuak eskuratzeko eska dezakeela.

Premisa hori gauzatzeko, maiz, gainditzeko zailak diren oztopoak agertzen dira. Adibidez, familia inguruneke zaintzarako prestazio ekonomikoa jasotzeko derrigorrezkoa da zaintzailea –kasu ia guztietan atzerritarra izango dena– Gizarte Segurantzian dagokion araubidean afiliatuta egotea, eta horretarako, lehenago, lan egiteko administrazio baimena behar da.

Bestalde, haurrari, edo bestela haren zaintza duenari, legezko bost urteko bizilekua frogatzeko eskatzeak, arriskuan jar lezake Hitzarmeneko bigarren artikulua, Lege Organikoko lehenengoak eta Eusko Legebiltzarraren Legeko bosgarrenak sustatutako berdintasun printzipioa.

AMALek berariazko xedapena dauka mendetasuneko egoeran frogatutako 3 urtez azpiko guztientzat (atzerritarrek zein ez): hezkuntza eta osasun arloetan ezarritako zerbitzuak kalte gabe, Autonomiarako eta Mendetasunari Arreta emateko Sistemak “*etxean bertako laguntza premiei eta erantzungo die eta, hala balegokio, haiei lotutako eta familia ingurunean zaintzeko prestazio ekonomikoak [emango ditu]*” (hirugarren xedapen gehigarria).

²¹ MONTOYA MELGAR, Alfredo et al. La protección de las personas dependientes: comentario a la Ley 39/2006, de promoción de la autonomía personal y atención a las personas en situación de dependencia. Zizur Txiki: Civitas, 2007.

Aurreproiektuan 3 urtez azpiko haurrak legearen aplikazio eremutik kanpo geratu ziren, batez ere hiru urtez azpiko orok daukan autonomiarik ezagatik eta aldi berean mendetasuneko egoera hori iraunkorra ez izateagatik.

Mendekotasuneko errealitateak ukitzen dituen kolektiboek eta zenbait txostenek (Ekonomia eta Gizarte Batzordearen Irizpeneko boto partikularrak eta Estatu Kontseiluaren irizpenak) argi erakutsi zuten ez zeudela ados neurri horrekin.

Haiek ere sartzea gomendatzen zuen argudio nagusia honakoa zen: gaizotasun, istripu edo ezgaitasunagatik edo goiztiarrak izateagatik, adingabe batzuek adin horri dagozkion gaitasunak ez edukitzeak eragindako zaintza eta arreta bereziak behar zituzten²².

Ikusi dugunez, azkenean haiek sartzea erabaki zen, baina hamahirugarren xedapen gehigarrian adierazitako babes bereziko araubidean.

Azkenik, AMALeko 5. artikulua aukera ematen du Gobernuak Espainian bizi ez diren espainolen aldeko babes neurriak ezartzeko eta, Autonomiarako eta Mendetasunari Arreta emateko Sistemaren Lurralde Kontseiluak onartu ondoren, Mendetasunarentzako Arreta Sistemari itzulitako espainiar emigranteak sartzeko baldintzak ezartzeko. Txostena ixteko datan ez du horri buruzko erabakirik hartu.

2.4. Autonomia eta mendetasuna kontzeptuak

AMALek honela definitzen du autonomia: *"norberaren ekimenez, norberaren arau eta nahien arabera bizitzeko moduari buruzko erabaki pertsonalak kontrolatzeko, aurre egiteko eta hartzeko, eta eguneroko bizimoduko oinarritzko jarduerak garatzeko gaitasuna"* (2.1 artikulua).

AMALeko 2.2 artikulua honela definitzen du mendetasuna: *"adinetik, gaizotasunetik edo ezgaitasunetik datozen arrazoiengatik, gorputz, adimen edo zentzumen autonomiaren ga-bezia edo galerari lotuta, beste pertsona baten edo batzuen arreta edo eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak egiteko laguntza handiak edo, adimen ezgaitasuna edo gaitz mentala duten pertsonak dauden egoerei dagokienez, norberaren autonomiarako bestelako laguntzak behar dituena"*; eta Europako Ministro Kontseiluaren Batzordearen [1998ko irailaren 18ko 98. gomendioan](#) jasotakoaren antzekoa da.

²² SEMPERE NAVARRO, Antonio V. et al. Comentario sistemático de la Ley de la dependencia: Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de promoción de la autonomía personal y atención a las personas en situación de dependencia y normas autonómicas. Zizur Txiki: Aranzadi, 2008. Aranzadi bilduma monografikoak. Lan-zuzenbidea.

2.5. Autonomiarako eta Menpekotasunari Arreta emateko Sistema (AMAS)

Legeak herri administrazio guztiek parte hartzen duten babes sistema berria sortu du. Haren xedea Legeak aipatzen dituen oinarritzko baldintzak bermatzea eta babes mailak ematea da. “*zentroak eta zerbitzuak, publikoak eta pribatuak biltzen dituen erabilera publikoko sare*” bat da (6. artikulua). Zentro eta zerbitzu horiek zenbait titulartasun mota dauzkate.

AMAS zabaldu eta garatzeko erabilitako tresna juridikoa autonomia erkidego bakoitzarekin dagokion hitzarmena lortzea da. EAEk berezitasun bat dauka zentzu horretan, [2.7. atalean](#) azaldu dugun zentzuan.

AMASen Lurralde Kontseilua Estatuaren Administrazio Nagusiaren eta autonomia erkidegoen arteko lankidetzaren tresna izateko sortu da, sistema egituratzeko (8.1 artikulua). Haren eginkizunen artean, besteak beste, honakoak daude: erakundeen arteko lankidetzaren esparrua, katalogoko zerbitzuen intentsitatea, prestazio ekonomikoen baldintzak eta zenbatekoak, onuradunek zerbitzuen kostuan parte hartzeko irizpideak edo mendetasuneko egoera onartzeko baremoa adostea.

Aurreratu dugunez, mendetasuneko egoeran dauden pertsonak eta, hala balegokio, haien familiek edo ordezkatzak dituzten erakundeek parte hartzea AMAL inspiratu duten printzipioetako bat da (3. artikulua). AMAS ezartzeko duen eginkizun nagusia dela-eta, honako aholku organoak eratu dira:

- AMASen Aholku Batzordea; aholkularitza organo horretan sindikatu eta enpresa erakundeek parte hartzen dute.
- Adinekoen Estatu Batzordea.
- Ezgaitasunaren Nazio Batzordea.
- Gizarte Ekintzako Gobernu kanpoko Erakundearen Estatu Batzordea.

2.6. Legea pixkanaka ezartzea eta prestazioak eskuratzeko eskubidearen eraginkortasuna

AMALen jasotako mendetasun prestazioetarako eskubidearen eraginkortasuna pixkanaka eta mailaka erabiltzea aurreikusten da. Jarraian, grafikoki erakutsiko dugu aurreikusitako egunkaria:

2. koadroa. AMAL ezartzeko 2007-2014 kronograma

	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
III. gradua 2. maila	✓							
III. gradua 1. maila	✓							
II. gradua 2. maila		✓	✓					
II. gradua 1. maila			✓	✓				
I. gradua 2. maila					✓	✓		
I. gradua 1. maila							✓	✓

Hortaz, 2007an AMASen kasurik larrienak, mendetasun handiko egoeran zeuden pertsonak (III. gradua, 1 eta 2. mailak) sartu ziren; 2008an, mailarik larrienerako mendetasun latza zuten pertsonak (II. gradua 2. maila); 2009an eta 2010ean larritasun mailarik baxueneko mendetasun latza duten pertsonak bihurtu dira onuradun (II. gradua 1. maila).

Defizit publikoa murrizteko neurri bereziak hartzeko [maiatzaren 20ko 8/2010 Legeak](#) AMALek prestazioak eskuratzeko eskubidearen eraginkortasunari buruz ezarritako irizpideak aldatu ditu. 5. artikulua mendetasunagatiko prestazioen ordainketaren eragina, azken xedapenetan leheneko bigarren idatz-zatiak xedatzen zuenez, eskabidea aurkezteko egunera atzeratzea ezabatu du. Ebazteko gehienez sei hileko epea ezarri du, eta hura ez bete teza ekarriko du eragina bete ez den egunera atzeratzea.

Horrela, prestazioak eskuratzeko eskubidea onuradunak jaso beharreko prestazio zehatza onartzean den ebazpenetik sortuko da, edo adierazitako gehienezko sei hileko epea bete ondorengo egunera, hari jasotzea dagokion prestazioaren onarpenari buruzko berriazko ebazpenik jakinarazi ez bada.

Mendetasuneko egoera onartzea Errege Dekretu-Legea indarrean sartu aurretik (2010eko maiatzaren 25a) eskatu dutenei, III. gradua edo II. gradua onartzen bazaie, "AMALeko Azken xedapenetan lehena aplikatuko zaie, eskabidea aurkezteko unean indarrean dagoen idazketan" (Errege Dekretu-Legeko hirugarren xedapen iragankorra).

Babes maila gehigarriari dagokionez, Arabako Foru Aldundiak ezarri du, aukera gisa, oinarritzko edo Estatuko Administrazio Nagusiarekin adostutako mailako eskubidea eraginkorra izan arteko epe iragankorrean, " *Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak, AMALeko 14.6 artikuluan xedatutako lehentasun irizpide berberak erabiliz, zerbitzu eta prestazio batzuk esleitu ahalko [dituela]²³ ".*

Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiak adierazi digu AMAL pixkanaka ezartzeko egutegia familia inguruneke zaintzarako eta zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoekin baino ez dela aplikatu²⁴. Zerbitzuei dagokienez, mendetasuneko egoeran dauden pertsona guztiei eman nahi izan zaie arreta, zein ere den haien gradua, eta legeak ezarritako kronogramak itxarote-zerrenda antolatzeke irizpide baino ez du balio.

Bizkaiari dagokionez, jakinarazi digutenez, prestazio ekonomikoetarako eskubidea AMALek ezarritako egutegiaren arabera arautu da. Hala ere, zerbitzuei dagokienez, lurralde horretan erabilitako edozein balorazio tresnaren bidez mendetasuneko egoeran baloratutako pertsonen AMAL ezarri aurretik eskaintzen ziren zerbitzuetarako eskubidea onartu zaie.

²³ Apirilaren 24ko 39/2007 Foru Dekretua, lehenengo xedapen iragankorra, 2. puntua:

- II. gradua 2. eta 1. mailak:
 - Aldi baterako egoitza arreta.
 - Eguneko zentroa
 - Eguneko arreta egoitza zentroan.
 - Okupazio-zentroa.
 - Zerbitzu bati lotutako prestazio ekonomikoa.
 - Familia ingurunean zaintzeko eta zaintzaile ez profesionalei laguntzeko prestazio ekonomikoa.
 - Etxez etxeko laguntza zerbitzua.
 - Telelaguntza zerbitzua.
 - Norberaren autonomiaren sustatu eta prebenitzeko zerbitzua.
- I. gradua 2. eta 1. mailak:
 - Aldi baterako egoitza arreta.
 - Etxebizitza komunitarioa.
 - Eguneko arretako landa zentroa.
 - Okupazio-zentroa.
 - Familia ingurunean zaintzeko eta zaintzaile ez profesionalei laguntzeko prestazio ekonomikoa.
 - Etxez etxeko laguntza zerbitzua.
 - Telelaguntza zerbitzua.
 - Norberaren autonomiaren sustatu eta prebenitzeko zerbitzua.

²⁴ Gogoratu behar da AMALen jasotako hirugarren prestazio ekonomikoa, laguntza pertsonalerako prestazioa, III. graduan baloratutako pertsonentzat baino ez dagoela zuzenduta, eta haien eskubideak guztiz eraginkorrak direla AMAL indarrean sartu zenetik.

2.7. AMASen babes mailak eta haren finantzazioa. EAEen aplikatzeko irizpideak

AMAS hiru mailen arabera ematen du bere babesa (7. artikulua):

- Gutxieneko babes maila; Estatuko Administrazio Nagusiak definitzen du eta haren finantzazioa bermatzen du, AMALek Estatuko herritar guztiei gutxieneko babes homogeneoa bermatzeko duen helburuarekin bat eginez.
- Bigarren babes maila, Estatuko Administrazio Nagusiak eta autonomia erkidego bakoitzak Legean jasotako gainontzeko prestazio eta zerbitzuak garatzeko eta aplikatzeko sina ditzaketen hitzarmenetatik eratorrita. Autonomia erkidego bakoitzak konpromisoa dauka, gutxienez, gutxieneko berme mailatik eratorritako Estatuaren ekarpenen eta Estatuko Administrazio Nagusiak ordaintzera konprometitzen den bigarren mailakoen batuketaren pareko zenbatekoa jartzeko²⁵.
- Autonomia erkidegoek, euren ekimenez, herritarrak babesteko hirugarren maila gehigarri bat garatu ahalko dute, euren kargura.

Ikusten denez, finantzazioa administrazio zentral eta autonomikoen erantzunkidetasunaren bidez bermatuko da.

AMASen Lurralde Batzordeak, 2007ko maiatzaren 9ko bileran, erakundeen arteko lankidetzara esparrua eta Estatuko Administrazio Nagusiak, AMALen aurreikusi legez, adostutako maila finantzatzeko dauzkan kredituak banatzeko irizpideak erabaki zituen. Ministro Kontseiluak urte bereko maiatzaren 18an onartu zuen hitzarmena.

Lehen hitzarmen horrek, autonomia erkidegoen arabera, guztira kalkulaturako mendeko pertsonak eta III. graduari dagozkionak jasotzen ditu, adin tarteen arabera banatuta. Zentzu horretan, EAERI dagokionez, eta haren biztanleria kontuan izanda (2.133.684 biztanle), kalkulatu da 54.544 mendeko pertsona daudela eta haietatik 9.516 lirakeela III. gradukoak; haietatik, 2.054 65 eta 79 urte artekoak lirakeke eta 6.041 80 urtez gorakoak. Datu horien arabera, banatzeko irizpide batzuei jarraituz –zeinek, besteak beste, mendeko biztanleriaren bolumena, banaketa geografikoa, irlakotasuna, per capita errenta, batez besteko erretiro pentsioa, itzulitako emigranteen azalera edo kopurua jasotzen baitituzte–, Estatuak EAERentzat 8.853.321 euro finantzatzeko konpromisoa daukala ezarri da.

AMALeko bigarren xedapen gehigarriaren arabera, EAEren kasuan, Estatuko Administrazio Nagusiari bere gastu aurrekontuaren kargura finantzatzea dagokion Sistemaren zerbitzu eta prestazioen finantzazioa kontuan hartuko da kupoa kalkulatzeko, Kontzertu Ekonomikoaren arabera.

²⁵ CAVAS MARTÍNEZ, Faustino eta SEMPERE NAVARRO, Antonio V. Ley de dependencia: estudio de la Ley 39/2006, de 14 diciembre, sobre promoción de la autonomía personal y atención a las personas en situación de dependencia. Zizur Txiki: Aranzadi, 2007.

Hortaz, erakundeen arteko lankidetza esparrua eta Estatuko Administrazio Nagusiaren 2008 (Ministro Kontseiluaren 2008ko abuztuaren 1eko Erabakia), 2009ko (Ministro Kontseiluaren 2009ko maiatzaren 8ko Erabakia) eta 2010-2013ko (Ministro Kontseiluaren 2010eko uztailaren 9ko Erabakia) finantzaziorako kredituen banaketa irizpideak onartu dituzten erabakiek ez dute EAE bere baitan hartzen (ezta Nafarroako Foru Erkidegoa ere). Arrazoia, erabakietan adierazi legez, honakoa da: *“autonomia erkidego horietan hitzartutako maila Kontzertu Ekonomikoaren Batzorde Mistoaren hitzarmenetan erabakiko da Euskadin eta Itun Ekonomikoaren Koordinazio Batzordean Nafarroan, 39/2006 Legeko bigarren xedapen gehigarriaren arabera”*.

Bestalde, espainiar gobernuak, 2006ko abenduaren 29an, EAERI 8.702.000ko zuzeneko diru-laguntza ematea erabaki zuen, 1633/2006 Errege Dekretuaren bidez. *“Mendetasuneko egoeran dauden pertsonen aldeko gizarte ekintzako proiektuak”* izen orokorraren pean, diru-laguntzaren berriazko helburua zerbitzuak eta egoitzak zabaltea zen, plazak itunduz, eraikuntza amaituz, zabalduz edo egokituz, edo egiten ari ziren egoitzak berehala funtzionatzen hasteko hornituz.

Azkenik, AMALEk aukera jasotzen du onuradunek mendetasuneko prestazioen finantzaketan parte har dezaten, zerbitzu mota eta kostuaren eta haien gaitasun ekonomikoaren arabera.

2.8. Autonomia erkidegoen parte hartzea. Eskumen banaketa EAEn. Erakundeen arteko koordinazioa

2.8.1. Autonomia erkidegoen parte hartzea

AMALEko 11. artikulua araber, Espainiako Konstituzioaren, Autonomia Estatutuen eta indarreko legediaren arabera dagozkien eskuduntzak kaltetu gabe, honako eginkizunak dagozkie autonomia erkidegoei:

- Euren lurralde esparruan, norberaren autonomia sustatu eta mendetasuneko egoeran dauden pertsoneri arreta emateko zerbitzuak planifikatzea, antolatzea, koordinatzea eta zuzentzea.
- Euren lurralde esparruan, mendetasuna baloratzeko eta arreta emateko behar diren zerbitzuak eta baliabideak kudeatzea.
- Koordinazio soziosanitarioko prozedurak ezartzean, beharrezkoa balitz, arreta eragingorra bermatzeko egokiak diren koordinazio erakundeak sortuz.
- Zentro eta Zerbitzuen Erregistroa sortzea eta eguneratzea, betekizunak eta kalitate estandarrak betetzen direla bermatzeko ziurtagiriak emanez.
- Banakako Arreta Programak egiten direla bermatzea.
- Zentro eta zerbitzuen betekizunak eta kalitate estandarrak ikuskatzea eta bete ezean zigortzea, baita onuradunen eskubideei dagokienez ere.
- Aldian-aldean dagokien lurraldean Sistemaren funtzionamendua ebaluatzea.
- Estatuko Administrazio Nagusiari 32. artikuluan xedatutako finantzazio irizpideak aplikatzeko behar den informazioa ematea.

2.8.2. Eskumen banaketa EAEEn

EAEren administrazio eraketa berezia dela-eta, aztertzen ari garen gaian dagoen eskumen banaketa labur aipatu behar da.

EAEk, Konstituzioko 148.1.20 eta Autonomia Estatutuko 10.12 artikuluen arabera, bereganatuta dauka, esklusiboki, gizarte laguntzari buruzko eskumena. Halaber, erkidegoaren garapenari, berdintasunari, eta haur, gazte eta adinekoei buruzko politikari dagokienez, EAEk eskumen esklusiboa dauka, Estatutuko 10.39 artikuluen arabera.

Eusko Legebiltzarraren Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak AMA-Leko 14. artikulua ezarritako prestazioak aurreikusi eta euskal gizarte zerbitzuen sarea sartzan ditu; bai lehentasunezko zerbitzuak –15. artikuluan zerrendatuak eta 21 eta 25 artikuluen artean zehaztuak–, bai prestazio ekonomikoak²⁶.

Autonomia Erkidegoko Erakunde Komunak eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko harremani buruzko [Eusko Legebiltzarraren azaroaren 25eko 27/1983, Legeak](#)²⁷ azkenei ematen die, euren lurraldearen barruan, erakunde komunak gizarte laguntzari buruzko eta erkidegoaren garapenari, berdintasunari, haur, gazte eta adinekoei buruzko politikari dagokienez erakunde komunak legedia egikaritu beharra, Euskal Herriko erakun-

²⁶ EUSKADIKO AHOLKULARITZA JURIDIKOAREN BATZORDEA. 97/2008 Irizpena, maiatzaren 22koa, *Gizarte Zerbitzuen Lege aurreproiektuko 106/2008 kontsultari buruzkoa* [lerroan]. Gasteiz: Justizia eta Herri Administrazio Saila, 2008. <http://www.jusap.ejgv.euskadi.net/r47-home/eu> webgunean eskuragarri.

²⁷ Autonomia Erkidegoko Erakunde Komunak eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko harremani buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legeak (LHL) eskumen banaketaren barneko esparrua eta Euskal Herri barruko erakunde mailen artean baliabideak finantzatzeko eta banatzeko tresnak ezarri zituen.

Euskal Herriko erakunde publikoen artean banatu beharreko baliabideak Kontzertu Ekonomikoaren kudeaketatik eratorritakoak dira, Estatuari kupo gisa ordaindutako zenbatekoa kendu ondoren.

Baliabide horiek indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren arabera erakunde komunak eta lurralde historikoetako foru erakundeak titular diren eskumenak edota zerbitzuak aintzat hartuz banatuko dira. Erakunde komunak eta foru erakundeen arteko baliabide banaketa horri banaketa bertikala deritzo.

Zerga itunduen [bilketa](#), Kontzertu Ekonomikoaren arabera, foru aldundiei dagokie. Hori dela-eta, Euskadiko Ogasun Nagusiranzko finantza-fluxuak, ekarpenak deritzenak, egon behar dira, foru aldundi bakoitzak Euskadiko aurrekontuko gastuei egindako ekarpen.

Ekarpen hori, oinarrian, lurralde historiko bakoitzeko errentaren proportzio zuzenean erabakiko da, eta lurralde historiko bakoitzaren ahalegin fiskalaren eta autonomia erkidego osoaren batez besteko ahalegin fiskalaren arteko aldearen alderantzizko proportzioa eginez balioetsiko da. Lurraldeen arteko ekarpenen banaketari banaketa horizontala deritzo.

Baliabideak banatzeko eta lurralde historiko bakoitzak Euskadiko Ogasun Nagusiarri egin beharreko ekarpenak kalkulatzeko metodologia gutxienez hiru aurrekontu ekitalditarako onartu behar da.

Martxoaren 23ko 2/2007ko Legeak, baliabideak banatzeko eta foru aldundiek Euskal Herriko Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak kalkulatzeko 2007-2011 aldian aplikatu beharreko metodologia onartu zuen.

Bestalde, finantza fluxuak egongo dira foru aldundietatik tokiko ogasunetara, udalek Kontzertu Ekonomikoaren kudeaketatik datozen baliabideetan parte hartzen dutelako. Lurralde Historiko bakoitzeko banaketa batzar nagusietan onartutako foru arauak arautzen dute. Finantzaketa horrek tokiko zergen kudeaketatik datorrena osatzen du. Tokiko zergen araudia ere lurralde historikoetako batzar nagusiek onartzen dute, Kontzertu Ekonomikoaren arabera (EKONOMIA ETA OGASUN SAILA. *Baliabideen banaketa Euskal Herriko erakundeen artean* [lerroan] Hemen eskuragarri: <http://www.euskadi.net/r33-2220/eu>).

deek gai haietan duten ekintza zuzena kaltetu gabe (7.c 1 eta 2 artikulua). Eskumen exekutibo horietan euren zerbitzuen antolamendua arautzeko ahalmena, ahalmen administratiboan –ikuskapena barne– eta bide administratiboan ikuskatzeko ahalmena sartzen dira.

Gizarte zerbitzuei buruzko eginkizunak ezartzeko [Eusko Jaurlaritzaren uztailaren 30eko 155/2001 Dekretuko](#) 3. artikulua araberara, mendekotzat jotako pertsonenganako arreta eta zaintza foru aldundiei legozkieke, eta haiek bermatu behar lukete talde jakin horren zentroak eta zerbitzuak egotea.

Aipatu [Gizarte Zerbitzuen Lege](#) berriak, III. tituluan, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Sistemaren eskumen, antolamendu, kontsulta eta parte-hartzearen araubidea ezartzen du, eta herri-administrazioek gizarte-zerbitzuen arloan dituzten eskumenak (39 artikulutik 42ra) eta administrazioen arteko lankidetzaren eta koordinazio-organo eta –prozedurak zehazten ditu, hala Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Sistemarako nola gizarte-ongizatea xede duten beste sistema eta politika publiko, kideko edo osagarri batzuekiko harremanetarako.

Laburbilduta, Eusko Jaurlaritzari gizarte zerbitzuei buruzko lege ekimenaren erabilera eta arautzeko ahalmena; EAEen haien plangintza orokorra egitea; bere ekintza zuzenean sartutako prestazioak eta zerbitzuak ematea eta sistemaren koordinazio orokorra esleitzen dizkio, EAE osoan prestazio eta zerbitzuen garapen orekatua bermatzeko xedez; foru aldundiei, ordea, bigarren mailako arretako gizarte zerbitzuak ematea (22.2 artikulua) eta planifikatzea eta zerbitzu horien antolamendua arautzeko ahalmena esleitzen dizkio.

Bilbe horri EAEko udalek gizarte zerbitzuei buruz dituzten eskumenak batu behar zaizkio: oinarrizko gizarte zerbitzuen eta lehen mailako arretako gizarte zerbitzuen kudeaketa, Eusko Jaurlaritzari dagokion telelaguntza zerbitzua izan ezik. Horrela xedatzen dute, 20.000 biztanletik gorako udalei dagokienez, Toki Araubideko Oinarriari buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 25.2 k) eta 26.1 c) artikuluek, gizarte zerbitzuei buruzko eginkizunak ezartzeko Eusko Jaurlaritzaren uztailaren 30eko 155/2001 Dekretuko 4. artikulua eta Gizarte Zerbitzuei buruzko Eusko Legebiltzarren abenduaren 5eko 12/2008 Legeko 42. artikulua.

Aipatu Gizarte Zerbitzuen Legeko 23. artikulua araberara, "*Eusko Jaurlaritzak, gizarte zerbitzuari buruzko eskumena duen sailak proposatuta eta gainerako euskal herri administrazioekin koordinatzeko eskumenak erabiliz, Gizarte Zerbitzuen Erakundearen arteko Organoaren bidez (...), arestiko artikuluan araututako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogotik abiatuta, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzu Zorroa prestatuko du*".

Zorri hori arautzen duen lege garapeneko dekretuak "*–gutxienez– honako alderdiak zehaztu beharko ditu:*

- *Zerbitzuen kasuan:*
 - a) *Zerbitzuaren ezaugarriak: izena eta definizioa, egituratzen dituen prestazio teknikoak zehaztuz.*

- b) Zerbitzu modalitateak, egonez gero.
 - c) Zerbitzuaren helburuak eta zer premiari erantzuten dien.
 - d) Zerbitzua eskuratzeko betekizunak eta prozedura eta, hala balegokio, egituratzen dituen prestazioak, zerbitzuaren hartzaileen ezaugarriak eta, hala dagokionean, prezio publikoa edo tasa ordaintzeko baldintzak barne.
 - e) Zerbitzua eteteko edo amaitzeko zioak eta prozedura.
- Prestazio ekonomikoen kasuan:
- a) Izena eta definizioa.
 - b) Helburuak eta zer premiari erantzuten dieten.
 - c) Zenbatekoa.
 - d) Eskuratzeko betekizunak eta prozedura, eta hartzaileen ezaugarriak.
 - e) Jasotzeko baldintzak: ordainketen maiztasuna edo bestelakoak.
 - f) Prestazioa amaitzeko arrazoiak".

12/2008 Legeko lehen xedapen gehigarriak urtebeteko epea ematen zion Eusko Jurlaritzari, indarrean sartu zen datatik zenbatzen hasita, EAEko Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroaren Dekretua onartzeko. Txosten hau ixteko datan dekretua ez da argitaratu.

Hiru foru aldundiek, aipatzen genuen arautzeko ahalmena erabiliz, zenbait tresna juridiko eman dituzte. Haien bidez, batez ere, mendetasuneko egoera onartzeari eta AMAlek jasotzen dituen prestazio ekonomikoei buruzko kontuak arautu dute.

Zerbitzuei dagokienez, EAEko ezarpenak ibilbide luzea dauka eta ez du arau aldaketa garrantzitsurik eskatu AMAleko manuetara egokitzeko.

2.8.3. Erakundeen arteko koordinazioa

Gure erkidegoak daukan administrazio konplexutasuna ikusita, ezinbestekoa erakundeen arteko benetako koordinazio eraginkorra dagokien administrazioen artean.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeko 44. artikuluan xedatutakoaren arabera, Gizarte Zerbitzuen Erakundeen arteko Organoak euskal gizarte zerbitzuei buruzko erakundeen arteko lankidetzeta eta koordinazioa egituratzen ditu herri administrazioen artean, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren batasuna bermatzeari begira. Erakunde hori Gizarte Zerbitzuen Erakundeen arteko Organoari buruzko [martxoaren 30eko 101/2010 Dekretuaren](#) bidez sortu da.

Arabako Lurralde Historikoan, norberaren autonomia sustatu eta mendekotasuneko egoerari arreta emateari buruzko erakundeen arteko koordinazioa Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 17ko 66/2002 Foru Dekretuaren esparruan kokatzen da. Foru Dekretuak haien lurralde esparruetan oinarritzeko gizarte zerbitzuak emateko 20.000 biztanletik behar duten irizpideak onartu zituen, eta haren I. Eranskinak Diputatuen Kontseiluaren urtarrilaren 12ko 1/2010 Foru Dekretua aldatu zuen.

Dekretu haren arabera, toki erakundeek Gizarte Politika eta Gizarte Zerbitzuetako Sailari lagundu behar diote oinarrizko gizarte zerbitzuak koordinatzeko eginkizunean, unitate horien eta Gizarte Ongizatearen Foru Erakundearen arteko komunikazio egokia ahalbidetu behar dute, zerbitzuen funtzionamenduari buruz eskatutako datu oro eman behar dute, garapen esparrua zonaldean duten foru zerbitzu eta programetan parte hartu behar dute, zerbitzua edo zerbitzuak fisikoki kokatzen diren lokalak eman behar dituzte, eta oinarrizko gizarte zerbitzuaren edo zerbitzuen benetako kostuaren %20 finantzatu behar dute.

Arabako Foru Aldundiak dioenez, udal horietako oinarrizko foru zerbitzuek berehala daukate mendetasuneko foru espedienteen egoerari buruzko informazio guztia, prozedura osoa biltzen duen sistema informatiko bakar batek kudeatzen dituelako; oinarrizko gizarte zerbitzuek Banakako Arreta Programak (BAP) prestatu eta informazioa Foru Aldundiari igortzen diote. Hark, bere aldetik, oinarrizko gizarte zerbitzu horien kostuaren %80 ordaintzeko konpromisoa hartzen du. Sarean antolatutako zerbitzu informatikoez eta aldian aldiko koordinazio bileren bidezko etengabeko jarraipenak koordinazio hori errazten dute.

Bestalde, adierazten digu hitzarmen horietan aipatutako Aldundiaren eginkizunen artean, oinarrizko gizarte zerbitzuari behar bezala funtzionatzeko behar beste argibide, laguntza tekniko eta aholkularitza ematea eta bere langileak Gizarte Politika eta Gizarte Zerbitzuetako Sailaren prestakuntza eta birziklatze planetan sartzea daudela.

Foru erakundeak eranstean du, Gasteizko Udalarari dagokionez, eskumenak erabat bereizita daudela: Aldundiak bere egiten du mendetasuneko arazoak duten pertsonen arreta eta Udalak autonomoak direnena Aldundiak jakinarazi digunez, erabiltzaileen datuak babesteari begira, Udalarari adierazi zaio mendetasun espedienteari buruzko informazioa zuzenean dagokion pertsonari eskatu behar zaiola. Azkeni, ziurtatu digu "*horri dagokionez erakunde bien arteko etengabeko lankidetzeta dago[ela], orain arte, ez [dela] datuak gurutzatzeko mekanismorik ezarri, eta, orokorrean, herritarrek erakunde eskudunera jotzen dute[la], zein den jakinarazitakoan*".

Bizkaiko Foru Aldundiak adierazi digu gizarte zerbitzu espezializatuek Banakako Arreta Programa (BAP) erabiltzailearen edo haren ordezkariaren partaidetzaz eta udal bakoitzeko oinarrizko gizarte zerbitzuen laguntzaz ezartzen dutela, azken haiei dagokielako mendetasunaren balorazio espedientearekin batera doan gizarte txostena prestatzea. Aldundiak aintzat hartzen ditu udal zerbitzu horiek egindako balorazioa, diagnostikoa eta proposamena eta, zalantzarik egonez gero, aholkua eskatzen zaie mendetasuneko egoeran dagoen pertsonaren premientzat egokiena den esku-hartze mota erabakitzeke.

Era berean, Bizkaiko Foru Aldundiak adierazi du, kasu guztietan, eskatzailea errolatuta dagoen udaleko oinarrizko gizarte zerbitzuei mendetasuneko egoera onartzeko ebazpenaren eta egindako BAPen berri ematen zaiela, aurreikusitako zerbitzuak edota prestazioak eza-gutu eta oinarrizko gizarte zerbitzu horrek pertsonari udal eskumenaren esparruan dauden baliabideak eman ahal izateko.

Gipuzkoari dagokionez, Banakako Arreta Programa (BAP) kudeatzeko hautatutako formulak berak ezinbesteko bihurtzen du foru eta udal administrazioen arteko koordinazioa. Foru erakundeak adierazi digunez, *"mendetasuneko egoera onartzeko ebazpen guztietan interesatuak eskubidea duen zerbitzu eta prestazio guztiak (BAP teorikoa) adierazten dira. Bere interesen arabera, egokia deritzona eska dezake, oinarrizko gizarte zerbitzuen laguntzarekin (informazioa eta orientabidea), eta horrek azkenean hautatutako zaintza aukera (BAP erreala) dakar. Bestalde, edozein unetan, bere premien arabera, zaintza aukera hori alda dezake, eta horretarako oinarrizko gizarte zerbitzuetako langileen laguntza izango du, horrela BAP errealarari bizirik iraunaraziz, premiak aldatu ahala. Zentzu horretan, esan behar da Gipuzkoan ez dela hautatu 39/2006 Legeak bultzatzen duen BAPen kontratu ikuspegia; aitzitik, kontzeptu biziagoa hautatu da, eta hura bat dator gure lurraldeko gizarte zerbitzuen funtzionamendu historikoarekin".*

Aldundi horrek jakinarazi digu, koordinazioa errazteko, *"Gipuzkoan Internet bidezko aplikazio informatiko bat dago[era], EXTRANET izanekoa, eta horrek bidea ematen du[ela] sistemako eragile guztiek: Aldundiak, udalek eta zerbitzuen (balorazioa barne) hornitzaileek, sarean eta on-line lan egiteko; eta oinarrizko gizarte zerbitzu guztiek bide horretatik izapidetzen dituztela eskabideak, jarraipena egiteko eta emaitza ezagutzeko darabiltela".*

2.9. Mendetasuneko egoera eta sistemaren prestazioetarako eskubidea onartzeko prozedura. Foru araudi aplikagarria

Prozedurari buruzko oinarrizko irizpideak erabakitzeke lana AMASeko Lurralde Batzordeari esleitu bazaio ere, AMALeko I. tituluko IV. kapituluak gai horri buruzko oinarrizko zenbait kontu jasotzen ditu, jarraian aipatuko dugunez:

- Prozedura eskatua da (mendekotasun mailaren bat izan dezakeen pertsonak edo haren ordezkariak eskatuta hasten da).
- Onartzeko ebazpena eskatzailearen bizilekuari dagokion administrazio autonomikoak ematen du, eta Estatuko lurralde osorako balio du.
- Ebazpenaren gutxieneko edukia: eskatzaileari mendetasun gradu eta mailaren arabera dagozkion zerbitzu eta prestazioak.
- Mendetasun gradua eta maila interesatuak eskatuta edo ofizioz berrazter daitezke, mendetasuneko egoera hobetu edo okertu bada, edo diagnostikoan edo dagokion baremoa aplikatzeko akatsen bat egon bada.
- Mendetasuneko egoeraren balorazioa, zerbitzu eta prestazioen agindua eta prestazio ekonomikoen kudeaketa herri administrazioek egingo dituzte zuzenean, eta ezingo dira erakunde pribatuekin eskuordetu, kontratatu edo itundu.
- Banakako Arreta Plana (BAP) egitea mendetasuneko egoera onartzeko prozeduraren esparruan kokatzen da eta interesatuak eskatuta, ofizioz edo bizilekua beste autonomia erkidego batera aldatzeagatik berraztertu ahalko da.

- Prestazioak amaitu edo aldatuko dira onarpenerako ezarritako edozein betekizun aldatzen denean edo legezko betebeharrak betetzen ez badira.

AMALeko 28.1 artikulua, bestalde, orokorki Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeari (HAAJ eta APEL) lotzen zaio. Ager litezkeen errekurtsoei buruz ebazteko eskumena duen jurisdikzio-ordena administrazioarekiko auziarena da.

Autonomiarako eta Mendetasunarentzako Arretarako Sistemaren Lurralde Batzordeak mendetasuneko egoera onartzeko prozedurarako oinarrizko irizpideei buruzko zenbait erabaki hartu ditu:

- Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Erakundearen 2007ko maiatzaren 23ko Ebazpena, zeinen bidez mendetasuneko egoera baloratzeari buruzko erabakiak ezartzen dituen Autonomiarako eta Mendetasunarentzako Arretarako Sistemaren Lurralde Batzordearen erabakia argitaratzen den.

Erabakiak %65 edo gehiagoko minusbaliotasunen (pasaguneak deritzenak) alde aurretiko onarpenen homologaziorako irizpideak jasotzen ditu, mendetasuneko egoeraren balorazioaren eskumena eskatzailea bizi den administrazio autonomikoari dagokiola xedatu, eta balorazio organoak osatzeko irizpide komunak ezartzen ditu.

Xedatzen duenez, balorazio organoaren irizpen proposamenak –zein interesatua aztertu ondoren eman beharko baita–, edonola ere, mendetasunaren diagnostikoa, egoera, gradua eta maila, eta pertsonak behar litzakeen zaintzak jaso beharko ditu. Azterketa horretan, pertsonak eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak bere buruz egiteko daukan gaitasuna eta adimen urritasuna edo gaitz mentala duten pertsonek haiek egiteko duten laguntza eta ikuskapen premia (komunitatearen baitan norberaren autonomia maila nahikoa betetzeko laguntza premiak barne) baloratzeko ditu. Pertsonaren osasunari eta bizi den inguruneari buruzko txostenen garrantzia azpimarratzen du, eta gizarte txostena funtsezko eta ezinbestekotzat jotzen du BAP prestatzeko.

- Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Erakundearen 2007ko uztailaren 16ko Ebazpena, mendekotasuneko egoera eta AMASen prestazioetarako eskubidea onartzeko jarraitu beharreko prozedurari buruzkoa. Ebazpen horren aplikazioaren lurralde esparrua Ceuta eta Melilla hiriei dagokie.
- Gizarte Politika eta Kontsumoaren Idazkaritza Nagusiaren 2010eko otsailaren 4ko Ebazpena, Autonomiarako eta Mendetasunarentzako Arretarako Sistemaren Lurralde Batzordearen mendetasuneko egoera baloratzeko organo eta prozedurei buruzko Erabakia argitaratzekoa.

Aipatu araudia aztertuta, prozedura honela deskriba dezakegu:

3. koadroa. Mendetasuneko egoera eta sistemaren prestazioetarako eskubidea onartzeko prozeduraren urratsak

PROZEDURAREN URRATSAK
Prozeduraren hasiera: eskaera
Eskaeraren eta emandako agirien zuzenketa (beharrezkoa bada)
Prozeduraren izapidetzea
Mendetasun gradua eta maila erabakitzea:
<ul style="list-style-type: none">• interesatuaren azterketa (azterketak edota probak)• diagnostikoari eta mendetasun gradu eta mailari buruzko irizpen-proposamena ematea (pertsonek behar litzakeen zaintzak zehaztuz)
Mendetasuneko egoera onartzeko ebazpena honakoak zehaztuz:
<ul style="list-style-type: none">• ateratako mendetasun gradua eta maila• eskatzaileari mailaketa horren arabera dagozkion zerbitzuak eta prestazioak
Gradua eta maila, eta onartutako prestazioak berraztertzea (beharrezkoa bada)
Banakako Arreta Programa (BAP) egitea
BAP berraztertzea (beharrezkoa bada)
Errekurtsoak (egonez gero)
Zerbitzu edo prestazioaren eskaera
Zerbitzu edo prestazioa esleitzea

Prozeduraren oinarriko arauketak ez du lagundu interpretatzeko ildo argiak finkatzen. Nahasmena sortu da, ea prozedura bakarra, bi edo, kasu batzuetan, jarraikako hiru prozedura ziren: mendetasun gradua eta maila erabakitzea, BAP egitea eta zerbitzua edo prestazioa esleitzea. Horrek ebazteko epeak gainjartzea ekarri du eta, hortaz, luzapen handiegia, mendetasuna arlo hain sentikorra izan arren, esku-hartzearen berehalakotasuna funtsezkoa baita.

Dirudenez, defizit publikoa murrizteko neurri bereziak hartzeko maiatzaren 20ko 8/2010 Errege Dekretu-Legearen bidez eztabaida bukarazi da. Haren arabera, *"mendetasuneko prestazioaren eskubidea sartzeko dataren eta hura onartzeko ebazpenaren epea, gehienez ere sei hilekoa izango da, administrazio eskudunak mendetasuneko egoera eta prestazioak onartzeko prozedura bereziak ezarri balitu ere"* (5.1 artikulua).

Honako koadroan AMAL indarrean sartu zenetik euskal foru aldundiek prozedurari buruz emandako xedapen nagusiak jaso dira.

4. koadroa. Mendetasuneko egoera onartzeko prozedurari buruzko foru arautegia (AMAL indarrean sartu zenetik)

	MEDEKOTASUNeko EGOERA ONARTZEKO PROZEDURA
ARABAKO FORU ALDUNDIA	<p>39/2007 Foru Dekretua, apirilaren 24koa, Arabako Lurralde Historikoan mendetasuneko egoera eta autonomiarako eta mendetasunarentzako arretarako sistemaren zerbitzuetarako eskubidea eta sarbidea onartzeko prozedura arautzen dituen.</p> <p>85/2008 Foru Dekretua, irailaren 16koa, hurrenez hurren, mendetasuneko egoera eta autonomiarako eta mendetasunarentzako arretarako sistemaren zerbitzuetarako eskubidea, eta sarbidea onartzeko prozedura eta mendetasuna onartu ez zaien eta Lurralde Historiko honetako Gizarte Zerbitzuen Foru Sarearen erabilitzaileak diren pertsonen sarbide eta lekualdaketa araubidea arautzen dituzten apirilaren 24ko 39/2007 eta maiatzaren 8ko 45/2007 Dekretuak aldatzen dituen.</p>
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA	<p>74/2007 Foru Dekretua, apirilaren 24koa, mendetasuneko egoera onartzeko prozedura arautzen duena.</p> <p>197/2007 Foru Dekretua, azaroaren 6koa, mendetasuneko egoera onartzeko prozedura arautzen duen apirilaren 24ko 74/2007 Foru Dekretua aldatzen duena.</p> <p>197/2008 Foru Dekretua, abenduaren 16koa, Mendeko Pertsonak Baloratzeko Batzordea sortu eta arautzen duena.</p> <p>162/2009 Foru Dekretua, abenduaren 1ekoa, mendetasuneko egoera onartzeko prozedura arautzen duena.</p> <p>83/2010 Foru Dekretua, ekainaren 14koa, Mendeko Pertsonak Baloratzeko Batzordea sortu eta arautzen duen abenduaren 16ko 187/2008 Foru Dekretua aldatzen duena.</p> <p>93/2010 Foru Dekretua, uztailaren 20koa, mendetasuneko egoera onartzeko prozedura arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 1eko 162/2009 Foru Dekretua aldatzen duena.</p>
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA	<p>320/2007 Foru Agindua, apirilaren 25ekoa, mendetasuneko egoera baloratzeko baremoa eta hura erabakitzeko prozedura ezartzen dituen.</p> <p>545/2007 Foru Agindua, ekainaren 15ekoa, Sakontzen eskalaren bidez lortutako puntuaketak MBB eta RAI-RUG tresnen balioetara bihurtzeko baliokidetasun sistema ezartzen duena (abenduaren 22ko 1914(2008 Foru Aginduak indargabetua).</p>

Ikusten denez, hiru aldundiek aldi berean onartu zuten arauketa, baina ez zioten lege maila bera eman.

Gipuzkoako Lurralde Historikoak zehaztasunik txikieneko arauketa dauka. Hori dela-eta, jarraian aztertuko dugun prozeduraren alderdi askotan, ez dugu aipatuko Gipuzkoako Foru Aldundiak araututakoa.

Bizkaiko Foru Aldundiari dagokionez, AMAL indarrean sartu ondoren prozedura arautzeko egindako lehen foru dekretua (74/2007) indarrean dagoen 162/2009 Foru Dekretuak indargabetu du, –Zioen Azalpenean adierazitakoaren arabera– prozedura gertatutako egoera berrietara egokitzeko, izapideak errazteko eta prozesu bizkor eta babesten duen errealitateari egokituagoa lortzeko xedez.

Jarraian, hiru foru aldundiek erabilitako prozedurari buruzko zenbait alderdiri helduko diegu, nabarmentzekoak direlakoan:

a) Prozeduraren hasiera: eskaera

Arestian azaldutako oinarrizko irizpideen arabera, prozedura interesatuak edo ordezkatzeko duenak eskatu ondoren hasten da (Arabian eta Gipuzkoan izatezko zaintza egiten duena berriaz sartzen da).

Hiru aldundiak bat datoz eskabideak aurkezteko tokia pertsonaren bizilekuari dagokion udaleko oinarrizko gizarte zerbitzuen bulegoetan kokatzeko (Bizkaiak eta Gipuzkoak erroldatuta egotea aipatzen dute). Araban, bizilekua Gasteizen dutenek Gizarte Informazio eta Arretarako Bulegoan edo Orientabide eta Balorazio Zentroan aurkeztu beharko dute, biak Gizarte Ongizatearen Foru Erakundearen mendekoak izanda.

b) Prozeduraren izapidetzea

Eskabidea egiaztatzea eta, beharrezkoa balitz, 10 egun balioduneko epean balizko akatsak zuzentzea, baloraziorako hitzordua jakinaraztea eta gizarte txostenari edo espedientearen balorazioari berari buruzko zenbait alderdi jasotzen dira.

c) Mendetasun gradua eta maila erabakitzea

Mendetasuneko egoera baloratzeko erakundeei mendetasun gradu eta mailari buruzko irizpena emateko lana esleitzen zaie, mendetasuna baloratzeko baremoa (MBB) erabiliz, eta pertsona behar litzakeen zaintzak zehaztu behar dituzte. Horretarako, osasunari eta eskatzailea bizi den inguruneari buruzko txostenak eta, halakorik balego, agindu zaizkion laguntza teknikoak ortesiak eta protesiak hartuko dituzte aintzat.

Arabian, mendetasuneko egoeraren balorazioa Gizarte Ongizatearen Foru Erakundeko Minusbaliotasuna duten Pertsonen Arloko Zuzendariordetza Teknikoari atxikitako Orientabide eta Balorazio Zentroko teknikariek egiten dute; Bizkaian, lan hori Norberaren Autonomia Sustatzeko Zuzendariordetzari atxikirako Balorazio eta Orientabide Zerbitzuko Mendetasunaren Balorazio eta Orientabide Atalak betetzen du; eta Gipuzkoan, Gizarte Zerbitzuen

Arreta eta Sarbide Zerbitzuko Mendetasunaren Balorazio eta Orientabide Atalak burutzen du lan hori.

AMASen Lurralde Batzordeak erabaki batzuk hartu ditu onarpena egin behar duten organoaren eta profesionalen ezaugarri komunei buruz²⁸.

Bizkaian, Mendeko Pertsonak Baloratzeko Batzorde Teknikoa sortu eta arautzen duen abenduaren 16ko 197/2008 Foru Dekretuaren bidez.. Balorazioari buruz erabakiak hartzen laguntzeko organo horren bidez irizpideen sakabanaketa saihestu eta zorroztasun eta fidagarritasun handiagoak bermatu nahi dira. Haren irizpena derrigorrezkoa da ebazpen proposamenak pertsona mendetasuneko egoeran ez dagoela xedatzen duenean eta konplexutasun tekniko handiko kasuetan. Irizpena aldekoa bada, interesatuari entzunaldiko izapidea ematea aurreikusten da. Gipuzkoako Foru Aldundiak jakinarazi digu ez dela entzunaldiko izapiderik jartzen irizpena kontrakoa bada. Arabako Foru Aldundiak ere ez du aurreikusten.

Orokorrean, balorazio taldeek azterketak, elkarrizketak eta beharrezkotzat jotzen dituzten bestelako probak egin ditzakete, eskatzailearen egoera ebaluatzeko egokiak badira, eta beste zerbitzu edo erakundeetatik xede horretarako egokitzat jotzen dituzten txostenak bil ditzakete.

Arabako araudian balorazioa bizilekuan egin beharra xedatzen da. Balorazio organotik irizpen teknikoa jaso ondoren, Minusbaliotasuna duten Pertsonen Arloko Zuzendariordetza Teknikoak *"ebazpen proposamena egin eta Gizarte Ongizatearen Foru Erakundearen (GOFE) Zuzendaritza-Gerentziara igorriko dio"*.

Bizkaian, pertsona mendetasuneko egoeran dagoela erabakiz gero, proposamena Gizarte Ekintzako diputatuak erabaki dezan bidaltzen da.

d) Mendetasuneko egoera baloratzeko tresnak

AMALeko 27. artikulua espainiar Estatuan mendetasuna baloratzeko baremo (MBB) bakarra jasotzen du.

Baremo hori [apirilaren 20ko 504/2007 Errege Dekretuaren](#) bidez onartu da²⁹. Hiru urtez azpikoentzako berariazko balorazio eskala (BBE) jasotzen du, legeko hamahirugarren xedapen gehigarriak xedatutakoa betez.

²⁸ Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen 2007ko maiatzaren 23ko Ebazpena, mendetasuneko egoeraren balorazioari buruzko erabakiak ezartzeko Autonomiarako eta Mendetasunarentzako Arretarako Sistemaren Lurralde Kontseiluaren erabakia argitaratzekoa, eta Gizarte Politika eta Kontsumoaren Idazkaritza Nagusiaren 2010eko otsailaren 4ko Ebazpena, Autonomiarako eta Mendetasunarentzako Arretarako Sistemaren Lurralde Batzordearen mendetasuneko egoera baloratzeko organo eta prozedurei buruzko Erabakia argitaratzekoa.

²⁹ Txosten hau itxi ondoren, Norberaren Autonomia Sustatu eta mendetasuneko egoeran dauden pertsonen arreta emateko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak xedatutako mendetasuneko egoera baloratzeko baremoa onartzen duen [otsailaren 11ko 174/2011 Errege Dekretua](#) onartu da, baina ez da indarrean sartuko 2012ko otsailaren 18a arte.

MBBk baloratzen du pertsonak, bere buruz, eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak (EBOJ) burutzeko duen gaitasuna eta adimen urritasuna edo gaitz mentala duten pertsonak haiek burutzeko duten laguntza eta ikuskapen premia baloratzen ditu (legeko 27.4 artikulua)

Balorazio tresnak protokolo bat dauka, hura aplikatzeko jarraitu beharreko prozedura eta teknikekin, eta mendetasun gradu eta maila bakoitzari dagozkion puntuazio tarteen zehaztapena:

- I. gradua. Mendetasun arina: pertsonak, eguneroko bizitzako oinarrizko zenbait jarduera egiteko, gutxienez egunean behin laguntza behar dutenean edo bere autonomiarako aldizkako laguntza edo laguntza mugatua behar duenean. MBBren 25 eta 29 puntu arteko azkeneko puntuazioari dagokio.
- II. gradua. Mendetasun latza: pertsonak, eguneroko bizitzako oinarrizko zenbait jarduera egiteko, egunean bitan edo hirutan laguntza behar duenean, zaintzailearen etengabeko laguntza behar gabe, edo bere autonomiarako laguntza zabalago behar duenean. MBBren 50 eta 74 puntu arteko azkeneko puntuazioari dagokio.
- III. gradua. Mendetasun handia: pertsonak, eguneroko bizitzako oinarrizko zenbait jarduera egiteko, egunean zenbait aldiz laguntza behar duenean eta, autonomia fisiko, mental, adimeneko edo zentzumenezkoa erabat galdu izanagatik, beste pertsona baten ezinbesteko eta etengabeko laguntza behar duenean, edo bere autonomiarako laguntza orokorra behar duenean. MBBren 75 eta 100 puntu arteko azkeneko puntuazioari dagokio.

Era berean, MBBk gradu bakoitzeko maila biak (1. maila eta 2. maila) norberaren autonomiaren eta pertsonak behar duen zaintzaren intentsitatearen arabera identifikatzea ahalbidetzen du, AMALeko 26. artikuluko 2. atalean xedatutakoaren arabera, eta baliaezintasun handiko pentsioa edo hirugarren pertsona baten laguntza premia onartuta dutenen mendetasuneko egoeraren onarpena eraginkorra izatea ahalbidetzen du.

Lan eta Immigrazio Ministerioak balorazioaren profesionalentzako gidaliburu bi argitaratu ditu:

- MBB erabiltzeko gidaliburua.
- BBE (zero eta hiru urte arteko adinetan) erabiltzeko gidaliburua.

AMASen Lurralde Batzordeak Apirilaren 20ko 504/2007 Errege Dekretuan xedatutako MBB aldatzeari buruzko erabakia hartu du. Erabakia Gizarte Politika eta Kontsumoaren Idazkaritza Nagusiaren 2010eko ekainaren 29ko Ebazpenaren bidez argitaratu da. MBB aplikatzeagatik lortutako emaitzak ebaluatu ondoren, hobekuntza batzuk sartu nahi ditu mendetasuneko egoera modu objektiboagoan hartzeko eta haren graduak eta mailak hobeto sailkatzeko. Aldaketa hori oraindik ez da dagozkion Errege Dekretuaren bidez onar-

tu; Erabakiak berak aurreikusten du Errege Dekretua argitaratu eta hamabi hilabetera sartuko dela indarrean³⁰.

EAEn, hiru foru aldundiek MBB darabilte balorazio tresna.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, gainera, RAI-RUG (Resident Assessment Instrument – Resource Utilization Groups)³¹ balorazio sistema darabil bere lurraldeko zenbait foru zerbitzu, hala nola egoitzako arreta (iraunkorra edo aldi baterakoa) edo adinekoentzako eguneko egoitza (320/2007 Foru Agindua) eskuratu ahal izateko. Foru erakunde horren ustez tresna osgarri horrek honakoak ahalbidetzen ditu:

- pertsonak eskatutako baliabideari dagokionez daukan gaitasuna zehaztea (MBBren bidez baliabide hori eskatzeko eskubidea emango zioteten mendetasun gradua eta maila lortu balitu ere);
- haren ezaugarrietarako egokiena den egoitza plaza orientatzea (oinarrizko plaza, nariadura kognitiboa duen pertsonarentzat, unitate psikogeriatrikokoa, osasun kargaduna edo MJSAk kolonizatutako pertsonarentzat³²);
- eta pertsona bere laguntza kargari dagokion tarifa taldean sailkatzea.

³⁰ Txosten hau itxi ondoren, Norberaren Autonomia Sustatu eta mendetasuneko egoeran dauden pertsonen arreta emateko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak xedatutako mendetasuneko egoera baloratzeko baremoa onartzen duen [otsailaren 11ko 174/2011 Errege Dekretua](#) onartu da, baina ez da indarrean sartuko 2012ko otsailaren 18a arte.

³¹ RAI screener+: Arreta Sozisanitarioaren Euskal Kontseiluak, 2005eko otsailaren 17ko saioan, RAI (Resident Assessment Instrument) eta RUG III (Resources Utilization Groups) sistemak EAE osoan mendetasuna duten pertsonak sailkatzeko tresna baliadun hartzeari buruz Batzorde Teknikoak egindako proposamena onartzea erabaki zuen.

Bizkaiko Foru Aldundiak emandako informazioaren arabera, baloratzeko RAI-RUG sistema 20 herritan erabiltzen da (AEB, Kanada, Japonia, Europako hainbat herri, etab.), eta bere balorazioan 327 item (21 arlo) dauzka; AEBko estatu administrazioarekin sinatutako kontratuaren pean, Michigango Unibertsitateak laguntza eskatzen duten pertsonen epe luzean izango dituzten zaintza premiak iragar ditzakeen algoritmoa garatu zuen. Algoritmo horri “MI Choice” edo “Michigan Choice” deritza. “Choice” (hautua, erabakia...) hitzaren zentzua honakoa da: erabiltzaileek etxez etxeko gizarte (EBOJ eta EBJI) eta osasun laguntzekin etxean jarraitzea edo egoitza batean sartzea hauta dezakete. Algoritmoak bost “zaintza maila” iragartzen ditu, eta honako zaintza modalitatei dagozkie:

- NH. (Nursing Home/Bizilekuko Laguntza): pertsonak eguneko 24 orduetan eta etengabe behar ditu zaintza pertsonalak eta osasun arreta.
- HC. (Home Care/Etxeko Zaintzak): pertsonak etxean edo egoitza batean jaso dezake laguntza, baina laguntza edo terapia zerbitzu intentsiboak (astean hirutan baino gehiagotan), gutxieneko mailako laguntza edo terapia zerbitzuak (astean behin edo bitan), edo zaintza pertsonal intentsiboko zerbitzuak (eguneroko laguntza zenbait zereginetarako).
- IPC. (Aldizkako zaintza pertsonala): pertsonak bere etxean edo ekipamendu komunitario batean jaso dezake arreta eta gutxieneko zaintza pertsonala behar du (eguneroko laguntza bat baino gutxiago edo zeregin bakarretarako eguneroko laguntza bat, esaterako bainua hartzeko).
- HM (Etxeko arreta): bere etxea behar bezala edukitzeko eta aldi berean bere burua mantentzeko, pertsonak laguntza ez pertsonala behar du, hala nola otorduak, etxearen garbiketa, garraioa, etab.
- I&R (Informazioa eta bideratzea): pertsonak informazioa lortzeko laguntza behar du, baina ez du zerbitzu formalik behar.

³² Metizilina jasaten duen *Staphylococcus aureus*.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren ikuspuntutik, *"eskabide bikoitza izapidetzea eta balorazio denbora gehiago eskatzen baditu ere, MBBk baino informazio gehiago ematen duen balorazioa da"*.

Bizkaian RAI 2006tik egiten zen. Indargabetutako 2007/74 Foru Dekretuak xedatzen zuen mendetasuna baloratzeko ebazpenak balorazio tresna bien (MBB eta RAI) emaitzei buruz erabaki behar zuela; lehenengo emaitzak Estatuko lurralde guztian izango zuen balioa eta RAIri dagokiona Bizkaian baino ez zen aplikagarria izango (Foru Dekretuko 8, 16 eta 17. artikulua).

Bizkaiko Foru Aldundiak adierazi zigun RAIk emandako informazioa laguntza handia zela gizarte langileentzat Banakako Arreta Programa (BAP) egiteko; izan ere, *"sistemak 'arazo' arlo batzuk finkatzen zituen eta horiei esker azken balorazio txostenean haietako baten bati buruz alarma seinalea eman zitekeen; horrek arreta edo zaintza plana prestatzea errazten zuen, pertsona bere etxean geratu zein egoitza batean sartzen bazen"*. Haren aburuz, sistemak sakonago aztertzen zuen ebaluatutako pertsonaren mendetasuneko egoera.

Hala ere, abenduaren 1eko 162/2009 Dekretu berria indarrean sartu denetik, Bizkaian bigarren balorazio tresna hori erabiltzeari utzi zaio.

Bestalde, balorazioak egiterakoan antzemandako arazoei dagokienez, aldundiek eurek aipatu dute baremoa aplikatzeko irizpide desberdintasuna (autonomia erkidegoen artean eta hiru lurralde historikoen artean), haien iritzi, tresnaren sortzaileek egindako gidaliburuetan jasotzen ez diren egoera asko daudelako. Balorazio organoek osasun txostenetatik –maiz zaharkitua zirelako edo behar beste bete gabe zeudelako– kalitatezko osasun informazioa lortzeko zeuzkaten arazoak ere aipatu zituzten.

e) Ebazteko epea

Gizarte Politika eta Kontsumoaren Idazkaritza Nagusiaren 2010eko otsailaren 4ko Ebazpenak, zeinen bidez Autonomiarako eta Mendetasunarentzako Arretarako Sistemaren Lurralde Batzordearen mendetasuneko egoera baloratzeko organo eta prozedurei buruzko Erabakia argitaratu baita, hirugarren erabakiaren laugarren puntuan –prozeduraren oinarriko irizpideei buruzkoa– espedienteak ebazteko epeei buruzko arau batzuk ematen ditu.

Dioena hitzez hitz kopiatuko dugu:

"4. Abenduaren 14ko 39/2006 Legea garatzen duen araudiaren arabera izapidetutako espedienteak ebazteko epeak.

Autonomia Erkidegoek, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean xedatutako esparruan, prestazioak baloratzeko eta onartzeko prozedura arautzen duten legeetan honako irizpideak sartuko dituzte:

a) Eskabidea sartzen den dataren eta mendeko prestazioaren onarpena ebazteko dataren arteko gehienezko epea sei hilekoa izango da. Autonomia Erki-

degoak mendetasuneko egoera eta prestazioak onartzeko prozedura bereziak ezarri balitu, mendetasuneko egoera onartzeko gehienezko epea hiru hilekoa izango da.

b) Interesatuek seme-alaba edo adingabearen ezgaitasun egoera egiaztatu ahal izateko, amatasun edo aitatasun baimena eta, halakorik balego, dagozkion subsidioak zabaltzearen ondoretarako, administrazio eskudunek xedatuko dute, kasu horietan, BBEren aplikazioaren bidez hiru urtez azpikoen mendetasuneko egoera onartzeko ebazpena gehienez ere 30 egun naturaleko epean eman beharko dela, eskabidea erakunde eskudunaren erregistroan sartu den datatik zenbatuta”.

Arabari dagokionez, xedatu denez, ebazpena gehienez ere hiru hileko epean jakinarazi behar da, eskabidea Gizarte Ongizatearen Foru Erakundearen oinarritzko gizarte zerbitzuan jasotzen den egunetik zenbatuta. Epe horrek mendetasuneko egoera onartzeari baino ez dagokio; ez, aldiz, prestazioei. Bigarren kasu horretan, ebazpena gehienez ere hiru hileko epean jakinarazi beharko zaio eskatzaileari, BAP prestatzeko behar diren agiriak aurkezten direnetik zenbatuta.

Bizkaian, mendetasuneko egoera onartzeko prozedura arautzen duen abenduaren 1eko 162/2009 Foru Dekretuak gehienezko bi hileko epea ezarri zuen, eskabidea Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailean jasotzen denetik. Prestazioak edo zerbitzuak esleitzeko epea baliabide jakina eskuratzeko berariazko araudian xedatzen zen.

Hura aldatu zuen [uztailaren 20ko 93/2010 Foru Dekretuak](#) bere egin zuen defizit publikoa murrizteko maiatzaren 20ko 8/2010 Errege Dekretuak eskubidearen eraginkortasunari buruz hartutako neurri berezia. Horrela, Bizkaian xedatzen da mendetasuneko prestazioaren eskabidea sartzeko dataren eta hura onartzeko ebazpenaren epea, gehienez ere sei hilekoa izango dela, administrazio eskudunak mendetasuneko egoera eta prestazioak onartzeko prozedura bereziak ezarri balitu ere.

Gipuzkoako araudiak ez du epe zehatzik berariaz ezarri. Hala ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak ziurtatu digu *“gai izan [dela] mendetasuna baloratzeko Estatuko zerbitzurik bizkor eta azkarrena emateko”*. Dioenez, *“baloratzeko epeari dagokionez, beti izan da 3 hiletik beherrako epea eta, 2007an, urteko batez bestekoa 60 egunekoa izan da eta, 2008an, 43koa (...) 2008ko azken hiletan eta 2009ko lehenengoetan 15-20 egun natural ingurukoa izan arte”*. Erantsi duenez, *“epe hori autonomia erkidego ia guztietan batez beste erabiltzen ari den 3 hiletik gorakoa baino askoz laburragoa da”*.

f) Administrazioaren isiltasuna

Kontu honi buruz, Bizkaiko Foru Dekretuak honakoa xedatzen du: *“ebazpena emateko eta jakinarazteko gehienezko bi hileko epea berariazko ebazpenik hartu gabe igarotzen bada, mendetasuneko egoera onartzeko eskabidea administrazioaren isiltasunak ezetsizat joko da, Administrazioak berariaz ebazteko duen betebeharra kaltetu gabe. Administrazioaren isiltasunaren bidezko ezespeneren ondorio bakarrak interesatuei egokia litzatekeen errekurtsio administratiboa edo administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jartzea ahalbidetzea da”*.

Alor honetako isiltasunaren ondorioei buruzko doktrinaren inguruko eztabaida bat dago eta epaireden batek administrazioaren isiltasunari estimazio balioa ematea hobetsi du³³. Funtsean, isiltasunaren izaera positiboaren aldekoek HAAJ eta APELeko 43.1 artikulua aplikazioa argudiatzen dute, mendetasuneko gradua eta maila onartzeko prozedura alderdi batek eskatuta hastea eta legez xedatutako epean ebazpenik ez egoteak ondorio negatiboa izatea xedatzen duen lege, lege mailako arau edo erkidego mailako arauetan jasotako salbuespenik ez egotea. Era berean, argudiatzen dute emandako autonomia xedapenek (dekretuek edo aginduek) ez dutela maila nahikorik isiltasun administratibo negatiboa arautzeko. Iritzi horren aurkakoez mendetasunaren onarpenaren isileko ebazpenaren beraren edukiaren zehaztugabetasuna edo eduki ezinezkoa argudiatzen dute (HAAJ eta APELeko 62.1.c artikulua), haien iritziz, ez litzukeelako zehaztuko mendetasun gradua eta maila eta onuradunarentzako zerbitzu edo prestazio egokiak. Halaber, argudiatzen dutenez prozedura horretan balorazio tekniko bat dago, eta hura gabe ezin liteke azken ebazpenik eman, bestela, HAAJ eta APELeko 62.1.f artikulua araberako, baliogabetasunean jausiko litzatekeelako (*"ahalmenak edo eskubideak hartzeko ordenamendu juridikoaren aurkako balizko egintzak haiek hartzeko funtsezko betekizunak betetzen ez direnean"*)³⁴.

g) Ebazpena

Mendetasuneko egoera onartu eta haren gradua eta maila zehazten dituen ekintzaren izaera juridiko-administratiboa da; ebazpena, edonola ere, arrazoitua izan beharko da.

Aldundi bakoitzak ebazpen horren edukia zein izango den ezarri du, eta oraingoan ez dago haien artean alde handirik:

- Araba: mendetasun gradua eta maila, balorazioa behin-behinekoa ala behin betikoa izatea, berrikusteko data beharrezkoa balitz, gradu-maila horrengatik dagozkion baliabideen katalogoa eta dagokion justifikazioa ebazpen proposamenetik aldentzen bada.
- Bizkaia: mendetasun gradua eta maila, eskaeraren data, dagozkion zerbitzuak eta prestazioak zehaztea, behin-behinekoa ala behin betikoa izatea eta berrikusteko data erabakitzea beharrezkoa bada (3 urtez azpikoentzat, edonola, 6, 12, 18, 24 eta 30 hilabete betetzerakoan).
- Gipuzkoa: AMASen prestazioen eskatzailearen eskubidea ebartzeko duen MBBaren araberako balorazioa eta, dagokionean, adinekoek Gipuzkoako eguneko zentroetan eta egoitza zentroetan sartzeko eskubidea ebartzeko duen RAI-RUGen araberako balorazioa.

³³ Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusiaren epaia, Administrazioarekiko Auzietako Sala, 8. Atala, 1848/2009 zki., urriaren 9koa (RJCA/2009/847) [lerroan]. Westlaw.es webgunean eskuragarri.

³⁴ LAFUENTE BENACHES, María Mercedes. El reconocimiento de la situación de dependencia por silencio administrativo. *Revista general de derecho administrativo* 24, 2010.

MBBren aplikazioko diagnostiko akats bat eta mendetasuneko egoera hobetzea edo okertzea arrazoiak dira, ofizioz edo interesatuak eskatuta, mendetasun gradua edo maila berrikusteko.

h) Premiazko prozedura

Arabako prozedurak arrazoitutako ebazpenaren bidezko salbuespenezko zerbitzu esleipena jasotzen du, eskatzailearengan premia bereziko inguruabarrak gertatzen direnean. Ebazpen hori ebatzi eta jakinarazteko gehienez ere hamabost egun naturaleko epea xedatzen du, eskabidea aurkeztu den egunetik zenbatuta. Halako kasuetan, zerbitzuaren esleipena behin-behinekoa da, gehienez ere hilabeterako. Lehenago eskatu ez balu eta salbuespenez esleitutako baliabidea AMASen katalogoan agertuko balitz, onuradunak zerbitzu horretan egiatan sartu aurretik eskatu beharko du mendetasuneko egoera onartzeko. Halako kasuetan, mendetasuneko egoera eta prestazioetarako eskubidea onartzeko epeak hamabost egun baliodunekoak dira, hurrenez hurren.

Bizkaietan, zehaztasun txikiagoz, aurreikusten da Mendeko Pertsonak Baloratzeko Batzorde Teknikoak xedatutako irizpideen arabera behar bezala justifikatutako premiazko kasuetan, eskatzailea lehentasunez baloratuko dela.

Gipuzkoan, Gizarte larrialdi zerbitzuak ezohiko kasu baten aurrean jardungo luke, arauak berariaz jaso ez arren. Administrazioek emandako datuen azterketari buruzko atalean informazio hori zabaldu dugu.

i) Banakako Arreta Plana (BAP) prestatzea

Mendetasuneko egoera onartzeko ebazpena interesatuaren aldekoa bada, dagokion erakunde eskudunak BAP onartzeko betebeharra izango du³⁵.

Horrek haren gradu eta mailarako ebazpenean aurreikusitako zerbitzu eta prestazioen artean, onuradunaren premientzat eta ezaugarri pertsonal, familiar eta sozialentzat eta haren ingurunearen ezaugarrientzat egokiena den esku-hartze modalitatea zehaztea dakar.

Zeregin horretan derrigorrez parte hartu behar du onuradunak (haren familiak edo ordezten duten erakunde zainzaileek, hala balegokio), lehenago hari entzunez edo galdetuz.

Kapitulu honetako prestazioetarako sarbiderako eskubidearen eraginkortasunari buruzko [2.6. atalean](#) adierazi dugunez, lege testuaren zehaztugabetasuna dela-eta zalantzan geratzen da ea mendetasuneko egoera onartzeko ebazpenaren eraginkortasuna BAP onartu arte etenda geratuko ote litzatekeen. Hala balitz, arauak prozedura autonomo hori –BAP onartzekoa– bukarazteko epea ez ezartzea ebazpena eraginik gabe uzteko bidea izan liteke,

³⁵ LAFUENTE BENACHES, María Mercedes. El reconocimiento de la situación de dependencia por silencio administrativo. *Revista general de derecho administrativo* 24, 2010.

arbitrariotasunerako bide bat. Izan ere, herritarren kezak izapidetzen ari ginenean, BAP egiteko atzerapenak eta are denbora tarte horretan zendutakoak erregistratu genituen, horrek dakarren eskubide galerarekin.

Edonola ere, HAAJ eta APELeko 42.3 artikulua aplikatuta, epe hori ezin zitekeen inoiz hiru hilabetetik gorakoa izan. Hura da Arabako dekretuak gizarte balia bidea esleitzeko xedatutako epea, adibidez, BAP egiteko behar diren agiriak emandako unetik zenbatuta.

AMALek 29.1 artikuluan hitzez hitz dioenari –“*mendetasuneko egoera eta dagozkion prestazioak onartzeko prozeduraren esparruan, dagozkion gizarte zerbitzuek (...) Banakako Arreta Programa bat ezarriko dute*”– lotuz gero, ordea, egokiagoa dirudi prozedura bakar baten aurrean gaudela pentsatzeak. Horren ondorioz, uler liteke HAAJ eta APELen ebazteko xedatutako gehienezko epeak –hiru hilabetekoa prozedura hasten denetik– edo, bestela, arautegi autonomikoak ezarriko lukeenak, era berean, BAP ere hartu behar lukeela³⁶.

Defizit publikoa murrizteko neurri bereziak hartzeko maiatzaren 20ko 8/2010 Errege Dekretu-legeak eztabaida hori bukarazi du, ebazteko epea sei hiletan finkatuz, mendetasuneko egoera eta prestazioak onartzeko prozedura berezia ezarri balitz ere.

Adierazi dugunez, Bizkaiko Foru Aldundiak bere egin du xedapen hori. Bestalde, Arabako Foru Aldundiak, familia inguruneke zaintzetarako prestazio ekonomikoaren arauketa berria dela-eta (40/2010 Foru Dekretua), onuradunei eta betekizunei buruzko seigarren artikuluan, Errege Dekretu-legearen edukia sartu eta aipatzen du ezinezkoa dela prestazioa jasotzea pertsona BAP egin aurretik zentzen bada.

Bestalde, Bizkaiko Foru Dekretuko 9.2 artikulua aukera sartzen du interesatuak eskubidea daukan zerbitzu edo prestazio eskaera egintzat jotzeko hark BAP sinatzeko unean berariaz adierazten badu, ondoren Mendetasunaren Balorazio eta Orientabide Zerbitzuak baiesten badu eta gerora behar diren agiriak eman ahal izatea kaltetu gabe.

Bestalde, Bizkaiko araudian Aldundiaren gizarte zerbitzu espezializatuek oinarrizko gizarte zerbitzuei BAP diseinatzeko eman diezaieketen laguntza aipatzen da.

Arabian, BAP egitea Gizarte Ongizateko Foru Erakundeak mendetasuneko egoeran dagoen pertsonari esleitutako erreferentziatzko gizarte langileari dagokio. Gizarte Esku-hartze Arloko Zuzendariordetza Teknikoak BAP horrekin ados dagoela adierazi beharko du. BAP horrek, edonola ere, honakoak jaso beharko ditu:

- mendeko pertsonaren gizarte eta familia egoera jasotzen duen txostena;
- hautatutako gizarte zerbitzua edo zerbitzuak;

³⁶ TOSCANI JIMÉNEZ, Daniel. Algunas observaciones críticas sobre el largo y tortuoso camino para el reconocimiento de la situación de dependencia. *Aranzadi Social* [Ierroan], 14. zki. (2009). BIB 2009/1796. Westlaw.es webgunean eskuragarri.

- eta hautatutako zerbitzua eskuratzea ezinezkoa denean behin-behinean aplikatuko den zerbitzua edo prestazio ekonomikoa.

AMALen arabera, BAP interesatuak eskatuta, ofizioz eta beste autonomia erkidego batera bizitzera joateagatik berrikusiko da.

Bizkaiko Foru Aldundiak xedapen hori jaso du eta, gainera, berrikuspena oinarrizko gizarte zerbitzuek eskatuta egiteko aukera ere jaso du. Bizilekua beste lurralde historiko batera aldatzea ere berrikusteko arrazoia izan daiteke.

Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako informazioaren arabera, Gipuzkoan BAP fisiko bat egitea ez dago prozeduraren edo betekizunen baitan. Jendeak balorazioa eskatu eta,aldi berean, Udalean baliabide bat eskatzen dute; eskabide biak sare informatikoaren bidez iristen zaizkio Aldundiari. Baliabide batzuk eskatuz gero, sistemak eskabide desberdintzat hartzen ditu. Sistemak eskatzaile bakoitzak une oro duen egoera erantsia (balorazioak, eskabideak, itxarote-zerrendak, egonaldiak, zenbatekoak, etab.) ezagutzea ahalbidetzen dio foru erakundeari, espediente elektronikoaren bidez. Zerbitzua edo prestazioa onartzea onartutako mendetasun gradu-mailak zerbitzu edo prestazio hori jasotzeko eskubidea ematearen arabera da.

Horrela, esan digutenez, etengabe eguneratzen den *a posteriori*-zko BAP moduko bat daukate, pertsona bakoitzak jasotzen duen arreta islatzen duena, baina ez *a priori*-zko BAP bat betekizun moduan edo beste aldaketa batzuetarako lehenagoko urrats gisa eguneratu behar dena.

Sistema horren abantaila nagusia da prozesua bizkortu egiten dela, prozesu teorikoaren zati bat kentzen delako. Era berean, esan digute horrela sistema informatiko batekin funtzionatu ahal izan dutela, modulua erantsi gabe.

Gipuzkoako Foru Aldundiak honako hausnarketa helarazi digu: haien ikuspuntutik, "*BAP egoki bat udal oinarrizko gizarte zerbitzuan egin behar litzateke, interesatuaren adostasuna bermatu, Udalak etengabe eguneratuta egon eta erabilitako baliabide guztiei buruzko informazioa jaso behar luke*". Dioenez, "*gaur egun, horretarako udalak egokitu behar lirateke, giza baliabideei, antolakuntzari, erabiltzailearenganako arretari, erabil daitezkeen informazio sistemai dagokienez, eta hori ez da kasu gehienetan gertatu*". Hori dela-eta, uste du baldintza horiek betetzen ez dituen BAP bat prozedura oztopatu eta erabiltzailea kaltetzen duen izapide hutsa bihur daiteke.

j) Zerbitzuetarako sarbidea

Mendetasuneko egoera onartzeko prozedura arautzen duen Arabako legea, 39/2007 Foru Dekretua, da zerbitzuetarako sarbideak ere arautzen dituen bakarra. Bizkaian eta Gipuzkoan aurreko araudia aplikatzen da oraindik.

Administrazioaren isiltasunari dagokionez, Araban, BAP prestatzeko behar diren agiriak aurkezten direnetik hiru hileko epea gizarte baliabide mota esleitzeari buruzko berariazko ebazpena hartu gabe igaroz gero, BAPek adierazitako prestazio ekonomikoa onartutzat joko da, behin-behinean aplikatzeko, hautatutako zerbitzua eskuratzea ezinezkoa denean.

Arabako araudiak gizarte baliabidearen modalitate zehatza esleitzeko ebazpenaren edukia arautzen du: emandako baliabidea, dagokion zentroa, zerbitzuaren baldintza ekonomikoak eta prestazioa hasteko data. Baliabidea eskuragarri ez badago, ebazpenak lortutako puntuazioa jaso beharko du pertsona baliabideak berresleitzeko programan sartzeko (itxarote-zerrenda), edo erabakitako prestazio ekonomikoaren zenbatekoa eta hasteko data hautatutako zerbitzua eskuratzea ezinezkoa den heinean. Bestalde, dekretuak baliabideak berresleitzeko programaren araubideari, plaza hutsei eta zentroan egiatan sartzeari heltzen die.

Bestalde, zerbitzua eskuratzeak esleitutako gizarte zerbitzuaren finantzazioan erabiltzaileak duen parte hartzeagatik ordaindu beharko den prezio publikoa ezartzea eskatzen du. Hiru lurraldeetan, parte hartze hori dagokion pertsonaren gaitasun ekonomikoaren arabera da eta, beraz, kalkulu hori egin baino lehen haren egoera ekonomikoa baloratu behar da. Aldundi bakoitzak bere arautegia dauka, eta ez dago irizpide bakarra prezio publikoa kalkulatzeko ez prezio baturik hiru lurraldeetan.

Bukatzeko, honako koadroan mendetasunaren babesari buruzko araudiei buruzko aipu batzuk sartu ditugu. Haiek aztertzeak txosten hau egiterakoan proposatutakoa gaindituko luke.

5. koadroa. Mendetasuna babesteari buruzko beste foru arauak

<p>ARABAKO FORU ALDUNDIA</p>	<p>12/2006 Foru Araua, azaroaren 20koa, Gizarte Ongizateko Foru Erakundea erakunde autonomoaren langileria Mendetasunaren Sistema Nazionala kudeatzeko zabaltzeari buruzkoa.</p> <p>30/2008 Foru Dekretua, apirilaren 22ko, mendeko pertsonak Sare Publikotik kanpoko Egoitza Zentroetan eta Komunitate Etxebizitzetan aldi baterako sartzeko Laguntza Ekonomikoen araudia onartzen duena.</p>
<p>BIZKAIKO FORU ALDUNDIA</p>	<p>145/2001 Foru Dekretua, abuztuaren 22koa, Bizkaiko Foru Aldundiaren titularitasuneko mendeko adinekoentzako eguneko zentroetan; mendeko adinekoentzako eguneko zentroetako plaza adostu edo itunduetan sartzeko; eta mendeko adinekoentzako eguneko zentroetako adostu edo itundu gabeko plazetan sartzeko banakako laguntza ekonomikoak onartzeko sistema arautzen duena (abenduaren 30eko 214/2008 eta urtarrilaren 27ko 7/2009 foru dekretuek aldatua).</p> <p>204/2003 Foru Dekretua, urriaren 28koa, Minusbaliotasuna duten Pertsonengako Arretarako aldundiaren zentroetako eta itundu, adostu eta kontratatuetako prezio publikoak aplikatzea eta haien arauketa garatzea erabakitzea.</p>

**BIZKAIKO
FORU
ALDUNDIA**

210/2005 Foru Dekretua, abenduaren 20koa, zeinen bidez mendeko adinekoentzako egoitzen foru zerbitzu publikoetarako sarbide araubidea eta familia eta zaintzaileei arnasa emateko egoitza zerbitzuaren aldi baterako egonaldiko prestazioaren baldintzak arautzen baitira.

144/2010 Foru Dekretua, abenduaren 9koa, zeinen bidez Bizkaiko Lurralde Historikoan «Familia ingurunean mendetasunari norberaren autonomia sustatzeko ekintzen, borondatezko lanaren eta mendeko pertsonen zaintzaileentzako laguntza psikosozialaren bidez arreta emateko programa» garatzeko diru-laguntzak arautzeko oinarriak onartzen baitira.

Bizkaiko Foru Aldundiaren 108/2006 Foru Dekretua, ekainaren 13koa, zeinen bidez Bizkaiko Foru Aldundiaren beraren zentroetan, adostuetan edo erakunde honekin kontratatuetan minusbaliotasuna duten pertsoneri ematen zaizkien eguneko arretako egoitza zerbitzuetaiko plazetan aldi baterako egonaldiko araubidean sartzeko sistema arautzen baita.

235/2006 Foru Dekretua, abenduaren 26koa, mendeko adinekoentzako egoitzen foru sareko egoitza sozio-sanitarioetako unitateetan sartzeko araubidea eta laguntza zerbitzuaren prestazioaren baldintzak arautzen dituena.

30/2008 Foru Dekretua, martxoaren 18koa, Gizarte Arretako Foru Sailaren telelaguntza zerbitzuaren prestazioaren prezio publikoa aplikatzea erabaki eta arautzen duena.

32/2008 Foru Dekretua, martxoaren 18koa, telelaguntza foru zerbitzu publikoan sartzeko araubidea eta zerbitzua emateko baldintzak arautzen dituena.

Bizkaiko Foru Aldundiaren 70/2008 Foru Dekretua, maiatzaren 6koa, uztailaren 7ko 96/2005 Foru Dekretua eta Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 13ko 108/2006 Foru Dekretua aldatzen dituena.

29/2009 Foru Dekretua, otsailaren 24koa, mendeko nagusientzako egoitza foru zerbitzu publikoan sartzeko araubidea eta egonaldi iraunkorreko zerbitzua emateko baldintzak arautzen dituena.

**GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA**

38/2007 Foru Dekretua, maiatzaren 22koa, mendeko adinekoentzako egoitza zerbitzuak ituntzeko behar diren baldintzak ezartzen dituena.

445/2007 Foru Agindua, ekainaren 4koa, mendeko adinekoentzako egoitza zerbitzuak ituntzeko behar diren baldintzak ezartzen dituen maiatzaren 22ko 38/2007 Foru Dekretuaren 2007ko ekitaldirako ezarpen maila xedatzen duena.

87/2008 Foru Dekretua, abenduaren 23koa, minusbaliotasuna duten edo mendetasuneko egoeran dauden pertsonentzako Etxean programako banakako laguntzak ematea arautzen duena.

2.10. Prestazioak

Autonomia sustatu eta mendetasunari arreta emateko prestazioak zerbitzuak (espezietako prestazioak) edo prestazio ekonomikoak (dirutako prestazioak) izan daitezke. Lehenengoek lehenetasuna dute prestazio ekonomikoen gainetik, baina, edonola ere, dagoen zerbitzu sarearen nahikotasun eta eraginkortasunaren arabera izango da. AMALeko mendetasunari arreta emateko prestazioei buruzko 14.2 artikulua honakoa dio, hitzez hitz: *“15. artikuluko Katalogoko zerbitzuek lehenetasuna izango dute eta dagokien Autonomia Erkidegoek eman-goto dituzte Gizarte Zerbitzuen Sarearen eskaintza publikoaren bidez, zentro edo zerbitzu publikoen edo behar duten ziurtagiria daukaten itundutako pribatuen bitartez.”*

2.10.1. Zerbitzuak

Katalogoko zerbitzuak (AMALeko 15. artikulua) Gizarte Zerbitzuen Sarearen eskaintza publikoaren bidez ematen dira, zentro edo zerbitzu publikoetan edo behar duten ziurtagiria daukaten itundutako pribatuetan.

Zerbitzuak eskuratzeko lehenetasuna mendetasun gradu eta mailaren arabera da eta, gradu eta maila bera izanez gero, eskatzailearen gaitasun ekonomikoaren arabera.

AMASen Zerbitzu Sarea erabat ezarrita egon arte, aipatu lehenetasun araubidea aplikatuta zerbitzuak eskuratzetik ez duten mendetasuneko egoeran dauden pertsonak eskubidea izango dute zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa jasotzera (14.6 artikulua); haren xedea BAPen aurreikusitako zerbitzua merkatuan lortzeak eragindako gastuak ordaintzen laguntzea da, eta, edonola ere, hura mendetasunari arreta emateko ziurtagiria duen erakunde edo zentro batek eman beharko du.

Adierazi denez, onuradunek zerbitzuen finantzazioan parte hartuko dute, zerbitzu motaren eta haren kostuaren eta pertsonaren gaitasun ekonomikoaren arabera (AMALeko 33.1 artikulua). Beraz, onuradunak ordaindu behar duen zenbatekoa kalkulatzeko lehenago haren egoera ekonomikoa baloratu behar da. EAEEn, momentuz, aldundi bakoitzak prezio publikoei buruzko bere araudia dauka eta, beraz, prezio horiek kalkulatzeko bere modua.

AMALeko zerbitzuen babes intentsitatea eta prestazio ekonomikoen zenbatekoa erabakitzeke irizpideei buruzko otsailaren 11ko 175/2011 Errege Dekretuak³⁷ aldatutako ekainaren 8ko 727/2007 Errege Dekretuak, mendetasuneko II eta III. graduei dagozkien zerbitzuak eta prestazioak, haien xedea eta oinarrizko ezaugarriak, eta haien intentsitatea erabakitzeke irizpideak xedatzen ditu. Dioenaren arabera, autonomia erkidegoek arautuko dute katalo-

³⁷ Otsailaren 11ko 175/2011 Errege Dekretuak I. graduako mendetasuneko egoeran –mendetasun arina– dauden pertsonak onar dakizkiekeen zerbitzuen babes intentsitateei, prestazio ekonomikoen zenbatekoari eta familia inguruneke zaintzetarako prestazio ekonomikoa eskuratzeko baldintzei buruzko irizpideak sartzen ditu. Errege Dekretu hori txosten hau itxi ondoren argitaratu da. Errege Dekretu hori I. graduaz hitz egoterakoan beti aipatzen dugun AMASen Lurralde Batzordeak hartutako erabakiaren arabera onartu da.

goko zerbitzuen arteko bateraezintasunen araubidea. Hala ere, xedatzen duenez, egoitza arretako zerbitzu iraunkorra bateraezina izango da telelaguntza zerbitzuarekin, etxez etxeko laguntza zerbitzuarekin eta gaueko egoitza zerbitzuarekin.

Gizarte Politika eta Kontsumoaren Idazkaritza Nagusiaren 2010eko azaroaren 4ko Ebazpenak, bestalde, I. graduko mendetasuneko egoeran onartutako pertsonentzako zerbitzuen babes intentsitateak eta prestazio ekonomikoen zenbatekoa erabakitzeke irizpideei buruzko erabakia argitaratu zuen. Honako taulan mendetasun gradu eta maila bakoitzari dagozkion zerbitzu eta prestazioei buruzko informazioa jaso dugu.

6. koadroa. Mendetasun gradu-maila bakoitzari dagozkion zerbitzuak eta prestazioak

	ZERBITZUAK ETA PRESTAZIOAK GRADUEN ARABERA					
	IIIG Mendetasun handia		IIG Mendetasun latza		IG Mendetasun arina	
	2. maila	1. maila	2. maila	1. maila	2. maila	1. maila
Norberaren autonomiaren sustatu eta prebenitzeko zerbitzua	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Telelaguntza zerbitzua	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Etxez etxeko laguntza	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Eguneko egoitza / gaueko egoitza zerbitzua	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Egoitzako arreta zerbitzua	✓	✓	✓	✓		
(FIZPE) Familia inguruneko zaintzetarako prestazio ekonomikoa	✓	✓	✓	✓	✓	✓
(ZLPE) Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa	✓	✓	✓	✓	✓	✓
(LPPE) Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa	✓	✓				

Ez da azterlan honen helburua zerbitzu horiek aztertzea, inondik inora, are gehiago Eusko Jaurilaritzak, Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legea garatuz, Prestazio eta Zerbitzuen Zorroa arautzeko Dekretua³⁸ argitaratuko duenean laster, horrek azterketa horren gaurkotasuna mugatuko bailuke.

³⁸ Eusko Jaurilaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak emandako informazioaren arabera, Gizarte Zerbitzuen Sistemaren parte hartzen duten erakunde eta gizarte eragileekin adostutako fitxa eredu bat prestatu da. Bertan 12/2008 Legeak 22. artikuluan azaltzen dituen zerbitzu katalogoan adierazitako zerbitzu eta prestazio bakoitzaren elementu azpimarragarrienak jasotzen dira; besteak beste, zerbitzu eta prestazio horiek eskuratzeko betekizunak eta bakoitzaren definizioa. Zerbitzuen fitxak zerikusia duten erakundeen eta gizarte ekimenaren parte hartzearekin egin ondoren, dekretu hura idatziko da. Jakinarazi digutenez, sartzeko prozedurari buruzko alderdiak, zerbitzurako eskubidea eteteko edo bukatzeko zioak eta prozedura eta zerbitzuen arteko bateragarritasuneko araubidea zerbitzu guztietarako xedapen komunak izango dira.

Hala ere, labur bada ere, AMALek jasotzen dituen zerbitzuak eta gure lurralde historikoen berezitasun batzuk azalduko ditugu, erakunde honek honako txosten bereziak argitaratzerakoan egin zuen azterketa ahaztu gabe: *Pertsona nagusiei emandako arreta EAEEn: etxeko laguntza, eguneko zentroak eta egoitza-zentroak* 2004an, *Pertsona ezgaituen lanerako aukerak EAEEn* 2003an, *Buruko gaitzaren trataera ospitaletik kanpo* 2000an eta *Arreta sozio-sanitaria* 2008an eta berriki argitaratu den *Euskal Autonomia Erkidegoko oinarrizko gizarte zerbitzuen egoera*.

a) Mendetasuneko egoeran prebenitzeko eta norberaren autonomia sustatzeko zerbitzuak

Mendetasuneko egoerak prebenitzeko zerbitzuen xedea gaixotasunak edo minusbalio-tasunak eta haien ondorioak agertzea edo larritzea prebenitzea da, gizarte eta osasun zerbitzuen artean koordinatuta, bizi baldintza osasungarriak sustatzeko jarduketak eta adinekoentzako eta minusbalio-tasuna duten pertsonentzako eta ospitaleratze prozesu konplexuek eragindakoentzako berariazko prebentzio eta errehabilitazio programak garatuz.

Arreta hori telelaguntza, etxeko laguntza, eguneko zentro eta egoitzako arretako programe-tan sartuko da.

Zerbitzu horien intentsitatea Mendetasuneko egoerak agertzea eta larritzea prebenitzeko planetan zehaztuko da. Plan horiek autonomia erkidego bakoitzeko erakunde eskudunek egin beharko dituzte euren lurralde esparrurako.

Norberaren autonomia sustatzeko zerbitzuen helburua norberaren arauen eta nahien arabe-ra bizitzeko moduari buruzko erabakiak kontrolatu, aurre egin eta hartzeko gaitasuna ga-ratzea eta mantentzea, eta eguneroko bizimoduko oinarrizko jarduerak egiten laguntzea da. Laguntza teknologiei eta xede horretan laguntzen duten egokitzapenei buruzko aholkula-ritza, orientabide, laguntza eta prestakuntza zerbitzuak, gaikuntza zerbitzuak, okupazio-te-rapia, etab. dira. 727/2007 Errege Dekretuaren arabera, zerbitzu horren intentsitatea auto-nomia sustatzeko norberaren premietara, dauden baliabideen azpiegiturara eta autonomia erkidego bakoitzeko administrazio eskudunak ezarritako arauetara egokituko da.

I. graduko mendetasuneko egoeran onartutako pertsonentzako zerbitzuen babes intentsi-tateak eta prestazio ekonomikoen zenbatekoa erabakitzeko irizpideei buruzko erabakia ar-gitaratu duen Gizarte Politika eta Kontsumoaren Idazkaritza Nagusiaren 2010eko azaroaren 4ko Ebazpenak apur bat gehiago zehaztu ditu zerbitzu horien izaera. Horrela, xedatu due-nez, "*norberaren autonomia sustatzeko zerbitzuen edukia Autonomiarako eta Mendeta-sunarentzako Arretarako Sistemaren Lurralde Batzordearen Batzorde Delegatuak garatuko du, eta honakoak dira:*

- *Gaikuntza eta okupazio-terapiakoak.*
- *Arreta goiztiarra.*
- *Estimulazio kognitiboa.*
- *Autonomia funtzionala sustatu, mantendu eta berreskuratzea.*
- *Gaitz mentala edo adimen urritasuna duten pertsonentzako gaikuntza psikosoziala.*
- *Laguntza pertsonalak eta zaintzak ostatu berezietan (tutoretzapeko bizilekuak)."*

Sustapen zerbitzuaren intentsitatea honako babes tartearen arabera izango da, arreta goiztiarrerako eta autonomia funtzionala sustatu, mantendu eta berreskuratzeko zerbitzuetan aurreikusitakoa kaltetu gabe: hileko 20 eta 30 ordu bitartean I. gradu eta 2. mailarako eta hileko 12 eta 19 ordu bitartean I. gradu eta 1. mailarako.

Arreta goiztiarrerako, gutxienez hileko 6 orduko intentsitatea ezarri da, eta autonomia funtzionala sustatu, mantendu eta berreskuratzeko, gutxienez hileko 15 ordu.

Intentsitatea Banakako Arreta Programan ezarriko da, irizpen teknikoak ezartzen dituen hileko orduen arabera, mendetasuneko egoeran dagoen pertsonak laguntzak edo zaintzak behar dituen eguneroko bizitzako jardueren arabera. Hori dena, Autonomia Erkidego bakoitzak ezarrita dauzkan norberaren autonomia sustatzeko zerbitzu eta programen intentsitate handiagoak kaltetu gabe.

Ebazpenak aukera jasotzen du autonomia erkidegoek Banakako Arreta Programan jasotako prestazioak osatzeko ekintzak eta programak garatu ahal izateko, hala nola aholkularitza eta laguntasun aktiboa, eta laguntzako teknologiei eta eguneroko bizitzako jarduerak egiten laguntzeko egokitzapenei buruzko orientabide, laguntza eta prestakuntza.

b) Telelaguntza zerbitzua

Telelaguntza zerbitzuak onuradunei komunikazio eta informazio teknologiak erabiliz ematen die laguntza, kasu bakoitzarentzako irisgarritasun neurriak betez, baita behar diren baliabide pertsonalen laguntza ere, larrialdi, segurtasun-gabezia, bakardade edota isolamendu egoeren aurrean berehalako erantzuna emanez. Etxeko laguntzarekin loturarik ez duen zerbitzua edo haren osagarria izan daiteke. Egoitza arretarik jasotzen ez dutenei emango zaie BAPEk horrela ezarritako gero.

Zerbitzu tekniko horrek aukera ematen die erabiltzaileei, telefonoz eta berehala, gizarte eta laguntza sarearen komunitate baliabideetara eta larrialdiak koordinatzeko zentroetara iristeko.

Aipatu 2010eko azaroaren 4ko Ebazpenaren arabera, telelaguntza zerbitzua BAPen jasotako gainontzeko prestazioen zerbitzu osagarria izango da, laguntza osagarriak dituen telelaguntza aurreratuko zerbitzuen kasuan izan ezik, zeinen edukia Autonomiarako eta Mendetasunarentzako Arretarako Sistemaren Lurralde Batzordearen Batzorde Delegatuak erabakiko baitu.

Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legearen arabera Eusko Jaurlaritzaren eskuduntza bihurtu da.

Eusko Jaurlaritzako [Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak](#) jakinarazi digu 2011ko ekitaldian egingo duela bere telelaguntza zerbitzuaren kudeaketa; horrela, honakoa adierazi digu *“EAEko lurraldeetan ematen diren sistemen azterketak agerian utzi du, telelaguntza sistemari dagokionez, prestazio mailan, sartzeko betekizunetan edo prezio publikoetan desberdintasun handiak daudela; hori dela-eta, beharrezkotzat jo da azterketa xehea egitea 2011n Eusko Jaurlaritzaren titulartasunetik EAE osorako zerbitzu homogenea hartzeko”*

c) Etxez etxeko laguntza zerbitzua (ELZ)

ELZ mendetasuneko egoeran dagoen pertsonaren bizilekuan burututako jarduketa multzoak osatzen du. Haren xedea eguneroko bizitzako premiei (norberaren zaintzak eta etxeko lanak, hala nola garbiketa, arropa garbiketa, otorduak, etab.) erantzutea eta haren autonomia handitzea da, bere bizilekuan ahalik eta denbora gehien geratu ahal izatea ahalbidetzeke.

Zerbitzu horren intentsitatea zehazteko unitatea arreta ordua da. BAPen hileko ordu kopurua ezarri beharko da eta, gutxienez, 727/2007 Errege Dekretuak (III eta II. graduatarako) eta 2010eko azaroaren 4ko Ebazpenak (I. gradurako) gradu eta mailaren arabera xedatzen dituzten tarteen arabera izango da.

2. taula. Etxeko laguntza zerbitzuaren intentsitatea, mendetasun gradu eta mailaren arabera

		HILEKO ARRETA ORDUAK
III. GRADUA MENDE TASUN HANDIA	2. maila	70 eta 90 artean
	1. maila	55 eta 70 artean
II. GRADUA MENDE TASUN LATZA	2. maila	40 eta 55 artean
	1. maila	30 eta 40 artean
I. GRADUA MENDE TASUN ARINA	2. maila	21 eta 30 artean
	1. maila	12 eta 20 artean

Askotan³⁹ erakunde honek agerian utzi du zerbitzuak lurralde historiko bakoitzean eta are udal bakoitzean izan duen garapen desberdintasuna.

Horrela, Araban Gizarte Ongizatearen Foru Erakundeak lurralde historiko osoko mendeko pertsona guztiei ematen die arreta. Mendetasuneko egoeran jo ez diren pertsonen ere Erakundeak eman die arreta, Gasteizen bizi direnei izan ezik, haien ardura udalarena baita. Gipuzkoan, ELZ udalek kudeatzen dute, kudeaketa mandatu baten bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Euskal Udalen Elkartearen (EUDEL) arteko 2005eko azaroaren 3ko esparru-akordioaren testuinguruan. Esparru-akordioak etxeko laguntza zerbitzua emateko baldintzak eta Aldundiak udal bakoitzean urtero (gehienez) finantzatu behar dituen orduen banaketa ezartzen ditu. Akordio horren esparruan, udal bakoitzak bere udalerrian zerbitzua arautzeko bere ordenantza onartu du. Gipuzkoako Foru Aldundiak ez du zerbitzua esleitzen, ondoren, adostutako mugen barruan, finantzatzeko erantzukizuna bere egin baizik. Indarrean dagoen ELZren araudiak gehienez eguneko 3 ordu arreta ezartzen ditu, jaieguna barne, eta, beraz, gehienezko intentsitatea hileko 90 ordukoa da. Bizkaian, aldiz, ez dago lurraldean irizpideen batasuna bermatzen duen esparru-akordiorik. Udal edo partzuergo bakoitzak bere arautegia garatu du, bere irizpideen arabera.

³⁹ ARARTEKOA; Pertsona nagusiei emandako EAEEn: etxeko laguntza, eguneko zentroak eta egoitza-zentroak: Gasteiz, ARARTEKOA, 2004.

Erakunde honek adierazi duenez, lortu behar liratekeen arreta mailei, finantzaketari, prezio publikoei, kudeaketa ereduari⁴⁰... buruzko irizpideak batu ahal izateko araudia izatea komeni da. Hori dena, zerbitzurako sarbidean, estalduran eta kalitate mailan berdintasuna bermatzeko xedez.

d) Eguneko egoitza eta gaueko egoitza zerbitzua

Eguneko edo gaueko egoitza zerbitzua etxeko arretaren eta egoitza-zentroan ematen denaren erdibidean dago. Egunez edo gauez arreta osoa ematen die⁴¹ mendetasuneko egoeran dauden pertsonaei, honako helburuak betetzeko:

- Independentzia funtzional eta norberaren autonomia maila ahalik eta handiena berreskuratu eta lortzea.
- Osasuna hobetzea edo mantentzea eta gaixotasunak agertzea edo larritzea prebentzea.
- Gaitasun kognitiboak, funtzionalak eta sozialak sendotzea eta errehabilitatzea, hondatzea geldiarazteko.
- Egoitza-zentroetan sartu beharra atzeratzea.

Familiei eta zaintzaileei laguntzeko neurria ere bada, zaintzeko ezagutzei eta trebetasunei buruzko orientabidea, aholkularitza eta prestakuntza eta atsedean hartzeko tartea ematen dizkielako.

Azken batean, zerbitzuak, ikuspegi biopsikosozialetik, autonomia sustatzeko aholkularitza, prebentzio, errehabilitazio eta orientabide premiak eta gaikuntza edo laguntza edo arreta pertsonaleko premiak betetzen ditu. Beraz, erregimen ambulatorioko arreta oso eta espezializatua da⁴².

AMALek honako tipologia aurreikusten du:

- 65 urtez azpikoentzako eguneko egoitzak (batez ere minusbaliotasuna duten pertsonentzat).
- Adinekoentzako eguneko egoitzak.

⁴⁰ Gai honi buruz, Ararteko erakundeak [2002ko Urteko Txostenean](#) ohararazi zuen zer arazo dakarren zerbitzua zuzeneko diru-laguntzen bidez (onuradunari kontratazioa kudeatzeko banakako laguntza ekonomikoa emanez) emateak.

⁴¹ Gaueko egoitza AMALen aurreikusi arren, EAEn esperientzia bi baino ez ziren bultzatu, Araban eta Gipuzkoan, eta ez dira finkatu: lehenengoa Gasteizen, Eulenek kudeatzen duen foruaren zentro batean, eta bigarrena Donostian, Julian Rezola de Matia Fundazioaren Gerontologia Zentroan. Santurtzin (Bizkaia), Begoñako Andra Maria Egoitzan, gaueko egonaldiak dauzkan atsedean zentro bat ere egon da.

⁴² SEMPERE NAVARRO, Antonio V. et al. Comentario sistemático de la Ley de la dependencia: Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de promoción de la autonomía personal y atención a las personas en situación de dependencia y normas autonómicas. Zizur Txiki: Aranzadi, 2008. Aranzadi bilduma monografikoak. Lan-zuzenbidea.

- Arreta ematen dituzten zaintzen espezifikotasunaren arabera espezializatuko eguneko egoitzak.
- Gaueko egoitzak.

ELZren kasuan bezala, 727/2007 Errege Dekretuak II eta III. graduetako mendetasuneko egoeran jotako pertsonentzat mugatzen zuen zentro horietarako sarbidea, batez ere, AMAL ezartzeko egutegiaren arabera, I. graduako 2. maila eta I. graduako 1. maila ez liratekeelako gauzatuko 2011ko urtarrilaren 1 eta 2013ko urtarrilaren 1 arte, hurrenez hurren. 2010eko azaroaren 4ko ebazpenak banakako arretako asteko honako orduetan zehaztu du eguneko egoitza zerbitzuaren intentsitatea:

3. taula. Banakako gutxieneko arretako asteko ordu kopurua eguneko egoitza zerbitzuan mendetasuneko I. graduako

		BANAKAKO GUTXIENeko ARRETAKO ASTEKO ORDUAK
I. GRADUA MENDEtasun ARINA	2. maila	25
	1. maila	15

Eusko Jaurlaritzak, urriaren 17ko 202/2000 Dekretuaren bidez, EAEko esparruan mendeko adinekoentzako eguneko egoitzak arautu zituen. Ez dago antzeko autonomia araudirik minusbaliotasuna duten pertsoneri arreta emateko eguneko egoitzetarako.

e) Egoitza-arreta zerbitzua

Egoitza-arreta zerbitzuak arreta oso eta etengabea ematen du, pertsonal, sozial eta osasuneko, eta sare publiko edo itundutako egoitza-zentroetan ematen da, mendetasun mota, haren gradua eta pertsonak behar dituen zaintzen intentsitatea aintzat hartuta.

Iraunkorra izan daiteke, egoitza-zentroa pertsonaren ohiko bizilekua bihurtzen denean, edo aldi baterakoa, arreta epea denboran mugatuta dagoenean. Aldi baterako egonaldia onuradunaren gaixondoko edo haren zaintzailearen atsedean edo gaixotasun egoeretarako da.

Aipatu Errege Dekretuak xedatzen duenez, egoitza-arreta zerbitzuaren intentsitatea "mendetasuna duen pertsonak, bere BAPen arabera, behar dituen zentroaren zerbitzuen arabera izango da". Zerbitzua ez dago aurreikusita mendetasuneko I. graduan jotako pertsonentzat. Hala ere, aipatu dugun 2010eko azaroaren 4ko Ebazpenean aurreikusten denez, 2013ko abenduaren 31 arte, 2010eko urriaren 28an egoitza-arreta zerbitzua jasotzen egon ziren pertsoneri prestazio hura eskaini ahalko zaie Banakako Arreta Programa ezartzeko kontsulta prozesuko esku-hartze modalitatekerik egokiena bezala.

Prestazioa onartu balitz, egoitza-arreta zerbitzuak mendetasun arineko egoeran dauden pertsonentzako premiei egokituko ditu esku-hartze zerbitzuak eta programak.

AMALek, 15 artikuluan xedatutako zerbitzuen katalogoan, honako tipologia ezarri du egoitza-arreta zerbitzurako:

- Mendetasuneko egoeran dauden adineko pertsonen egoitza.
- Mendetasuneko egoeran dauden pertsonentzako arreta zentroa, minusbaliotasun moten arabera.

Euskal Herriko Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak adinekoentzako, minusbaliotasuna duten pertsonentzako eta gaixotasun mentala duten pertsonentzako egoitza-zentroyen artean bereizten du. Eusko Jaurlaritzak, martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuaren bidez, hirugarren adinarentzako egoitzako gizarte zerbitzuak arautu zituen.

Gaur egun arau horrek ezarritako baldintzak gaindituta daude; beraz, eguneratu behar dira, eta horretarako Eusko Jaurlaritzak egoitza-zentroyen betekizun material eta funtzionalei buruzko beste dekretu bat onartu behar du.

Eguneko egoitzekin gertatu legez, ez dago antzeko arauketa autonomikorik minusbaliotasuna duten pertsoneri arreta emateko egoitza-zentroetarako.

f) Bestelako zerbitzuak

AMALek ezarritako katalogoan aurreikusita dauden eta kasu gehienetan EAEn ibilbide luzea duten azaldutako zerbitzuez gain, gure erkidegoan zaintzaileei laguntzeko beste zerbitzu batzuk nabarmentzen dira. Horrela, "ZAINDUZ" programak Bizkaian, "SENDIAN" izenekoak Gipuzkoan, edo "ZAINTEKO ZEURE ZAINDU" delakoak Araban, helburu nagusi bat dute: mendetasuneko egoeran dauden pertsonak euren etxean geratzea eta haien bizi kalitatea hobetzea, senide eta zaintzaile nagusiei aholkularitza eta esku-hartzea emanaz (laguntza psikologikoa, autolaguntza taldeak, zaintzei buruzko prestakuntza, etab.).

EAEn mendetasuneko egoeran dauden pertsonentzako zerbitzu eskaintza beste ekimen batzuek osatzen dute: gizarte esku-hartzeko etika batzordeak⁴³, minusbaliotasuna duten pertsonentzako eta haien senideentzako moldatutako oporrak, bono-taxi zerbitzua, ikasleei adineko pertsonekin ostatua emateko zerbitzua, bizitza independenteari laguntzeko programa, aisia eta astialdiko programak, arnasa edo zaintza zerbitzuak pertsona heldu ezgaituentzat. Zerbitzu horien ezarpen maila lurralde historiko batetik bestera aldatzen da.

⁴³ Bizkaia: abenduaren 26ko 232/2006 Dekretua; Gipuzkoa: ekainaren 12ko 46/2007 Dekretua; Araba: martxoaren 1eko 14/2011 Foru Dekretua.

2.10.2. Prestazio ekonomikoak

Adierazi dugunez, AMA Lek Gizarte Zerbitzuen Sareak eskainitako zerbitzuei (zerbitzu eta zentro publikoak eta pribatu itunduak) ematen die lehentasuna prestazio hauen aurretik. Hala ere, zerbitzu haietako baten bidez arreta ematerik ez dagoenean, dirutako prestazioak onartzea aurreikusten da arretak eragindako gastuak ordaintzeko.

AMALen jasotzen diren prestazio ekonomikorik esanguratsuenak zerbitzuari lotutako prestazioa (ZLP), familia inguruneke zaintzetarako prestazio ekonomikoa (FIZPE) eta laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa (LPPE) dira.

Prestazio ekonomiko horietako bat jasotzeak gizarte babeseko araubide publikoetan ezarritako antzeko izaera eta xedeko beste edozein prestazioren zenbatekoan hura kentzea dakar⁴⁴. Kenketa hori hiru foru aldundiek jaso dute legea garatzeko dekretuetan.

AMASen prestazio ekonomikoen zenbatekoa Estatuko Gobernuak ezartzen du urtero, Errege Dekretuaren bidez, Lurralde Batzordeak erabaki ondoren, prestazioetarako eskubidea duten gradu eta mailetarako, eta KPIren igoeraren arabera eguneratzen da. Hala ere, autonomia erkidegoan eskumena duen administrazioak –guri dagokigunez, lurralde historiko bakoitzak– maila gehigarria xeda dezake. Ondoren aztertuko dugunez, Arabako Lurralde Historikoak erabili du ahalmen hori bereziki.

AMALek xedatzen duenez, onuradun bakoitzari onartutako prestazio ekonomikoaren zenbatekoa gaitasun ekonomikoa aintzat hartuz kalkulatu da; horretarako, urtean-urtean indarrean dagoen zenbatekoari koefiziente zuzentzailea aplikatu zaio, eskumena duen Autonomia Erkidegoak edo Administrazioak xedatutakoaren arabera eta Autonomiarako eta Mendetasunarentzako Arretarako Sistemaren Lurralde Kontseiluak erabakitakoa kontuan hartuz (AMALeko zerbitzuen babes intentsitateak eta prestazio ekonomikoen zenbatekoa erabakitzeko irizpideei buruzko ekainaren 8ko 727/2007 Errege Dekretuko 13.2 artikulua). Hala ere, EAEn, jarraian ikusiko dugunez, foru aldundiek ez dute beti hartu aintzat mendeko pertsonaren gaitasun ekonomikoa haren prestazioaren zenbatekoa kalkulatzeko.

Adierazi denez, prestazioen eraginkortasuna mailaka gertatzen da, hura ezartzeko aurreikusitako egutegiaren arabera. Horrela:

⁴⁴ Horrela, zenbatekotik honakoak kenduko lirateke: baliaezintasun handiko osagarria, %75etik gorako minusbaliotasun gradua duen 18 urtez gorako ardurapeko seme-alabagatiko prestazio ekonomikoaren osagarria, hirugarren pertsona batek kotizazio gabeko baliaezintasun pentsioa behar izateagatiko osagarria, haiek denak Gizarte Segurantzaren Lege Orokorreko 139.4, 182 bis.2c eta 145.6 artikuluetan jasota –ekainaren 20ko 1/1994 legeintzako Errege Dekretuak onartutako Testu Bategina–. Halaber, Minusbaliatuak Gizarteratzeko apirilaren 7ko 13/1982 Legeko (MIGL) 12.2.c) artikuluan xedatutako hirugarren pertsona bati laguntzeko subsidioa ere kenduko da.

- 2007rako, III. gradu 2 eta 1. maileri dagozkien prestazio ekonomikoen gehienezko zenbatekoak aipatu 727/2007 Errege Dekretuaren bidez ezarri ziren.
- 2008an, III. gradu 2 eta 1. maileri eta II. gradu 2. mailari dagozkien prestazio ekonomikoen gehienezko zenbatekoak urtarrilaren 11ko 7/2008 Errege Dekretuak onartu zituen.
- 2009rako, urtarrilaren 30eko 73/2009 Errege Dekretuak erabaki zituen III. gradu 2 eta 1. maileri eta II. gradu 2 eta 1. maileri dagozkien prestazio ekonomikoen gehienezko zenbatekoak.
- Martxoaren 26ko 374/2010 Errege Dekretuak gradu eta maila horietako 2010erako zenbatekoak ezarri ditu.

727/2007 Errege Dekretuaren arabera, prestazio ekonomikoak eskuratzeko betekizunak eta baldintzak autonomia erkidegoek edo eskumena duen administrazioak ezarriko dituzte, AMASen Lurralde Batzordeak hartutako erabakian xedatutakoa kontuan hartuta. I. gradu mendetasuneko egoeran jotako pertsonentzako zerbitzuen babes intentsitateak eta prestazio ekonomikoen zenbatekoa zehazteko irizpideei buruzko erabakian –Gizarte Politikaren eta Kontsumoaren Idazkaritza Nagusiaren 2010eko azaroaren 4ko ebazpenaren bidez argitaratua–, zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa eskuratzeko gutxieneko baldintzak ezarri eta familia inguruneke zaintzetarako prestazio ekonomikoa eskuratzeko betekizunen eta baldintzen arauketa gehiago zehaztu da, AMALen aldarrikatutako izaera berezia emateko xedez.

Hiru euskal aldundiek arduraz arautu dituzte prestazio horiek, Bizkaian zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoari dagokion araudiaren argitalpena gehiegi atzeratu bazen ere (hiru urte eta erdi AMAL indarrean sartu ondoren). Honako koadroan AMAL indarrean sartu zenetik prestazio ekonomikoari buruz eman diren xedapenak jaso ditugu.

7. koadroa. AMALen xedatutako prestazio ekonomikoei buruzko foru araudia

PRESTAZIO EKONOMIKOAK		
Familia inguruneko zaintzetarako prestazio ekonomikoa (FIZPE)	Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa (LPPE)	Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa (ZLPE)
<p>70/2007 Foru Dekretua, urriaren 23koa, mendetasuneko egoeran dauden pertsonak familia ingurunean zaintzeko prestazio ekonomikoa arautzen duena</p> <p>8/2008 Foru Dekretua, otsailaren 5koa, Arabako Lurralde Historikoan familia ingurunean zaintzeko prestazio ekonomikoa arautzen duen urriaren 23ko 70/2007 Foru Dekretuko 9. artikulua 1. idatz-zatia aldatzen duena.</p> <p>9/2009 Foru Dekretua, otsailaren 3koa, urriaren 23ko 70/2007 eta abenduaren 30eko 115/2008 Foru Dekretuek onartutako familia inguruneko zaintzetarako prestazio ekonomikoa aldatu eta 2009rako eguneratzen duena.</p> <p>40/2010 Foru Dekretua, abuztuaren 3koa, Norberaren Autonomia Sustatu eta Mendetasuneko Pertsoneri Arreta emateko abenduaren 14ko 39/2006 Legea garatuz familia inguruneko zaintzetarako prestazio ekonomikoen araudia onartzen duena.</p>	<p>11/2008 Foru Dekretua, otsailaren 12koa, Norberaren Autonomia Sustatu eta Mendetasuneko Pertsoneri Arreta emateko abenduaren 14ko 39/2006 Legea garatuz laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoen araudia onartzen duena.</p>	<p>24/2008 Foru Dekretua, apirilaren 8koa, Norberaren Autonomia Sustatu eta Mendetasuneko Pertsoneri Arreta emateko abenduaren 14ko 39/2006 Legea xedatutako zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoen araudia onartzen duena.</p>

ARABAKO FORU ALDUNDIA

PRESTAZIO EKONOMIKOAK			
	Familia inguruneko zaintzetarako prestazio ekonomikoa (FIZPE)	Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa (LPPE)	Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa (ZLPE)
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA	98/2007 Foru Dekretua, ekainaren 19koa, familia inguruneko zaintzetarako prestazioa arautzen duena.	99/2007 Foru Dekretua, ekainaren 19koa, laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa arautzen duena.	90/2010 Foru Dekretua, ekainaren 29koa, mendeko pertsonentzako foru egoitza-zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa arautzen duena.
	198/2007 Foru Dekretua, azaroaren 6koa, familia inguruneko zaintzetarako prestazioa arautzen duen ekainaren 19ko 98/2007 Foru Dekretua aldatzen duena.	199/2007 Foru Dekretua, azaroaren 6koa, laguntza pertsonalerako prestazioa arautzen duen ekainaren 19ko 99/2007 Foru Dekretua aldatzen duena.	117/2010 Foru Dekretua, azaroaren 9koa, mendeko pertsonentzako foru egoitza-zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa arautzen duen ekainaren 29ko 90/2010 Foru Dekretua aldatzen duena.
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA	133/2007 Foru Dekretua, azaroaren 20koa, Norberaren Autonomia Sustatu eta Mendetasuneko Pertsoneri Arreta emateko abenduaren 14ko 39/2006 Legeko prestazio ekonomikoa arautzen dituena.		
	25/2009 Foru Dekretua, uztailaren 21ekoa, Norberaren Autonomia Sustatu eta Mendetasuneko Pertsoneri Arreta emateko abenduaren 14ko 39/2006 Legeko prestazio ekonomikoa arautzen dituena.		

Dekretu horiek zenbait alderdi arautu dituzte, hala nola prestazioak eskuratzeko betekizunak eta baldintzak, bateragarritasunen araubidea, zenbatekoa erabakitzeke irizpideak, prestazio horietarako eskubidea aldatzea, etetea eta amaitzea, ondorio ekonomikoa edo ordaintzeko modua. Jarraian, interesgarriak deritzegun zenbait alderdiri helduko diegu, bereziki, aplikazio desberdintasunak erakusten dituzten puntuei.

a) Zerbitzuari lotutako prestazioa (ZLP)

ZLP aldian aldiko prestazioa da eta, mendetasun gradu eta mailaren eta onuradunaren gaitasun ekonomikoa arabera ezarritakoaren arabera, zerbitzu pribatu baten arretagatik egindako gastua ordaintzen du, Administrazioak pertsonari zerbitzu horretarako eskubidea onartu baina arreta eta zaintzako zentro publiko edo pribatu-itunduetan plazarik ez egoteagatik ezin eskain diezaiokeenean.

Aurreikusita dago herri-administrazioek prestazioa eman zen xedea betetzeko erabiltzen dela ikuskatzea.

Adierazi dugunez, AMASen Lurralde Batzordeak prestazio hori eskuratzeko gutxieneko baldintza batzuk erabaki ditu (2010eko azaroaren 4ko Ebazpena):

- *“Prestazioa lotzen den zerbitzua edo zerbitzuak eskuratzeko xedatutako berariazko betekizunak betetzea.*
- *Plaza edo prestazioa mendetasunarentzako arretarako behar ziurtagiria duen zentro edo zerbitzuan izatea.*
- *Banakako arretarako programan prestazio horren egokitasuna eta zerbitzuaren intentsitatea ezarrita egotea, erabaki honetan mendetasun arineko egoerarako intentsitateei buruz ezarritako irizpideen arabera”.*

Gure erkidegoan ZLPk bilatzen dituen antzeko helburuetarako laguntzen aurrekariak daude, logikoki, diru-laguntzak direnak. Horrela, Arabako Aldundiak 2003az geroztik egoitza pribatuetan sartzeko/ mendeko pertsonak sare publikoaz kanpoko egoitza-zentroetan eta etxebizitza komunitarioetan aldi baterako sartzeko laguntza ekonomikoetarako programa bat zeukan. Programa 2007an aldatu eta 2008an indargabetu zen, ZLP abiatu zenean. Gipuzkoari dagokionez, antzeko programa zebilen 2005az geroztik, baina Oarsoaldeko eta Bidasoako eskualdeetako bizilagunentzat baino ez zen. Onuradunei AMALetik eratorritako prestazio ekonomikoak arautzeko dekretua onartu zenetik sei hileko epean laguntza horien eta ZLPren artean hautatzeko aukera eman zitzairen. Bizkaiak, 2001az geroztik, mendetasuneko egoeran dauden adinekoentzako laguntzak dauzka, titulartasun publiko edo pribatuko eguneko egoitzetan sartzeko.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, 2007ko amai aldera, egungo uztailaren 21eko 25/2009 Foru Dekretua indarrean sartu arte hiru prestazio ekonomikoak arautuko zituen araudia argitaratu zuen. Araban, indarrean dago 53/2007 Foru Dekretua indargabetu zuen otsailaren 12ko 24/2008 Foru Dekretua. Bertan, Aldundiak aurreikusten zuen antzeko laguntza arautu zen adinekoak sare publikoaz kanpoko egoitzetan sartzeko⁴⁵. Adierazi dugunez, Bizkaiko Foru Aldundiak ez zuen prestazio horren arauketa argitaratu 2010eko uztaila arte (ekainaren 29ko 20/2010 Foru Dekretua, azaroaren 9ko 117/2010 eta azaroaren 23ko 132/2010 foru dekretuek partzialki aldatua). Erakunde honek izapidetutako kexen azterketari buruzko atalean arauketa horren faltak eragiten zuen arazoari helduko diogu.

Hiru lurraldeen artean aurkitu dugun lehenengo desberdintasun azpimarragarria ZLPk **ordaindutako zerbitzuei** buruzkoa da. Bizkaian, egonaldi iraunkorreko zein aldi baterako egoitza-arretak eragindako gastuei aurre egiteko prestazioa baino ez da onartuko⁴⁶. Araban eta Gipuzkoan, egoitza-arretari dagokiona ez ezik, eguneko egoitza edo eguneko arreta zerbitzuen gastuak ere ordain daitezke. Hala ere, azken lurralde biotan, kostua ordaintzea onartzen den egoitza-arretaren izaera iraunkorra baino ez da aipatzen.

Dekretuak hitzez hitz hartuta, ondorioztatzen da **prestazio hori jasotzea bateraezina dela beste edozein prestazio ekonomikorekin**. Egoitza-arretari dagokionez, egokia dirudi zerbitzuari lotutako prestazioa familia inguruneko zaintzetarako prestazio ekonomikoa jasotzearekin bateraezina izateak. ZLPk ordaintzen duena, ordea, eguneko egoitzako arreta bada (Arabian eta Gipuzkoan gertatu legez), zalantzan jar liteke bateraezintasun horren ego-

⁴⁵ Aldi baterako egonaldien kasuetarako laguntzei eutsi zaie.

⁴⁶ Zaintzailearen atsedean edo oporrei dagokienez, gehienez ere urteko 30 egun natural ordainduko dira; gaintzeko kasuetan, gehienez ere urteko 3 hilabete (edo 4 salbuespenez).

kitasuna, aintzat hartzen badugu eguneko arreta eta FIZPE bateragarriak direla hura foru sareak ematen duenean (zenbatekoak kenketa izan arren).

Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiak zehazten du pertsonak itxarote-zerrendan hiru hiletik gora badarama, edo dagokion lurralde esparruan baliabide hori ez badago (dekretuan zerbitzu mota bakoitzerako lurralde esparru eremutzat jotzen dena adierazten da⁴⁷), zerbitzu publikoa edo itundua eskuratzea ezinezkoa dela ulertu eta prestazioa onartuko da. Arabako aldundiak ez du alderdi hori zehazten, baina bere dekretuko 11. artikuluan adierazten duenez, prestazio ekonomikoaren **ondorio** ekonomikoa prestazio ekonomikoa lotzen den zerbitzua jaso den hilabetera atzera eramango dela, eta ondorioak ez direla inoiz mendetasunaren balorazioa eskatu den hilabetea baino lehenagokoak izango.

Bizkaian, prestazioa "*mendeko adinekoentzako foru egoitza-zerbitzu publikoan edo minusbaliotasuna duten pertsonentzako foru egoitza-zerbitzu batean sartutako zentro batean sartzea ezinezkoa denean eta pertsona mendeko pertsonentzako arretarako zentro batean sartzeko Minusbaliotasuna duten Pertsonentzako Zerbitzuko itxarote-zerrendan dagoenean onartuko da*"; beraz, ondoriozta daiteke ez dela itxarote-zerrendan denbora zehatzik eskatzen. Bestalde, lehenengo xedapen iragankorrak honakoa xedatzen du: "*Foru Dekretu hau indarrean sartzen den unean foru egoitza-zerbitzuetan sartzeko itxarote-zerrendan dauden pertsonak zerbitzuari lotutako prestaziorako eskubidea izango dute, Gizarte Ekintzaren diputatuaren Foru Aginduak ezarritako zenbateko eta baldintzen arabera eta egoitza-arretarako eta prestazio ekonomiko hori jasotzeko eskubidea arautzen duen berariazko legedian xedatutakoaren arabera*". Foru Agindu hori hilabete epean eman beharko da, Dekretua indarrean sartzen denetik (2010eko uztailaren 3a).

Arabako aldundiak, salbuespenez, EAeko **beste lurraldeetako egoitzetan sartzeko** prestazioa onartzeko aukera jasotzen du. Kasu horretan, prestaziorako eskubidea urtebetera mugatzen du, baina urtero luza daiteke plazarik gabe jarraituz gero. **Etxebizitza komunitarioen** erabiltzaileei ere zabaltzen die prestazioa jasotzeko aukera eta horretarako bete behar dituzten betekizunak ezartzen ditu. Gipuzkoak ere onartzen du lurraldetik kanpo dauden zentroetarako prestazioa (ez du EAera mugatzen) eta gehienez ere 6 hileko epea ezartzen du.

Hiru aldundiek arautu dute **prestazioaren hileko zenbatekoa ezartzeko** modua. Prestazioaren zenbatekoa ezingo da inoiz zerbitzuaren benetako kostua baino handiagoa izan. Gipuzkoan, Diputatuen Kontseiluaren Erabakiaren bidez, gehienezko zenbatekoak ezarri dira (estatu esparruan ezarritakoekin bat etorri dira, bai prestazio honetan bai FIZPEN bai LPPEn)⁴⁸. Zenbateko horiek onuradunaren errendimenduen arabera murriz daitezke:

⁴⁷ Orokorrean, zerbitzuetarako lurralde esparru egokia eskualdea da, ezgaitasun moten arabera mendeko pertsonentzako egoitza-arreta iraunkorreko zentroetarako izan ezik, haietan esparrua Gipuzkoako Lurralde Historiko osoa baita.

⁴⁸ 2007rako zenbatekoak azaroaren 20ko 133/2007 Foru Dekretuko Eranskinean daude. Ondorengo urteetakoak Diputatuen Kontseiluaren erabakien bidez onartu dira: 2008ko otsailaren 5ekoa 2008koetarako (2008.2.28ko GAO). 2009ko urtarrilaren 21ekoa 2009koetarako (2009.3.17ko GAO). 2010eko urtarrilaren 26koa 2010eko gehienezko zenbatekoetarako (2010.3.16ko GAO). Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean erabakiaren onarpenaren berri baino ez da ematen, zenbateko zehatzak aipatu gabe.

4. taula. Prestazio ekonomikoetan onuradunaren errendimenduen arabera egindako kenketak. Gipuzkoa

ONURADUNAREN ERRENDIMENDUAK	ONURADUNAK JASOTZEN DUEN GEHIENEZKO ZENBATEKOAREN EHUNEKOA
LGSren %400 baino gehiago	%70
LGSren %300,1 eta %400 artean	%80
LGSren %250,1 eta %300 artean	%90
LGSren %250 edo gutxiago	%100

Arabian, prestazioaren gehieneko zenbatekoa estatuko legediak xedatutakoarekin bat dator. Arabako Lurralde Historikoan prestazio eskabidearen data baino lehentxeago hiru urtez jarraian erroldatuta egotea frogatu dutenek, ordea, zenbateko nahiko handiagoa jaso dute (%20-27tik are halako bi baino gehiagora) eta prestazio hori jasotzeko eskubidea luzatu zaie mendetasun gradu-maila AMAL ezartzeko egutegiaren arabera eraginkorra izan ez arren⁴⁹. Gehieneko zenbatekoari koefiziente murriztaileak aplikatzen zaizkio onuradunaren hileko errentaren eta ondarearen arabera.

5. taula. ZLPren koefiziente murriztaileak errentaren eta ondarearen arabera. Araba

Hileko per capita errenta	ONDAREA (eurotan)				
	120.202,42 € baino gutxiago	120.202,43 - 150.253,03 €	150.253,04 - 180.303,63 €	180.303,64 - 210.354,24 €	210.354,25 € baino gehiago
LGSren %400 baino gehiago	0,70	0,65	0,60	0,55	0,50
LGSren %300,1 eta %400 artean	0,80	0,75	0,70	0,65	0,60
LGSren %250,1 eta %300 artean	0,90	0,85	0,80	0,75	0,70
LGSren %200,1 eta %250 artean	1	0,95	0,90	0,85	0,80
LGSren %200 baino gutxiago	1	1	1	1	0,90

Bizkaiko Foru Aldundiak, prestazioaren zenbatekoa kalkulatzeko, Estatu mailan ezarritako gehieneko zenbatekoa zuzenean hartu eta formula batetik ateratako ehunekoa aplikatzen

⁴⁹ Prestazioei buruzko atal honen amaieran, Errege Dekretuz ezarri diren gehieneko zenbatekoei buruzko koadroak jarri ditugu. Arabako Foru Aldundiak babes maila gehigarria erabakitzeko duen ahalmenaz egin duen erabilerari buruzko agerpenak urdinez idatzi ditugu.

dio. Formula horretan onuradunaren gaitasun ekonomikoa hartzen da kontuan⁵⁰. Era berean, gaitasun ekonomikoa foru egoitza-zerbitzu publikoaren prezio publikoa arautzen duen legedian aplikatzen diren arauen arabera ezartzen da.

b) Familia inguruneko zaintzetarako prestazio ekonomikoa (FIZPE)

Prestazio hau salbuespenez onartzen da, onuradunari bere familia inguruneak ematen diotenean arreta eta etxebizitzan elkarbizitza eta bizigarritasun baldintza egokiak betetzen direnean, BAPek horrela ezarri badu.

Zaintzaile ez profesionalak Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorren aplikazio eremuan sartzen dira, altarekin parekatutako egoeran, mendetasuneko egoeran dauden pertsonen zaintzaileen Gizarte Segurantzara arautzen duen maiatzaren 11ko 615/2007 Errege Dekretuan jasotako hitzarmen berezia sinatuz⁵¹. Altarekin parekatzeko egoera erretiro eta edozein motatako istriputik edo edozein motatako gaixotasunetik eratorritako ezintasun iraunkor, heriotza eta biziraupen prestazioen ondorioetarako da halakoa. Ez ditu, beraz, beste egoera batzuk, hala nola ezintasun iragankorra edo langabezia, estaltzen.

Egun prestazioa arautzen duten foru dekretuak (40/2010 FD Araban; 198/2007 FDk aldatutako 98/2007 FD Bizkaian; eta 25/2009 FD Gipuzkoan) aztertuta, aplikazioan dauden aldeak ikusi ditugu.

Horrela, Bizkaiko Foru Aldundiak prestazio hori AMALen xedatutako gainontzeko prestazio eta zerbitzuekin (telelaguntza eta aldi baterako egoitza-arretarekin izan ezik) **bateraezina** dela xedatzen duen bitartean, Gipuzkoan eta Araban, prestazioa egoitza-arreta iraunkorarekin eta ZLP jasotzearekin edo laguntza pertsonaleko prestazio ekonomikoarekin baino ez da bateraezina. Beraz, lurralde bi horietan, gerta daiteke FIZPE jasotzen duen pertsona eguneko egoitza batera joatea edota etxeko laguntza zerbitzuaren onuraduna izatea. Kasu horietan, prestazioaren zenbatekoa murriztu egingo litzateke. Honako koadroan prestazioa zerbitzu batekin edo bestearekin osatzen denean aplikatzen diren murrizketa ehunekoak aurkeztu ditugu.

⁵⁰ $\% = 100 - \{(\text{hileko gaitasun ekonomikoa} - \text{urte horri eta elkarbizitza unitateko kide kopuruari dagokien Sarre-
rak Bermatzeko Errentaren zenbatekoa}) * 0,00060\} * 100$. Edonola ere, urte horri eta elkarbizitza unitateko kide kopuruari dagokien Sarre-
rak Bermatzeko Errentaren zenbatekoaren pareko hileko gaitasun ekonomiko pertsonala edo txikiagoa duten erabiltzaileek zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoan onartuta daukan mendetasun gradu eta mailari dagokien gehienezko zenbatekorako eskubidea izango dute, eguneko eurotan adierazita (€/egun). Halaber, onuradunek ezingo dute jaso onartuta daukaten mendetasun gradu eta mailari dagokien gehienezko zenbatekoaren %40 baino gutxiagoko prestazio ekonomikorik, hura ere eguneko eurotan (€/egun).

⁵¹ Ikus Gizarte Segurantzaren sistemako hitzarmen berezia arautzen duen urriaren 13ko TAS/2865/2003 Agindua aldatzen duen irailaren 7ko TAS/2632/2007 Aginduko 28. artikulua.

6. taula. FIZPEren zenbatekoari aplikatzen zaizkion murrizketa ehunekoak beste zerbitzu batekin edo batzuekin osatzen denean

	ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA	EGUNEKO EGOITZAKO EDO OKUPAZIO-EGOITZAKO ARRETA	ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA + EGUNEKO EGOITZAKO EDO OKUPAZIO-EGOITZAKO ARRETA
Arabako Foru Aldundia	%25	%30 (arreta lanegunetan bada) %20 (arreta asteburuetan bada) %45 (arreta etengabea bada)	Aurreko murrizketen batuketa gehienezko %65 arte
Bizkaiko Foru Diputazioa	Ez dira bateragarriak: prestazioa jasotzen bada ezin da zerbitzua jaso		
Gipuzkoako Foru Aldundia	%20	%50	%60

Aldi baterako egonaldiei, zentro soziosanitario psikiatriko edo antzekoetan sartzeari dago-kienez, Gipuzkoan 2 hiletik gorako jarraikako egonaldiak prestazioa behin-behinean etetea dakar. Araban, dekretuak adierazten duenez, prestazioa "*bateraezina izango da mendeko pertsona egoitza edo ospitale zentro batean hilabetetik gorako jarraikako epean sartzearekin*"; FIZPE egonaldiari dagozkion egunetan etengo da. Halaber, mendeko pertsonak hila-beteko edo gutxiagoko epeetan sare publikoaz kanpoko egoitza-zentroetan eta etxebizitza komunitarioetan aldi baterako sartzeko laguntza ekonomikoak jasoz gero, FIZPE haiekin bat datorren epeetan etengo da. Bizkaiak, hasieran adierazi legez, prestazio ekonomikoaren eta aldi baterako egoitza-arretaren arteko bateragarritasuna jasotzen du.

Zaintzailearen betekizunei dagokienez, adin nagusikoa izan eta legezko bizilekua eduki beharko du beti, baina desberdintasun batzuk ikusi ditugu: hiru dekretuek jasotzen dute senidea izan beharra (hirugarren gradua arte), baina Gipuzkoakoak baino ez du jasotzen betekizun horretarako salbuespena erlijiosoek euren komunitateko beste kideei emandako⁵². Bizkaietan, mendetasuneko egoeran dagoen pertsonaren bizilekuaren inguruneak baliabide publiko edo ziurtatutako pribatu nahikorik ez duenean, despopulaturik dagoenean, edo inguruabar geografikoek edo bestelakoak beste motetako arreta galarazi edo zailtzen dutenean, administrazio eskudunak, salbuespenez, adierazi senidetasun gradua izan gabe, mendeko pertsonaren udalerrian edo auzoko batean bizi den bere inguruneko pertsona batek zaintza ez profesionalak ematea baimendu ahalko du, pertsona hori bertan lehenago urtebetez bizi izan bada. Araban, senidetasunaren betekizuna salbuesten da III. graduko mendeko pertsonaren zaintzaile ez profesionala bizileku berean errolatuta badago eta arreta-zerbitzu profesionalizatu edo ordaindu bati lotuta ez badago.

Hiru lurraldeetan, zaintzaileak bete beharreko beste betekizunetako bat onuradunarekin bititzea da. Arabako Foru Aldundia da elkarbitzita hori gutxienez BAP egin baino urtebete lehenagotik izatea eskatzen duen bakarra. Eskakizun horrek zenbait arazo dakartza, herritarren zenbait kexa izapidetzerakoan ikusi dugunez.

⁵² Aldaketa erakunde honek proposatuta egin du foru administrazioak. Ikus kexa izapidetuei buruzko [5. kapitulua](#).

Arabar aldundiak beste lurralde bietan ez dauden salbuespenak ezarri dizkio elkarbizitzaren betekizunari. Horrela, onuraduna III. graduako mendekoa denean, zaintzailea beste bizileku batean –Arabako lurraldean beti– erroldatuta egon ahalko da, edo bizileku berean urtebete baino gutxiagoz erroldatuta egon, honako egoeraren bat gertatzen bada:

- Zaintzailea mendeko pertsona zaintzeko haren bizilekura benetan joatea.
- Mendeko pertsona zaintzailearen bizilekura eramatea zaindua izateko.
- Aldian aldiko lekualdatze edo familia txandakatzeko egoeretan, mendeko pertsona edo zaintzaileak mugituz.
- Mendeko erabiltzailea zerbitzu publikoak, hala nola ELZ, eguneko arretako landa zentroa, eguneko egoitza, okupazio-zentroa eta egoitzetako eguneko arreta, erabiltzen dituenean, haien bidez mendeko pertsonaz behar bezala arduratzen den zaintzailea dagoela frogatzen bada.

Ez da elkarbizitza salbuespenik aplikatuko, mendeko pertsonak mendetasuneko III. gradua onartuta badauka ere, zaintzailea, beste lurralde historiko edo erkidego batetik etorruta, Arabako Lurralde Historikoan erroldatu eta mendeko pertsonarekin edo alderantziz erroldatuta urtea betetzen ez badu.

Arabako dekretu berriaren aurretik, banakako prestazio bakoitzaren zenbatekoa gutxitzea ezartzen zen, **bizileku berean bizi ziren pertsona bi edo gehiagok** laguntza ekonomiko hura jasoz gero. Hori ez zen beste lurralde bietan gertatzen. Erakunde honek izapidetutako kexak aztertzeko atalean, neurri horren aurka daukagun jarrera eta haren arrazoiak aipatu dira, baita erakundeak izandako esku-hartzea herritarrek egoera hori salatzeke izandako kexa espediente batzuetan. Txosten horretako bizi-historietako batek (6. kapitulua 5. atala) halako neurri batek ekar zitzakeen ondorioak erakusten ditu. Zorionez, foru administrazioa harbera izan da, irizpidea aldatu eta arauketa berrian neurria ezabatu baitu.

Gipuzkoako Aldundiak ez du onartzen bizileku berean edo beste batean mendeko pertsona bi baino gehiagorentzako laguntzaile pertsonal jarduteko.

Arabako dekretuak **zaintzarako egokitasuntzat** zer jotzen den zehazten du: zaintzaileak ahalmen fisiko eta psikiko nahikoa izan beharko du bere buruz zaintza eta laguntza zereginak behar bezala burutzeko. Oinarrian, beste pertsona bati AMALeko 2.3 artikulua aipatzen dituen eguneroko bizitzako jardueretan laguntzean edo pertsona horrek horretarako behar dituen laguntzak izatean dautza. Beraz, bat dator AMASen Lurralde Batzordearen FIZPEren kalitatea hobetzeko Erabakiaren zentzuarekin –Gizarte Politika eta Kontsumoaren Idazkaritza Nagusiaren 2010eko otsailaren 3ko Ebazpenaren bidez argitaratua–. Erabaki horretan, eta kontu horri dagokionez, zaintzaileak onuradunari aipatu jarduerak egiteko laguntza behar duenean arreta emateko arduraldi nahikoa izan beharra azpimarratzen du eta, irizpide orokor gisa, xedatzen du bera mendeko egoeran ez egotea, laguntza osagarriak egon ezean. Lurralde Batzordeak, azaroaren 4ko Ebazpenaren bidez argitaratutako 2010eko urriaren 28ko Erabakian, dirudienez, bere jarrera indartu du, kasu honetan, laguntza osagarri buruzko salbuespena alde batera utziz. Izan ere, Erabaki horretan, Batzordeak FIZPEren

izaera berezia bermatu bahi du, horretarako prestazio hori eskuratzeko betekizunak eta baldintzak gehiago zehaztuz⁵³

Zenbatekoen kalkuluari buruz ere aldeak ikusi ditugu. Bizkaiak Estatu mailan xedatutako zenbatekoak aplikatu ditu⁵⁴ (2008an izan ezik, gorantz biribilduz apur bat aldatu baitzituen), gaitasun ekonomikoaren arabera koefiziente murriztaileak aplikatu gabe. Gipuzkoak eta Arabak, aldiz, onuradunaren errendimenduen arabera koefiziente murriztaileak aplikatu dituzte. Gipuzkoak aplikatutakoak 4. taulan aurreratu ditugu. Jarraian, Arabako Foru Aldundiak aurreikusitakoak jarri ditugu.

7. taula. FIZPEren gehienezko zenbatekoari PFEZko Urteko Guztizko Zerga-Oinarriaren arabera aplikatu beharreko koefiziente murriztaileak Araban

URTEKO ZERGA-OINARRIA GUZTIRA	KENKETAREN EHUNEKOAK
20.000 euro arte	%0
20.000,1 eta 39.999,99 euro artean	%10
40.000,1 eta 59.999,99 euro artean	%20
60.000 eurotik gora	%25

⁵³ "1. Onuradunak familia ingurune ko zaintzak mendetasuneko egoeraren onarpena eskatu aurretik jasotzea eta baliabide publikorik edo ziurtatutako pribaturik ez egoteagatik zerbitzurik onartzea ezinezkoa izatea.

2. Zaintzailea mendetasuneko egoeran dagoen pertsonarekin bizileku berean bizitzea.

3. Zaintzaileak mendetasuneko egoera edozein gradutan onartuta ez izatea.

4. Mendetasuneko egoeran dagoen pertsonaren bizilekuaren landa inguruneak baliabide publiko edo ziurtatutako pribatu nahikorik ez duenean, despopulaturik dagoenean, edo inguruabar geografikoek edo bestelakoak beste motetako arreta galarazi edo zailtzen dutenean, administrazio eskudunak, salbuespenez, maiatzaren 11ko 615/2007 Errege Dekretuko 1.1 artikuluan xedatutako senidetasun gradua izan gabe, mendeko pertsonaren udalerrian edo auzoko batean bizi den bere ingurune ko pertsona batek zaintza ez profesionalak ematea baimendu ahalko du, pertsona hori bertan lehenago urtebetez bizi izan bada.

Arestiko paragrafoan aurreikusitako kasuan, zaintzaileek ezarritako gainerako betekizunak bete beharko dituzte, bizileku berean bizitzeari dagokiona izan ezik. Onuradunaren premietarako prestaziorik egokiena ezartzen duen Banakako Arreta Programan, berariaz adierazi beharko da zergatik ezin den zerbitzu bat edo zerbitzu horri lotutako prestazio ekonomiko proposatu.

Mendetasuneko egoeran dagoen pertsonak bere mendetasun gradu eta mailarako aurreikusitako zerbitzu bat jasoko balu, prestazioak onartzeko ebazpenean gutxienez zerbitzu berari edo intentsitate bereko beste zerbitzu bati eutsi beharko zai. Zerbitzu hori ingurune ko zaintzetarako prestazio ekonomikoarekin bateraezina bada, ez da azken hura onartuko.

Halaber, kontuan hartu beharko dira Autonomiarako eta Mendetasunarentzako Arretarako Sistemaren Lurralde Batzordearen zaintzaile ez profesionalen prestakuntza eta informazioa frogatzeko irizpide komunei buruzko Erabakia -2009ko irailean hartua eta Gizarte Politika eta Kontsumoaren Idazkaritza Nagusiaren 2009ko azaroaren 4ko Ebazpenaren bidez 27an Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratua-; eta Autonomiarako eta Mendetasunarentzako Arretarako Sistemaren Lurralde Batzordearen familia ingurune ko zaintzetarako prestazio ekonomikoaren kalitatea hobetzeko Erabakia -2010eko urtarrilaren 25ean hartua eta Gizarte Politika eta Kontsumoaren Idazkaritza Nagusiaren 2010eko otsailaren 4ko Ebazpenaren bidez martxoaren 12an Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratua-; hori dena, erabaki honetan xedatutakoaren aurkakoa ez den heinean."

⁵⁴ Honako foru dekretuen bidez:

2007: 98/2007 eta 99/2007 Foru Dekretuak, ekainaren 19koak biak.

2008: 7/2008 Foru Dekretua, otsailaren 5ekoa.

2009: 27/2009 Foru Dekretua, otsailaren 24koa.

2010: 68/2010 Foru Dekretua, maiatzaren 4koa.

Kasu batean zein bestean, gutxi gorabehera 1.600 eurotik beherako errentak dauzkatenek prestazioa osorik jasotzen dute. Errenta horietatik aurrera, eta mailaka, kenketa egiten da eta, ikusi dugunez, Araban %25 arte eta Gipuzkoan %30 arte irits daiteke.

Gipuzkoak kalkulatzeko Estaturako urtero ezarritako zenbatekoak hartu ditu oinarri. Arabak, ordea, nabarmen handitu ditu zenbateko horiek (%20 eta %24 artean) III. graduako 1. mailako eta II. graduako 2. mailako mendetasuna duten pertsonentzat, eta Estaturako mailari eutsi dio III. graduako 2. mailarako eta II. graduako 1. mailarako. 2007an, prestazioa II. graduako 2. mailan jotako pertsoneri ere zabaldu zien, AMAL ezartzeko egutegiaren arabera haien eskubideak artean eraginkorrak izan ez arren (ikus gehienezko zenbatekoei buruzko kapitulu honetako [8. koadroa](#)).

Puntu honetan gogoratu behar da Arabako Lurralde Historikoan etxean mendeko adineko senideei arreta ematen dieten pertsonentzako laguntza ekonomikoak daudela. Laguntza horiek familia unitatearen urteko errenta bateratua 15.600 euro baino gehiagokoa ez denean ematen dira. 2008an FIZPEren osagarriak izan ziren, baina 2009az geroztik bateraezina dira. Errenta baxuen kasuan, FIZPE baino hobeak dira, ekonomikoki.

Prestazio horren eskaeraz **ebazteko gehienezko epeari** dagokionez, Araban hiru hilekoa da prestazio ekonomikoa osatzeko datuen eta dagozkion agirien sarrera erregistratzen direnetik. Gipuzkoak xedatu du espedientea hiru hiletan ebatziko dela, eskabidea aurkeztu denetik zenbatuta. Bizkaiak 2 hiletan ezarri du, une beretik zenbatuta.

Bizkaietan, ebazpen horrek bide administratiboa agortzen du eta, beraz, haren aurka aukerako berrezartzeko **errekurtsoa** jarri behar da, foru diputatuaren aurrean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren aurrean. Araban eta Gipuzkoan ebazpenak ez du bide administratiboa agortzen eta lehenago gorako errekurtsoa aurreikusten da. Administrazioaren **isiltasuna** baiezkua da Araban eta ezezkua Bizkaietan eta Gipuzkoan.

Onuradunen betebeharren artean, hiru lurraldeetan dago prestazioa aldaraz, etenaraz edo bukaraz lezakeen edozein aldaketa jakinaraztekoa. Horretarako, Gipuzkoak eta Bizkaiak 30 eguneko epea ezarri dute aldaketa gertatzen den egunetik eta Arabak 15 egunera mugatu du.

Bizkaiak prestazioa emanarazi zuten baldintzak urtero berrikustea aurreikusten du. Aipatu dugun Lurralde Batzordearen FIZPEren kalitatea hobetzeko Erabakiak zaintzen kalitatearen halako jarraipenen garrantzia azpimarratu eta hari buruzko irizpide batzuk xedatzen ditu. Besteak beste, zaintzailearen prestakuntza ekintzak⁵⁵.

⁵⁵ Gizarte Politika eta Kontsumoaren Idazkaritza Nagusiaren 2009ko azaroaren 4ko Ebazpena, zeinen bidez Autonomiarako eta Mendetasunarentzako Arretarako Sistemaren Lurralde Batzordearen zaintzaile ez profesionalen prestakuntza eta informazioa frogatzeko irizpide komunei buruzko Erabakia argitaratzen baita. Erabaki horretan, informatzeko eta orientatzeko, prestakuntza programei buruzko irizpide batzuk jaso dira, edukiei eta metodologiari dagokienez, baita, giza baliabideei eta baliabide materialei buruzko kontuak ere.

Dekretu berri horretan, Arabako Foru Aldundiak eskatzen du onuraduna BAP sinatzeko unean eta prestazioak indarrean dirauen epe osoan Arabako Lurralde Historikoan benetan bizi dadila. Bestalde, arauketa berriaren bidez, argitzen du eskatzailea BAP egin aurretik zentzen bada ez dela prestaziorik jasoko.

c) Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa (LPPE)

Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoaren xedea mendetasun handia duten pertsonen autonomia sustatzea da. Haren helburua honakoa da: "ordu kopuru baterako, laguntza pertsonala kontratatzen laguntzea, onuradunari hezkuntza eta lana eskuratzea eta eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak egiterakoan bizimodu autonomoa lortzea errazteko" (AMALeko 19. artikulua).

EAEEn honako foru dekretuak aplikatzen dira:

- Bizkaian, ekainaren 19ko 99/2007 FD (azaroaren 6ko 199/2007 FDK aldatua).
- Gipuzkoan, adierazi denez, hiru prestazio ekonomikoak dekretu berean arautu dira –uztailaren 21eko 25/2009 FD, azaroaren 20ko 133/2007 FD indargabetzen duena–.
- Araban, otsailaren 12ko 11/2008 FD.

Prestazio hori aplikatzeko desberdintasun nagusia onuradunari eskatzen zaizkion **sartzeko baldintzetan** aurkitu ditugu. Arabak eta Bizkaiak onuradunari hezkuntza edo lan eremuan jarduerak egiten aritzea eskatzen dioten bitartean, Gipuzkoak, kasu horiek jaso ez ezik, laguntza pertsonalak eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak egiterakoan bizimodu autonomoagoa erraztea xede duen beste kasuei ere zabaltzen die prestazioa onartzea. Horri esker, Gipuzkoan, eskuratzeko betekizunen bat ez betetzeagatik FIZPE eskuratzetik ez duten pertsona askok laguntza pertsonalaren prestazioa lortzen dute.

Horrek azaltzen du, esaterako, 2010eko urriaren 1ean, Gipuzkoan 1.246 LPPE eman diren bitartean⁵⁶, Bizkian bakarra eta Araban batere ez abiatu izana.

Arabak eta Bizkaiak xedatu dute onuradunak behar dituen zerbitzuak erabakitzeko, haiek kontrolatzeko eta bere laguntzaile pertsonalari haiek burutzeko moduari buruzko jarraibideak bere buruz emateko gaitasuna izan behar duela. Gipuzkoan ez da betekizun hori aipatzen, eta hiru urtez gorakoa izatea baino ez da xedatu.

Bateraezintasunen araubideari dagokionez, Bizkaiko Foru Aldundiak, berriz ere, telelaguntza zerbitzuarekin eta aldi baterako egonaldiko egoitza-arretarekin izan ezik, AMALen aurreikusitako gainontzeko prestazio eta zerbitzu guztiekin bateraezina dela xedatu du. Gipuzkoan, FIZPEren kasuan bezala, prestazio hori bateragarria da eguneko arreta-egoitza, okupazio-arreta, aldi baterako egonaldi, telelaguntza eta zentro soziosanitario, psikiatriko

⁵⁶ Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak emandako informazioaren arabera.

edo antzeko zentroyen zerbitzuekin. Zentzu berean, Arabak egoitza-arreta iraunkorrek baino ez du bateraezintasuna ezarri.

Gipuzkoan, LPPE jasotzen duenari, beste zerbitzu bat edo batzuk **aldi berean erabiltzeak** FIZPERako **6. taulan** aurkeztutako **kenketak** aplikatzea dakar. Arabako Aldundiak, aldiz, ez du prestazioaren murrizketa ehunekorik ezarri halako kasuetan.

Hiru lurraldeetan antzeko **betekizunak** ezarri zaizkio **laguntzaile pertsonalari**: legezko bizilekua, adin nagusikoa izatea, Gizarte Segurantzari dagokionez afiliazio, alta eta kotizazio baldintzak betetzea eta esleitutako zereginerako egokia izatea, eta hirugarren gradu arteko senidetasunik ez izatea.

Ebazteko gehienezko epea eskabidea aurkezten denetik hiru hilekoa da Araban eta Gipuzkoan eta bi hilekoa Bizkaian. Berriz ere, administrazioaren **isiltasuna** baiezkua da Araban eta ezezkoa Bizkaian eta Gipuzkoan. Ebazpenaren aurka jar daitezkeen **errekurtsoei** dagokienez, FIZPERi buruzko atalean adierazitako alde berberak ikusi ditugu.

Prestazioaren zenbatekoa kalkulatzeari dagokionez, Arabak eta Bizkaiak urtero onartu dituzte gehienezko zenbatekoak Estatu mailan ezarritakoen arabera (Bizkaiak 2008an baino ez du gorako biribiltze txikia egin). Gipuzkoak, prestazio honetan ere, zenbateko horiei **4. taulan** aurkeztutako murrizketak aplikatzen dizkie.

Jarraian, hiru prestazioen zenbatekoei buruz azaldu dugun informazioa hobeto ulertzen laguntzeko koadro bat aurkeztu dugu.

8. koadroa. Gehienezko zenbatekoak⁵⁷

Prestazio ekonomikoen gehienezko zenbatekoak gradu eta mailaren arabera 2007rako (hileko eurotan)				
Graduak eta mailak	Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa	Familia inguruneko zaintzarako prestazio ekonomikoa		Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa
III. gradua 2. maila	780	487	GS + LH: 74	780
III. gradua 1. maila	585	390 Araba: 487		585
II. gradua 2. maila	–	– Araba: 390		–

Prestazio ekonomikoen gehienezko zenbatekoak gradu eta mailaren arabera 2008rako (hileko eurotan)				
Graduak eta mailak	Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa	Familia inguruneko zaintzarako prestazio ekonomikoa		Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa
III. gradua 2. maila	811,98 Araba: 1.000	506,96 Bizkaia: 507	GS + LH: 153,93	811,98 Bizkaia: 812
III. gradua 1. maila	608,98 Araba: 1.000	405,99 Araba: 506,96 Bizkaia: 406		608,98 Bizkaia: 609
II. gradua 2. maila	450,00 Araba: 1.000	328,36 Araba: 405,99 Bizkaia: 329		
II. gradua 1. maila	– Araba: 610			
I. gradua 2. maila	– Araba: 508,00			
I. gradua 1. maila	– Araba: 508,00			

⁵⁷ Beltzez idatzitako zenbatekoak urtero Estatuko Gobernuak Errege Dekretuz onartutakoei dagozkie. Berdez, AMALeke mailakako aplikazioaren arabera, ekitaldi horretan eraginkorra ez zen mailaketa idatzi dugu. Aldundiek bere egin dituzte zenbateko horiek euren lurralde esparrurako, urdinez edo gorritz idatzitako zenbatekoetan izan ezik. Urdinez idatzitakoan Arabak, babes maila gehigarria ezartzeko bere ahalmena erabiliz, estatuko zenbatekoa handitu duenean ezarri dituen zenbatekoak dira. ZLPri dagokionez, igoera horrek Arabako Lurralde Historikoan eskaera egindako egunaren aurre-aurretik hiru urtez jarraian erroldatuta egon izana frogatzen dutentzat baino ez du balio. FIZPEren kasuan, herritar guztientzat dira. Bizkaian 2008an egindako biribiltzea gorritz idatzi da.

Prestazio ekonomikoen gehieneko zenbatekoak gradu eta mailaren arabera 2009rako (hileko eurotan)				
Graduak eta mailak	Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa	Familia inguruneko zaintzarako prestazio ekonomikoa		Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa
III. gradua 2. maila	831,47 Araba: 1.000	519,13	GS + LH: 160,13 (158,67+1,46)	831,47
III. gradua 1. maila	623,60 Araba: 1.000	415,73 Araba:506,96		623,60
II. gradua 2. maila	460,80 Araba: 1.000	336,24 Araba:405,99		
II. gradua 1. maila	400,00 Araba: 610	300,00		
I. gradua 2. maila	– Araba: 508,00			
I. gradua 1. maila	– Araba: 508,00			

Prestazio ekonomikoen gehieneko zenbatekoak gradu eta mailaren arabera 2010erako (hileko eurotan)				
Graduak eta mailak	Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa	Familia inguruneko zaintzarako prestazio ekonomikoa		Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa
III. gradua 2. maila	833,96	520,69	GS + LH 162,49	833,96
III. gradua 1. maila	625,47	416,98 Araba:506,96		625,47
II. gradua 2. maila	462,18	337,25 Araba:405,99		
II. gradua 1. maila	401,20	300,90		
I. gradua 2. maila	–			
I. gradua 1. maila	–			

d) Norberaren autonomia errazteko laguntza ekonomikoak

AMALeko hirugarren xedapen gehigarriaren arabera, Estatuko Administrazio Nagusiak eta autonomia erkidegoetako administrazioek berariazko hitzarmenak egin ahalko dituzte norberaren autonomia errazteko laguntza ekonomikoak emateko. Laguntzak honakoetarako izango dira:

- Pertsonari laguntzeko, laguntza teknikoaren bere ohiko bizimoduan normaltasunez jarduteko behar diren edo tresnen bidez.

- Etxeko irisgarritasuna eta egokitzapenak erraztea, etxebizitzan mugitzeko gaitasuna hobetzen laguntzeko.

Laguntza horien izaera juridikoa diru-laguntzena da. Beraz, ez dira eskubide subjektiboak –aipatu zerbitzu eta prestazioen kasuan gertatu legez–; aitzitik, erabilgarri dagoen aurrekontuaren araberakoak izango dira.

Laguntza teknikoek, laguntza produktuak ere baderitzenek, duten xedea, ahal den heinean, minusbaliotasunak edo mendetasuneko egoerak eragindako mugak arintzea edo orekatzea da. Zentzu horretan, elementu horiek eguneroko bizitzako jarduerak egiteko irisgarritasuna eta norberaren autonomia errazten laguntzen dute, eta haien azken helburua erabiltzailearen bizi kalitatea hobetu eta bere ohiko ingurunean geratzea da. Produktu horiek mota askotakoak dira⁵⁸.

EAEEn, foru aldundiek ematen dituzte produktuok, erosteko laguntza ekonomikoa emanez, edo maileguan edo alokairuan emanez, produktuak zenbait lagunek jarraian erabiltzea ahalbidetzen duenean. Urtero, aldundiek laguntza horiek eskuratzeko deialdiak onartzen dituzte.

Halaber, aldundiek egoera bakoitzerako produktu egokienari buruzko orientabide eta aholkularitza zerbitzua eta kasu bakoitzerako egokitzapen funtzional egokiak daukate. Geroago hitz egingo dugu horretaz.

AMAL indarrean sartu zenean, euskal aldundiek bazeuzkaten banakako laguntza ekonomiko horiek, minusbaliotasuna duten pertsonengan pentsatuta sortu zirenak –beraz, 65 urtez beherakoentzat–. Horrek eskatzen zuen mendetasuneko egoeran dauden pertsona guztiei zabaltzea, adina gorabehera. Zentzu horretan, aldundi bakoitzak bere prozesua izan du.

Gipuzkoakoak 2004an ezabatu zuen adin muga hori. Hortaz, AMAL onartu zenean deialdia minusbaliotasuna zuten edo mendetasuneko egoeran zeuden pertsona guztientzat zen. Horrela xedatzen du egungo araudiak (abenduaren 23ko 87/2008 Foru Dekretua; arau horretara bidaltzen dute urteko deialdiek). Laguntza horiek “Sendian” programan daude xertatuta (apirilaren 29ko 29/2008 Foru Dekretua). Haren helburua, zenbait laguntzaren bidez, pertsonak euren etxean geratzea da. Bestalde, Gipuzkoako Aldundiak laguntza produktuei buruzko foru argibide zerbitzua dauka –Etxetek-. Produktuen erakusketa izateaz gain, haiei eta etxebizitzaren egokitzapenari buruzko aholkularitza eman, laguntza ekonomikoak izapidetu eta zenbait produktuen doako mailegua ematen du.

⁵⁸ Norberaren zaintzarako produktuak (garbiketarako, ohetik jaikitzeo, oheratzeko edo ohean geratzeko...), mugikortasuna erraztekoak (gurpil-aulkiak, ibilgailuen egokitzapenak...), gizarte komunikazioa erraztekoak (audifonoak, sistema informatikoak...) etxeko oztopoak kentzekoak, etab.

Bizkaian, 2009 arte egon da adin muga. 65 urte baino gutxiago izatea eskatzen zen eta betekizun horrek haiek behar zituzten pertsona asko uzten zituen laguntzotatik kanpo. Erakunde honek arrazoi hori dela-eta zenbait kexa jaso eta ofiziozko espediente bat izapidetu zuen, 2003an, Aldundiari adieraziz laguntza horiek eskuratzeko adinaren betekizuna kentzea komeni zela.

2009an, Bizkaiko Foru Aldundiak Norberaren autonomia sustatzeko laguntza produktuei buruzko foru orientabide zerbitzu publikoa –Gizatek– sortu eta haiek eskuratzeko baldintzak arautu zituen, otsailaren 17ko 24/2009 Foru Dekretuaren bidez. Zerbitzu berria adin orotako pertsonentzat da, minusbaliotasun edo mendetasuneko egoeraren batek eraginez gero. Produktua erosi, maileguan edo alokairuan hartzeko laguntzak eskaintzen dira. Halako produktuak eskuratzeko 2009ko diru-laguntza deialdian, beraz, ez zen adin betekizunik ageri eta irizpide hori erabili dute hurren deialdiek ere (2010erako, abenduaren 30eko 190/2009 Foru Dekretua).

Arabian, laguntza deialdia minusbaliotasuna duten pertsonentzat da (65 urtez azpikoak) eta ez mendetasuneko egoeran daudenentzat. Urteko deialdiek (azkena, 2010erako) 2010eko apirilaren 30eko ALHAOn) martxoaren 10eko 17/1998 Foru Dekretuaren bidez onartutako araudira bidaltzen dute. 65 urtetik gorako pertsonentzat, baldintza bi ezarri dira: haien minusbaliotasuna adin hori bete aurretik onartua izatea eta adinekoentzako laguntzak ezin eskuratzea. Azken laguntza horiek ez dute berariazko legedirrik, baina dirudienez, praktikan, oinarriko elementu batzuk, hala nola ohe artikulatuak edo garabiak alokatzeko sistemari dautza.

Bestalde, Arabako Aldundiak produktu eta egokitzapen funtzionalik egokienei buruzko orientabide eta aholkularitza ere badauka: Norberaren Autonomia Zentroa. Adin orotako jendeari ematen dio arreta, baina ez dauka produktuen erakusketarik. Zentro horren proiektzioa eta eginkizunak ez dira beste aldundi bien berberak. Horrela, %65ko edo gehiagoko ezgaitasun fisiko batek jotako 18 eta 65 arteko pertsonentzako eguneko arreta-zerbitzua dauka. Zentro horretatik aldi baterako igarotzen da eta haien autonomia zenbait gaitasuntan indartzeko eta baliabide orokorrak eskuratzeko gaitzeko balio du.

Arestian esandakoetatik ondorioztatzen da Bizkaiak eta Gipuzkoak laguntza produktu katalogo zabal batetik erosi, mailegatu edo alokatzeko eta etxebizitza egokitzeko lanetarako laguntza ekonomikoak daukatela adin orotako mendeko pertsonentzat. Arabako eskaintza mugatuagoa da, alderdi horri dagokionez, baina ezgaitasun fisiko handia duten 18 eta 65 urte arteko pertsonentzako eguneko arreta-zerbitzua dauka.

Bestalde, hiru aldundietan, laguntza ekonomikoak lortzeko ez da familia diru-sarrera maila jakin bat gainditu behar. Horri dagokionez, garrantzitsua da familia edo elkarbizitza unitatea zelan definitzen den. Mendeko pertsonaz gain, Bizkaian, unitate hori haren ezkontideak edo izatezko bikoteak, minusbaliotasunen bat duten pertsonak eta 26 urte arteko seme-alabek osatzen dute. Araban, etxebizitzan bizi diren pertsona guztiek osatzen dute, eta Gipuzkoan, eskatzailearekin bizi diren lehen graduko senideek. Beraz, diru-sarrera jasotzaile batzuk egonez gero, laguntza lortzeko aukerak asko murrizten dira. Horri dagokionez, gogoratu

behar da AMALek prestazioak eskuratzeko diru-sarrerak aintzat hartzeko aukera jasotzen duela (33. artikulua), baina *norberaren* diru-sarrerei buruz ari da eta ez *familiarenei* buruz.

Norberaren autonomia errazteko beste tresna bat bono-taxia deritzona da. Taxi zerbitzua erabiltzeko laguntza ekonomikoa da, minusbaliotasun edo mendetasuneko egoeratik, mugikortasun arazo handiak eta garraio publikoa erabiltzeko arazo bereziak dauzkaten pertsonentzat. Hala ere, haren ezarpenari dagokionez, lurraldeen arteko alde handiak daude. Horrela Bizkaiak ez dauka zerbitzua.

Gipuzkoan (abenduaren 23ko 88/2007 FD), laguntza eskuratzeko 12 urte beteta izan behar dira, baina ez da gehieneko adinik ezarri. Onuradunak mugimendu funtzioetan mugak dauzkatenak edo bestelako minusbaliotasuna edo inguruabar berezi batzuk (ikusmen eta entzumen arazo larriak dituzten pertsonak; herriko komunitate zerbitzuetara joateko garraio egokirik izan gabe landa eremuetan edo gune sakabanatuetan bizi diren 65 urtez gorako edo minusbaliotasuna duten pertsonak, etab.) izateagatik mugikortasuna oso baldintzatuta dutenak izan daitezke.

Araban, zerbitzua ez dago lurralde osora zabaldua, Aldundiarekin hitzarmena sinatu duten tokiko erakundeetara baizik (Aguraingo Kuadrilla eta Gasteiz, Amurrio, Arrazua-Ubarrundia, Laudio eta Aiara udalerrriak). Zerbitzua mugikortasuna murriztuta duten 12 urtez gora eta 65 urtez beherakoentzat da. Adin horretatik gorakoak kanpoan uzteagatik, erakunde honek ofiziozko espediente bat izapidetu du.

Autonomia esparruan, [Etxebizitza](#), [Herrilan eta Garraio Sailak](#) etxeak eta haien sarbideak ezinduei buruz indarrean dagoen araudira egokitzeko lanak egiteko laguntzak ematen ditu. Etxebizitza birgaitzeko finantza neurriei buruzko 2006ko abenduaren 29ko Aginduaren bidez (2007ko urtarrilaren 25eko 18. EHAA) arautu dira. Ezgaitasun fisikoa duten pertsonen oztopo arkitektonikoak kentzea edo zentzumen urritasuna duten pertsonentzat egokitzea dakarten lanen eta instalakuntzen kostua ordaintzeko laguntzak dira. Lan horietan, gutxienez, honakoak sartzen dira:

- Komunitate lanak:
 - a) Bide publikotik ibilbide egingarri orokorra sortuz, oztopo arkitektoniko guztiak kentzen dituzten igogailuak jartzea.
 - b) Bide publikotiko sarbideen eraberritzeak, oztopo arkitektonikoak kentzeko.
- Lan partikularrak:
 - a) Barruko eraberritzeak oztopo arkitektonikoak kentzeko edo zentzumen urritasuna dutenei egokitzeko.
 - b) Bainugelak eraberritzea bainuontziak kentzeko (bainuontziaren ordez dutxa jartzea).

Interesatuak mota biko finantza neurriak lor ditzakete: Kreditu establezimenduek emandako mailegu kualifikatuak edota Etxebizitza, Herrilan eta Garraio Sailak berak fondo galdu-

ra emandako diru-laguntzak. Bestalde, eraberritze lanak zerga hobariak lortzeko ondorioetarako zenbatu daitezke.

e) Familia bitzita eta lanbidea bateratzeko laguntza ekonomikoak

Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak laguntzak eskaintzen dizkie mendetasuneko egoeran edo osasun egoera oso larrian (gaixotasun terminalak edo ezkontideak eta seme-alabak ezgaitu dituzten istripuak) dauden senideak zaintzeko eszedentzian edo lanaldi murrizketan dauden langileei. Uztailaren 17ko 118/2007 Dekretua indargabetu duen familia bitzita eta lanbidea bateratzeko laguntzei buruzko [ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuak](#) laguntzak aurreikusten ditu pertsona horiek ordezkatzan dituzten enpresentzat ere. Araudi aldaketari esker, orain arte kanpoan geratzen ziren zenbait egoera (osasun egoera larrikoa, esaterako) jasota geratu dira.

**NORBERAREN AUTONOMIAREN ETA MENDE TASUNARI
ARRETA EMATEAREN GAINEKO ARAUDIA EAEN APLIKATU
ETA EZARTZEARI BURUZ ADMINISTRAZIOEK EMANDAKO
DATUAK ETA INFORMAZIOA AZTERTZEA**

3.0. Sarrera

Kapitulu honetan honako administrazioek emandako datuak sistematizatu eta aztertu ditugu:

- Estatuko Gobernuko **Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioak**, IMSERSOren mendeko Autonomiarako eta Mendetasunarentzako Arretarako Sistemaren Informazio Sistemaren bidez (SISAAD).
- Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila, foru aldundiek emandako informazioa bildu eta IMSERSOri bidaltzeko arduraduna izanda.
- Osakidetza.
- Arabako Osasun Mentalaren Sareko Gizarte Lanaren Bulegoa-Osakidetza.
- EUDEL - Euskal Udalen Elkarte.
- Arabako Foru Aldundia.
- Bizkaiko Foru Aldundia.
- Gipuzkoako Foru Aldundia.

Informazio sistema integraturik ez dagoenez gero, zenbait desadostasun daude iturriek emandako datuen artean.

3.0 atal honetan Estatuko Administrazioak eta Eusko Jaurlaritzak emandako datuak aztertu ditugu, eta 3.1. eta 3.17. atalen artean, hiru foru aldundiek emandakoak.

a) IMSERSOk (Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioko Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Erakundea) emandako datuak

AMASen (IMSERSOren mendeko Autonomiarako eta Mendetasunarentzako Arretarako Sistema) informazio sisteman sartutako informazio historiko metatuaren arabera, 2010eko urriaren 1an Euskal Herriko Autonomia Erkidegoari dagozkion 94.241 **eskabide** erregistratu dira,

Estatuko guztien %5,61. Haietatik, 87.251ek, hots, %92,58k, irizpena jaso dute⁵⁹. **Irizpen** horien %60,88k mendetasuneko egoera III edo II. graduan onartu dute, AMALen mailakako aplikazioaren arabera, egungo unean prestaziorako eskubidearen onarpena ekarriz. Beraz, data horretarako 53.119 **lagunek dute prestaziorako eskubidea**. Pertsona horiei guztira 49.411 **prestazio onartu zaizkie egiatan** –zerbitzuen edo prestazio ekonomikoen bidez–. Jarraian, eskematikoki eman ditugu balio horiek:

8. taula. AMASen kudeaketa datuak. 2010eko urriaren 1eko informazio historiko metatua. EAE

EAE			
Eskabideak	Irizpenak	Prestaziorako eskubidea duten pertsonak *	Esleitutako prestazioak
94.241	87.251	53.119	49.411

* Oro har "prestazioa" aipatzen dugunean, zerbitzuez eta prestazio ekonomikoez hitz egiten ari gara.

SISAADen 2010eko irailaren 27an **indarreko espedientei** buruz sartutako informazioari⁶⁰, hots, bajak, heriotzak, gradu edo prestazioen berrazterketak eta araztutako espedienteak erregularizatu ondoren, kasu eginez gero, datuak honakoak dira⁶¹:

1. taula-grafikoa. AMASen kudeaketa datuak. 2010eko irailaren 27an indarrean zeuden espedienteak. EAE


EAE					
Espediente kop.	Irizpenak	Prestaziorako eskubidea duten pertsonak	Onuradunak (prestazioak esleitu zaizkienak)	Esleitutako prestazioak guztira*	Prestazioen ratioa onuraduneko
80.820	74.682	42.626	34.521	39.786	1,15

* Mendetasuneko egoeran dauden pertsona batzuek AMASen katalogoan aurreikusitako prestazio bat baino gehiago daukate.

⁵⁹ Eskabideak irizpena jaso duela diogunean, adierazi nahi dugu administrazioak eskatzailearen mendetasunaren balorazioari buruzko ebazpena eman duela, hura autonomotzat joz, edo daukan mendetasun gradua eta maila erabakiz.

⁶⁰ IMSERSOK lurralde historikoen arabera bereizitako datuak ateratako data.

⁶¹ Euskadiri dagokionez, arazketa ez da osoa, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak emandako datuei buruzko b) atalean azaldu legez.



Prestaziorako eskubidea duten pertsona guztien %80,99 onuradunak dira; %19,01, beraz, arretaren zain dago.

9. taula. AMASen kudeaketa datuak lurralde historikoen arabera berezita. 2010eko irailaren 27an indarrean zeuden espedienteak


	Espediente kop.	Irizpenak	Prestaziorako eskubidea duten pertsonak	Onuradunak (prestazioak esleitu zaizkienak)	Esleitutako prestazioak guztira	Prestazioen ratioa onuraduneko
Araba	11.761	11.075	7.781	5.858	7.935	1,35
Bizkaia	37.775	33.038	17.520	14.026	14.760	1,05
Gipuzkoa	31.284	30.569	17.325	14.637	17.091	1,17
EAE GUZTIRA	80.820	74.682	42.626	34.521	39.786	1,15

Beraz, erregistratutako espediente guztietatik, %46,74 Bizkaiari dagozkie; %38,71 Gipuzkoari; eta %14,55 Arabari. Horrela, datu horien arabera, 1.000 biztanleko 32,77 espediente erregistratzen dira Bizkaiari; 37,48 Araban; eta 44,33 Gipuzkoan⁶². Nabarmenezkoa da Bizkaiari duen indize txikia, biztanleriari handiena daukan lurraldea dela kontuan hartuta. Halaber, Gipuzkoari duen indize handia ikusten da.


⁶² 2009ko urtarrilaren 1ari dagokion biztanleria. EAE: 2.172.175; Araba: 313.819; Bizkaia: 1.152.658 eta Gipuzkoa: 705.698 (iturria: EIN).

1. grafikoa. Lurralde historikoen arabera erregistratutako espedienteen banaketa 2010eko irailaren 27an

Espediente erregistratuak lurralde historikoen arabera




Lurralde historiko bakoitzean 1.000 biztanleko erregistratutako espedienteak



Ikustenenez, espedienteen %92,40k mendetasuneko egoera onartzeko eskabideari buruzko **irizpena** lortzen dute (aldekoa edo kontrakoa). Gipuzkoako lurralde historikoak dauka ebazpen gradurik handiena: %97,71, Arabako %94,17 eta Bizkaiko %87,46en aldean.


2. grafikoa. Mendetasuneko egoera onartzeko espedienteen ebazpen gradua lurralde historikoen arabera 2010eko irailaren 27an



Guztira **prestaziorako eskubidea duten pertsonak** -42.626- (emandako irizpen guztien %57,08), hots, II. graduko edo III. graduko mendetasuneko egoera onartu zaienak, EAEko herritar guztien %1,96 dira. Bestela esanda, 1.000 biztanleko prestaziorako eskubidea duten pertsonen tasa 19,62koa da. Lurraldeka, Gipuzkoak eta Arabak tasa oso antzekoa dute (24,55 eta 24,79, hurrenez hurren), Bizkaikotik urrun (15,20).

34.521 dira **onuradunak**, hots, legez eskubidea duten prestazioren bat jasotzen ari direnak. Hortaz, prestaziorako eskubidea duten pertsona guztien %80,99 dira; bestela esanda, prestaziorako eskubidea duten pertsonen %19,01 zain daude, (lurraldeka, Gipuzkoan %15,52 dira, Bizkaian %19,94 eta Araban %24,71).

3. grafikoa. Prestaziorako eskubidea duten pertsonak 1.000 biztanleko (lurralde historikoen arabera) 2010eko irailaren 27an




Eskatzaileak lortutako mailaketari dagokionez, egindako balorazioen %16,07k ebatzi dute pertsona autonomoa dela, ezin dela mendetasuneko egoeran jo.

Jarraian balorazioen mendetasun graduaren araberako banaketa jarri dugu.

2. taula-grafikoa. Balorazioen mendetasun graduaren araberako banaketa 2010eko irailaren 27an. EAE. SISAADen datuak

Irizpenak	III. gradua				II. gradua				I. gradua				Gradurik gabe	
	2. maila		1. maila		2. maila		1. maila		2. maila		1. maila		Kop.	%
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%		
74.682	8.276	11,08	13.335	17,86	8.809	11,80	12.206	16,34	8.303	11,12	11.748	15,73	12.005	16,07

BALORAZIOEN MENDE TASUN GRADUAREN ARABERAKO BANAKETA 2010 EKO IRAILAREN 27 AN. EAE




III. gradua egindako balorazio guztien %28,94ei dagokie, II. gradua %28,14ei eta I. gradua %26,85ei. Ikusten denez, egindako balorazioen erdiak baino gehiagok (%57,08k) prestaziorako eskubidea ematen duen mailaketa lortzen dute (III eta II. graduak).

Gradu bakoitzaren barruan, beti da handiagoa 1. mailari, larritasun txikiagokoari, dagokion ehunekoa.


Onuradunaren (gutxienez prestazio bat esleitu zaiona) ezaugarriei dagokienez, SISAADek sexuaren eta adinaren arabera banaketari emandako datuak Espainiako biztanleria osoari buruzkoak dira:

4. grafikoa. Prestazioa duten onuradunaren ezaugarriak: sexua eta adina. 2010eko urriaren 1eko egoera. Estatua

PRESTAZIOA DUTEN ONURADUNAK SEXUAREN ARABERA 2010EKO URRIAREN 1EAN. ESTATUA



PRESTAZIOA DUTEN ONURADUNAK ADINAREN ARABERA 2010EKO URRIAREN 1EAN. ESTATUA




Ikusten denez, prestazioa duten onuradunen %67 emakumeak dira eta guztien %76 baino gehiago 65 urtez gorakoak dira. Bestalde, %3,75 18 urtez azpikoak dira.

Aurreratu dugunez, **onuradun** kopuruari dagokionez, gure erkidegoan, 34.521 lagunek, prestaziorako eskubidea duten %88,99k, gutxienez prestazio bat daukate. Beraz, euskal biztanleen %1,59k AMALen aurreikusitako prestazioren bat jasotzen dute.

Esleitutako prestazio guztietatik (39.786) %42,96 Gipuzkoan ematen dira, %37,10 Bizkaian eta %19,94 Araban.

EAEn onuradun bakoitzeko prestazioen ratioa 1,15 da. Horrek zortzigarren tokian kokatzen du Estatu osoaren barruan, batez bestekoaren (1,18) azpitik. Lurralde historikoen arabera, Arabak dauka ratorik handiena (1,35), ondoren Gipuzkoak (1,17), eta Bizkaia azken tokian dago (1,05).

5. grafikoa. Prestazioen ratioa onuraduneko. 2010eko irailaren 27ko egoera. EAE eta lurralde historikoak




Jarrian, 39.786 **prestazio esleituen** (zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak) banaketa aurkeztu dugu Norberaren Autonomia Sustatu eta Mendetasuneko egoeran dauden Pertsonen Arreta emateko [abenduaren 14ko 39/2006 Legeko](#) (AMAL) II. kapituluaren xedatutako tipologiaren arabera:


3. taula-grafikoa. EAE n eslelitutako prestazioak. Lurralde historikoen arabera 2010eko irailaren 27ko egoera SISAADen datuen arabera

	Mendetasunaren prebentzioa eta norberaren sustapena		Telelaguntza		ELZ		Egun/gaueko zentroak		Egoitza-arreta		Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa		Familia inguruneke zaintzetarako prestazio ekonomikoa		Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa		Guztira	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
EAE	--	--	3.839	9,65	4.537	11,40	4.605	11,57	8.231	20,69	822	2,07	17.221	43,28	531	1,34	39.786	100
ARABA	--	--	562	7,08	1.615	20,35	745	9,39	765	9,64	626	7,89	3.622	45,65	--	--	7.935	100
BIZKAIA	--	--	1.493	10,11	405	2,74	1.766	11,97	4.066	27,55	--	--	7.030	47,63	--	--	14.760	100
GIPUZKOA	--	--	1.784	10,44	2.517	14,73	2.094	12,25	3.400	19,89	196	1,15	6.569	38,44	531	3,11	17.091	100


ESLEITUTAKO PRESTAZIOAK.
2010eko IRAILAREN 27ko EGOERA - EAE




ESLEITUTAKO PRESTAZIOAK.
2010eko IRAILAREN 27ko EGOERA - ARABA



ESLEITUTAKO PRESTAZIOAK.
2010eko IRAILAREN 27ko EGOERA - BIZKAIA



ESLEITUTAKO PRESTAZIOAK.
2010eko IRAILAREN 27ko EGOERA - GIPUZKOA



Ikusi dugunez, argi nagusitzen da familia ingurunekeo zaintzetarako prestazio ekonomikoa, eta haren atzetik egoitza-arreta.

Adierazi dugunez, datuok IMSERSOK eman ditu. Hurrengo atalean azalduko ditugun arrazoiak direla-eta, egokiagoa dirudi prestazioen banaketa aztertzea, Eusko Jaurlaritzako [Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak](#) emandako datuak ikusita.

Mendetasuna prebenitu eta norberaren autonomia sustatzeko zerbitzuari dagokionez, adierazi behar dugu SISAADek ez duela zerbitzutik erregistratu EAEn. Gure ikuspuntutik, gure erkidegoan, AMAL indarrean sartu aurretik ere, eskaini diren zerbitzu eta laguntza batzuk atal horretan kokatu behar lirateke; beraz, banaketa orokorra oso bestelakoa litzateke. Arreta goiztiarreko zerbitzuez, laguntza teknikoei edo laguntza produktuei lotutako zerbitzuez, etxebizitza egokitzeko zerbitzuez... ari gara, txosten honetako [2.10.1.a\)](#), [2.10.2.d\)](#), [3.12.0](#) eta [3.12.9](#) ataletan aztertu dugunez.

Bukatzeko, [Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak](#) emandako datuen arabera, 2010eko urriaren 1ean, Euskadin **mendetasuneko egoeran dauden pertsonen zaintzaile ez pro-**

fesionalen 7.837 hitzarmen zeuden ebatzita: 1.132 Araban (3,6 1.000 biztanleko), 3.745 Bizkaian (3,25 1.000 biztanleko) eta 2.960 Gipuzkoan (4,19 1.000 biztanleko)⁶³.

b) Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak emandako datuak

Sailak jakinarazi digunez, SISAADek emandako datuak lehenengo balorazioa eta lehenengo balorazio horretarako prestazioak baino hartzen ez dituen eskabide ziklo bati dagozkio. Arrazoa honakoa da: txosten hau ixteko egunean, Sailak artean ez zion IMSERSOri egindako aldaketak bidali. Aldaketa horiek mota bitakoak dira:

- Banakako Arreta Planari buruzkoak: agindutako zerbitzu edo prestazio gehiago, jasotzen ari zirenak etetea, zenbatekoaren aldaketak prestazio ekonomikoen kasuan, etab.;
- onartutako gradu eta mailari buruzkoa.

Beraz, Sailak bere fitxategietatik lortutako datuak –berrazterketak barne– eman eta haiek interpretatzeko kontu bitaz ohartarazi digu:

- Heriotzei dagokienez egindako arazketak EINK emandako datuak darabiltza.
- Esleitutako prestazioen kopurua onuradun baten espedientearen bizi zikloan emandako prestazio/zerbitzuei dagokie. Alegia, adibidez, onuradun bati familia inguruneko zaintzarako prestazio bati eman eta ondoren eteten bazaio egoitza-zentro batean sartzeko, prestazio bi zenbatuko lirateke, hots, FIZPE bat eta egoitza-arreta zerbitzu bat.





Bigarren kontuak onuradun bakoitzeko prestazioen ratioa kalkulatzeko datu horiek erabil-tzea gararazten digu. Hala ere, erabili egingo ditugu azken balorazioari dagokion eskatzaileen mailaketa eta EAEEn agindu diren prestazio guztien banaketa ezagutzeko.

⁶³ Kasu batzuetan, zaintzaile ez profesionalak ez dute hitzarmena sinatu behar (adibidez, Gizarte Segurantzaren pentsiodun afiliatuta badaude) edo mendetasuneko egoeran dagoen pertsona bat baino gehiagori arreta ematen egon daitezke. Horrek, eta egoitza-arretak ordeztuta egon arren FIZPE zenbatzeak, azaltzen dute kopuru horiek esleitutako FIZPEekin bat ez etortzea.

4. taula-grafikoa. Balorazioen mendetasun graduaren arabera 2010eko urriaren 1ean. EAE. Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren datuak

	Mendetasuna ebatzi duten irizpenak	III. gradua				II. gradua				I. gradua			
		2. maila		1. maila		2. maila		1. maila		2. maila		1. maila	
		Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
EAE	63.864	9.490	14,86	14.498	22,70	8.800	13,78	12.588	19,71	7.624	11,94	10.864	17,01
ARABA	11.162	1.744	15,62	2.442	21,88	1.840	16,49	2.349	21,05	1.341	12,01	1.446	12,95
BIZKAI	27.048	3.848	14,23	5.733	21,20	3.469	12,82	5.198	19,22	3.420	12,64	5.380	19,89
GIPUZKOA	25.654	3.898	15,19	6.323	24,65	3.491	13,61	5.041	19,65	2.863	11,16	4.038	15,74

Iturria: IMSERSO. SISAADen informazio sistema.



- III. gradua 2. maila
- II. gradua 1. maila
- III. gradua 1. maila
- I. gradua 2. maila
- II. gradua 2. maila
- I. gradua 1. maila


Ikusten denez, EAEn mendetasunaren aldeko irizpenen %37,56 III. graduak dira; %33,49 II. graduak; eta %28,95 I. graduak. Lurraldeka, Bizkaiak dauka I. gradu balorazio indize handiena (%32,53, Gipuzkoako %26,90 eta Arabako %24,96en aurretik), eta Gipuzkoak III. gradu balorazioena (%39,84, Arabako %37,50 eta Bizkaiko %35,43en aurretik). Araban baino ez du II. gradu balorazio indizeak I. gradu koena gainditzen.

Esleitutako prestazioei buruzko datuak ere sartu ditugu; haren azterketak aintzat hartu behar ditu arestiko ñabardurak.


5. taula-grafikoa. EAE n esleitutako prestazioak. Lurralde historikoen arabera 2010eko urriaren 1eko egoera, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak emandako datuen arabera

	Mendetasunaren prebentzioa eta norberaren sustapena		Teelaguntza		ELZ		Egun/gaueko zentroak		Egoitza-arreta		Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa		Familia inguruneko zaintzetarako prestazio ekonomikoa		Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa		Guztira	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
EAE	-	-	5.180	9,65	6.375	11,88	5.988	11,15	11.122	20,72	1.276	2,38	22.493	41,90	1.247	2,32	53.681	100
ARABA	-	-	856	7,76	2.411	21,84	1.058	9,58	1.106	10,02	903	8,18	4.705	42,62	-	-	11.039	100
BIZKAIA	-	-	1.836	10,73	411	2,40	1.992	11,64	5.039	29,46	-	-	7.829	45,76	1	0,01	17.108	100
GIPUZKOA	-	-	2.488	9,74	3.553	13,92	2.938	11,51	4.977	19,49	373	1,46	9.959	39	1.246	4,88	25.534	100


PRESTAZIO ESLEITUAK - EAE




PRESTAZIO ESLEITUAK - ARABA



PRESTAZIO ESLEITUAK - BIZKAIA



PRESTAZIO ESLEITUAK - GIPUZKOA



Mendetasuneko egoeran dauden herritarrek dauzkaten prestazioei dagokienez, ikusi dugunez, argi nagusitzen da familia inguruneko zaintzetarako prestazio ekonomikoa (%41,90). Bigarren prestazioa egoitza-arreta da (%20,72), eta haren atzetik etxeko laguntza zerbitzua (%11,88), eguneko egoitza (%11,15) eta teelaguntza (%9,65). Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoak eta laguntza pertsonalekoak pisu askoz txikiagoa dute (%2,38 eta %2,32 hurrenez hurren).

Batez besteko banaketa horri dagokionez, honako desbideratzeak azpimarratu behar dira:

- Esleitutako egoitza-arretaren indizea batez bestekoa baino nahiko handiagoa da Bizkaian (%26,46) eta dezente txikiagoa Araban (%10,2).
- Araban, zerbitzuari lortutako prestazio ekonomikoaren indizea batez bestekoa baino dezente handiagoa da (%8,18) eta telelaguntza zerbitzua txikiagoa (%7,76).
- Esleitutako etxeko laguntza zerbitzuaren indizea (%21,84) batez bestekoa baino askoz handiagoa da Araban, eta askoz txikiagoa Bizkaian (%2,40).
- Laguntza pertsonaleko prestazio ekonomikoa Gipuzkoan baino ez da nabarmentzekoa, bertan esleitutakoen ia %100 gertatu baitira.

c) Osakidetzak emandako informazioa

Metodologiari buruzko atalean aurreratu legez, [Osakidetzari](#) informazioa eskatu diogu, AMAL gaixotasun mentala duten pertsonengan izan duen aplikazioaren bilakaera ezagutzeko, osasun mentaleko zerbitzuetan tratamendua izan eta aldi berean beste gizarte baliabide, zerbitzu eta prestazio batzuk eskuratu ahal izateko mendetasuna baloratzeko eskatzen dutenei dagokienez.

Zehazki, Osakidetzari egindako eskaera honako alderdiei buruzkoa zen:

1. Lurralde historikoen arabera, besteak beste, gaixotasun mentala duten pertsonen mendetasuna baloratzeko egindako eskaera kopurua, mendetasun gradua eta esleitutako zerbitzuak eta prestazioak.
2. Gaixotasun mentala duten pertsonen mendetasunarentzako arreta sisteman sartzea errazteko hartutako neurriak.
3. AMAL hiru lurralde historikoetan aplikatzeko zailtasunak.
4. Balizko aldaketak AMALen.
5. Buru-nahaste latza duten pertsonen premiei erantzuteko baliabide berriak.
6. AMALen alderdi onak.

Osakidetzaren erantzunetik honakoak azpimarratu behar ditugu:

- Eskatutako datuei dagokienez, adierazi digute ez dela posible eskatutako unean ematea, oso sakona delako eta osasun mentaleko arretaren antolakuntzagatik beragatik eta dauzkan baliabide ugariengatik. Hala ere, Osakidetzak prest agertu da behar diren adierazleak ezartzeko eta informazioa jasotzeko protokoloa egiteko.
- Adierazi digutenez, foru aldundiek mendetasunari buruz hartutako eskumenak direla-eta, osasun mentalaren sareak informazio lana baino ez du egiten, jendeari mendetasunaren balorazioa egiteko proposatu eta balorazio hura eskuratzeko izapideak errazten dizkio. Buru-nahaste latza duten pertsonen dagokienez, mendetasunaren balorazioari lehentasuna deritzote.

- Osasun mentalaren sarean lan tresna bat sortu da, banakako tratamendu plana (BTP) izanekoa, eta bertan osorik sartzen dira buru-nahaste latza duen pertsonaren tratamenduari lotutako alderdi guztiak, besteak beste, AMALetik eratorritako prestazioak, eta pertsona jakin horrek behar lituzkeen baliabide egokiei buruzko iritzia ere bai. BTPren eta foru aldundiak egindako BAPen aurkakotasuna gerta daiteke. Gizarte arloaren eta osasun arloaren artean behar den koordinazioa egon ezean, premiei antzematerakoan alderdi desberdinei eman dakieke lehentasuna eta mendetasuneko egoeran dagoen pertsonarentzako baliabide egokiei buruzko gatazkak sor daitezke.

- Osakidetzaren ustez, mendetasuna baloratzeko baremoa ezgaitasun fisiko eta sentensorialerantz bideratuta eratu zen. Horren ondorioz, buru-nahaste latza duen pertsonaren kasuan, *“mendetasunaren balorazioa sistematikoki urria da, baita esleitutako baliabideak ere, eta horrek, jakina, legearen onarpenak eragindako itxaropenak zapuztu eta, batzuetan, baliabideetarako aukerak alderantziz jartzen ditu”*.

Kontu horri buruz, zentzu berean, [Bizkaiko Foru Aldundiak](#) adierazi zigun AMALek euren zaintzapeko pertsonengan izandako eragina *“oso urria izan d[ela], eta ez d[ela] a sumatu hazkunde esanguratsurik zerbitzu edo prestazioetarako eskubidean”*. Foru erakundeak, gertaera hori azaltzeko, adierazi zuenez, legeak erabilitako mendetasun kontzeptuak berariaz zehazten du zer jotzen den eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerentzako laguntzat, baina ez die heltzen, aldiz, gaixotasun mentala izanda *“euren autonomiarako beste laguntza batzuk”* behar dituzten pertsonen premiei. Horrela, baremoak autonomia fisiko, intelektual edo sentensoriala galtzeari lotutako egoerak jasotzen ditu, baina ez gaixotasun mentala duten pertsonen dagozkienak. Horrela –Aldundiak dioenez–, lortzen den emaitza askotarikoa da, eta honako kontraesanera iristen da: epai batez gaixotasun mentalagatik ezgai jotzen den pertsona bat autonomotzat jotzen da AMALen ondoretarako, horrek zenbait prestazio eta zerbitzu lortzeko dakarren kalteagatik.

- Hori hala izanda ere, bere erantzunean, Osakidetzak AMALen balorazio ona egin zuen, erakundeek ezgaitasunak eragindako errealitate batzuk euren erantzukizuntzat eta erakundeen arteko lankidetzazko soziosanitarioa lan saihestezintzat hartzea ekarri duelako, sortutako itxaropen guztiak betetzen ez baditu ere. Era berean, haren ustez pizgarria izan da buru-nahaste larria duten pertsonen arreta emateko ezinbestekoak diren zenbait egitura (egoitza txikiak) abiarazteko.
- Egin den bidea egin arren, buru-nahaste larria duten pertsonentzat laneratzeko baliabide gehiago ezarri behar dira, baliabide horiek direlako egokienak ikuspuntu terapeutikotik, baita estigma eta gizarte aurreiritziak gainditzen gehien laguntzen dutenak ere. Egoitza baliabideak behar direla ere sumatu da, batez ere 40 eta 60 urte arteko pertsonentzat, instituzionalizatzearen aurreko aukera gisa.
- Osakidetzak AMALen aplikazioari buruz ikusitako zailtasunei dagokienez, erakunde horrek emandako informazioaren eduki osoa kopiatuko dugu:

"Mendetasunaren legearen aplikazioak eta handik eratorritako ondorioek Osakidetza eta foru aldundi bakoitzaren arteko kulturen, itunen eta proiektu komunen eragin handia dute. Arreta Soziosanitarioaren Euskal Kontseilua bada ere, eta hark arreta soziosanitarioko politika itundu eta prestatu eta plan estrategikoa garatu daitekeen lurralde koordinazioko batzordeak badauzka ere, azkenean lurralde bakoitzean eskumen eremuak ez dira beti berdin ulertzen eta interpretatzen. Kontu bereizi bi daude:

- a) *Mendetasunaren baremoaren aplikazioa eta haren balorazioa, antzekoa lurralde guztietan.*
- b) *Mendetasuneko egoeratik behar diren baliabideen ezarpena –orokorrean soziosanitarioak–, eta haien finantzaketan izandako partaidetza. Zentzu horretan, badira aldeak lurraldeen artean.*

Arreta Soziosanitarioaren Euskal Kontseiluak 2005eko urtarrilean gaixo psikiatrikoak gizarte egitura normalizatueta birkokatzeko hartu zuen erabakia oinarri hartzen badugu, haren garapena erabat desberdina izan da. Erabakiaren ondorioak Bizkaian baino ez dira burutu; Gipuzkoan ez da eskaerarik egon (ez dagoelako ospitale psikiatriko publikorik) eta Araban ez da birkokatzeko akordioarik egon, zenbait arrazoi direla-eta, eta beraz, erabakia beste gai batzuk lortu arte atzeratu behar izan da.

Bizkaian erlazio soziosanitarioa ulertzen da eta egituren finantzaketa euren dago kiela eta mendetasunaren legearen aplikaziotik datorrela sentitzen da. Gaixo psikiatrikoen birkokatze planak 50 gaixo baino gehiago atera dira kanpora 2005ean eta Galdameseko egoitza txikia eraiki da. Haiek, aldi bereko finantzazio araubidean dauden pisu babestuetako plaza guztiekin batera, mendetasunaren legea esparru soziosanitarioan batera garatzeko engaiamenduaren adibide batzuk dira.

Gipuzkoan egoera Bizkaikoaren antzekoa da, eta egoitza txikiak eta eremu soziosanitarioko beste zentro mota batzuk eraiki eta aldi berean finantzatu dira.

Arabian, premiei buruzko pertzepzio bateratuari dagokionez, egoera bestelakoa da eta, komunikazioa badago ere, egiturek ez dute beti adostasuna islatzen. Birkokatze planak ez du irtenbiderik izan eta, mendetasuneko egoeran egon eta sintomarik ezagatik osasun eremuan jarraitu behar ez luketen pertsonak bertan diraute, beste egoera normalizatuago batzuetarako irtenbideak itxita daudelako".

d) Arabako Osasun Mentalaren Sareko Gizarte Lanaren Bulegoa-Osakidetzak emandako informazioa.

Osasun Mentalaren Sareko Gizarte Lanaren Bulegoa-Osakidetzak informazio oso interesgarria eman digu AMALeke gaixotasun mentala izanda Arabako Osasun Mentalaren Sarean artatuta dauden pertsonengan izandako ondorioei buruz.

Jarraian, konturik garrantzitsuena azpimarratu ditugu:

- Legea indarrean sartzeko gaixotasun mentala duten pertsonak (GMDD) Arabako Gizarte Ongizatearen Foru Erakundearen (GOFE) sartzeko modua aldatu du.

- Lege hori aplikatzeak egiturak berrantolatu beharra ekarri du, eta horrek eten luzea dakar. Hori dela-eta, ezin izan dira gaixotasun mentala duten pertsonentzat GOFErekin itundutako ostatu askotako plaza asko okupatu.
- Baloratzeko erabilitako tresnak ez ditu behar bezala jasotzen gaixotasun mentala duten pertsonen bizimodu autonomorako dauzkaten mugak eta zailtasunak. Erabilitako baremoak batez ere zailtasun funtzionalei heltzen die, eta pertsona horien mugak, aldiz, ekimenari eta motibazioari egoten dira lotuta maizago. Zereginak burutzeari lotutako adimen urritasunerako eta gaixotasun mentalerako baremoak jasotzen dituen egokitzapenak ez dira eraginkorrak kanpoko laguntza premia edo hirugarrenetikiko mendetasuna baloratzeko.
- Kolektibo horren portzentaje handi bat mendetasuneko I. graduaren baloratua izan da; horrek egoitza-baliabide publiko edo itunduak eskuratzea galarazten die. Arazo oso larria da, talde horretako askok berehalako ostatu premia daukatelako.
- Baliabideak eskuratzeko mendetasun graduaren araberrako lehentasunak eta zerbitzu eskaintza mugatuak egoitzaz kanpoko baliabideak, hala nola okupazio-taileerak, eguneko arreta, etab., eskuratzea zailtzen dute.
- Gaixotasun mentala duten 60 urtez gorako pertsonen egoera kezagarria da. Adin horretara iritsitakoan, osasun mentaleko berariazko baliabideek ez diete estaldurarik ematen, baina ezinezko bihurtzen da hirugarren adinaren egoitza-arreta publikoa eskuratzea, honako zioengatik:
 - a) plazak mendetasun funtzional handia dutenek okupatzen dituzte;
 - b) gutxitan onartzen zaie mendetasun handia, narriadura kognitiboa eta soziofamiliarra funtzionala baino handiagoa dutelako.
 - c) gehienetan ez dute ondasunik, pentsio txikiak dauzkate edo ez dute familiarren laguntza ekonomikorik, eta horrek egoitza baliabide pribatuetan sartzea galarazten die.
- Lege berriak zenbait baliabidetarako eskubidea onartzen du, baina gaixotasun mentalagatik mendekoak diren pertsonen kasuan, ez dago halakorik edo ez dira nahikoak. Hori dela eta, honakoak bultzatu behar dira:
 - a) unitate soziosanitarioak gaixotasun mentala duten adinekoentzat eta egungo baliabidetan lekurik ez duten beste pertsonentzat;
 - b) okupazio-zentroak;
 - c) eguneko eta gaueko zentroak;
 - d) etxeko gizarte eta hezkuntza laguntza;
 - e) laguntzako laguntasuna egoitzetan daudenentzat ere bai.
- Gaixotasun mentala izanda baliabide ertainak eta etxeko laguntza dauzkaten pertsonak zaintzen dituzten familiei lagundu behar zaie.
- Osasun mentalerako egoitzen zerbitzu eskaintza hirugarren adinerako egoitzetan dagoenarekin parekatu behar da (okupazio jarduerak, errehabilitaziokoak, osasun zaintzak, etab.).
- Araban, baliabide guztiak Gasteizen daude zentralizatuta; hori dela-eta, erabiltzailean euren landa ingurunetik deserrotu behar dira, Aiarako Haranaren kasuan izan ezik, bertan ASASAMek (Aiarako Senide eta Gaixo Psikikoen Elkarte) kudeatutako baliabideak daudelako: okupazio-zentroa eta egoitza-arreta. Arabako gainontzeko

koadrilei gaixotasun mentala duten pertsonentzako euren baliabideak jarri behar zaizkie.

- Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa ezin da aplikatu, osasun mentalean erabilitako ostatu pribatuak orain arte desagertzen ari direlako eta geratzen diren bakanak ez dute behar den homologazioa.

e) EUDELeK emandako informazioa

EUDELen ustez, AMAL indarrean sartu denetik, udal gizarte zerbitzuek, Gizarte Zerbitzuen Euskal Herriko Sistemarako sarbide gisa, herritarrak informatu, baloratu eta orientatzeko lana ez ezik, zeregin eztabaidea egin dute katalogoak eskaintako zerbitzu eskaintza kudeatzen.

AMALek udal esparruan eragindako ondorioei dagokienez, EUDELeK honakoa adierazi digu:

“Zalantzarik gabe, babes esparru berria abiarazi denetik igarotako denboran informazio, balorazio eta gizarte esku-hartzeko baliabideen kudeaketa gehiago eskatu da. Hori dela-eta, ondorio bi bereiz ditzakegu:

1.- Alde batetik, neurtzerik ez dagoen arren, udal gizarte zerbitzuetan garrantzi handia duen ondorio bat, haietara Lege horren bidez eurei edo itxuraz mendetasuneko egoeran dauden haien gertukoei legozkiekeen eskubideen berri izateko jotzen duten interesatu guztiei dagokie (horrek ez du esan nahi ondoren guztiek dauzkatenik AMASen prestazioetarako eskubidea).. Horrek denak, legeak informatzeko eginkizuna berriaz aipatu ez arren, lan zama handia dakarkie gizarte zerbitzuen egiturei, eta ezin da ahaztu, gizarte zerbitzuen sistemarako atea diren aldetik, zenbait prozedura fasetan udal eskumenaz kanpoko baliabideetarako sarbidea kudeatzen dutela.

Zeregin hori lehendik egiten zen, baina hala ere, areagotu egin da legeak, eskubide mailara igoz, eman dion bultzada handiagatik. Udal gizarte zerbitzuen egiturek lan horretan gehiago jardun beharrezkin batera, ordea, ez da etorri dagokion hornidura ekonomikorik.

Zentzu horretan, 2007ko urtarrilean legea indarrean sartu zenean, udal gizarte zerbitzu askoren bulegoek gainezka egin zuten eskariaren hazkundeagatik, baliabide jakin bat (eguneko zentroa, egoitzan sartzeta...) eskuratu ahal izateko mendetasunaren balorazioa eskatzen zuten pertsonen, mendetasunaren balorazioa prestazio ekonomikoak (batez ere familia inguruneko zaintzetarako prestazio ekonomikoa) eskuratu ahal izateko eskatzen zutenak batu zitzaizkielako. (...)

2.- Bigarren ondorioa legearen aplikazioak berak eragin du.

Zentzu horretan, udal gizarte zerbitzuak antolatzeko zailtasunak AMAS sustatzeko erakundeak udal egiturei laguntza ekonomikorik ez emateak larriagotu ditu. Horri dagokionez, gogoratu behar da AMALeko 32. artikuluan –Sistemaren finantzazioari

buruzkoa– esaten dela Estatuko Administrazio Nagusiak bermatutako gutxieneko babez mailaren estaldura bermatuko diela Sistemaren onuradun guztiei, baina egia-tan ekarpen ekonomikoak legearen aplikaziotik eratorritako zati txiki bat baino ez duela estaltzen.

Etxeko laguntza zerbitzua (ELZ) herritarrek gehien eskatzen dituzten udal kudeaketako zerbitzuetako bat da, mendeko pertsonak bere ingurunean uzten duelako, eta zerbitzua emateko orduak erabiltzaileen benetako premiei egokitu daitezkeelako. Malgutasun hori, ordea, garatzeko araudian xedatutako gutxieneko intentsitateek kaltetu dute, ez daukalako ez benetako premiak, ez eskatzaileak sare formalaren laguntzarik daukan, ez pertsona horiek aurre egin behar dioten ordaina aintzat hartzen.

Bestalde, aipatu behar da euskal udalak oraintxe etxeko laguntza zerbitzua kudeatu eta mantentzeagatik ordaintzen ari diren orduko prezioa Estatuko gainontzekoena baino nabarmen handiagoa dela, eta oraintxe buruan dagoela zerbitzuaren orduko kostuari dagokionez, AMASek finantzatzen duen zenbatekoa ia halako hiru izanik.”

AMALek hiru lurraldeetan izandako ezarpenari buruz, EUDELeke honakoa esan digu:

“Legeak ezarpen desberdinak izan ditu hiru lurraldeetan, ekintzak koordinatu dituen erakunde komunik ez dagoenez gero, foru aldundiek izan dutelako eskumena mendetasunaren balorazio prozedura eta AMASen katalogoko zerbitzu asko ezartzeko.

Era berean, erakundeen arteko koordinazioa egiteke dago gizarte zerbitzuetan, eta beste kontu batzuetan bezala, era desberdinetan burutu da hiru lurraldeetan.

Gizarte Zerbitzuei buruzko [abenduaren 5eko 12/2008 Legearen](#) araudia garatzen ari den une honez gero ezarri behar lirateke koordinazio tresnak gizarte zerbitzuei dagokienez lurraldeen arteko oreka bermatu ahal izateko, mendetasunari buruzko gaiak ere sartuz.

Zentzu horretan, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeko legea gidatzen duten printzipioei buruzko 7. artikuluan, c) eta h) idatz zatiak –berdintasunari eta ekitateari, eta koordinazioari eta lankidetzari buruzkoak, hurrenez hurren– azpimarratu behar dira

Berdintasunari eta ekitateari buruzko c) idatz-zatian xedatzen denez, euskal herri-administrazioek prestazio eta zerbitzuen estaldura, baliabideen banaketa homogeneoa, eta baliabideak eta prestazioak ekitate irizpideekin eskuratu ahal izatea bermatu beharko dute.

Halaber, koordinazioari eta lankidetzari buruzko h) idatz-zatian xedatzen da euskal herri-administrazioek euren artean koordinatuta eta lankidetzan jardungo dutela.

Irizpide berberen arabera uler daiteke Gizarte Zerbitzuei buruzko Euskal Informazio Sistemari buruzko 79. artikulua. Lurralde mailatik haragoko urrats bat eman eta informazioa batzea lortu nahi da, Eusko Jaurlaritzaren, hiru aldundien, udalen eta erakunde pribatuen artean koordinatuta. Prozesu hori hasi berria da eta haren garapenak 2 urtez irautea espero da.

Paraleloki eta zehazki etxeko laguntza zerbitzuari dagokionez, EUDELeK sartzeko baremo baten azterketa eta balorazio prozesu bati ekin dio arreta mailak erabakitze-ko. Haren bidez hiru lurraldeetan eta udal mailan irizpide horiek bateratu nahi dira. SIIS ari da azterketa hori egiten eta balioesteko fasean dago.

Gure ustez, guztiz beharrezkoa da erakundeen arteko datuak eta informazioa trukatea errazteko tresnak egotea, bai sistemaren erabiltzaileei begira administrazio izapideak bizkortzeko, bai Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema sendoa sortu eta lurraldeen arteko desberdintasunak saihesteko."

EUDELeK azpimarratu duenez, udalek AMALen aplikazioan aurre egin behar izan dioten zailtasun nagusia "hura aplikatzeko finantzazio falta izan da eta bada". Haren iritziz, "udalek lege baten kudeaketak ezarritako ardurak bere egin behar izan dituzte, hark dakarren lan zama handiagoarekin, baina hura burutzeko behar beste baliabide ekonomikoren transferentziarik gabe".

EUDELeK udalen nahikotasun finantzarioa defenditu du eskumenak ematen dizkieten arauak indarrean sartzten direnean eta horretarako eskatzen du arau horiek, haiek garatzeko, udal finantzaziorako tresnak era ditzatela, herritarrek lortutako eskubideak bermatuak gera daitezten.

EUDELeK, finantzazio faltari, legeak tokiko esparruan dauzkan ondorioei buruzko informazio orik eza eranstean dio eta, ziurtatu duenez, "ez dira kontuan hartzen arauan toki erakundeei eskatutako eginkizunak burutu eta kudeatzeko behar diren ahaleginak, eta horrek politika zerikusia duten eragileak eta haiek eduki ditzaketen premiak –udal teknikarien prestakuntza legea indarrean sartu aurretik, emandako eskumenei aurre egiteko behar beste finantzazioa, etab.– aintzat hartu gabe egiterakoan dagoen plangintzarik eza erakusten du".

Gaineratu duenez, "egun une erabakigarrian gaude euskal prestazio sistemaren egituraketan, egituraketa horretarako funtsezko hiru legeren arau garapenarekin: Gizarte Zerbitzuen Legea, Familiaren Legea eta Sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Legea; gizarte zerbitzuei buruzko erreferentzia esparruko aldaketek eginkizun berriak harrarazi eta, ondorioz, zerbitzu berriak, zentroak, prestazio ekonomikoak eta gainerako gizarte zerbitzuak emana-razi dizkie tokiko gobernuei, eta horrek kudeaketa asko handitu du; beraz, udal zerbitzuen finantzazio sistema derrigorrez aldatu behar da." Eta horregatik honakoa ondorioztatu du: "emandako eskumen berri horien ondorioz, tokiko gobernuei baliabide ekonomikoak emateko bideak birdefinitu behar lirateke, azaldu arau aldaketek ekarritako eginkizun berriak hartzeak eragindako betebeharrak behar bezala betetzeko".

Ordenamendu berri horren aurrean, EUDELek adierazi digu udal gizarte zerbitzuek gizarte zerbitzu sistemaren prestazioak eta zerbitzuak, zein diru-sarrerak bermatzeko sistemarenak eta mendetasunaren sistemarenak kudeatu beharko dituztela. Horrek, haren iritziz, gizarte zerbitzuei eskatu beharreko eskubide subjektiboa gauzatzeko eginkizun estrategikoa izatearekin eta sisteman sartzeko sarbidea eta haren oinarritzko elementua izatearekin batera, *"beharrezko egiten du aldi bereko finantzazio bideak edo gainontzeko erakundeek udal gizarte zerbitzuen finantzazioan parte hartzeko bideak hautatzea"*.

Bukatzeko, EUDELek azpimarratu du beharrezkoa dela gizarte zerbitzuetan ardurak dauzkatzen administrazioen jarduketak koordinatzea, eta eskatzen du udalek berdintasunez izan behar dutela partaideak eta protagonistak gizarte politiken diseinuan.

f) Hiru foru aldundiek emandako informazioa eta datuak

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru aldundiek emandako informazioa gure txostenaren iturri nagusia izan dira. 2007, 2008 eta 2009ko ekitaldiei dagokie, eta horri esker AMAL 2007ko urtarrilaren 1ean indarrean sartu zenetik egondako bilakaera ezagut dezakegu. Aldundiek emandako informazio metatua 2010eko urriaren 1ean ateratako datuei dagokie. Hurrengo ataletan (3.1.-3.17) informazio hori sistematizatu eta aztertu dugu.

3.1. Mendetasuneko egoera baloratzeko eskaerak

3.1.1. Erregistratutako eskaerak


Jarraian, EAE osatzen duen lurralde historiko bakoitzean 2007, 2008 eta 2009ko ekitaldietarako mendetasuneko egoera baloratu eta onartzeko erregistratu ziren eskaera kopuruari buruzko informazioa emango dugu. Balio horietan hasietako balorazioa berraztertzeke eskaerak ere sartzen direnez, informazio horrek, AMAL abiaraztearen ondorioz, hiru foru aldundiek aurre egin behar izan dioten lan bolumenaren ideia bat emango digu.

6. taula-grafikoa. 2007, 2008 eta 2009an mendetasuneko egoera baloratu eta onartzeko erregistratutako eskaerak.


Lurralde historikoen araberako banaketa

	2007AN ERREGISTRATUTAKO ESKAERAK		2008AN ERREGISTRATUTAKO ESKAERAK		2009AN ERREGISTRATUTAKO ESKAERAK	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Araba	6.041	18,27	4.637	13,43	3.562	11,21
Bizkaia	13.494	40,82	14.051	40,68	13.823	43,51
Gipuzkoa	13.523	40,91	15.850	45,89	14.386	45,28
EAE GUZTIRA	33.058	100	34.538	100	31.771	100


ERREGISTRATUTAKO ESKAERAK 2007




BANAKETA EAE 2007




ERREGISTRATUTAKO ESKAERAK 2008




BANAKETA EAE 2008



ERREGISTRATUTAKO ESKAERAK 2009



BANAKETA EAE 2009



Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako informazioa zabaltzeko adierazi du, adierazitako eskaerez gain –Mendetasuna Baloratzeko Baremoa (aurrerantzean MBB) aplikatuta egindako balorazioei dagozkien horiek–, RAI balorazioa⁶⁴egiteko 2.025 eskaera jaso ziren 2007an eta 8.706 eskaera 2008an.

Ikusi dugunez, Gipuzkoan eta Bizkaian erregistratutako eskaeren kopurua 2008an handitu eta 2009an gutxitu zen, azken urte horietako balioak 2007akoak baino apur bat handiagoak izanik. Aipatu joerak handiagoak izan ziren Gipuzkoan. Araban, urtean jasotako eskaeren gutzizkoa apurka murriztu zen.


⁶⁴ Ikus txosten honetako II. kapituluko 2.9.d) atala.

Hiru foru aldundiek emandako datuen arabera, 2010eko uztailaren 1ean, AMAL indarrean sartu zenetik EAEEn guztira 117.300 eskaera erregistratu ziren⁶⁵. Jarraian, lurraldeka bereziztako guztizkoa emango dugu:

7. taula-grafikoa. EAEEn 2007ko urtarrilaren 1etik 2010eko uztailaren 1 arte mendetasuneko egoera baloratzeko erregistratutako eskaerak (berrazterketak barne). Lurralde historikoen araberako banaketa

2007ko URTARRILAREN 1ETIK 2010EKO UZTAILAREN 1 ARTE ERREGISTRATUTAKO ESKAERAK		
	Kop.	%
Araba	15.823	13,49
Bizkaia	50.249	42,84
Gipuzkoa	51.228	43,67
EAE GUZTIRA	117.300	100

2007ko URTARRILAREN 1ETIK 2010EKO UZTAILAREN 1 ARTE ERREGISTRATUTAKO ESKAERAK



Aipatzekoa da Gipuzkoako lurralde historikoak daukan proportzioa (%43,67), hango biztanleria Bizkaikoa baino askoz txikiagoa izanda.

3.1.2. Eskatzaileak eta lurralde historiko bakoitzeko biztanleriaren aldean duten proportzioa

Hurrengo taula eta grafikoetan lurralde historiko bakoitzean balorazioa eta, hala balegokie, mendetasuneko egoera onartzeko eskatu duten pertsona kopuruari buruzko informazioa emango dugu, aipatu hiru ekitaldiei dagokienez.

Gure autonomia erkidegoan biztanleriak duen banaketa desberdina dela-eta, datu horiek lurralde historiko bakoitzeko biztanle kopuruaren aldean aztertuko ditugu.

⁶⁵ Txosten honetako 3.0.b) eta 1.3 ataletan SISAADek argitaratutako datuen, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak emandakoen eta hiru foru aldundiek igorritakoen arteko aldean zioak aztertu ditugu.


8. taula-grafikoa. Mendetasuneko egoera baloratzeko eta onartzeko eskatu duten pertsonak EAEn. Lurralde historikoen arabera banaketa.

2007, 2008 eta 2009. urteak. Biztanleriaren gaineko proportzioa

	2007. URTEA			
	BIZTANLERIA*		ESKATZAILEAK	
	BIZTANLE KOPURUA	%	Kop.	BIZTANLERIAREN GAINEKO %
Araba	305.459	14,26	6.057	1,98
Bizkaia	1.141.457	53,29	12.068	1,06
Gipuzkoa	694.944	32,45	13.051	1,88
GUZTIRA	2.141.860	100	31.176	1,45


2007. URTEA

Biztanleria



2007. URTEA

Biztanleriaren gaineko eskatzaileen %




2008. URTEA

	2008. URTEA			
	BIZTANLERIA*		ESKATZAILEAK	
	BIZTANLE KOPURUA	%	Kop.	BIZTANLERIAREN GAINEKO %
Araba	309.635	14,35	4.630	1,49
Bizkaia	1.146.421	53,15	12.127	1,06
Gipuzkoa	701.056	32,50	12.832	1,83
GUZTIRA	2.157.112	100	29.589	1,37


2008. URTEA

Biztanleria





2008. URTEA

Biztanleriaren gaineko eskatzaileen %



	2009. URTEA			
	BIZTANLERIA*		ESKATZAILEAK	
	BIZTANLE KOPURUA	%	Kop.	BIZTANLERIAREN GAINEKO %
Araba	313.819	14,45	3.550	1,13
Bizkaia	1.152.658	53,06	12.220	1,06
Gipuzkoa	705.698	32,49	8.525	1,21
GUZTIRA	2.172.175	100	24.295	1,12




* Iturria: EIN. Biztanleria zenbatekoak eta demografia erroldak.

Aldundiek emandako datuen arabera, 2007an euskal biztanleriaren %1,45ek mendetasuneko egoera onartzeko eta AMASen prestazioetarako eskubidea eskatu zituen. Lurraldeka, Arabak eskatzaile portzentajerik izan zuen bere biztanleriaren aldean (%1,98), eta ondoren Gipuzkoak (%1,88). Bizkaian, ordea, ehunekoa nabarmen txikiagoa izan zen: %1,06.

2008an portzentajea gutxitu egin zen EAE osoan (2007ko %1,45etik, 2008ko %1,37ra). Aipatzekoa da Arabako murrizketa (2007ko %1,98tik 2008ko %1,49ra).

2009ri dagokionez, parametroek aldaketarik gabe iraun zuten Bizkaian eta nabarmen jaitsi ziren Gipuzkoan (%1,83tik %1,21era). Araban ere jaitsiera argia gertatu zen (%1,49tik %1,13ra). Eskaeren ehunekoa, EAEko biztanleria osoaren aldean, 2008ko %1,37ik 2009ko %1,12ra jaitsi zen.

6. grafikoa. Eskatzaileen ehunekoaren bilakaera lurralde historiko bakoitzeko biztanleriaren aldean. 2007-2009 aldia




Foru aldundiek emandako datuen arabera, legea 2007ko urtarrilaren 1ean indarrean sartu zenetik 2010eko uztailaren 1 arte, **98.673 lagunek eskatu dute euren mendetasuneko egoera onartzeko**. Jarraian lurraldeen araberako banaketa jarri dugu:

9. taula-grafikoa. 2007ko urtarrilaren 1etik 2010eko uztailaren 1 arte mendetasuneko egoera baloratzeko eta onartzeko eskatu duten pertsonak EAEn. Lurralde historikoen araberako banaketa. Biztanleriaren gaineko proportzioa


ESKATZAILEAK 2007KO URTARRILAREN 1ETIK 2010EKO UZTAILAREN 1 ARTE				
	Biztanle kopurua*	%	Eskatzaile kopurua	Biztanleriaren gaineko %
Araba	313.819	15,70	15.488	4,93
Bizkaia	1.152.658	45,76	45.150	3,92
Gipuzkoa	705.698	38,54	38.035	5,39
GUZTIRA	2.172.175	100	98.673	4,54

* Iturria: EIN. 2009ko zenbateko ofizialak.

ESKATZAILEAK 2007KO UZTAILAREN 1ETIK 2010EKO UZTAILAREN 1 ARTE



Biztanleriaren gaineko eskatzaileen %



Proporziorik handiena Gipuzkoari dagozkio. Bertako biztanleriaren %5,39k eskatu dute mendetasuneko egoera onartzeko. Portzentajea txikiagoa da Araban (%4,93). Bizkaian Erkegoko baliorik txikiena erregistratu da: %3,92.

Eskatzaileei buruzko datu horiek arestiko atalean erregistratutako eskaerei buruzkoei lotuz gero, ikusten denez, Gipuzkoan eskatzaileak erregistratutako eskaera guztien %74,25 baino ez dira (%88,85 Bizkaian eta %97,88 Araban). Horrek erakusten du Gipuzkoan berrazterketa bolumen handiagoa dagoela.

3.2. Dagokion foru sailak egindako balorazioak

3.2.1. Alderdi kuantitatiboak

Atal honetan hiru foru aldundiek haietako bakoitzak 2007, 2008 eta 2009an egindako balorazio kopuruari buruz emandako datuak aurkeztuko ditugu.

Egindako balorazio guztien kopurua homologazioaren bidez –AMALeko indarrean dauden baliaezintasun handiko eta hirugarren pertsona baten premiako egoeren onarpenaren eraginkortasunari buruzko 9. Xedapen Gehigarriaren arabera– eta [apirilaren 20ko 504/2007 Errege Dekretuaren](#) arabera Mendetasuna Baloratzeko Baremoa (MBB) aplikatuz egindakoen batuketari dagokio⁶⁶.

MBB aplikatuz egindako balorazio guztien gainean kontrako irizpen guztiek duten portzentajea azpimarratu behar dugu.

⁶⁶ Apirilaren 20ko 504/2007 Errege Dekretuko lehenengo xedapen gehigarria: *Baliaezintasun handiko eta beste pertsona baten laguntza premiako egoeren onarpenaren eraginkortasuna*.

1. Legeko bederatzigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren ondoretarako, baliaezintasun handiko osagarria onartuta duten pertsonen mendetasuneko egoera onartuko zaie, arestiko artikuluan xedatutako baremoa aplikatuz ezarritako gradu eta mailarekin, eta edonola ere I. graduko –mendetasun arina– I. maila bermatuko zaio.

2. Halaber, beste pertsona baten laguntza premiaren osagarria onartuta duten pertsonen –minusbaliotasun gradua onartzeko, aitortzeko eta sailkatzeko prozedurari buruzko abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuko

2. eranskineko baremoaren arabera ezarrita–, dagozkien gradua eta maila onartuko zaizkie, aipatu baremoak emandako puntuazio zehatzaren arabera, honako taulari jarraituz:

15 eta 29 puntu artean: Mendetasuneko I. gradua, 2 maila.

30 eta 44 puntu artean: Mendetasuneko II. gradua, 2 maila.

45 eta 72 puntu artean: Mendetasuneko III. gradua, 2 maila.


3. Hirugarren pertsona baten laguntza premia onartuta duten pertsonen, abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuko 2. eranskinaren arabera, onarpen horren ondorio juridiko guztiak gozatzen jarraituko dute, edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribaturen aurrean frogatu behar dutenean, hemengo baremoaren arabera dagokien mendetasun gradua eta maila onartzen ez zaien bitartean.

4. Xedapen gehigarri honetako arestiko zenbakietan jasotako kasuetan, mendetasuneko egoeraren onarpena, errege dekretu honetan xedatutako baremoa aplikatuz ezarritako gradu eta mailan, dagokien erakundeek egingo dute, interesatuak edo haren legezko ordezkariak eskatuta.

10. taula-grafikoa. EAEn egindako balorazioak lurralde historikoen arabera. Ezespen gradua MBBren arabera egindako balorazioetan. 2007, 2008 eta 2009. urteak


	2007AN EGINDAKO BALORAZIOAK					
	Egindako balorazioak guztira	Homologazioz egindako balorazioak	MBB aplikatuz egindako balorazioak	BALORAZIO BAIETSIAK	EZETSIAK	
					Balorazio batzorde teknikoaren kontrako irizpenak	MBBz egindako balorazioen gaineko %
Araba	5.909	2.447	3.462	3.153	309	8,92
Bizkaia	11.960	623	11.337	10.603	734	6,47
Gipuzkoa	16.076	5.395	10.681	9.342	1.339	12,53
GUZTIRA	33.945	8.465	25.480	23.098	2.382	9,35

MBB BALORAZIOAK 2007



	2008AN EGINDAKO BALORAZIOAK					
	Egindako balorazioak guztira	Homologazioz egindako balorazioak	MBB aplikatuz egindako balorazioak	BALORAZIO BAIETSIAK	EZETSIAK	
					Balorazio batzorde teknikoaren kontrako irizpenak	MBBz egindako balorazioen gaineko %
Araba	4.446	641	3.805	3.249	556	14,61
Bizkaia	12.322	128	12.194	10.288	1.906	15,63
Gipuzkoa	17.467	276	17.191	14.721	2.465	14,34
GUZTIRA	34.235	1045	33.190	28.814	4.932	14,61


MBB BALORAZIOAK 2008



2009AN EGINDAKO BALORAZIOAK

	Egindako balorazioak guztira	Homologazioz egindako balorazioak	MBB aplikatuz egindako balorazioak	BALORAZIO BAIETSIAK	EZETSIAK	
					Balorazio batzorde teknikoaren kontrako irizpenak	MBBz egindako balorazioen gaineko %
Araba	3.540	318	3.222	2.382	840	26,07
Bizkaia	12.442	45	12.397	9.400	2.997	24,17
Gipuzkoa	13.264	0	13.264	11.362	1.902	14,33
GUZTIRA	29.246	363	28.883	23.144	5.739	19,87

MBB BALORAZIOAK 2009



Arabako Foru Aldundiak adierazi digunez, "mendetasuna baloratzeko prozesua abiarazi zenetik (2007ko apirilean) 2008ko amai aldera arte 1.166 erreklamazio aurkeztu ziren eta haietatik 1.106 baietsi ziren; erreklamazio baietsi gehienen arrazoia izan zen eskatzaileak ez zeudela ados hirugarren pertsona baten laguntza izateagatik homologazioz lortutako balorazioarekin, eta beraz MBBren bidezko balorazioa egin behar izan zen".

Bestalde, adierazi du 2007an Araban homologazio asko egin zirela, apirilaren 20ko 504/2007 Errege Dekretuko lehenengo xedapen gehigarriaren irizpideei jarraituz, minusbaliotasuna izanda betekizunak betetzen zituzten pertsonen onerako zelakoan, mendetasun gradua azkar eman eta harekin zuzenean eskura zitzaketelako SISAADen prestazio guztiak. Hala ere, hasieratik, oinarritzko, foru eta udal gizarte zerbitzu guztiei eman zitzaizkien aginduak pertsona horiek balorazioa eskatzera bideratu eta bultzatzeko, foru aldundiak zeuzkan espedienteetako datuak eguneratu gabe egon zitezkeelako (dagokien pertsonak balorazio zentrorra aldaketan berri ematera doazenean baino ez daukate espediente eguneraturik –argitu digute-) eta gerta zitezkeelako pertsona batzuek “laugarren pertsonaren laguntza pasabidea” aplikatuta mendetasun gradu txikiagoa lortzea MBB aplikatuta aterako litzaiekeena baino. Horregatik –erantsi dute– ondoren ia pertsona horiek guztiak MBBren bidez baloratu ziren. MBB balorazioaren emaitzak homologazioak baino gradu edo maila txikiagoa emanez gero, homologazioaren emaitzari eusten zitzaion, eta gradu handiagoa lortuz gero, aldiz, azken hori ezartzen zen onarpenean.

Aldundiak argitu digunez, egoera horiek lehenengo urtean gertatu ziren, baina 2008ko erdialdeaz geroztik, *“ia ez da homologaziorik egin, pertsona guztiarentzat MBB (edo BBE, beste kasuetan) erabiltzen delako. 3 kasutan baino ez dira oraindik HPLgatiko homologazioak gertatzen, pertsona batzuek prestazioak eskuratu ahal izateko modu bakarra delako:*

- *kotizazio gabeko pentsioa jasotzen duten pertsonak,*
- *seme-alabengatik GSINren kargurako dirua jasotzen duten pertsonak eta*
- *amatasun bajan (mendetasuna duten haurrengatik) dauden pertsonak”.*

Beraz, baietsi digunez, *“azken urte biotan urtean sei bat homologazio kasu baino ez dira egiten; hala ere, bere sistema informatikoan antzemandako akats bategatik (konpontzeko bidean dagoena), sistemak oraindik jotzen ditu homologaziotzat ondoren MBBz baloratu diren pertsonen kasuak”.*

Gipuzkoako Foru Aldundiak adierazi digu, arrazoi teknikoengatik, 2009 arte ezin izan dela HPLren homologazioa aplikatu, eta urte horretan homologazioak atzeraeraginezko ondorioekin egin direla. Homologazioz egindako balorazio guztietatik (5.671), 620k (553 2007an eta 67 2008an), hots, %10,93, ez dute mendetasuneko egoeraren onarpena lortu.

Bizkaiari dagokionez, Aldundiak argitu digu homologazioa beste pertsona baten laguntza premiako osagarria (HPL) 45tik gorako puntuazioz onartuta zuten pertsonen baino ez dietela aplikatu, eta horrek automatikoki kokatzen zituela mendetasuneko III. graduako 2. mailan.

Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako balorazioen bolumena oso azpimarratzekoa da. Lurralde horretan, antzera aztertutako hiru ekitaldietan, egindako MBB balorazioen %12-14 inguruk kontrako irizpena jasotzen dute. Kontrako irizpentzat pertsona, baremoa aplikatu ondoren azkeneko emaitzan 25era ez iristeagatik, mendetasuneko egoeran ez dagoela erabakitzen duena ulertzen dugu. Araba eta Bizkaiari dagokienez, ehuneko horrek asko handitu da denboran. Horrela, kasu bietan, 2007an ehunekoa %9 baino gehiago ez izatetik, 2009an %24 baino handiagoa igaro da. Bizkaian, ordea, datu horiek kontuz hartu behar

dira, Aldundiak jakinarazi digulako, kontrako irizpenei buruz emandako datuetan, pertsona autonomotzat jotako balorazioak ez ezik, ukapenak eta amore emateak ere sartu dituztela.


Esparru juridikoari buruzko atalean adierazi dugunez, Arabako Foru Aldundiak ez darabil beste baremorik mendetasuna baloratzeko; Gipuzkoako Foru Aldundiak, RAI balorazioa ere badarabil bere lurraldean foru zerbitzu batzuk eskuratu ahal izateko (egoitza-arreta eta adinekoentzako eguneko zentroa). Bizkaian, 162/2009 Dekretu berria indarrean sartu arte, bigarren tresna horren erabilera osagarria egiten zen; 74/2007 Foru Dekretu indargabetuak xedatzen zuenez, mendetasunaren balorazioari buruzko ebazpenak balorazio tresna bien emaitzari buruz ebatzi behar zuen.

Bukatzeko, AMAL indarrean sartu zenetik (2007ko urtarrilaren 1ean) 2010eko uztailaren 1 arte baloratutako pertsona kopuruari buruzko datuak aurkeztuko ditugu. Mendetasuneko egoera onartzen ez zaien pertsonen ehunekoa azpimarratu nahi dugu, hots, baloratu ondoren, behar den puntuazioa ez lortzeagatik autonomotzat jo direnak.

11. taula-grafikoa. 2007ko urtarrilaren 1etik 2010eko uztailaren 1 arte EAEn baloratuak izan diren pertsonak, lurralde historikoen arabera. Mendetasuneko egoeran egotea onartzen ez zaien pertsona baloratuen proportzioa

PERTSONA BALORATUAK 2007KO URTARRILAREN 1ETIK 2010EKO UZTAILAREN 1 ARTE					
	Pertsona baloratuak guztira		Mendetasuneko egoeran onartutako pertsonak	Onarpenik jaso ez duten pertsonak	Onarpenik lortzen ez duten pertsonen % baloratutako pertsona guztien gainean
	Kop.	%			
Araba	15.270	16,35	13.068	2.202	14,42
Bizkaia	42.000	44,97	33.390	8.610	20,50
Gipuzkoa	36.125	38,68	30.895	5.230	14,48
GUZTIRA	93.395	100	77.353	16.042	17,18

2007KO URTARRILAREN 1ETIK 2010EKO UZTAILAREN 1 ARTEAN BALORATUTAKO PERTSONAK



Beraz, foru aldundiek emandako datuen arabera, Araban 2010eko uztailaren 1ean eskatzaileen %98,59 (15.488 arestiko atalean adierazi legez) baloratuta zeuden. Gipuzkoan %94,98 arte jaisten da ehunekoa, eta Bizkaian %93,02ra.

Ikusten denez, EAEn baloratutako pertsonen %16,35 arabarrak dira, %38,68 gipuzkoarrak eta %44,97 bizkaitarrak. Datu horiek lurralde historiko bakoitzeko biztanleriarekin alderatzen badugu, Gipuzkoan 1.000 biztanleko baloratutako pertsonen tasa 51,19 da; Araban 48,66; eta Bizkaian 36,44.

Gipuzkoa eta Arabako lurralde historikoetan mendetasuneko egoera onartzen ez zaien pertsonen ehunekoa oso antzekoa da (%14,48 Gipuzkoan eta %14,42 Araban). Bizkian, aldiz, askoz handiagoa da: %20,50. Arestian adierazitakoaren arabera, hori dela-eta, 1.000 biztanleko, mendetasuneko egoeran onartutako pertsonen tasa 43,77 da Gipuzkoan, 41,64 Araban eta 28,97 Bizkaian. Azken tasa hori oso baxua gertatzen da.

3.2.2. Balorazio faseari lotutako alderdi kualitatiboak

3.2.2.1. Zerikusia duten taldeek, foru zerbitzuek egindako balorazio lanari buruz, emandako iritziak ikusita (txosten honetako [4. kapitulua](#)), erakunde honek, mendetasun kontuetan, balorazio taldeak osatzen duten langileen eta eskatzailearen bizilekuan elkarriketak egiten dituztenen kualifikazioa bermatzeko jarritako tresnei buruzko argibideak eskatu zizkien foru aldundiei. Langile horien ezaugarriak, foru aldundiek langile horientzako mendetasunari eta minusbaliotasunari buruzko zer prestakuntza ikastaro antolatu edo diru-laguntza zeini eman zioten, eta balorazio taldeek minusbaliotasuna izan edo mendetasuneko egoeran dauden taldeen gizarte erakunde ordezkatzailleekin harreman formalik zeukaten ezagutu nahi genuen.

Arabako Foru Aldunditik jasotako erantzunean baietsi da Gizarte Ongizatearen Foru Erakundeak (GOFE) honako tresnen bidez bermatu duela balorazioa egiten duten langileek posturako kualifikazioa dutela eta egokiak direla:

- Balorazio taldea eratu aurretik, egingo zuten lanaren eta ezaugarri tekniko eta profesionalak eta ezaugarri horietara hoberen egokitzen ziren ezaugarri akademikoak definitu ziren. Osasun zientzien arloko langileak hautatu eta diziplina arteko talde bat osatu zen erizaintza, fisioterapia eta okupazio-terapiako unibertsitate diplomadunekin, zeinek, besteak beste, geriatría, gaixotasun mental, adimen urritasun, ezgaitasun fisiko, pediatria eta norberaren autonomia sustatzeko laguntza produktuei buruzko prestakuntza baitzuten. Haiiek denak medikuntzan lizentziatutako pertsona baten ardurapean geratu ziren, zeinek esperientzia baitzuen minusbaliotasuna eta mendetasuna baloratzen.
- Langileen hautaketa azterketa psikoteknikoen bidez egin zen, balorazio lanaren eskakizunetara egokitzen zirela ere bilatuz.
- Hautatutako pertsonen prestakuntza teknikoa programatu zen, GOFeko langileen ardurapean. Batez ere medikuak eta psikologoak ziren, eta balorazio prozesua,

AMAL, Mendetasuna Baloratzeko Baremoa (MBB) eta 3 urtez azpikoentzako Bera-riazko Balorazio Eskala (BBE) azaldu zituzten.

- Prestakuntza praktikoa zenbait minusbaliotasun mota daukaten pertsonen arreta ematen dieten elkarteekin harreman formalak sortuz egin zen, eta balorazio ariketa praktikoa egin ziren elkarteek kudeatutako zentroetan eta Gizarte Ongizatearen Foru Erakundearen zentroetan, hots:
 - [ONCE Fundazioa](#).
 - Gaixotasun mentala duten pertsonentzako egoitza-arretako zentroa, elkarte mugimenduak kudeatua eta GOFErekin itundua.
 - Heltzeko atzerapena edo hura izateko arriskua duten haurrentzako [APDEMAren](#) arreta goiztiarreko unitatea; bertan BBE aplikatu zen 3 urtez azpikoengan.
 - Etxebidea zentroa, adimen urritasun latza edo sakona izan eta, beraz, laguntza orokorra behar duten pertsonentzat.
 - Gizarte Ongizatearen Foru Erakundearen eguneko eta egoitza zentroak adinekoentzat.
 - Gizarte Ongizatearen Foru Erakundeko Minusbaliotasuna duten Pertsonen Arloaren minusbaliotasunaren eta mendetasunaren balorazio taldea.

Era berean, Arabako Foru Aldundiak jakinarazi digu taldearen osaketa ez dela 2007ik aldatu eta, behin-behineko laguntzak behar izan badira ere, pertsona horiek balorazio unitateko langileen prestakuntza praktikoa eta teorikoa jaso dutela.

Jardueretan izandako parte hartzeari eta beste erakunde edo elkarteekin izandako harremanei dagokienez, Arabako Aldundiak honakoak aipatu ditu:

- IMSERSOK zenbait ikastaro eta topaketa antolatu ditu zenbait autonomia erkidegotan mendetasuna eta minusbaliotasuna baloratzen diharduten profesionalen artean, eta GOFEk behar ziren neurriak hartu ditu unitateko kideek parte har zezaten.
- Halaber, mendetasuneko egoera baloratzeko prozesua abiarazi zenetik, aldian aldiko kontaktuak egin dira hirugarren sektoreko zenbait erakunderekin eta hark antolatutako jardueretan parte hartu da (narriadura kognitiboa duten pertsonen balorazioari buruzko mahai-inguruan parte hartu zen, Alzheimerra duten pertsonen nazioarteko egunaren kariatara, adibidez).
- Unitateko langileek, bestalde, Estatu eta Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko batzordeetan parte hartzen dute, minusbaliotasunari, mendetasunari eta arreta goiztiarrari lotutako gaietan.

Gipuzkoako Foru Aldundiak erantzun du elkarrizketak egiten dituzten pertsonen goi-mailako teknikariak (medikoak eta psikologoak) edo erdi mailako teknikariak (okupazio-terapeutak, fisioterapeutak eta erizaintzako unibertsitate diplomadunak –EUD–) izan behar dutela, eta prozeduraren fase horretan ahalik eta mediku gehien erabiltzeko ahalegina egiten dela.

Bestalde, bisita aurreko egiaztatze teknikoak eta ondorengo azterketa egin behar duten ikus-kaizaleei medikuntzako lizentziatura eskatzen zaie.

Bestalde, Gipuzkoako foru erakundeak adierazi du, eskatutako oinarrizko titulua gorabehera, edozein langileren jarduera hasterakoan hastapeneko prestakuntza protokoloa ezarrita dagoela, baita prestakuntza iraunkorrekoa ere, prozesuan esku hartzen duten langileek behar duten heinean. Onartu duenez, balorazio taldeek harreman formal normalizatu dute minusbaliotasuna duten edo mendetasuneko egoeran dauden pertsonak ordezkatzeko dituzten gizarte erakundeekin.

Bizkaiko Foru Aldundiak jakinarazi digu, 2009ko urtarrilaren 13an bere egoitzan txosten honen prestaketari buruz izandako bileraren kariatara, balorazioa egiten duten teknikariek medikuntzako lizentziatura dutela. Adierazi duenez, langile horiek ONCEk zentzumen urritasunari buruz antolatutako ikastaroetan jaso dute prestakuntza, baita Alzheimerrari eta adimen urritasunari buruzko berariazko prestakuntza ere, eta harremanak izan dituzte APNABlrekin (Bizkaiko Autismoa eta Beste Autismo Espektoaren Nahasteak dituztenen Gurasoen Elkarte) estimulazio goiztiarrari dagokionez.

3.2.2.2. Balorazio Batzorde Teknikoa eta balorazio taldea osatzen duten pertsonen kopuruari eta haietako bakoitzaren ikasketa eta prestakuntza ezaugarriei buruzko informazioa ere eskatu dugu.

Arabako Foru Aldundiak adierazi duenez, Gizarte Ongizatearen Foru Erakundeko Minusbaliotasuna duten Pertsonen Arloko Balorazio Unitate Teknikoa "diziplina anitzeko taldea da eta jarraian zehaztu diren eginkizunak burutzen dituzten honako langileek osatzen dute:

a) Mendetasuneko egoera baloratzeko, MBB aplikatuz (504/2007 ED):

- Balorazioko teknikari bat, honako prestakuntza daukana: fisioterapiako unibertsitate diplomatura Zaragozako Unibertsitatean; komunikazio zientzietako lizentziatura Euskal Herriko Unibertsitatean; lan esperientzia zabala adimen urritasun latz eta sakona duten eta mendetasun handiko egoeran egonda laguntza orokorra duten pertsonentzako eguneko eta egoitza zentroetan; kalte neurologiko larria eta adimen urritasuna duten pertsonentzako arretari eta norberaren autonomia sustatzeko laguntza produktuen erabilerari buruzko prestakuntza osagarria eta mendetasuneko egoera baloratzeko esperientzia 2007ko apiriletik egun arte.
- Balorazio teknikari bat, honako prestakuntza daukana: erizaintzako unibertsitate diplomatura Euskal Herriko Unibertsitatean, lan esperientzia zabala adinekoentzako eguneko eta egoitza zentroetan, eta geriatriako prestakuntza osagarria; mendetasun larria eta handia duten adinekoentzako eguneko egoitzetako giza baliabideen eta baliabide materialen kudeaketari buruzko lan esperientzia, eta mendetasuneko egoera baloratzeko esperientzia 2007ko apiriletik egun arte.
- Balorazio teknikari bat, honako prestakuntza daukana: erizaintzako unibertsitate diplomatura Euskal Herriko Unibertsitatean; erizaintza psikiatrikoko espezializazioa; geriatriako graduondokoa Euskal Herriko Unibertsitatean; lan esperientzia zabala adinekoentzako eguneko eta egoitza zentroetan, psikogeriatrian eta gaixotasun mentaletan, eta mendetasuneko egoera baloratzeko esperientzia 2007ko apiriletik egun arte.

- *Balorazio teknikari bat, honako prestakuntza daukana: erizaintzako unibertsitate diplomatura Euskal Herriko Unibertsitatean; ospitaleen kudeaketako, geriatriako eta bilakaera luzeko zaintzetako unibertsitate graduondokoak; lan esperientzia zabala adinekoentzako eguneko eta egoitza zentroetan, geriatriako prestakuntza osagarri luzea, eta mendetasuneko egoera baloratzeko esperientzia 2007ko apiriletik egun arte.*
- *Balorazio teknikari bat, honako prestakuntza daukana: okupazio-terapiako unibertsitate diplomatura Zaragozako Unibertsitatean, balorazio eskalei eta norberaren autonomia sustatzeko laguntza produktuei buruzko prestakuntza osagarria, patologia mental eta kroniko akutua duten pertsonen arreta emateko lan esperientzia Norberaren Autonomia Zentroan eta adinekoentzako eguneko eta egoitza zentroetan, eta mendetasuneko egoera baloratzeko esperientzia 2007ko apiriletik egun arte eta minusbaliotasun gradua baloratzekoa 2009an.*

b) *Minusbaliotasun gradua (1971/1999 ED), Berariazko Balorazio Eskala (BBE) aplikatuz 3 urtez azpikoen mendetasuneko egoera (504/2007 ED) eta arreta goiztiarra (39/2006 Legeko hamahirugarren xedapen gehigarria) baloratzeko:*

- *Errehabilitazio mediku bat, honako prestakuntza daukana: medikuntzako lizentziatura Nafarroako Unibertsitatean, medizina fisiko eta errehabilitazioko espezialitatea, Osasun Sistema Nazionalaren BAME prestakuntzarekin; 1971/1999 EDko minusbaliotasun graduaren balorazio baremoak euren alderdi medikuetan aldatzeko estatu batzordearen kidea; minusbaliotasun gradua baloratzeko eta 3 urtez azpikoen mendetasuneko egoera baloratzeko lan esperientzia 2007tik egun arte.*
- *Psikologo bat, honako prestakuntza daukana: psikologiako lizentziatura Deustuko Unibertsitatean; 1971/1999 EDko minusbaliotasun graduaren balorazio baremoak euren alderdi medikuetan aldatzeko estatu batzordearen kidea; minusbaliotasun gradua baloratzeko lan esperientzia 1990etik eta 3 urtez azpikoen mendetasuneko egoera baloratzekoa 2007tik egun arte.*
- *Psikologo bat, honako prestakuntza daukana: psikologiako lizentziatura Madrilgo Unibertsitate Autonomoan, psikologia klinikoko espezialitatea; Herri-Administrazioiko unibertsitate espezialitatea Euskal Herriko Unibertsitatean; familia terapiako eta taldeko psikoterapiako masterra, eta minusbaliotasun gradua baloratzeko lan esperientzia 1988tik egun arte.*
- *Gizarte langile bat, honako prestakuntza daukana: gizarte laneko unibertsitate diplomatura Euskal Herriko Unibertsitatean; 1971/1999 EDko minusbaliotasun graduaren balorazio baremoak euren gizarte alderdietan aldatzeko estatu batzordearen kidea; praktiketako ikasleen tutorea Gasteizko Gizarte Laneko Unibertsitate Eskolan; minusbaliotasun gradua baloratzeko lan esperientzia 2005etik egun arte.*
- *Gizarte langile bat, honako prestakuntza daukana: gizarte laneko unibertsitate diplomatura Euskal Herriko Unibertsitatean; praktiketako ikasleen tutorea Gasteizko Gizarte Laneko Unibertsitate Eskolan; minusbaliotasun gradua baloratzeko lan esperientzia 1985etik egun arte.*
- *Gizarte langile bat, honako prestakuntza daukana: gizarte laneko unibertsitate diplomatura eta gizarte eta kultura antropologiako lizentziatura Euskal Herriko Unibertsitatean; gizarte esku-hartzeko eta adin txikikoen minusbaliotasun eta mendetasun gradua baloratzeko lan esperientzia, baita arreta goiztiarrekoa 2008tik egun arte.*

c) Unitatearen koordinazio teknikoak eta kudeaketa haren arduradunak burutzen ditu:

- *Balorazio Batzorde Teknikoaren mediku arduradun bat, honako prestakuntza daukana: medikuntzako lizentziatura Nafarroako Unibertsitatean eta medikuntza fisiko eta errehabilitazioko espezialitatea, Osasun Sistema Nazionalaren BAME prestakuntzarakin; minusbaliotasunari buruzko europar masterra Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalan eta Herri-Administrazioko unibertsitate espezialitatea Euskal Herriko Unibertsitatean. Minusbaliotasun graduaren balorazioaren koordinazio eta jarraipen estatu batzordearen, mendetasuneko egoeraren balorazioaren koordinazio eta jarraipen estatu batzordearen eta Arreta Soziosanitarioaren Euskal Batzordeko arreta goiztiarraren batzordearen kidea da*.

Gipuzkoako Foru Aldundiak adierazi digu bisitatzailerik eta koordinatzaile taldea 36 langilek osatzen dutela: 12 mediku, 10 psikologo, 8 fisioterapeuta eta 6 okupazio-terapeuta. Batzorde teknikoak mediku bi dauzka.

Bizkaiko Foru Aldundiak adierazi digu, arestian aipatu bileraren kariatara, bere taldeek 8 mediku eta 17 gizarte langile dauzkatela.

3.2.2.3. Balorazioak egiten dituzten zerbitzuei dagokienez, jakin nahi izan dugu ea kontratazio edo itunik dagoen erakunde pribatuekin edo, aitzitik, zerbitzu horretan diharduten agente guztiak foru aldundietako langileria atxikita dauden.

Arabako Foru Aldundiak honakoa adierazi du: *"Gizarte Ongizatearen Foru Erakundeko Minusbaliotasuna duten Pertsonen Arloko Balorazio Unitate Teknikoaren titulartasuna erabat publikoa da, Norberaren Autonomia Sustatu eta Mendetasuneko Egoerari Arreta emateko 39/2006 Legeko 27. artikuluan xedatutakoa betez".* Erantsi duenez, horren ondorioz *"ez dago ez kontrataziorik ez itunik erakunde pribatuekin minusbaliotasuna (1971/1999 ED), MBB edo BBEren arabera mendekotasuna (504/2007 ED) edota arreta goiztiarra (39/2006 Legea) baloratzeko zerbitzuak egiteko"*.

Bizkaiko Foru Aldundiak baietsi digu, 2009ko urtarrilean egindako bileraren esparruan, [Bizkaiko Medikuen Elkarteak](#) landa-lana egin arren (etxex etxeko bisitak eta MBB aplikatzea), foru aldundiko langileek egiten dituzte irizpenak eta ebazpenak eta haiek ezagutzen dituzte baloratutako pertsonarentzako gizarte balibiderik egokienak.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, bestalde, galdetutako kontua honela aurkeztu digun balorazio prozesuaren faseen arabera azaldu du:

- *"Eskaeraren izapideak Eskaera udaletako oinarrizko gizarte zerbitzuetan egiten da. Gipuzkoako Foru Aldundiak egiaztapena egiten du.*

- *Kudeaketa*
Erregistro baturako lotura: Gipuzkoako Foru Aldundia.
Alta kudeaketa sisteman: Gipuzkoako Foru Aldundia.
Esleipena: Gipuzkoako Foru Aldundia (fase honetan erabakitzen da nori esleitzen zaion galdetegia betetzeko lana. Kontuan izan behar da, adibidez, jaioberriei dago-kiena ospitalean bertan egiten dela; haur txikien lehenengo balorazioei dagokiena eta minusbaliotasunarena Gipuzkoako Foru Aldundian egiten da).
- *Balorazioa- MBBra bidaltzea: Gipuzkoako Foru Aldundia.*
MBB elkarrizketarako hitzordua: Ingema.
MBB elkarrizketa: Ingema.
MBB galdetegia betetzea: Ingema.
Hastapeneko egiaztatzea eta kontrastea: Ingema.
Galdetegia jasotzea: Gipuzkoako Foru Aldundia.
MBB balorazio zerbitzua ikuskatzea: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- *Ebazpena*
MBB balorazio itxia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
MBB baloraziorako lotura: Gipuzkoako Foru Aldundia.
MBB ebazpena: Gipuzkoako Foru Aldundia.
MBB eskatzaileari jakinaraztea: Gipuzkoako Foru Aldundia.”

Gipuzkoako Foru Aldundiak adierazi du, galdetegia betetzeari dagokiona izan ezik (hitzordua finkatzeari eta elkarrizketari dagozkienak barne), prozesu horretako fase guztiak administrazioak eta haren zerbitzurako langileek burutzen dituztela.

Bukatzeko, aldundi horrek esan du balorazio jardueraren kontrola –hasieratik mendetasuna baloratzeko baremoa arautzeko 504/2007 Errege Dekretuak oso araututa– Gizarte Politika Sailak egiten duela eta enpresa azpikontratuak -Ingema- egin duen bakarra “*adminis-trazioak berak emandako galdetegiak betetzea izan da; mendetasuneko egoera onartze-ko ebazpenak, beraz, saileko langileek izapidetzen dituzte*”. Gipuzkoako Aldundiak erantsi duenez, funtzionamendu horri esker batez besteko balorazio epe oso laburrak (60 egun 2007an; 43 2008an; eta 20 egun 2009 hasterakoan) eta ebazpenak aurkaratzeko portzen-taje baxuak izan dituzte.

3.2.2.4. Balorazio taldeen eta baliabideak esleitzeko taldeen arteko bereizketa, harreman eta koordinazioari buruz ere jakin nahi izan dugu.

Arabako Foru Aldundiak adierazi du Gizarte Ongizatearen Foru Erakundean baloraziorako eta baliabideak esleitzeko talde bereziak daudela. Foru erakundeak bien arteko lotura bade-la ere baietsi du: alde batetik, Balorazio Unitate Teknikoko arduradun bat Minusbaliotasuna duten Pertsonen Arloko baliabideak esleitzeko batzordeko kidea da; bestetik, egindako balorazio guztietatik, “autolaguntza” izeneko txosten bat egiten da, eta bertan mendeko pertsona bakoitzarentzako Banakako Arreta Programa egiten eta dagozkion baliabideak esleitzen laguntzeko informazioa dago. Txosten hori Gizarte Esku-hartzearen Arloari eta

Adinekoen Arloari zuzenduta dago. Azkenik, azaldu denez, Balorazio Unitate Teknikoko langileek, eguneroko jardunean, Adinekoen Arloko erizaintza koordinatzaileari laguntzen diote arlo horretako zentroak esleitzen, baloratutako pertsonen egoera kognitiboari buruzko informazioa eta pertsona haiek bizitzako oinarrizko jarduerak egiteko daukaten autonomiari buruzko xehetasunak emanez, baliabide egokia esleitzea errazteko xedez.

Gipuzkoako Foru Aldundiak adierazi digunez, balorazioa Balorazio, Orientazio eta Kalifikazio Atalaren ardura da eta foru eskumeneko baliabideak Saileko beste hiru ataletan (Mendetasunarentzako arreta, Etxeko laguntza edo Mendetasuneko aldiak aldiko prestazio ekonomikoak) esleitzen dira; hala ere, udalek eurek esleitzen dituzten baliabideak (etxeko laguntza) ere badirela jakinarazi du.

Bestalde, Bizkaiko Foru Aldundiak jakinarazi du balorazio taldeen eta baliabideak esleitzeko taldeen arteko bereizketa dagoela.

3.2.2.5. Bestalde, baloratua den pertsonak emandako informazioa haren zaintzaile nagusiak emandakoarekin alderatu edo zehaztu ahal izateko tresnarik dagoen eta zelan egituratu diren jakinarazteko ere eskatu dugu.

Arabako Foru Aldundiak adierazi du Balorazio Unitate Teknikoak 504/2007 EDn zehaztutako irizpideak zorrotz aplikatzen dituela: *“balorazioa galdetegi baten aplikazioan eta MBBko prestatuntza egokia duen langile kualifikatu batek baloratzen den pertsonari egindako behaketa zuzenean oinarritzen da. Adimen urritasuna edo gaixotasun mentala duten pertsonen kasuan, eta pertsonak euren pertzepzio gaitasuna eta gaitasun kognitiboa kaltetuta izan ditzaketen egoeretan, hala nola gor-itsutasunean eta garunetako kaltean, galdetegia baloratu beharreko pertsonaren aurreko elkarrizketaren bidez aplikatuko da, eskatzailearen egoera behar bezala ezagutzen duen pertsona baten partaidetzaz. Horretarako, balorazioa egiten duenak, GOFEk eskura jarritako baliabideak erabiliz, baloratu beharreko pertsonaren egoera eta daukan gizarte laguntzak aztertu eta, etxera joan aurretik, legezko tutoreak –senideak edo zaintza fundazioaren ordezkariak– MBB aplikatzeko unean etxean daudela egiaztatzen du.”*

Erantsi duenez, *“arestikoa, zenbait inguruabar mota direla-eta, posible edo komenigarria izan ez balitz, osasun mentaleko zerbitzuetako langileekin kontaktatzeko bideak pizten dira, askotan euren gaixoen bizimodua gainbegiratu eta haien tratamenduak ziurtatzen baitituzte. Bide horrek ere porrot egingo balu, balorazioa egin nahi duen langileak oinarrizko gizarte langileak kontaktatzen ditu, askotan erreferentziatzeko langileak izanda, eskatzailearen egoera ezagutu eta, praktikan, haien eguneroko bizitzako laguntza garrantzitsua baitira. Arestiko urratsei jarraituta etxean egoera ezagutzen duen inor egotea lortu ez balitz, galdetegia bete eta, ondoren, GOFeko administrazio zerbitzuek behar diren kontaktuak egingo dituzte etxean lortutako informazioa egoera ezagutzen duen norbaitekin egiaztatzeko eta, beharrezkoa bada, ondoren hitzordu bat jartzen da biek MBBko item bete guztiak berraztertzeko.”*

Azken irtenbide gisa –adierazi digutenez–, unitateko gizarte langileak behar diren kontaktuak egingo ditu gizarte lanaren eremuarekin –GOFE zein udaletako oinarrizko gizarte zerbitzuetakoa–, espedienteak ebatzi behar izan bada ere, berraztertzeko edo erreklamazio prozesuari ekin dakion horretarako inguruabar egokiak sumatzen direnean.

Kontu horri buruz, Gipuzkoako Foru Aldundiak jakinarazi balorazioa zaintzaile nagusiaren aurrean egiten dela. Izan ere, erantsi duenez, *“betekizuna da adimen urritasuna edo gaixotasun mentala alegatzen duten pertsonen kasurako”*.

Bizkaiko Foru Aldundiak, aipatu bilera hartan, adierazi zuen balorazioa egiten dutenen prestakuntza ikastaroetan, komenigarria dirudien kasu batzuetan, aukera jasotzen zela haiek zaintzaile nagusiarekin kontaktua izan ahal izateko, elkarrizketatik beretik kanpo.

3.3. Ebazpen maila balorazio fasean

3.3.1. Ekitaldi bakoitza ixterakoan ebatzitako balorazioak


Honako taila eta grafikoetan ekitaldi bakoitza ixteko egunean mendetasuneko egoera onartzeko eskaera espedienteetan balorazio fasean zegoen ebazpen maila erakutsiko dugu.

Gipuzkoako Foru Aldundiak ez dauzka 2007 eta 2008ri dagozkien datuak, beraz, 2009ri buruzkoak baino ez dizkigu eman.

12. taula-grafikoa. Ebazpen maila balorazio fasean abenduaren 31n. 2007, 2008 eta 2009. urteak

EBAZPEN MAILA BALORAZIO FASEAN 2007ko ABENDUAREN 31n				
	Guztira	Egindako balorazioak abenduaren 31n	Egin gabeko balorazioak abenduaren 31n	Ebatzi gabeko % abenduaren 31n
Araba	6.041	5.909	132	2,18
Bizkaia	12.952	11.960	992	7,66


EBATZITAKO BALORAZIOAK 2007



EBAZPEN MAILA BALORAZIO FASEAN 2008ko ABENDUAREN 31n

	Guztira	Egindako balorazioak abenduaren 31n	Egin gabeko balorazioak abenduaren 31n	Ebatzi gabeko % abenduaren 31n
Araba	4.637	4.446	191	4,12
Bizkaia	13.323	12.322	1.001	7,51


EBATZITAKO BALORAZIOAK 2008



EBAZPEN MAILA BALORAZIO FASEAN 2009ko ABENDUAREN 31n

	Guztira	Egindako balorazioak abenduaren 31n	Egin gabeko balorazioak abenduaren 31n	Ebatzi gabeko % abenduaren 31n
Araba	3.562	3.540	22	0,62
Bizkaia	13.199	12.442	757	5,73
Gipuzkoa	14.022	13.264	758	5,40
GUZTIRA	30.783	29.246	1.537	4,99

EBATZITAKO BALORAZIOAK 2009



Ikusten denez, Bizkaiko Foru Aldundiak kolapso moduko bat izan zuen lehenengo urte bietan. Egoera 2009an hobetu zen. Arabari dagokionez, egiteke geratutako lanak 2008an nabarmendu ziren, eta 2009an, aldiz, ebatzi gabeko balorazioen ehunekoak ez zuen ia garrantzirik izan.

2009an, Gipuzkoan, abenduaren 31n, eskatutako balorazioen %5,40 ebazteke zeuden.


3.3.2. 2007ko urtarrilaren 1etik baloratutako pertsonak

Azkenik, 2007ko urtarrilaren batetik (AMAL indarrean sartu zen unea) 2010eko uztailaren 1 arte baloratu diren pertsona guztien kopuruari buruzko datuak jaso ditugu, baita baloratzeko zain dauden eskatzaileei dagozkienak ere.

13. taula-grafikoa. Balorazio faseko ebazpen mailan 2007ko urtarrilaren 1etik 2010eko uztailaren 1a arteko epean

BALORAZIO FASEKO EBAZPEN MAILA				
2007ko URTARRILAREN 1ETIK				
2010eko UZTAILAREN 1 ARTE				
	Eskatzaileak	Baloratutako pertsonak	Baloratu gabeko pertsonak	Baloratu gabeen % 2010eko uztailaren 1ean
Araba	15.488	15.270	218	1,40
Bizkaia	45.150	42.000	3.150	6,98
Gipuzkoa	38.035	36.125	1.910	5,02
GUZTIRA	98.673	93.395	5.278	5,35

ESKATZAILEAK 2007ko URTARRILAREN 1ETIK 2010eko UZTAILAREN 1 ARTE



Ikusten denez, Bizkaian, mendetasuneko egoera onartzeko eskabidea aurkeztu ondoren baloratu gabe jarraitzen dutenak %6,98 dira. Gipuzkoan apur bat gutxiago dira (%5,02). Arabako lurralde historikoak dauka indizerik onena: eskatzaileen %1,40 baino ez daude balorazioaren zain.

3.4. Premiazko prozeduraren prestaketa maila


Gipuzkoako foru Aldundiak adierazi du 2007an abiarazitako premiazko prozedura ez zela 2008 arte informatikoki erregistratzen hasi. Horregatik ez dago 2007ri buruzko daturik lurralde historiko horretarako. Halaber, adierazi digu premiazko prozedura interesatuak eskatuta, ofizioz edo oinarrizko gizarte zerbitzuak premia hori justifikatzeko arrazoiak daudela uste duenean abiaraz daiteke. Arrazoirik ohikoena pertsona ospitalean ingresatuta egon –iktus, haustura, eta abarregatik eriondo– eta etxera itzultzerik ez izatea (laguntza sare nahikorik ez izateagatik) da. Ez dago egoeren zerrenda tasaturik, oinarrizko gizarte zerbitzuaren esku uzten da.

Arabako Foru Aldundiak adierazi digu premiazko prozedura eskatzaileak bere zaintzari buruzko ezohiko premiazko inguruabarrak biltzen dituenean erabiltzen dela. Adibidez, hori izan da arreta premia handia izanda bizitzeko tokirik eta gizarte laguntzarik ez zuten pertsonen kasua, edo tetraplegia izanda premiazko arreta behar zuen haurarena. Gainontzeko kasuetan, etxeko laguntza zerbitzua abiarazi da, gehienez ere 48 orduren buruan. Premiazko prozedura, araudiaren arabera, egokiena den zerbitzuaren izaerari dagokion arloko zuzendariordetza teknikoaren justifikazio txostenarekin abiatzen da; horrekin, Gizarte Ongizatearen Foru Erakundeko zuzendaritza-gerentziak, salbuespenez, arrazoitutako ebazpenaren bidez, zerbitzua esleiri dezake. Premiazko espediente horiek lehenago izapidetzen dira eta ebatzi eta jakinarazteko gehienezko epea bost egun naturalekoa da, eskabidea aurkezten denetik zenbatuta. Halako kasuetan, zerbitzuaren esleipena behin-behinekoa da, gehienez ere hilabeterako. Lehenago eskatu ez balu eta salbuespenez esleitutako zerbitzua Autonomiarako eta Mendetasunarentzako Arretarako Sistemaren katalogoan badago, onuradunak mendetasuneko egoera onartzeko eskatu beharko du. Halako kasuetan, mendetasuneko balorazioa ebazteko epeak hamabost egun baliodunekoak baino ez dira izango.


Bizkaiko Foru Aldundiak jakinarazi digu prozedura hori, minusbaliotasuna duten pertsonentzat ere aurreikusita egon arren, batez ere adinekoen kasuan abiarazten dela eta egoitza baliabide batean sartzea dagoela bideratuta. Babesgabetasun handiko egoerak dira (familiaren laguntzarik eza, baliabide ekonomikorik eza, tratu txarren egoerak, arretarik eza, etab.) eta oinarrizko gizarte zerbitzuak jakinarazten du komenigarria den.

14. taula-grafikoa. Premiazko prozeduraren prestaketa maila lurralde historikoen arabera. 2007, 2008 eta 2009. urteak


PREMIAZKO PROZEDURAREN PRESTAKETA MAILA 2007				
	PROZEDURAK GUZTIRA	PROZEDURA ARRUNTAK	PREMIAZKO PROZEDURAK	
			Kop.	%
Araba	5.909	5.885	24	0,41
Bizkaia	13.484	13.430	54	0,40
Gipuzkoa	--	--	--	--



PREMIAZKO PROZEDURAREN PRESTAKETA MAILA 2008				
	PROZEDURAK GUZTIRA	PROZEDURA ARRUNTAK	PREMIAZKO PROZEDURAK	
			Kop.	%
Araba	4.446	4.432	14	0,31
Bizkaia	14.004	13.548	456	3,26
Gipuzkoa	15.750	14.630	1.120	7,11
GUZTIRA	34.200	32.610	1.590	4,65



PREMIAZKO PROZEDURAREN PRESTAKETA MAILA 2009				
	PROZEDURAK GUZTIRA	PROZEDURA ARRUNTAK	PREMIAZKO PROZEDURAK	
			Kop.	%
Araba	3.540	3.524	16	0,45
Bizkaia	13.802	13.285	517	3,74
Gipuzkoa	14.386	11.997	2.389	16,60
GUZTIRA	31.728	28.806	2.922	9,21




Ikusi dugunez, Arabako aldundiak gutxitan jotzen du premiazko prozedura. Hura, ordea, Arabako Aldundiak emandako informazioarekin argitu behar da; izan ere, haren arabera, praktikan, *“premiaren kontzeptua baino gehiago ezohikotasunarena hartzen dute aintzat”*. Horrela, adierazi digunez, *“mendetasuna duten pertsonen dagokionez, kasuak batez ere adinekoei dagozkie; ospitalean sartu ondoren, gertatu ohi da pertsonak zaintza handiak behar dituen egoeran edo laguntza sare naturalean gabeziak izanda itzuli behar duela etxera; balorazioa eginda izan ohi du; halako kasuetan egoitza pribatuen sarea eta egoitzetako egoaldi laburretarako prestazioak erabiltzen dira eta ez zaio izapidetzeari itxaroten: lehenbizi pertsona egoitzan sartzen da eta, ondoren, izapideak egiten dira; halako egoerei ez diegu premiazko prozedura esaten, ezohikotasunaren kontzeptua, berehalako esku-hartzea, aplikatzen diegu; premiazko prozedurentzat gordetako hitzordu kupo bat geneukan baina, erabiltzen ez zirenez, kendu egin dira”*.

Bizkaiari dagokionez, tresna horrek lekua irabazi du, 2009an, hasitako prozedura guztien %3,74 izan arte.

Gipuzkoan, premiazko prozedura kasuen %16,60an sartu da.

7. grafikoa. Premiazko prozeduraren prestaketa mailaren bilakaera lurralde historikoen arabera. Aldia: 2007-2009



3.5. Banakako Arreta Programa (BAP)

Txosten honetako [2.9.i](#)) atalean BAPen prestaketari buruzko alderdi kualitatiboak heldu zaie.

Azterketa kuantitatiboari dagokionez, Bizkaian, 2007an, 12.105 BAP egin ziren, 2008an, 17.400, eta 2009an, 13.101. Araban, hiru urte horiei dagokienez, guztira 3.645, 1.902 eta 1.690 izan ziren, hurrenez hurren.

Ez daukagu Gipuzkoari buruzko daturik, Gipuzkoako Foru Aldundiaren sistema informatikoak ez duelako informazio hori jasotzen, eta SISAADen modulu estatistikoak (IMSERSO-ren sistema) ere ez du islatzen.



Arabako Foru Aldundiak baino ez digu eman urte bukaeran egiteke zeuden planen kopuruari buruzko datua: 122 (2007an), 229 (2009an) eta 354 (2009an).

3.6. Balorazioaren berrazterketak

Honako taula eta grafikoetan egindako berrazterketak ageri dira, lurralde eta urteen arabera, baita berrazterketa horiek egindako balorazio guztien gainean dakarten ehunekoa ere.

15. taula-grafikoa. Egindako berrazterketak (lurralde historikoen arabera). 2007, 2008 eta 2009. urteak

	EGINDAKO BALORAZIOAK GUZTIRA			BERRAZTERKETAK			BERRAZTERKETEN % EGINDAKO BALORAZIOEN GAIÑEAN		
	2007	2008	2009	2007	2008	2009	2007	2008	2009
Araba	5.909	4.446	3.540	780	319	299	13,20	7,17	8,45
Bizkaia	11.960	12.322	12.442	10	306	1.780	0,08	2,48	14,31
Gipuzkoa	16.076	17.467	13.264	114	2.754	5.184	0,71	17,76	39,08
EAE GUZTIRA	33.945	34.235	29.246	904	3.379	7.263	2,66	9,87	24,83



2009ko ekitaldian ageri da berrazterketa ehunekorik handiena EAEn.

Arabari aitatu ehunekoa 2008ko %7,17ren eta 2007ko %13,20ren artean mugitu da.

Bizkaiari dagokionez, ehuneko hori askoz txikiagoa izan zen 2007 eta 2008an, eta 2009an igoera handia gertatu zen: %14,31.

Gipuzkoak goranzko bilakaera dauka, eta 2008 eta 2009an igoera handiak gertatu dira. Horrela, 2009an egindako balorazioen %38,44 dagozkie berraztertzeko espedienteeteei. Gipuzkoako aldundiak adierazi duenez, "2008an pertsona baloratu asko daude eta, haien batez besteko adina dela-eta (80 urtetik gorakoa), larritzeagatik berrazterketa eskatzeko probabilitatea oso handia izaten hasi da".

Honako koadroan egindako berrazterketen izaera erakutsi dugu. Kolore horia Arabari dagokio, gorria Bizkaiari eta berdea Gipuzkoari.

10. taula. Balorazioen berrazterketen tipologia (lurralde historikoen arabera). 2007, 2008 eta 2009. urteak

BALORAZIOAREN BERRAZTERKETEN TIPOLOGIA				
URTEA		2007	2008	2009
Berrazterketak (eskaera motaren arabera)	Alderdi batek eskatuta	10	306	1780
		110	2304	3450
	Ofizios (ofiziozko berrazterketa + aldian behingoa)	0	0	0
		4	450	1734
		0	0	41
		0	14	95
Berrazterketak (emaitzaren arabera)	Mendetasun gradu edo maila baxuago batera	177	755	755
		708	211	149
	Mendetasun gradu edo maila handiago batera	0	193	997
		93	1893	2898
	Gradu edo maila bera	72	108	109
		10	99	505
	21	684	1531	

- Araba
- Bizkaia
- Gipuzkoa

Bizkaian, egindako berrazterketen %100 alderdi batek eskatuta egiten dira. Gipuzkoan, mota hori guztien %72,83 dira hiru ekitaldietan. Arabako aldundiak ez du informazio hori eman.

Arabako Foru Aldundiak jakinarazi digunez, "dagokion pertsonari kontrako irizpena jakinarazitakoan, desadostasuna egonez gero, haren erreklamazioari kasu egiten dio. Berraztertutakoan, zalantzarako elementuak daudela sumatuz gero, berriz deitzen zaio eskatzaileari eta erreklamazioa onetsia izan daiteke. Berraztertu ondoren, balorazioa zuzentzat jotzen denean, erreklamazioa ezesten da". 2007ko 780 berrazterketetatik, %90,77 mendetasun gradu edo maila altuagoa onartuz ebatzi ziren. 2008an, proportzio hori %66,14 arte jaitsi zen, eta 2009an, %49,83 arte. 2009an, beheranzko aldaketa dakarten berrazterketak egindako berrazterketa guztien %13,71 izan ziren. Adierazi digunez, 2007 eta 2008an onartutako erreklamazio gehienak eskatzaileak homologazioz lortutako balorazioarekin ados ez zeuden kasuetan gertatu ziren. Halako kasuetan, mendetasuna baloratzeko baremoa aplikatu behar izan zen balorazio hori egiteko.

Gipuzkoan, 2007ko 114 berrazterketetatik, %81,58 mendetasun gradu edo maila altuagoa onartuz ebatzi ziren. Gainontzeko %18,42k ez zuten aldaketarik ekarri. 2008an, berrazterketen %68,74k baino ez zuten mendetasun gradu/maila igo; izan ere, berrazterketen %6,43k onartutako gradu/maila jaitsarazi zuten. Ehuneko hori handitu egin zen 2009an, berrazterketen %14,56 izan baitziren.

Azkenik, Bizkaian, 2007ko berrazterketek, 10 besterik ez, ez zuten balorazio aldaketarik ekarri. 2008an, egindako 306 berrazterketen %63,07k hasierako balorazioaren gradu/maila igoarazi zuten eta 2009an, 1.780 berrazterketetatik %56,01k lehenago ezarritako gradu/maila igoarazi zuten.

3.7. Mendetasuneko egoera onartzeko eta zerbitzua edota prestazioa esleitzeko prozesuaren iraupena


Lehenbizi, baloratzeko eta Banakako Arreta Programa (BAP) egiteko faseari dagozkion denborak aztertuko ditugu, hots, pertsonak mendetasuneko egoeraren onarpena eta sistemako prestazioak eskuratzeko eskubidea eskatzen dituen unearen eta dagokion foru erakundeko gizarte zerbitzuek, interesatuaren partaidetzaz, Banakako Arreta Programa –mendetasuneko egoeran dagoen pertsonarentzat egokiak diren zerbitzuak edota prestazioak jasota–prestatzen dutenaren artean igarotako epea. Ondoren, ebazpenetik dagokion zerbitzu edo prestazioa benetan esleitzen zaion arte igarotako batez besteko tartea aztertuko dugu.

3.7.1. Balorazioa eta BAP egiteko fasea

16. taula-grafikoa. Balorazioa eta BAP egiteko prozesuaren iraupena

	ARABA			BIZKAIA			GIPUZKOA*		
	2007	2008	2009	2007	2008	2009	2007	2008	2009
Eskaeratik baloraziora arte (hiletan)	4	3	1,3	3	2,01	0,52	2,57	2,03	0,7
Baloraziotik ebazpenera arte (hiletan)	0,23	0,23	0,23	1,49	1,39	0,69	0,97	0,53	0,3
Ebazpenetik BAP egin arte (hiletan)	1	1	1	3,68	1,62	1,33	0	0	0
PROZESUAREN BATEZ BESTEKO DENBORA	5,23	4,23	2,53	8,17	5,02	2,54	3,54	2,56	1


(*) Txosten honetako 2.9.i) atalean adierazi dugunez, Gipuzkoan BAP "fisikoa" egitea ez da prozeduraren edo betekizunen baitakoa.



Prozedura izapidetzeko epea nabarmen laburtu da. Izan ere, hasierako kolapsoa, batez ere Bizkaian ikusten dena (guztira 8,17 hilabete 2007an), 2008an joan zen gainditzen, azkenean, 2009an, prozesu osoaren batez besteko denbora bi hilabete eta erdi ingurukoa izan arte.

Ikusten denez, Gipuzkoan, hiru ekitaldietan, batez besteko denborak beste lurralde bietakoak baino txikiagoak dira. Izan ere, 2009an, prozesuaren fase hori 30 egunetan bukatzen da, gutxi gorabehera.

8. grafikoa. Eskeratik BAP egin arteko batez besteko denboraren bilakaera (lurralde historikoen arabera). Aldia: 2007-2009



3.7.2. Ebazpenetik zerbitzua edo prestazioa esleitu arteko batez besteko denbora

a) Prestazio ekonomikoak

Bizkaiko Foru Aldundiak ez du daturik eman ebazpenaren eta prestazio ekonomikoen artean igarotako batez besteko denboraz.

Arabako Foru Aldundiak jakinarazi digu epe hori ez dela inoiz hiru hilabetetik gorakoa.

Gipuzkoako Foru Aldundiak adierazi du, pertsonak betekizunak betez gero, eskaeraren eta benetako esleipenaren arteko denbora egun gutxi batzuetakoa dela.

b) Egoitza-zentroa

Arabako administrazioak argitu digunez, ezinezkoa da batez besteko denbora jartzea egoitza-zentroa esleitzeko, balorazioan lortutako mendetasun graduaren eta eskuragarri dauden plaza kopuruaren arabera delako. Bestalde, adierazi duenez, plaza publikorik ez dagoenean, zerbitzuari lotutako prestazioa esleitzen da, familiak hautatu eta izapidetutako zentro pribatuko egonaldiaren kostua ordaintzen laguntzeko edo, bestela, eguneko egoitza

baliabidea, etxeko laguntza edota familia inguruneko zaintzetarako prestazio ekonomikoa ematen zaio, egoitzako plaza eskuragarri egon arte.

Gipuzkoako Foru Aldundiak honela azaldu digu kalkulu horrek daukan zailtasuna: *“mendetasunaren balorazioa eskatzen denean, balorazio horren bidez zer zerbitzu eta prestazio eskuratu nahi den adierazi arren, ez da beti egiten zerbitzu edo prestazioari dagokion eskaera.”* Adierazi digunez, eskaera hori askoz geroago ere egin daiteke, agian. Hori zehaztuta, honako datuak eman dizkigu: 1,7 hilabete 2007an, 5 hilabete 2008an eta 7,4 hilabete 2009an.

Bizkaiko Foru Aldundiak jakinarazi digu, 2009an, epe hori gutxi gorabehera 3 hilekoa izan zela.

c) Eguneko zentroa

Bizkaiko Foru Aldundiak, 2008an, hilabete eta erdi inguruan jarri du epe hori. Arabako aldundiak egoitza-zentrorako jarritako eragozpen bera dauka eta Gipuzkoakoak honako balioak eman dizkigu: 1,2 hilabete (2007), 3,4 (2008) eta 5,2 (2009); bestalde, ohartarazi digu kon-tuz hartu behar direla balio horiek, arestiko atalean egindako zehaztapena dela-eta.

d) Etxez etxeko laguntza zerbitzua

Gipuzkoako administrazioak, arestiko ataletako zehaztapen berberak eginda, 1,3 (2007an), 2,8 (2008an) eta 4,9 hiletan (2009an) jarri du esleitu arteko batez besteko epea.

Arabako foru Aldundiak adierazi digu ELZ balorazioarekin batera izapidetzen dela eta, beraz, berehala edo batzuetan hura bukatu aurretik esleitzen dela. Informazio hori, ordea, ez dator guztiz bat herritarrengandik jasotako kexa batzuekin.

Bizkaiak ez du daturik eman, zerbitzua udal esparruan eta lurralde osorako esparru-akordio-rik gabe kudeatzeak azterketarako dakarren zailtasunagatik.

e) Telelaguntza zerbitzua

Bizkaian emandako datua 2008ri dagokio: batez beste 2,5 hilabete. Gipuzkoako adminis-trazioak, arestiko zehaztapenak eginda, 2007 (3,3 hilabete), 2008 (3,1 hilabete) eta 2009ko (1,4 hilabete) batez besteko denborak jakinarazi dizkigu. Arabak ez du daturik eman.

Orokorrean, baliabidea bat, hala nola egoitza-zentroa edo eguneko zentroa, esleitu behar denean, epea luzeagoa da, izapidetzea gorabehera, pala eskuragarrien kopuruak ezartzen duelako esleitzeko erritmoa.

Ikusten denez, plazak eguneko zentroetan esleitzea egoitza-zentroetan egitea baino gutxia-go luzatzen da.

Telelaguntza eta etxeko laguntza zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak epe laburragoetan esleitzen dira.

3.8. Mendetasunaren onarpenen banaketa baloratutako pertsonaren sexuaren eta adinaren arabera

Jarria emandako datuan mendetasuneko onarpen guztiei buruzkoak dira. Datuak “espedienteen arabera” jasotzeko sistema hau da dagokien foru erakundeek darabiltena, Estatu mailan IMSERSOri atxikitako SISAADek egin bezala.

3.8.1. Mendetasunaren onarpenen banaketa sexuaren arabera


Honako taula eta grafikoetan mendetasuneko egoeraren onarpena lortzen duen pertsonaren sexuari dagokion aldagaia aztertu da, ebatzitako espediente guztietan.


Arestiko ataletan bezala, 2007, 2008 eta 2009ko ekitaldiei buruz ari gara, baita 2007ko urtarrilaren 1aren (AMAL indarrean sartu zen unea) eta 2010eko uztailaren 1aren artean igarotako epeaz ere.

a) 2007. urtea

17. taula-grafikoa. Mendetasunaren onarpenen banaketa sexuaren arabera (lurraldeka). 2007. urtea

MENDE TASUNAREN ONARPENAK SEXUAREN ARABERA. 2007						
	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Emakumeak	3.382	61,18	6.862	67,15	6.238	66,77
Gizonak	2.123	38,40	3.357	32,85	3.104	33,23
Zehaztu gabe	23	0,42	--	--	--	--
GUZTIRA	5.528	100	10.219	100	9.342	100





Orokorrean, emakumeei dagokien onarpen kopurua ia gizonazkoei dagokiena halako bi da.

Arabian, mendetasunaren onarpenen %61,18 emakumeenak izan ziren; Bizkaian, %67,15 izan ziren, eta Gipuzkoan %66,77.


Alde horiek jarraian adieraziko ditugun eragileen uztarketagatik izan litezke:

- Gipuzkoan eta Bizkaian, pertsona guztiak daude sexuari dagokionez identifikatuta, eta Araban, aldiz, kasuen %0,42an ez da hori gertatzen.
- Dazkagun datu demografikoen arabera –Estatistikako Institutu Nazionalak argitaratutakoak dira–, Arabako biztanleriak emakume portzentaje txikiagoa dauka (%50,22) Gipuzkoakoak (%50,87) eta Bizkaikoak (%51,52) baino.
- Iturri berari jarraituz, 80 urtez gorako pertsonak portzentaje txikiagoa daukate Araban (%4,44) Gipuzkoan (%5,01) eta Bizkaian (%5,09) baino. Ondoren ikusiko dugunez, adin talde hori handiena da mendetasuneko egoeraren onarpena lortzen duten pertsona guztien artean eta talde horretan emakumeak gizonak baino gehiago dira, lehenengoan bitza-luzera handiagoaren ondorioz.


b) 2008. urtea

18. taula-grafikoa. Mendetasunaren onarpenen banaketa sexuaren arabera (Iurraldeka). 2008. urtea


MENDE TASUNAREN ONARPENAK SEXUAREN ARABERA. 2008						
	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Emakumeak	2.354	61,11	6.475	65,23	9.227	63,11
Gizonak	1.432	37,18	3.452	34,77	5.394	36,89
Zehaztu gabe	66	1,71	--	--	--	--
GUZTIRA	3.852	100	9.927	100	14.621	100




MENDE TASUNAREN ONARPENAK ARABA 2008



MENDE TASUNAREN ONARPENAK BIZKAIA 2008



MENDE TASUNAREN ONARPENAK GIPUZKOA 2008



- Emakumeak
- Gizonak
- Zehaztu gabe





Araban, emakumeak ebatzitako onarpenen %61,11 dira; Bizkaian, %65,23 eta, Gipuzkoan, %63,11.

Alde hori berriz azaltzeko, 2007. urtearen azterketan aipatutako balizko arrazoi demografikoak ez ezik –2008an antzeko parametroekin gertatu ziren–, Araban, sexuari dagokionez identifikatu gabeko pertsonak %1,71 dira eta, kapitulu honetako VI. atalean aztertu dugunez, espediente guztietako berrazterketen ehunekoa handiagoa da Gipuzkoan (eta batez ere adin nagusiko pertsonen dagokien, gehienak emakumeak izanda).

c) 2009. urtea

19. taula-grafikoa. Mendetasunaren onarpenen banaketa sexuaren arabera (lurraldeka). 2009. urtea

MENDEKASUNAREN ONARPENAK SEXUAREN ARABERA. 2009						
	ARABA		BIZKAIA		GIPIZKOA	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Emakumeak	1.574	58,30	5.930	66,45	7.210	63,46
Gizonak	1.068	39,55	2.994	33,55	4.152	36,54
Zehaztu gabe	58	2,15	-	--	--	--
GUZTIRA	2.700	100	8.924	100	11.362	100



Arabaren emakumeak ebatzitako onarpenen %58,30 dira; Bizkaian, %66,45 eta, Gipuzkoan, %63,46.

2007 eta 2008ko azterketetan alde hori azaltzeko aipatutako balizko arrazoiei, erantsiko genizkieke Araban sexuaren arabera identifikatu gabeko pertsonen hazkundea (%2,15) eta, 2008an, Bizkaian (%14,31) eta Gipuzkoan (%39,08), Araban ez bezala (%8,45), berrazterketen ehunekoak izandako hazkunde handia.

Azkenik, bukatzeko esan genezake hiru urte horietan EAEen ebatzitako mendetasunaren onarpenen %64,40 inguru, batez beste, emakumezkoek dagozkiela. Balioak ehuneko horren inguruan mugitzen dira aztertutako hiru ekitaldietan eta EAE osatzen duten hiru lurralde historikoetan.

d) 2007ko urtarrilaren 1aren eta 2010eko uztailaren 1aren artean igarotako epea

Epe horri dagokionez, foru aldundiek igorritako informazioa baloratutako pertsona batzuei buruzkoa da, ez espedienteei buruzkoa. Datuek arestiko paragrafoan aipatutako antzeko emaitzak ematen dituzte: mendetasuneko egoera onartzen zaien pertsonen %63,74 emakumezkoak dira.

Kasu honetan ere, Araban mendetasuneko egoeran dauden gizonen portzentaje handiagoa ikusten da (%38,70), Gipuzkoan (%36,56) edo Bizkaian (%34,96) baino.





3.8.2. Mendetasunaren onarpenen banaketa adinaren arabera

Jarraian aurkeztu ditugun taula eta grafikoetan mendetasuneko egoeraren onarpena lortzen duen pertsonaren adinaren aldagaia aztertu da, 2007, 2008 eta 2009an ebatzitako espediente guztietan.

a) 2007. urtea

20. taula-grafikoa. Mendetasunaren onarpenen banaketa adinaren arabera (lurraldeka). 2007. urtea

MENDE-TASUNAREN ONARPENAK ADINAREN ARABERA. 2007																				
ADIN TARTEA (urtetan)																				
	Zehaztu gabe		0-3		4-18		19-30		31-45		46-54		55-64		65-79		80 edo gehiago		GUZTIRA	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Araba	23	0,42	11	0,20	133	2,41	185	3,35	381	6,89	208	3,76	246	4,45	1.108	20,04	3.233	58,48	5.528	100
Bizkaia	--	--	6	0,06	173	1,69	337	3,30	744	7,28	373	3,65	505	4,94	2.405	23,54	5.676	55,54	10.219	100
Gipuzkoa	--	--	14	0,15	118	1,26	136	1,46	350	3,75	248	2,65	376	4,03	1.794	19,20	6.306	67,50	9.342	100
GUZTIRA	23	0,09	31	0,12	424	1,71	658	2,62	1.475	5,88	829	3,30	1.127	4,49	5.307	21,15	15.215	60,64	25.089	100








- Zehaztu gabe
- 0-3
- 4-18
- 19-30
- 31-45
- 46-54
- 55-64
- 65-79
- 80 edo gehiago

b) 2008. urtea

21. taula-grafikoa. Mendetasunaren onarpenen banaketa adinaren arabera (lurraldeka). 2008. urtea






MENDE TASUNAREN ONARPENAK ADINAREN ARABERA. 2008																				
ADIN TARTEA (urtetan)																				
	Zehaztu gabe		0-3		4-18		19-30		31-45		46-54		55-64		65-79		80 edo gehiago		GUZTIRA	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Araba	66	1,71	25	0,65	106	2,75	85	2,21	183	4,75	188	4,36	221	5,74	912	23,68	2.086	54,15	3.852	100
Bizkaia	--	--	131	1,32	159	1,60	168	1,69	413	4,16	317	3,19	529	5,33	2.440	24,58	5.770	58,13	9.927	100
Gipuzkoa	--	--	117	0,80	245	1,67	281	1,92	908	6,21	631	4,32	774	5,29	3.235	22,13	8.430	57,66	14.621	100
GUZTIRA	66	0,23	273	0,96	510	1,80	534	1,88	1.504	5,30	1.116	3,93	1.524	5,37	6.587	23,19	16.286	57,34	28.400	100



c) 2009. urtea

22. taula-grafikoa. Mendetasunaren onarpenen banaketa adinaren arabera (lurraldeka). 2009. urtea

MENDE-TASUNAREN ONARPENAK ADINAREN ARABERA. 2009																				
ADIN TARTEA (urtetan)																				
Zehaztu gabe	0-3		4-18		19-30		31-45		46-54		55-64		65-79		80 edo gehiago		GUZTIRA			
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%		
Araba	58	2,15	56	2,07	110	4,07	52	1,93	114	4,22	106	3,93	128	4,74	651	24,11	1.425	52,78	2.700	100
Bizkaia	--	--	284	13,18	9	0,10	96	1,08	257	2,88	243	2,72	390	4,37	2.153	24,13	5.492	61,54	8.924	100
Gipuzkoa	--	--	324	2,85	228	2,01	151	1,33	355	3,12	351	3,09	562	4,95	3.141	27,64	6.250	55,01	11.362	100
GUZTIRA	58	0,25	664	2,89	347	1,51	299	1,30	726	3,16	700	3,05	1.080	4,70	5.945	25,86	13.167	57,28	22.986	100



Ikusten denez, mendetasuna adin fase guztietan dagoen baldintza da. Joera orokorra goranzkoa da, hots, mendetasuneko egoeran dauden pertsonen ehunekoa adin handiagoko biztanleria taldeak kontuan hartu ahala handitzen da. Kopuru hori nabarmen bizkortzen da 65 urtetik aurrera. Hortaz, 65 urtez gorako pertsonak mendetasunaren onarpenen %80 inguru dira. Zehazki, 80 urtetik gorakoak %50 eta 60 artean dira.

Mendetasunak adinaren arabera daukan goranzko joera horretan, fase batean ikusten da adierazitako korrelazioa ez dela guztiz lineala: 46-54 urteko taldean gertatutako mendetasunaren onarpenen kopurua beti da 31-45 tarteari dagokiona baino txikiagoa. Bestela esanda, mendetasunaren onarpenak izugarri handitzen dira 31 eta 45 urte bitartean hurrengo tartean murrizteko. Hori gure azterketako hiru urteetan eta hiru lurralde esparruetan ikusten da.

Joerako "gailurra" esan geniezaiokeena daukan adin taldean, hots, 31-45ekoan, geldituz gero, ikusten da batez ere gehien bat gizonekoengan gertatutako mendetasunaren onarpenak direla portaera horretan zerikusia dutena.

0 eta 3 urte arteko tarteari buruzko oharpen berezia egin behar da. 2007an guztira 31 onarpen egin ziren; 2008an, 273, eta 2009an, 664. Hazkunde hain handi hori, alde batetik, bizi etapa horretan berrazterketak hil gutxitan ezarritako maiztasunez egiteari dagokio; bestetik, beharbada haur goiztiarren gurasoek zerbitzu eta prestazio horiek lortzea sendotu egin da denboraren poderioz, alor horretan koordinazio soziosanitarioak izandako aurrerapenen ondorioz.

Arestiko atalean aipatutako emakumezkoen nagusitasun kuantitatiboa ez da adin talde guztietan gertatzen. Izan ere, 65 urte arte ikusten da gizonengan gertatutako mendetasunaren onarpenen ehunekoa guztien %55 baino handiagoa dela. Adin horretatik aurrera, ordea, mendetasunak eragin handiagoa dauka emakumeengan.

23. taula-grafikoa. Mendetasunaren onarpenen banaketa sexuaren arabera 65 urtez azpiko biztanlerian

		ONARPENAK					
		Emakumeak		Gizonak		Guztira	
		Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Araba	2007	513	42,50	694	57,50	1.207	100
	2008	381	43,49	495	56,51	876	100
	2009	275	41,29	391	58,71	666	100
Bizkaia	2007	902	42,19	1.236	57,81	2.138	100
	2008	755	43,97	962	56,03	1.717	100
	2009	582	45,50	697	54,50	1.279	100
Gipuzkoa	2007	563	45,33	679	54,67	1.242	100
	2008	1.358	45,94	1.598	54,06	2.956	100
	2009	870	44,14	1.101	55,86	1.971	100

3.9. Mendetasunaren onarpenen banaketa lortutako gradu eta mailaren arabera

3.9.1. Lortutako mailaketa


Honako taula eta grafikoetan hiru euskal aldundiek ebatzitako mendetasunaren onarpene-tan lortutako mailaketari buruz emandako informazioa sistematizatu da. Datuak 2007, 2008 eta 2009ko ekitaldiei dagozkie.

Argitu behar da, ebatzitako mendetasunaren onarpenei buruz ari garenean, aurretik egin-dako balorazioaren ondorioz, eskatzailea, gradu eta maila jakin batean, mendetasuneko egoeran dagoela onartzen duten horiei buruz ari garela, Horregatik ez ditugu sartu "0 gra-dua" lortu zuten balorazioak, hots, pertsona autonomoa zela eta, beraz, ezin zela mendeta-suneko egoeran jo ebatzi zutenak. Talde hori [kapitulu honetako 3.0.](#) eta [3.2. ataletan](#) aztertu da.


a) 2007. urtea

24. taula-grafikoa. Mendetasunaren onarpenen banaketa mailaketaren arabera (lurrealdekoa). 2007. urtea


MENDE TASUNAREN ONARPENAK. MAILAKETA. 2007													
GUZTIRA	III. gradua 2. maila		III. gradua 1. maila		II. gradua 2. maila		II. gradua 1. maila		I. gradua 2. maila		I. gradua 1. maila		
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	
Araba	5.528	1.751	31,68	1.528	27,64	836	15,12	664	12,01	402	7,27	347	6,28
Bizkaia	10.219	3.109	30,42	2.821	27,61	1.044	10,22	1.335	13,06	815	7,98	1.095	10,71
Gipuzkoa	9.342	2.420	25,90	2.512	26,89	1.134	12,14	1.349	14,44	770	8,24	1.157	12,39
GUZTIRA	25.089	7.280	29,02	6.861	27,35	3.014	12,01	3.348	13,34	1.987	7,92	2.599	10,36




MENDE TASUNAREN ONARPENAK MAILAKETA. ARABA 2007




MENDE TASUNAREN ONARPENAK MAILAKETA. BIZKAIA 2007



MENDE TASUNAREN ONARPENAK MAILAKETA. GIPUZKOA 2007



MENDE TASUNAREN ONARPENAK MAILAKETA. EAE 2007








- III. gradua 2. maila
- III. gradua 1. maila
- II. gradua 2. maila
- II. gradua 1. maila
- I. gradua 2. maila
- I. gradua 1. maila

b) 2008. urtea

25. taula-grafikoa. Mendetasunaren onarpenen banaketa mailaketaren arabera (lurrealdekoa). 2008. urtea

MENDE TASUNAREN ONARPENAK. MAILAKETA. 2008													
GUZTIRA	III. gradua 2. maila		III. gradua 1. maila		II. gradua 2. maila		II. gradua 1. maila		I. gradua 2. maila		I. gradua 1. maila		
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	
Araba	3.852	483	12,54	797	20,69	625	16,22	830	21,55	517	13,42	600	15,58
Bizkaia	9.927	1.492	15,03	2.289	23,06	1.422	14,32	1.785	17,98	1.174	11,83	1.765	17,78
Gipuzkoa	14.721	2.064	14,02	3.687	25,05	2.155	14,64	2.830	19,22	1.754	11,91	2.231	15,16
GUZTIRA	28.500	4.039	14,17	6.773	23,76	4.202	14,74	5.445	19,11	3.445	12,09	4.596	16,13




- III. gradua 2. maila
- III. gradua 1. maila
- II. gradua 2. maila
- II. gradua 1. maila
- I. gradua 2. maila
- I. gradua 1. maila


c) 2009. urtea

26. taula-grafikoa. Mendetasunaren onarpenen banaketa mailaketaren arabera (lurraldeka). 2009. urtea


MENDE TASUNAREN ONARPENAK. MAILAKETA. 2009													
GUZTIRA	III. gradua 2. maila		III. gradua 1. maila		II. gradua 2. maila		II. gradua 1. maila		I. gradua 2. maila		I. gradua 1. maila		
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	
Araba	2.700	206	7,63	442	16,37	434	16,07	686	25,41	431	15,96	501	18,56
Bizkaia	8.924	857	9,60	1.567	17,56	1.166	13,07	1.705	19,10	1.359	15,23	2.270	25,44
Gipuzkoa	11.362	1.386	12,20	2.590	22,80	1.643	14,46	2.342	20,61	1.543	13,58	1.858	16,35
GUZTIRA	22.986	2.449	10,65	4.599	20,01	3.243	14,11	4.733	20,59	3.333	14,50	4.629	20,14




MENDE TASUNAREN ONARPENAK MAILAKETA. ARABA 2009




MENDE TASUNAREN ONARPENAK MAILAKETA. BIZKAIA 2009



MENDE TASUNAREN ONARPENAK MAILAKETA. GIPUZKOA 2009



MENDE TASUNAREN ONARPENAK MAILAKETA. EAE 2009



■ III. gradua 2. maila ■ II. gradua 1. maila
■ III. gradua 1. maila ■ I. gradua 2. maila
■ II. gradua 2. maila ■ I. gradua 1. maila

2007an ikusten da EAEn egindako balorazioen %56,37 III. graduak direla (mendetasun handia). Ehuneko hori pixkanaka beherantz doa denboraren poderioz. Kasurik larrienak dira eta haien babesak lehenetasuna dauka legea mailaka aplikatzeko kronogramaren arabera. Urte horretan bertan, balorazioen %25,35 II. graduak dira (mendetasun latza). Bizkaiaik beste lurralde historiko biek baino proportzio txikiagoa dauka. I. gradua (mendetasun arina), 2007an, gutxien agertu dena da: balorazio guztien %18,28 inguru.

2008an, II. graduaren eta I. graduaren proportzioa hazi egin zen (%33,85 eta %28,22, hurrenez hurren), 2009an III. graduarekin onartutakoen ehunekoa (%30,66) II. graduakoa (%34,70) eta I. graduakoa (%34,64) baino apur bat txikiagoa izateko, azken bi horien artean ia alderik ez dagoen bitartean.

Ikusten denez, 2008 eta 2007an 1. mailari dagokion proportzioa 2. mailari dagokiona baino handiagoa da gradu guztietan.

d) 2007ko urtarrilaren 1aren eta 2010eko uztailaren 1aren artean igarotako epea


Jarraian, mendetasuneko egoera onartu zaien pertsonak lortutako mailaketari buruzko datuak jarri ditugu. Datu horiek, beraz, ez dira onarpen espedientei buruzkoak (a, b eta c atal-letan bezala), mendetasuneko egoeraren onarpena lortu duten pertsonen buruzkoa baizik.

27. taula-grafikoa. Mendetasuneko egoeran dauden pertsonen mailaketa lurraldeka (2007ko urtarrilaren 1etik 2010eko uztailaren 1 arte)

MENDEASUNEN EGOERAN DAUDEN PERTSONEN MAILAKETA (2007KO URTARRILAREN 1ETIK 2010EKO UZTAILAREN 1 ARTE)								
	GUZTIRA		III. GRADUA		II. GRADUA		I. GRADUA	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Araba	13.068	100	5.835	44,65	4.418	33,81	2.815	21,54
Bizkaia	33.390	100	14.054	42,09	10.166	30,45	9.170	27,46
Gipuzkoa	30.895	100	13.946	45,14	9.563	30,95	7.386	23,91
GUZTIRA	77.353	100	33.835	43,74	24.147	31,22	19.371	25,04


MENDE TASUNEKO EGOERAN DAUDEN PERTSONAK. MAILAKETA. ARABA

(2007ko urtarrilaren 1etik 2010eko uzta ilaren 1 arte)




MENDE TASUNEKO EGOERAN DAUDEN PERTSONAK. MAILAKETA. BIZKAIA

(2007ko urtarrilaren 1etik 2010eko uzta ilaren 1 arte)




MENDE TASUNEKO EGOERAN DAUDEN PERTSONAK. MAILAKETA. GIPUZKOA

(2007ko urtarrilaren 1etik 2010eko uzta ilaren 1 arte)



MENDE TASUNEKO EGOERAN DAUDEN PERTSONAK. MAILAKETA. EAE

(2007ko urtarrilaren 1etik 2010eko uzta ilaren 1 arte)



■ III. GRADUA
 ■ II. GRADUA
 ■ I. GRADUA

EAE n, ikusten denez, mendetasunaren onarpena gradurik larrienean –III. gradua– lortu duten pertsonak portzentajerik handiena daukate mendetasuneko egoeran dauden pertsona guztien artean (%43,74). Hori hiru lurraldeetan gertatu da, baina Gipuzkoan gertatutako indizea (%45,14) Arabakoa (%44,65) edo Bizkaikoa (%42,09) baino apur bat handiagoa da, azkenekoari dagokiona txikiena izanik.

II. gradu ko mendetasuneko egoeran dauden pertsonak guztien %31,22 dira. Talde horretan Arabako indize handiena nabarmentzen da (%33,81, Gipuzkoako %30,95aren edo Bizkaiko %30,45aren aldean).

Azkenik, I. graduan –mendetasuneko egoeran dauden pertsonen %25,04 EAE osoan– indize rik handiena Bizkaiak dauka, %27,46, eta txikiena Arabak (%21,54).

Bizkaiko Foru Aldundiak gradu bakoitzaren datuak mailaka bereizita eman dizkigu. Jarraian jarri ditugu:

**11. taula. Mendetasuneko egoeran dauden pertsonen mailaketa Bizkaian
(2007ko urtarrilaren 1etik 2010eko uztailaren 1 arte).
Mailaka bereizitako datuak**

BIZKAIA. MENDE TASUNEKO EGOERAN DAUDEN PERTSONEN MAILAKETA (2007KO URTARRILAREN 1ETIK 2010EKO UZTAILAREN 1 ARTE)													
GUZTIRA		III. GRADUA				II. GRADUA				I. GRADUA			
		2. maila		1. maila		2. maila		1. maila		2. maila		1. maila	
Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
33.390	100	6.222	18,63	7.832	23,46	4.176	12,51	5.990	17,94	3.630	10,87	5.540	16,59

Ikustenenez, 1. mailari dagokion proportzioa 2. mailarena baino handiagoa da beti gradu guztietan.

3.9.2. Mendetasunaren mailaketaren banaketa baloratutako pertsonaren sexuaren arabera

Baloratutako pertsonaren sexuari eta haren mailaketari dagozkien aldagaiak gurutzatu-takoan, honako tauletan, lurralde historikoen arabera zein Autonomia Erkidego osoari buruz, aurkeztu ditugun datuak ateratzen dira.

Arestiko ataletan adierazienez, Arabako lurraldearen kasuan pertsona batzuk ez daude sexu edo adinaren arabera identifikatuta. Talde hori ez da inoiz mendetasunaren onarpen guztien %2 baino gehiago.

Jarraian erakutsiko diren datuak sexua eta adina ezagutzen ditugun pertsonen buruzkoa baino ez da, hots, %98ri buruzkoa, gutxi gorabehera.

Gipuzkoa eta Bizkaia dagokienez, sexu eta adinaren aldagaiak ebatzitako mendetasunaren onarpenen %100ean daude zehaztuta.

a) 2007. urtea

**12. taula. Mendetasunaren onarpenen banaketa:
mailaketa eta sexua (lurraldeka). 2007. urtea**


MENDE TASUNAREN ONARPENAK LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. 2007																		
	III. GRADUA 2. maila			III. GRADUA 1. maila			II. GRADUA 2. maila			II. GRADUA 1. maila			I. GRADUA 2. maila			I. GRADUA 1. maila		
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
	Gizonak	592	918	667	543	870	813	340	352	387	293	490	500	185	311	289	170	416
Emakumeak	1.152	2.191	1.753	979	1.951	1.699	493	692	747	368	845	849	213	504	481	177	679	709

Erkidegoko esparruaren azterketari helduko diogu ulertzen dugulako ez dagoela alde garrantzirik EAEko lurraldeen artean, [3.8.1 atalean](#) aipatu legez, Araban mendeko biztanleriak daukan emakume proportzio apur bat txikiagotik eratorritakoak alde batera utzita.


28. taula-grafikoa. Mendetasunaren onarpenen banaketa: mailaketa eta sexua. EAE. 2007. urtea

MENDE TASUNAREN ONARPENAK. EAE. 2007														
	III. GRADUA 2. maila		III. GRADUA 1. maila		II. GRADUA 2. maila		II. GRADUA 1. maila		I. GRADUA 2. maila		I. GRADUA 1. maila		GUZTIRA	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Gizonak	2.177	25,36	2.226	25,93	1.079	12,57	1.283	14,95	785	9,14	1.034	12,05	8.584	100
Emakumeak	5.096	30,92	4.629	28,09	1.932	11,72	2.062	12,51	1.198	7,27	1.565	9,50	16.482	100

MENDE TASUNAREN ONARPENAK GIZONAK. EAE. 2007



MENDE TASUNAREN ONARPENAK EMAKUMEAK. EAE. 2007



- III. GRADUA 2. maila
- III. GRADUA 1. maila
- II. GRADUA 2. maila
- II. GRADUA 1. maila
- I. GRADUA 2. maila
- I. GRADUA 1. maila


Ikustenenez, mendetasunaren onarpenen %59,01ek, emakumeei dagokienez, gradurik larriena (III. gradua) lortzen dutela. Gizonezkoiei dagokienez, proportzio hori %51,29koa da.

Jarriaian, datu berberak aurkeztuko ditugu, baina gradu bakoitzak sexuaren arabera duen banaketa aztertu ahal izateko moduan.


29. taula-grafikoa. Mendetasunaren onarpenak. Gradu bakoitzak duen sexuaren araberako banaketa. EAE. 2007. urtea

	III. GRADUA 2. maila		III. GRADUA 1. maila		II. GRADUA 2. maila		II. GRADUA 1. maila		I. GRADUA 2. maila		I. GRADUA 1. maila	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Gizonak	2.177	29,93	2.226	32,47	1.079	35,84	1.283	38,36	785	39,59	1.034	39,78
Emakumeak	5.096	70,07	4.629	67,53	1.932	64,16	2.062	61,64	1.198	60,41	1.565	60,22
GUZTIRA	7.273	100	6.855	100	3.011	100	3.345	100	1.983	100	2.599	100


**MENDETSUNAREN ONARPENAK
III. GRADUA. 2. MAILA
EAE. 2007**




**MENDETSUNAREN ONARPENAK
III. GRADUA. 1. MAILA
EAE. 2007**




**MENDETSUNAREN ONARPENAK
II. GRADUA. 2. MAILA
EAE. 2007**




**MENDETSUNAREN ONARPENAK
II. GRADUA. 1. MAILA
EAE. 2007**



**MENDETSUNAREN ONARPENAK
I. GRADUA. 2. MAILA
EAE. 2007**



**MENDETSUNAREN ONARPENAK
I. GRADUA. 1. MAILA
EAE. 2007**



Gizonak
Emakumeak

Horrela, ikusten denez, aipatu dugun emakumeen nagusitasunak, hain zuzen ere, mendetasun gradurik larrienean dauzka mailarik handienak: III. graduako 2. mailan (emakumeak %70,07 dira eta gizonetzkoak, aldiz, %29,93). Bestalde, gradu bakoitzean, gizonak proportzio txikiagoa dauka 2. mailan, emakumeak ez bezala, gradu guztietan baitauka proportzio handiagoa mendetasun handieneko egoerari dagokion maila horretan.

b) 2008. urtea


**13. taula. Mendetasunaren onarpenen banaketa:
mailaketa eta sexua (lurraldeka). 2008. urtea**

	MENDETSUNAREN ONARPENAK LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. 2008																	
	III. GRADUA 2. maila			III. GRADUA 1. maila			II. GRADUA 2. maila			II. GRADUA 1. maila			I. GRADUA 2. maila			I. GRADUA 1. maila		
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Gizonak	145	501	725	299	803	1.266	233	513	793	323	654	1.077	200	402	673	232	579	860
Emakumeak	328	991	1.339	478	1.486	2.421	384	909	1.362	494	1.131	1.753	307	772	1.081	363	1.186	1.371


30. taula-grafikoa. Mendetasunaren onarpenen banaketa: mailaketa eta sexua. EAE. 2008. urtea

MENDE TASUNAREN ONARPENAK. EAE. 2008														
	III. GRADUA 2. maila		III. GRADUA 1. maila		II. GRADUA 2. maila		II. GRADUA 1. maila		I. GRADUA 2. maila		I. GRADUA 1. maila		GUZTIRA	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Gizonak	1.371	13,34	2.368	23,04	1.539	14,97	2.054	19,98	1.275	12,41	1.671	16,26	10.278	100
Emakumeak	2.658	14,64	4.385	24,15	2.655	14,62	3.378	18,61	2.160	11,90	2.920	16,08	18.156	100

**MENDE TASUNAREN ONARPENAK
GIZONAK. EAE. 2008**



**MENDE TASUNAREN ONARPENAK
EMAKUMEAK. EAE. 2008**




- III. GRADUA 2. maila
- III. GRADUA 1. maila
- II. GRADUA 2. maila
- II. GRADUA 1. maila
- I. GRADUA 2. maila
- I. GRADUA 1. maila

	Emakumeak	0	300	0	300
80 edo gehiago	Gizonak	0	390	0	390
	Emakumeak	0	994	0	994
BIZKAIA GUZTIRA		0	2.526	0	2.526

19. grafikoa. Zerbitzu eta prestazio ekonomikoaren onuradunak. Araba eta Gipuzkoa. 2009. urtea



20. grafikoa. Zerbitzu eta prestazio ekonomikoaren onuradunak. Bizkaia. 2009. urtean erregistratutako altak



Jasotako datuak aurkeztu eta mendetasuneko egoeran dauden pertsonak eskuratzen dituzten zerbitzu eta prestazio guztien banaketa aztertu ondoren, zerbitzu edo prestazio bakoitzeko zenbat onuradun dagoen eta, sexuari eta adinari dagokienez, haiek dauzkaten ezaugarriak aztertuko ditugu.

3.12.0. Mendetasuneko egoeran egonda norberaren autonomia prebenitu eta sustatzeko zerbitzuen onuradunak

3.12.0.1. Txosten honetako [2.10.1.a\) atalean](#) zerbitzu horien ezaugarriak eta haien tipologia aipatu ditugu.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeko Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzu katalogoari buruzko 22. artikuluan, berariaz jasotzen da arreta goiztiarreko gizarte esku-hartze zerbitzua, baita autonomiari laguntzeko zenbait gizarte zerbitzu ere (bizitza independenteari laguntzeko zerbitzua eta laguntza teknikoaren eta ingurune fisikoa egokitzeko zerbitzua).

Prebentzio zerbitzuei dagokienez, oso zaila da haien ondorioak kuantifikatzea, adierazi dugunez, askotan zerbitzu horiek telelaguntza, etxeko laguntza, eguneko zentro eta egoitza-arretako programetan sartzen direlako.

AMALeko 21. artikulua aipatzen dituen sustapen zerbitzuei dagokienez, adierazi dugunez, Autonomiarako eta Mendetasunarentzako Arretarako Sistemako Lurralde Batzordeak haien tipologia zehaztu zuen eta, aurreratu zuenez, haien artean honakoak zeuden: gaikuntza eta okupazio-terapia, arreta goiztiarra, estimulazio kognitiboa, sustapena, autonomia funtzionalari eustea eta berreskuratzea, gaixotasun mentala edo adimen urritasuna duten pertsonentzako gaikuntza psikosoziala, eta laguntza pertsonalak eta zaintzak ostatu berezietan (zaintzapeko etxebizitzak).

Foru erakundeetatik informazioa jaso dugu, mendetasuneko egoerak prebenitzeari eta norberaren autonomia sustatzeko zerbitzuei dagokienez, abiarazi diren jarduketak eta zerbitzu motari buruz.

Arabako Foru Aldundiak esan du programa, zerbitzu eta zentro guztien helburu nagusietako bat prebentzioa dela bere mota guztietan –lehenengo, bigarren eta hirugarren mailakoa–, baita norberaren autonomiaren sustapena ere. Zehazki, minusbaliotasuna duten pertsonentzako zerbitzu batzuk aipatu ditu –orokorrean, 65 urtez gorako pertsonentzat–: arreta goiztiarreko programa (0-3 urte), okupazio zentroak (ikaskuntza eta norberaren eta gizarte trebetasuneko jardueretarako), Endesa enplegu zentroa (laneratzeko), lagundutako enplegua sustatzeko laguntzak, laguntza tekniko eta autonomiari laguntzeko produktuetarako deialdia, bizitza independenteko programa eta zenbait autonomia maila duten pertsonentzako lagunduriko pisuak. Haien denek aipatu adin muga dute. proiektio orokorragoa duten beste zentro bi aipatu ditu: orientabide eta balorazio zentroa (minusbaliotasun eta mendetasun gradua baloratzen die herritar guztiei) eta norberaren autonomiaren zentroa (edonori laguntza produktuei buruzko aholkularitza eta 65 urtez beherako pertsonen autonomia sustatzeko eguneko arreta zerbitzuak ematen ditu).

Adinekoentzako zerbitzuei dagokienez, “Zaintzeko zeure burua zaindu” programa (senide jagoleei laguntzeko) eta autonomia errazteko laguntzak (2.10.2.d) atalean adierazi legez, talde horrentzat oso mugatuak baitira) adierazi dizkigu.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, 2.10.2.d) eta 3.12.9. ataletan aipatutako laguntza teknikoak edo laguntza produktuak edo “SENDIAN” programa ez ezik, adierazi du halako zerbitzuak beste dispositibo batzuen funtzionamenduan eta zaintza planetan sartuta daudela. Zentzu horretan, adierazi digu derrigorrezko langile ratioak eta haien lanbide ezaugarriak hobetzen ari direla, programa horiek garatu ahal izateko. Horri dagokionez, foru Sailak onartutako

egoitza-zerbitzuen katalogoaren aplikazioa aipatu zuen, adinekoen egoitza-plazak ituntzeko derrigorrez betetzekoa baita. Haren iritziz, "ituntzeko baldintza horiek baimentzeko gutxieneko betekizunak gainditzen dituzte".

Bizkaiko Foru Aldundiak adierazi digu [GIZATEK](#) zerbitzuaren –2.10.2.d) eta 3.12.9. ataletan aipatu ditugu– eta "ZAINDUZ" programaren (2.10.1.f) helburuak aipatzen ari garen autonomiaren prebentzioa eta sustapena dira.

3.12.0.2. Arreta goiztiarreko zerbitzuak

Interes handia izan dugu arreta goiztiarri buruzko informazioa biltzeko –orain arte 0 eta 3 urte bitarteko haurrentzat da–. Hiru aldundiek ematen dute zerbitzua, praktikan, berariazko arauketa Bizkaia baino ez izan arren. Aldundi horrek minusbaliotasuna duten pertsonentzako banakako laguntzen deialdian bazeukan estimulazio goiztiarra sartuta, AMAL indarrean sartu aurretik. 2009az geroztik, beren beregi arautu ditu berariazko laguntza horiek eta estimulazio goiztiarrerako (0-3 urte) banakako laguntzak emateko deialdiak onartu ditu. Horrela, abenduaren 30eko 216/2008 Foru Dekretua onartu zuen, 2009ko laguntzetarako. 2010erako laguntzak abenduaren 30eko 192/2009 Foru Dekretuaren bidez deitu ziren.

5.14.2. atalean azaldu dugun ofiziozko espediente baten kariatara, hiru foru aldundietara jo genuen jakiteko ea neonatologia unitateekin, jarraipen kontsultekin eta Haur Arreta Goiztiarreko zerbitzuekin koordinaziorik zegoen, eta, orokorrean, 3 urtez azpiko haurrentzat eta, bereziki, pisu txikiko arazoak edo minusbaliotasuna izateko arrisku handia dituzten edo arrisku psikosozialeko egoeretan dauden 0 eta 6 hilabete bitarteko haurrentzat Neonatologian agintzen ari ziren zerbitzu edo prestazioen berri izateko⁶⁸.

Arabako Foru Aldundiak honakoa erantzun zigun:

"Jaiotzean pisu txikia duten haurrak Balorazio Zentrora bidaltzen dira mendetasuneko egoera baloratzeko, haien gurasoen amatasun edo aitatasun baja luzatzeko eta sistemaren prestazioak jaioberrien unitateetatik, neuropediatria zerbitzuetatik, pediatriako lehen mailako arretatik eta Euskadiko garai aurrekoen elkartetik (APREVAS) jasotzeko eskubidea onartzeko. APREVASi lehenago Arreta Soziosanitarioaren Euskal Kontseiluko Arreta Goiztiarreko Batzordean dituen ordezkarien bidez jakinarazi zitzaion baliabide horiek badirela. Halaber, haur horien jarraipenean arreta goiztiarreko unitatearen eta neonatologia, neuropediatria eta pediatriako lehen mailako arretaren arteko koordinazioa dago.

⁶⁸ Aipatu dugun mendetasuna baloratzeko baremoari buruzko 504/2007 Errege Dekretuak hiru urtez azpikoentzako berariazko balorazio eskala (BBE) onartu du. Eskala horren arabera, jaiotzeko pisua (jaiotzeko unetik 6 hilabete arte baloratzen da hura) hura aplikatzeko irizpideetako bat da, bizi funtzioei eusteko neurriekin eta mugikortasunerako neurriekin batera.

Garai aurreko haurrek jaioberrien unitateetako inkubagailuan jarraitu behar dutenean, familiei balorazio prozesua ematen zaie eta hura egoera klinikoari eta haurrak jaiotzean izandako pisuari buruzko txostenetan oinarrituta egiten da.

Aipatuenez, neonatologia unitateetatik, pediatriako lehen mailako zerbitzuetatik, garai aurrekoen elkarreetatik (Aprevas) eta oinarrizko gizarte zerbitzuetatik, familiei prestazio ekonomikoak eta zerbitzuak (heltzeko atzerapena edo hura izateko arriskua duten haurrentzako arreta goiztiarra) daudela jakinarazten zaie eta gurasoak Gizarte Ongizatearen Foru Erakundeko Balorazio eta Orientabide Zentrorra bidaltzen dira. Bertan harrera egin eta gehienez ere 15 eguneko epean hitzordua ematen da AGBTk (Arreta Goiztiarreko Balorazio Taldea) haurraren eta haren gizarte egoeraren balorazioa egin dezan. Hura publikoa eta diziplina anitzekoa da, eta errehabilitazio medikuak, psikologoak eta gizarte langileak osatzen dute. Haiek erabakitzen dituzte egin beharreko esku-hartze terapeutikoak eta familia arreta goiztiarreko esku-hartze taldearekin (AGET) –kasu honetan, elkarre mugimenduaren itunduta– kontaktuan jartzen dute.

Heltzeko atzerapena edo hura izateko arriskua duten haur guztientzako arreta goiztiar horrek (...) ikuspegi bio-psiko-soziala duten esku-hartze batzuk biltzen ditu: jarraipena denboran eta heltzeko garapenaren estimulazio orokorra, fisioterapia, musikoterapia, haur itsuentzako berariazko arreta, logoterapia, gurasoentzako laguntza psikologiko eta sozialaz gain banakako eta taldeko tratamenduen bidez.

Balorazio taldeak aldiari aldi berrazterketak egiten ditu, gutxienez 6 hilabetean behin.

Lehenengo kontsultatik, ABETek berariazko balorazio eskala darabil 3 urtez azpiko haurren mendetasuna ebaluatzeko eta kontuan hartzen ditu, bestalde, 1971/1999 EDko baremoak haurraren eta familiaren eskubideak ahalik eta lasterren ezagutzeko, legeak haren arretarako xedatutako laguntza ekonomikoak jaso ahal izateko. Unitateko gizarte langileak horretarako behar diren izapide administratiboak egiten laguntzen du.

Ez da inoiz eskatzen alde aurretiko minusbaliotasun edo mendetasun onarpenik ez bestelako betekizun administratiborik haurrek arreta goiztiarra eskuratzeko ezinbesteko baldintza gisa, Araban unibertetsala eta doakoa baita.

Haurrek jasotzen dituzten prestazioak, beste erakunde publiko edo pribatu batzuek minusbaliotasun edo mendetasunagatik ematen dituztenak ez ezik, 504/2007 EDren arabera mendetasun hori onartzeak eragindakoak dira, batez ere familia ingurunean zaintzeko prestazio ekonomikoak (...)."

Arabian, 2007an 43 onuradun zeuden arreta goiztiarreko programetan, 19 mutil eta 24 neska, eta honako diagnostikoa zeukaten: garai aurrekoak (20); Down-en sindromea (6); atzerapen psikomotorra (10); garun-paralisia (4); garapenaren nahasmendu orokorra (3);

hipotonia (1); katu-miauaren sindromea (1); hidrocefalia (1); hipoakusia (1); fenilzetonuria (1); Klinefelter-en sindromea (1); gorputz kailukararen agenesia (1); Marfan-en sindromea (1); makrozefalia (1); eta sindrome polimalformatiboa (1). 2008an, 74 neska-mutili eman zitzairen arreta, hots, 0,24ko estaldura tasa 1.000 biztanleko. 2009an 75 haur onuradun egon ziren: 37 estimulazio goiztiar/arreta goiztiarreko arloan (ituna [APDEMArekin](#)) eta 38 fisioterapia arloan (ituna [ASPACErekin](#)).

Bizkaiko Foru Aldundiak emandako informazioaren arabera, Neonatologian pisu txikiko arazoak, minusbaliotasuna izateko arrisku handia edo arrisku psikosoziala duten 0 eta 6 hilabete bitarteko haurrak mendetasuneko egoeran baloratuak eta onartuak dira; kasu askotan, prestazio ekonomikoa eta arreta –edo estimulazio– goiztiarreko zerbitzuak agintzen ari dira. Txosten honetako [5.14.2. atalean](#) –erakunde honek izapidetutako kexen azterketari buruzkoa hura– lurralde esparru honetan gizarte eta osasun sistemen artean dagoen koordinazioari buruzko zenbait alderdiren berri eman da.

Gipuzkoako Foru Aldundiak honako informazioa eman digu:

“Gipuzkoan, neonatologoak, neuropediatrak, lehen mailako arretako pediatrak, eskolako langileek edo oinarrizko gizarte zerbitzuetakoek haurrengan arreta goiztiarrean premiari antzeman ondoren, gurasoek edo tutoreek minusbaliotasun edo mendetasunaren eskaera izapidetzen dute oinarrizko gizarte zerbitzuen bidez. Haiek minusbaliotasunaren balorazio, orientabide eta sailkapen sailari igortzen diote.

Familiaren eta Foru Aldundiko zerbitzu teknikoen arteko kontaktua egin ondoren, saileko teknikari baloraziogileek (errehabilitazio medikuak, psikologoak eta gizarte langileak) balorazioa egiten dute eta haiek guztiek dagokien azterketa egiten dute. Bertan, arreta goiztiarrera bideratzen da, eta aldi berean, dagokionaren arabera, minusbaliotasun edo mendetasun ziurtagiriak egiten dira, haiek tratamendua jasotzeko ezinbesteko baldintza ez badira ere.

Esku-hartzeari dagokionez, arreta goiztiararen premia onartutakoan, balorazio osoa egin ondoren, teknikariek arreta goiztiarreko tratamendua zehazten dute (langile zehaztua, intentsitatea, berraztertze data), hala badagokio. Argibide horiek gurasoei bidalitako agirian jasotzen dira. Arretaren jarraipena haurrengan balorazioaren berrazterketen eta arreta ematen dieten langileekin izandako bileren bidez egiten da.

Teknikari baloraziogileek, bestalde, oniritzia ematen diete, osasun zerbitzuek erabakita, Aspacen burututako arreta goiztiarreko tratamenduei.

Bukatzeko, minusbaliotasunaren edota mendetasunaren balorazioen bidez arreta edo jasotzen dutena birbideratzea behar duten haurrei antzematen dietenean, dagokion esku-hartzea egiten dute.

Esku-hartzea bera psikologo-bulegoetan burutzen da. Bertan, heltzeko atzerapenak edo haiek izateko arriskua dituzten haur batzuei tratamendua ematen zaie. Garape-

nean nahasmendua duten beste haur batzuei, osasun edota hezkuntza esparruan, berariazko zentroetan ematen zaie arreta (GFAk baimena edo oniritzia ematen die Aspacek emandako tratamenduei eta finantzaketan hartzen du parte).

Emandako zerbitzuei dagokienez, psikologo batzuek GFari laguntzen diote balorazioko teknikariek agindutako tratamendua egiten. Haiak arreta goiztiarrean espezializatutako psikopedagogo, pedagogo, psikomotrizista, irakasle, logopeda eta abarrek batera egiten dute lan. Tratamendua 0 eta 3 urte bitartean ematen da eta, salbuespenez, 6 urte arte luzatzen da. Saioak astero, hamabostean behin, hilero edo bi hilean behin dira.

2008an estaldura 110 hurrekoa izan da (artatutako 0,16 hurreko tasa 1.000 biztanleko) eta gutxi gorabehera 5.478 saio egin dira.

Gipuzkoako Foru Aldundiak arreta goiztiarreko tratamendua finantzatzen du saio eta haur bakoitzeko. Halaber, hilero zenbateko finko bat jartzen du Aspacen artatutako haur bakoitzeko, hilean gehienez ere 50 haur hartuta.

Akordio bat dago Donostia Ospitalearekin Pediatria Zerbitzutik –batez ere neonatologia unitatean– onuradunak izan daitezkeen familiei laguntzen berri emateko, eta BBE balorazioa zein dagozkion laguntzak (familia ingurunekeo prestazio ekonomikoa, ELZ edo arreta goiztiarra, funtsean) oinarritzko gizarte zerbitzuan eskatzera bideratzen dira. Aldi berean Pediatria Zerbitzuak (2008an BBE eskalari buruzko jardunaldi bat eman zitzaion) BBE balorazio proposamen bat egin eta zuzenean Aldundiko Balorazio Atalari bidaltzen dio. Atalak BBE balorazio bat zabaltzen du proposamen horretan oinarrituz. BBE eskaera oinarritzko gizarte zerbitzutik jasotzen denean, balorazioa prest dago, balorazioko bisita egin beharrik gabe. Horrela epeak asko murrizten dira.

Pediatria Zerbitzuak berak (neonatologia unitateak) bahetzen ditu kasuak, jaiotzean izandako pisuen eta diagnostikoen arabera.

Arreta goiztiarreko zerbitzuak garapenaren nahasmendua edo hura izateko arriskua duten haur guztientzat eta haien familientzat dira. Langileek prestakuntza izan behar dute minusbaliotasun edo arrisku egoera guztietan, banaka artatzeko, haur bakoitzaren eta haren ingurunearen premien arabera. AMAsek orokorrean 3 urtez azpiko hurrek izan ditzaketen etxeko laguntza premiei arreta ematen die eta, beharrezkoa bada, lotutako eta familia ingurunekeo zaintzetarako prestazio ekonomikoak".

Azterlan hau egiterakoan [Hera proiektua](#) ere ezagutu dugu. Neonatologia arloan osorik garatutako lan ekimen gisa sortu zen eta diziplina anitzekoa da, arloan zerikusia duten eragile guztiak tartean sartuz. Dirudenez, garai aurretik jaiotako haurren zaintza haien garapenari heltzen dieten zaintza programen bidez hobetzeko tresna interesgarri agertu da. Dazkagun datuen arabera, proiektu horretan espainiar Estatuko zenbait ospitaletako –haien ar-

tean dago Gurutzetako Ospitalea eta Donostia Ospitalea– neonatologia, erizaintza eta psikologiako profesionalek parte hartzen dute.

3.12.0.3. Arreta goiztiarreko eredu berria EAerako

2011ko otsailaren 28an, Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluak [Arreta Goiztiarreko Eredua Euskal Autonomia Erkidegorako](#) agiria onartu du.

Arreta goiztiarra honela definitzen du: “0-6 urteko haurrei, familiari eta inguruneari zuzenduriko esku-hartzeen multzoa, helburutzat nahasmenduak dauzkaten haurrek beren garapenean agertzen dituzten, edo horiek pairatzeko arriskua duten, premia iragankor edo iraunkorrei albait lasterren erantzutea duena”⁶⁹.

Onartutako eredu garrantzi handiko agiria da esparru honetan, zerikusia duten sektore guztien –hezkuntza, osasun eta gizarte sistemak– eta ukitutako erakunde guztien jardunbide koordinaturako gida-lerroak ezartzen dituelako. Horretarako sektore eta erakunde horiek osatuta sortutako batzorde baten lanaren emaitza da.

Arreta Goiztiarreko Eredua arreta plan osoa da eta 0 eta 6 urte bitarteko haurrei dago zuzenduta (beraz, adin muga zabaldu du). Haren xedea haur garapeneko nahasmendu arriskuko egoerak prebenitu edo saihesteko tratamendua ematea eta, erabat edo neurri batean, nahasmendu horiek zuzendu eta, ahal den heinean, haien ondorioak arintzea da. Beraz, haur horiek, haien familiak eta prozesuan parte hartzen duten profesionalak hartzen dituen kontuan.

Agirian adierazten denez, EAEEn urtero arreta goiztiarreko zerbitzuak behar dituzten 2.000 haur inguru (%10 inguru) jaiotzen dira. Nahasmenduak mugimenduaren, adimenaren, zentzumenen garapenekoak, hizkuntzakoak, jokabidekoak, emozioen garapenekoak, adierazpenekoak edo bilakaeraren atzerapenekoak izan daitezke. Oso garrantzitsua da adingabe horiei eta haien familiei ahalik eta lasterren eskaintzea baliabide egokiak, fase goiztiarretan dihardutelako elkarrekin hainbat eragile biologiko eta psikosozialek, eta geroko bilakaerarako funtzio oso garrantzitsuak eskuratzen direlako.

Arreta goiztiarra zenbait jarduketa orokorretan datza; haurrei ez ezik, haien inguruneari ere heltzen diote (batez ere gurasoei). Haren eginkizuna ez da berariazko arazo bat konpontze-
ra mugatzen; aitzitik, erabiltzaileen ahalmen guztia garatu nahi du. Hori dela-eta, ereduak izaera hirukoitza du, osasun, gizarte eta hezkuntzakoak, gizarte zerbitzuetan sartuta badago ere. Horrek esan nahi du, kasu bakoitzaren premien arabera, prozesuak hiru faktoreetatik bati helduko diola, ez eskusiboki, eta ondoren beste sektoreetako batera bidal daitezkeela, bilakaeraren eta prozesuan suma daitezkeen premien arabera.

⁶⁹ FEDERACIÓN ESTATAL DE ASOCIACIONES DE PROFESIONALES DE ATENCIÓN TEMPRANA. *Arreta goiztiararen liburu zuria*. 3. ed. Real Patronato sobre la Discapacidad: Madril, 2010. 55/2005 agiria.

Ereduak arreta goiztiarreko talde mota bi proposatzen ditu: baloraziokoak eta esku-hartze-koak. Lehenengoek minusbaliotasunaren edota mendetasunaren onarpenerako balorazioak egin, esku-hartze plana prestatu eta haren jarraipena egiten dute. Gutxienez, psikologo batek, mediku batek eta gizarte langile batek osatu behar dituzte. Esku-hartze taldeek, bestalde, esku-hartze plana ezartzeko eta behar diren baliabideak koordinatzeko behar diren jarduketak burutzen dituzte. Esparru biopsikosozialeko profesionalak osatzen dituzte, koordinatzaile batek zuzenduta. Talde biek guztiz koordinatuta lan egin beharko dute.

Bestalde, hiru sistemetan –gizarte zerbitzuak, osasuna eta hezkuntza– oinarritutako sistema denez, oso azpimarratuko da batetik bestera igarotzea arina izatea, ingurune berrian sartzeak haurrei aldaketa kaltegarriak ez lehenagoko sektorearekiko hausturarik ekarri gabe, azken batean, arreta eredu osoa proposatzen baita.

Ereduak hura abiarazi, garatu eta jarraitzeko, eta herritarren artean hedatzeko, erakundeen arteko batzordea sortu du. Lurralde historiko bakoitzean, jarraipenerako, hiru sistemek osatutako batzorde tekniko iraunkorra ere sortu da.

Proposatutako ereduak, besteak beste, honako printzipioetan oinarritu da: haurrek eta haien familiak arretarako duten eskubidea; prebentzioa eta tratamendua aipatu hiru sistemen aldetik; unibertsaltasuna; osoko izaera; lastertasuna, bizkortasuna eta irisgarritasun erraza; erantzukizun eta finantzazio publikoak, EAE osoko homogeneotasuna, eta familien parte hartzea arreta fase guztietan.

Espero dugu agiri horrek eraginkortasunez lagunduko duela, EAE osoan koordinatuta, arreta goiztiarra garatzen, eraginkorragoa izateko eta estaldura eta arreta egokiak emateko. Hurrengo ekitaldietan egingo diogu jarraipena zelan gauzatzen den ikusteko.

3.12.1. Mendetasuneko egoeran egonda telelaguntza zerbitzuaren onuradunak


a) Onuradun kopurua

35. taula. Mendetasuneko egoeran egonda telelaguntza zerbitzuaren onuradunak. Araba eta Gipuzkoa

	2007	2008	2009
Araba	643	994	1.182
Gipuzkoa	930	2.535	3.394

Onuradun kopurua urtetik urtera hazi da, honako grafikoan ikusten denez.


21. grafikoa. Telelaguntza zerbitzuaren onuradunak. Araba eta Gipuzkoa. Bilakaera



36. taula. Mendetasuneko egoeran egonda telelaguntza zerbitzuaren onuradunen altak. Bizkaia

	2007	2008	2009
Bizkaia	885	1.935	2.323

22. grafikoa. Mendetasuneko egoeran egonda telelaguntza zerbitzuaren onuradunen altak. Bizkaia. Bilakaera




Honako taula eta grafikoetan lurralde bakoitzeko onuradun kopuruaren eta biztanleen arteko erlazioa islatu dugu.

37. taula. Mendetasuneko egoeran egonda telelaguntza zerbitzuaren onuradunak biztanleriaren aldean. Araba eta Gipuzkoa. 2007

	Biztanleria	%	Onuradun kopurua	Onuradunen tasa 1.000 biztanleko
Araba	305.459	14,26	643	2,10
Gipuzkoa	694.944	32,45	930	1,34


**23. grafikoa. Telelaguntza: Onuradunak (1.000 biztanleko).
Araba eta Gipuzkoa. 2007**



**38. taula. Telelaguntza zerbitzuko altak biztanleriaren aldean.
Bizkaia. 2007**

	Biztanleria	%	Onuradun kopurua	Alten tasa 1.000 biztanleko
Bizkaia	1.141.457	53,29	885	0,77


**24. grafikoa. Telelaguntza: altak (1.000 biztanleko).
Bizkaia. 2007**



**39. taula. Mendetasuneko egoeran egonda telelaguntza zerbitzuaren onuradunak biztanleriaren aldean.
Araba eta Gipuzkoa. 2008**

	Biztanleria	%	Onuradun kopurua	Onuradunen tasa 1.000 biztanleko
Araba	309.635	14,35	994	3,21
Gipuzkoa	701.056	32,50	2.535	3,61


25. grafikoa. Teleguntza: Onuradunak (1.000 biztanleko). Araba eta Gipuzkoa. 2008



40. taula. Teleguntza zerbitzuko altak biztanleriaren aldean. Bizkaia. 2008

	Biztanleria	%	Onuradun kopurua	Alten tasa 1.000 biztanleko
Bizkaia	1.146.421	53,15	1.935	1,69


26. grafikoa. Teleguntza: altak (1.000 biztanleko). Bizkaia. 2008



41. taula. Mendetasuneko egoeran egonda teleguntza zerbitzuaren onuradunak biztanleriaren aldean. Araba eta Gipuzkoa. 2009

	Biztanleria	%	Onuradun kopurua	Onuradunen tasa 1.000 biztanleko
Araba	313.819	14,45	1.182	3,77
Gipuzkoa	705.698	32,49	3.394	4,81


**27. grafikoa. Telelaguntza: Onuradunak (1.000 biztanleko).
Araba eta Gipuzkoa. 2009**



**42. taula. Telelaguntza zerbitzuko altak biztanleriaren aldean.
Bizkaia. 2008**

	Biztanleria	%	Onuradun kopurua	Alten tasa 1.000 biztanleko
Bizkaia	1.152.658	53,06	2.323	2,01

**28. grafikoa. Telelaguntza: altak (1.000 biztanleko).
Bizkaia. 2009**



Bizkaian, 1.000 biztanleko urteko alta kopurua hazi egin da 2009an 1.000 biztanleko pertsona 2 izan arte.

Araba eta Gipuzkoako Foru aldundiek emandako datuen arabera, telelaguntza zerbitzuaren onuradun kopurua 1.000 biztanleko urtetik urtera hazi da. 2007an Arabak izan zuen tasarik handiena (2,07, eta Gipuzkoan, aldiz, 1,34), baina 2008 eta 2009an Gipuzkoak tasa handiagoa izan du.

b) Banaketa onuradunaren sexuaren arabera

43. taula. Mendetasuneko egoeran egonda telelaguntza zerbitzuaren onuradunak sexuaren arabera. Araba eta Gipuzkoa. 2007, 2008 eta 2009. urteak

	2007						2008						2009					
	Gizonak		Emakumeak		Ez dago jasota		Gizonak		Emakumeak		Ez dago jasota		Gizonak		Emakumeak		Ez dago jasota	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Araba	153	23,80	488	75,89	2	0,31	269	27,06	725	72,94	0	0	326	27,58	852	72,08	4	0,34
Gipuzkoa	205	22,04	725	77,96	0	0	568	22,41	1.967	77,59	0	0	761	22,42	2.633	77,58	0	0


29. grafikoa. Telelaguntza: onuradunak (sexuaren arabera). Araba eta Gipuzkoa. 2007



30. grafikoa. Telelaguntza: onuradunak (sexuaren arabera). Araba eta Gipuzkoa. 2008



31. grafikoa. Telelaguntza: onuradunak (sexuaren arabera). Araba eta Gipuzkoa. 2009




Edonola ere, telelaguntza zerbitzuaren onuradunen %72 baino gehiago emakumeak dira. Emakumeen nagusitasuna handiagoa da Gipuzkoan Araban baino.

44. taula. Telelaguntza zerbitzuko altak sexuaren arabera. Bizkaia. 2007, 2008 eta 2009. urteak

	2007						2008						2009					
	Gizonak		Emakumeak		Ez dago jasota		Gizonak		Emakumeak		Ez dago jasota		Gizonak		Emakumeak		Ez dago jasota	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Bizkaia	175	19,77	710	80,23	0	0	333	17,21	1.602	82,79	0	0	403	17,35	1.920	82,65	0	0

32. grafikoa. Telelaguntza: altak (sexuaren arabera). Bizkaia. 2007, 2008 eta 2009. urteak




Bizkaiari dagokionez, urtero, erregistratutako alden %80 baino gehiago mendetasun egoeran dauden emakumeei dagozkie.

b) Banaketa onuradunaren adinaren arabera

45. taula. Mendetasuneko egoeran egonda telelaguntza zerbitzuaren onuradunak adinaren arabera. Araba eta Gipuzkoa. 2007

	GUZTIRA	0-3	4-18	19-30	31-45	46-54	55-64	65-79	80 edo gehiago
Araba	643	0	0	1	5	10	23	146	458
Gipuzkoa	930	0	0	2	8	8	15	197	700


33. grafikoa. Telelaguntza: onuradunak (adinaren arabera). Araba eta Gipuzkoa. 2007



46. taula. Telelaguntza zerbitzuko altak adinaren arabera. Bizkaia. 2007

	GUZTIRA	0-3	4-18	19-30	31-45	46-54	55-64	65-79	80 edo gehiago
Bizkaia	885	0	0	3	11	13	29	283	546


34. grafikoa. Telelaguntza: altak (adinaren arabera) Bizkaia. 2007



47. taula. Mendetasuneko egoeran egonda telelaguntza zerbitzuaren onuradunak adinaren arabera. Araba eta Gipuzkoa. 2008

	GUZTIRA	0-3	4-18	19-30	31-45	46-54	55-64	65-79	80 edo gehiago
Araba	994	0	0	1	9	17	26	240	701
Gipuzkoa	2.535	0	0	1	19	24	41	539	1.911


**35. grafikoa. Telelaguntza: onuradunak (adinaren arabera).
Araba eta Gipuzkoa. 2008**



**48. taula. Telelaguntza zerbitzuko altak adinaren arabera.
Bizkaia. 2008**

	GUZTIRA	0-3	4-18	19-30	31-45	46-54	55-64	65-79	80 edo gehiago
Bizkaia	1.935	0	0	1	11	20	47	570	1.286


**36. grafikoa. Telelaguntza: altak (adinaren arabera)
Bizkaia. 2008**



**49. taula. Mendetasuneko egoeran egonda telelaguntza zerbitzuaren
onuradunak adinaren arabera.
Araba eta Gipuzkoa. 2009**

	GUZTIRA	0-3	4-18	19-30	31-45	46-54	55-64	65-79	80 edo gehiago
Araba	1.182	0	0	1	9	19	29	239	885
Gipuzkoa	3.394	0	0	0	18	31	50	706	2.589


37. grafikoa. Telilaguntza: onuradunak (adinaren arabera). Araba eta Gipuzkoa. 2009



50. taula. Telilaguntza zerbitzuko altak adinaren arabera. Bizkaia. 2009

	GUZTIRA	0-3	4-18	19-30	31-45	46-54	55-64	65-79	80 edo gehiago
Bizkaia	2.323	0	0	0	7	21	39	700	1.556

38. grafikoa. Telilaguntza: altak (adinaren arabera) Bizkaia. 2009



Arabara, 2007 eta 2008an, telilaguntza zerbitzua zuten pertsonen %70 baino gehiago 80 urtez gorakoak ziren. Portzentaje hori 2009an %74 arte igo da. Gipuzkoan, hiru urteetan ziren %75 baino gehiago. Lurralde bietan, 65 eta 79 urte artekoen taldea guztien %20-24 dira. Beraz, 64 urtez azpikoak ez dira inoiz guztien %6 baino gehiago.

Zerbitzu hori darabilten 30 urtez azpikoen kasuak oso gutxi dira. Denboraren poderioz erabiltzaileen zahartze txikia sumatzen da.

Bizkaian, 80 urtez gorako pertsonen altak guztien %60-70 dira eta 65 eta 79 urte artekoenak %30.


3.12.2. Mendetasuneko egoeran egonda etxeko laguntza zerbitzuaren (ELZ) onuradunak

a) Onuradun kopurua

51. taula. Mendetasuneko egoeran egonda etxeko laguntza zerbitzuaren (ELZ) onuradunak. Araba eta Gipuzkoa

	2007	2008	2009
Araba	2.406	2.962	2.863
Gipuzkoa	3.598	4.201	4.244


39. grafikoa. Etxeko laguntza zerbitzuaren (ELZ) onuradunak. Araba eta Gipuzkoa. Bilakaera



52. taula. Mendetasuneko egoeran egonda etxeko laguntza zerbitzuaren (ELZ) onuradunen altak. Bizkaia

	2007	2008	2009
Bizkaia	2.034	2.555	1.117

40. grafikoa. Mendetasuneko egoeran egonda etxeko laguntza zerbitzuaren (ELZ) onuradunen altak. Bizkaia. Bilakaera




Honako taula eta grafikoetan lurralde bakoitzeko onuradun kopuruaren eta biztanleen arteko erlazioa islatu dugu.

53. taula. Mendetasuneko egoeran egonda etxeko laguntza zerbitzuaren (ELZ) onuradunak biztanleriaren aldean. Araba eta Gipuzkoa. 2007

	Biztanleria	%	Onuradun kopurua	Onuradunen tasa 1.000 biztanleko
Araba	305.459	14,26	2.406	7,88
Gipuzkoa	694.944	32,45	3.598	5,18


41. grafikoa. ELZ: Onuradunak (1.000 biztanleko). Araba eta Gipuzkoa. 2007



54. taula. Etxeko laguntza zerbitzuaren (ELZ) altak biztanleriaren aldean. Bizkaia. 2007

	Biztanleria	%	Onuradun kopurua	Alten tasa 1.000 biztanleko
Bizkaia	1.141.457	53,29	2.034	1,78

42. grafikoa. ELZ: altak (1.000 biztanleko). Bizkaia. 2007




Bizkaian alta kopurua hazi egin zen 2007tik 2008ra, baina 2009an berriz jaitsi zen, eta kopurua 2007an baino txikiagoa izan zen.

55. taula. Mendetasuneko egoeran egonda etxeko laguntza zerbitzuaren (ELZ) onuradunak biztanleriaren aldean. Araba eta Gipuzkoa. 2008

	Biztanleria	%	Onuradun kopurua	Onuradunen tasa 1.000 biztanleko
Araba	309.635	14,35	2.962	9,57
Gipuzkoa	701.056	32,50	4.201	5,99


43. grafikoa. ELZ: onuradunak (1.000 biztanleko). Araba eta Gipuzkoa. 2008



56. taula. Etxeko laguntza zerbitzuaren (ELZ) altak biztanleriaren aldean. Bizkaia. 2008

	Biztanleria	%	Onuradun kopurua	Alten tasa 1.000 biztanleko
Bizkaia	1.146.421	53,15	2.555	2,23


44. grafikoa. ELZ: altak (1.000 biztanleko). Bizkaia. 2008



57. taula. Mendetasuneko egoeran egonda etxeko laguntza zerbitzuaren (ELZ) onuradunak biztanleriaren aldean. Araba eta Gipuzkoa. 2009

	Biztanleria	%	Onuradun kopurua	Onuradunen tasa 1.000 biztanleko
Araba	313.819	14,45	2.863	9,12
Gipuzkoa	705.698	32,49	4.244	6,01


45. grafikoa. ELZ: onuradunak (1.000 biztanleko). Araba eta Gipuzkoa. 2009



58. taula. Etxeko laguntza zerbitzuaren (ELZ) altak biztanleriaren aldean. Bizkaia. 2009

	Biztanleria	%	Onuradun kopurua	Alten tasa 1.000 biztanleko
Bizkaia	1.152.658	53,06	1.117	0,97

46. grafikoa. ELZ: altak (1.000 biztanleko). Bizkaia. 2009




Ikusten denez, Araban, hiru urteetan, mendetasuneko egoeran egonda etxeko laguntza zerbitzua jasotzen duten pertsonak 1.000 biztanleko (7 eta 10 artean) Gipuzkoan baino gehiago dira (5 eta 6 artean). Lurralde bietan ikusten da tasa hazi egin dela 2007 eta 2008 artean. 2008ti 2009ra, aldiz, Araban tasa jaitsi da eta Gipuzkoan apur bat igo.

b) Banaketa onuradunaren sexuaren arabera

59. taula. Mendetasuneko egoeran egonda etxeko laguntza zerbitzuaren (ELZ) onuradunak sexuaren arabera. Araba eta Gipuzkoa. 2007, 2008 eta 2009. urteak

	2007						2008						2009					
	Gizonak		Emakumeak		Ez dago jasota		Gizonak		Emakumeak		Ez dago jasota		Gizonak		Emakumeak		Ez dago jasota	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Araba	767	31,88	1.634	67,91	5	0,21	970	32,75	1.981	66,88	11	0,37	932	32,55	1.911	66,75	20	0,70
Gipuzkoa	476	13,23	1.255	34,88	1.867	51,89	973	23,16	2.734	65,08	494	11,76	996	23,47	2.852	67,20	396	9,33


**47. grafikoa. ELZ: onuradunak (sexuaren arabera).
Araba. 2007, 2008 eta 2009. urteak**



**60. taula. Etxeko laguntza zerbitzuaren (ELZ) altak sexuaren arabera.
Bizkaia. 2007, 2008 eta 2009. urteak**

	2007						2008						2009					
	Gizonak		Emakumeak		Ez dago jasota		Gizonak		Emakumeak		Ez dago jasota		Gizonak		Emakumeak		Ez dago jasota	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Bizkaia	515	25,32	1.519	74,68	0	0	672	26,30	1.883	73,70	0	0	331	29,63	786	70,37	0	0

**48. grafikoa. ELZ: altak (sexuaren arabera).
Bizkaia. 2007, 2008 eta 2009. urteak**



Etxeko laguntza zerbitzuari dagokionez, Gipuzkoako Lurralde Historikoan mendetasuneko egoeran dauden lagun asko ez daude sexuaren arabera identifikatuta. Sakontzen balorazio eskalatik (AMALen xedatutako MBB aurretik erabilitako tresna) eratorritako kasuak dira; zehazki, 1.867, 494 eta 396 lagun 2007, 2008 eta 2009an, hurrenez hurren. Beraz, alde batera utzi dugu sexuaren araberako banaketaren grafikoa.

Dena dela, sexuaren arabera identifikatutako pertsonak –MBB balorazioei dagozkienak– bakarrik hartuta, ikusten da hiru urteetan emakumeak guztien %72-74 direla, ikusten denez, Araban baino gehiago (%66-67).

Bizkaiko alten banaketaren arabera, emakumeak onuradun guztien %70-74 dira.


Arabak beste lurralde biek baino gizonen portzentaje handiagoa izatearen arrazoa izan daiteke estaldura tasa handiagoak hain larriak ez diren kasuetara heltzea ahalbidetzen due-la, eta horiek proportzioan gizonen portzentaje handiagoa izateko.

b) Banaketa onuradunaren adinaren arabera

61. taula. Mendetasuneko egoeran etxeko laguntza zerbitzua (ELZ) onuradunak adinaren arabera. Araba eta Gipuzkoa. 2007

	GUZTIRA	0-3	4-18	19-30	31-45	46-54	55-64	65-79	80 edo gehiago	Zehaztu gabe
Araba	2.406	1	17	38	84	55	113	600	1.498	0
Gipuzkoa	3.598	2	9	20	38	37	46	429	1.150	1.867


49. grafikoa. ELZ: onuradunak (adinaren arabera). Araba eta Gipuzkoa. 2007



62. taula. Etxeko laguntza zerbitzuaren (ELZ) altak adinaren arabera. Bizkaia. 2007

	GUZTIRA	0-3	4-18	19-30	31-45	46-54	55-64	65-79	80 edo gehiago	Zehaztu gabe
Bizkaia	2.034	0	2	13	23	37	56	362	1.541	0

50. grafikoa. ELZ: altak (adinaren arabera) Bizkaia. 2007




Arestiko kasuan bezala, Gipuzkoan, ELZren 1.867 onuradun 2007an, 494 2008an eta 396 2009an adinaren arabera zehaztu gabe daude.

63. taula. Mendetasuneko egoeran egonda etxeko laguntza zerbitzuaren (ELZ) onuradunak adinaren arabera. Araba eta Gipuzkoa. 2008

	GUZTIRA	0-3	4-18	19-30	31-45	46-54	55-64	65-79	80 edo gehiago	Zehaztu gabe
Araba	2.962	3	21	40	103	79	122	723	1.871	0
Gipuzkoa	4.201	2	7	29	78	70	126	941	2.454	494


**51. grafikoa. ELZ: onuradunak (adinaren arabera).
Araba eta Gipuzkoa. 2008**



**64. taula. Etxeko laguntza zerbitzuaren (ELZ) altak adinaren arabera.
Bizkaia. 2008**

	GUZTIRA	0-3	4-18	19-30	31-45	46-54	55-64	65-79	80 edo gehiago	Zehaztu gabe
Bizkaia	2.555	0	3	13	41	70	85	589	1.754	0


**52. grafikoa. ELZ: altak (adinaren arabera)
Bizkaia. 2008**



65. taula. Mendetasuneko egoeran egonda etxeko laguntza zerbitzuaren (ELZ) onuradunak adinaren arabera. Araba eta Gipuzkoa. 2009

	GUZTIRA	0-3	4-18	19-30	31-45	46-54	55-64	65-79	80 edo gehiago	Zehaztu gabe
Araba	2.863	3	19	34	98	81	126	678	1.824	0
Gipuzkoa	4.244	0	4	26	75	86	137	970	2.550	396


53. grafikoa. ELZ: onuradunak (adinaren arabera). Araba eta Gipuzkoa. 2009



66. taula. Etxeko laguntza zerbitzuaren (ELZ) altak adinaren arabera. Bizkaia. 2009

	GUZTIRA	0-3	4-18	19-30	31-45	46-54	55-64	65-79	80 edo gehiago	Zehaztu gabe
Bizkaia	1.117	0	4	8	20	26	47	289	723	0

54. grafikoa. ELZ: altak (adinaren arabera) Bizkaia. 2009



Araban, mendetasuneko egoeran egonda etxeko laguntza zerbitzuaren onuradun direnen %87 inguru 65 urtez gorakoa da; Gipuzkoan, identifikatutako lagunen adina aztertuta, halakoak %91 dira. Bizkaian, erregistratutako alden %90-93 dagozkie 65 urtez gorakoei.

Esan genezake, beraz, zerbitzu horren erabiltzaile den mendeko biztanleria Gipuzkoan eta Bizkaian Araban baino zahartuago daudela, beharbada, berriz ere, azken lurralde horrek daukan estaldura handiagoaren ondorioz.

80 urtez gorakoak, Araban, guztien %62-64 dira, Gipuzkoan %66 eta Bizkaian %64-75.

Arabian eta Gipuzkoan, zerbitzu horretan, adin talde batek –31-45 urtekoa– goranzko joera orokorra –onuradun gehiago adinak gora egin ahala– aldatzen du, hurrengo taldeak –46-54 urtekoak– balio askoz txikiagoak baitaizka. Bizkaiko altei dagokienez, ez dugu aldaketa hori ikusi.


3.12.3. Mendetasuneko egoeran egonda eguneko egoitza zerbitzuaren onuradunak

a) Onuradun kopurua

67. taula. Mendetasuneko egoeran egonda eguneko egoitza zerbitzuaren onuradunak. Araba eta Gipuzkoa

	2007	2008	2009
Araba	457	599	605
Gipuzkoa	1.987	2.373	2.566


55. grafikoa. Eguneko egoitza zerbitzuaren onuradunak. Araba eta Gipuzkoa. Bilakaera



68. taula. Mendetasuneko egoeran egonda eguneko egoitza zerbitzuaren onuradunen altak. Bizkaia

	2007	2008	2009
Bizkaia	2.105	503	360

56. grafikoa. Mendetasuneko egoeran egonda eguneko egoitza zerbitzuaren onuradunen altak. Bizkaia. Bilakaera




Honako taula eta grafikoetan lurralde bakoitzeko onuradun kopuruaren eta biztanleen arteko erlazioa islatu dugu.

69. taula. Mendetasuneko egoeran egonda eguneko egoitza zerbitzuaren onuradunak biztanleriaren aldean. Araba eta Gipuzkoa. 2007

	Biztanleria	%	Onuradun kopurua	Onuradunen tasa 1.000 biztanleko
Araba	305.459	14,26	457	1,50
Gipuzkoa	694.944	32,45	1.987	2,86


57. grafikoa. Eguneko egoitza zerbitzua: onuradunak (1.000 biztanleko). Araba eta Gipuzkoa. 2007



70. taula. Eguneko egoitza zerbitzuko altak biztanleriaren aldean. Bizkaia. 2007

	Biztanleria	%	Onuradun kopurua	Alten tasa 1.000 biztanleko
Bizkaia	1.141.457	53,29	2.105	1,84


58. grafikoa. Eguneko egoitza zerbitzua: altak (1.000 biztanleko). Bizkaia. 2007



71. taula. Mendetasuneko egoeran egonda eguneko egoitza zerbitzuaren onuradunak biztanleriaren aldean. Araba eta Gipuzkoa. 2008

	Biztanleria	%	Onuradun kopurua	Onuradunen tasa 1.000 biztanleko
Araba	309.635	14,35	599	1,93
Gipuzkoa	701.056	32,50	2.373	3,38


59. grafikoa. Eguneko egoitza zerbitzua: onuradunak (1.000 biztanleko). Araba eta Gipuzkoa. 2008



72. taula. Eguneko egoitza zerbitzuko altak biztanleriaren aldean. Bizkaia. 2008

	Biztanleria	%	Onuradun kopurua	Alten tasa 1.000 biztanleko
Bizkaia	1.146.421	53,15	503	0,44


60. grafikoa. Eguneko egoitza zerbitzua: altak (1.000 biztanleko). Bizkaia. 2008



73. taula. Mendetasuneko egoeran egonda eguneko egoitza zerbitzuaren onuradunak biztanleriaren aldean. Araba eta Gipuzkoa. 2009

	Biztanleria	%	Onuradun kopurua	Onuradunen tasa 1.000 biztanleko
Araba	313.819	14,45	605	1,93
Gipuzkoa	705.698	32,49	2.566	3,64


61. grafikoa. Eguneko egoitza zerbitzua: onuradunak (1.000 biztanleko). Araba eta Gipuzkoa. 2009



74. taula. Eguneko egoitza zerbitzuko altak biztanleriaren aldean. Bizkaia. 2009

	Biztanleria	%	Onuradun kopurua	Alten tasa 1.000 biztanleko
Bizkaia	1.152.658	53,06	360	0,31

62. grafikoa. Eguneko egoitza zerbitzua: altak (1.000 biztanleko). Bizkaia. 2009



2007an, eguneko egoitza zerbitzuaren mendeko onuradunen tasa 1.000 biztanleko %2,86 zen Gipuzkoan eta % 1,50 Araban. Lurralde bien arteko aldea handitzen joan da denboraren poderioz. Horrela, 2009an %3,64 eta % 1,93ko tasak izan ziren, hurrenez hurren. Hazkunderik nabarmenena 2007 eta 2008 artean gertatu da lurralde bietan. Araban, 2008 eta 2009 artean, ez da hazkunderik egon.

Bizkaian alten tasa 1.000 biztanleko asko jaitsi da 2007 (%1,84) eta 2008 (%0,44) artean, 2009an berriz apur bat jaisteko (%0,31).

b) Banaketa onuradunaren sexuaren arabera


75. taula. Mendetasuneko egoeran egonda eguneko egoitza zerbitzuaren onuradunak sexuaren arabera. Araba eta Gipuzkoa. 2007, 2008 eta 2009. urteak

	2007						2008						2009					
	Gizonak		Emaku-meak		Ez dago jasota		Gizonak		Emaku-meak		Ez dago jasota		Gizonak		Emaku-meak		Ez dago jasota	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Araba	124	27,13	333	72,87	0	0	226	37,73	372	62,10	1	0,17	221	36,53	379	62,64	5	0,83
Gipuzkoa	731	36,79	1.256	63,21	0	0	874	36,83	1.499	63,17	0	0	931	36,28	1.635	63,72	0	0


63. grafikoa. Eguneko egoitza zerbitzua: onuradunak (sexuaren arabera). Araba eta Gipuzkoa. 2007



64. grafikoa. Eguneko egoitza zerbitzua: onuradunak (sexuaren arabera). Araba eta Gipuzkoa. 2008




65. grafikoa. Eguneko egoitza zerbitzua: onuradunak (sexuaren arabera). Araba eta Gipuzkoa. 2009



76. taula. Eguneko egoitza zerbitzuko altak sexuaren arabera. Bizkaia. 2007, 2008 eta 2009. urteak

	2007						2008						2009					
	Gizonak		Emakumeak		Ez dago jasota		Gizonak		Emakumeak		Ez dago jasota		Gizonak		Emakumeak		Ez dago jasota	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Bizkaia	992	47,13	1.113	52,87	0	0	210	41,75	293	58,25	0	0	121	33,61	239	66,39	0	0

66. grafikoa. Eguneko egoitza zerbitzua: altak (sexuaren arabera). Bizkaia. 2007, 2008 eta 2009. urteak



Arabara, 2007an izan ezik, bertan emakumeak %72,87 izan baitziren, emakumeak eguneko egoitza zerbitzuaren onuradun guztien %62-63 izan ziren. Gipuzkoan, hiru ekitaldietan, emakumeak %63 inguru izan ziren.

Bizkaian altek portaera apur bat desberdina izan dute. Emakumeen ehunekoa urtetik urtera hazi da, 2007an %52,87 izanik, 2008an %58,25 eta 2009an %66,39.


Azpimarratu behar da 65 urte arte Gipuzkoan eta Araban, aztertutako hiru urteetan, biztanle gehienak gizonezkoak direla (guztien %58 inguru). Gauza bera gertatu da Bizkaiko altekin.

b) Banaketa onuradunaren adinaren arabera

77. taula. Mendetasuneko egoeran egonda eguneko egoitza zerbitzuaren onuradunak adinaren arabera. Araba eta Gipuzkoa. 2007

	GUZTIRA	0-3	4-18	19-30	31-45	46-54	55-64	65-79	80 edo gehiago
Araba	457	0	0	28	47	16	23	125	218
Gipuzkoa	1.987	0	3	155	304	114	81	411	919


67. grafikoa. Eguneko egoitza zerbitzua: onuradunak (adinaren arabera). Araba eta Gipuzkoa. 2007



78. taula. Eguneko egoitza zerbitzuko altak adinaren arabera. Bizkaia. 2007

	GUZTIRA	0-3	4-18	19-30	31-45	46-54	55-64	65-79	80 edo gehiago
Bizkaia	2.105	1	79	302	452	144	113	427	587


68. grafikoa. Eguneko egoitza zerbitzua: altak (adinaren arabera). Bizkaia. 2007



79. taula. Mendetasuneko egoeran egonda eguneko egoitza zerbitzuaren onuradunak adinaren arabera. Araba eta Gipuzkoa. 2008

	GUZTIRA	0-3	4-18	19-30	31-45	46-54	55-64	65-79	80 edo gehiago
Araba	599	0	0	34	51	12	20	140	342
Gipuzkoa	2.373	0	1	166	337	139	106	488	1.136


**69. grafikoa. Eguneko egoitza zerbitzua: onuradunak (adinaren arabera).
Araba eta Gipuzkoa. 2008**



**80. taula. Eguneko egoitza zerbitzuko altak adinaren arabera.
Bizkaia. 2008**

	GUZTIRA	0-3	4-18	19-30	31-45	46-54	55-64	65-79	80 edo gehiago
Bizkaia	503	1	15	60	93	27	13	116	178


**70. grafikoa. Eguneko egoitza zerbitzua: altak (adinaren arabera).
Bizkaia. 2008**



**81. taula. Mendetasuneko egoeran egonda eguneko egoitza zerbitzuaren
onuradunak adinaren arabera.
Araba eta Gipuzkoa. 2009**

	GUZTIRA	0-3	4-18	19-30	31-45	46-54	55-64	65-79	80 edo gehiago
Araba	605	0	1	32	53	17	24	136	342
Gipuzkoa	2.566	0	0	157	356	155	130	527	1.241


71. grafikoa. Eguneko egoitza zerbitzua: onuradunak (adinaren arabera). Araba eta Gipuzkoa. 2009



82. taula. Eguneko egoitza zerbitzuko altak adinaren arabera. Bizkaia. 2009

	GUZTIRA	0-3	4-18	19-30	31-45	46-54	55-64	65-79	80 edo gehiago
Bizkaia	360	3	1	16	19	11	10	126	174

72. grafikoa. Eguneko egoitza zerbitzua: altak (adinaren arabera). Bizkaia. 2009



Zerbitzu honetan argi ikusten da 31-45 urte arteko taldearen kopuruak duen garrantzia, eta onuradunak nabarmen murriztu dira hurrengo taldera (46-54 urte) pasatzerakoan, horrela, adinak gora egin ahala onuradun kopurua hazteko apurkako joera apurtuz.

Edonola ere, talde jendetsuena 65 urtez gorakoena da: Gipuzkoan, onuradunen %66-68; Araban, %75-80. Bizkaietan, 2009an, gehiengo argia dira 65 urtez gorako pertsonak

(urte horretan 1.000 biztanleko alta kopurua murriztu egin zen), adibidez, 2007an gertatu ez zena (%48,17).

3.12.4. Gaueko zentroa

Zerbitzu hau, egun, ez dabil gure erkidegoko lurraldeetan.

Arabako Foru Aldundiak argitu digunez, *“eskaera mota jakin hau ez da jaso baliabide mota hori sorraz lezakeen neurri batean, askoz ohikoagoa delako arreta premiak (haietan laguntzetarako zailtasun handiagoak daude) eguneko 24 orduetan gertatzea, eta horretarako egoitza mota desberdinak baitaude, edo egunez, horretarako hainbat laguntza mota egonda (ELZ, eguneko arreta, FIZPE, okupazio-zentroak...)”*

Lurralde Historiko horretan, Gasteizen, hain zuzen ere, foru titulartasuneko gaueko zentroko plazak dauzkan baliabide bat egon zen, 2001eko abendutik 2004ko urtarrila arte jardun zuena, baina gaueko plazak egoitzako bihurtu behar izan ziren gaueko arretako zentro-rako eskaririk ez zegoelako, foru erakundeak adierazi duenez.

Donostian ere beste esperientzia bat egon zen, Maria Fundazioaren Julián Rezola gerontologia zentroan, baina hura ere ez zen sendotu. Gipuzkoako Foru Aldundiak jakinarazi digu, egun, ez dagoela baliabide hori bere lurraldean eta epe laburrean ez dela aurreikusi hura sortzerik.

Bizkaian ere, Santurtzin, Begoñako Andra Maria Egoitzan, gaueko egonaldiak dauzkan atsenden zentro bat ere egon da. Egun zerbitzua ez dabil.


3.12.5. Mendetasuneko egoeran egonda egoitza-zentro zerbitzuaren onuradunak

a) Onuradun kopurua

83. taula. Mendetasuneko egoeran egonda egoitza-zentro zerbitzuaren onuradunak. Araba eta Gipuzkoa

	2007	2008	2009
Araba	1.330	1.425	1.399
Gipuzkoa	4.476	5.497	5.942


73. grafikoa. Egoitza-zentro zerbitzuaren onuradunak. Araba eta Gipuzkoa. Bilakaera



84. taula. Mendetasuneko egoeran egonda egoitza-zentro zerbitzuaren onuradunen altak. Bizkaia

	2007	2008	2009
Bizkaia	5.465	1.788	775

74. grafikoa. Mendetasuneko egoeran egonda egoitza-zentro zerbitzuaren onuradunen altak. Bizkaia. Bilakaera




Honako taula eta grafikoetan lurralde bakoitzeko onuradun kopuruaren eta biztanleen arteko erlazioa islatu dugu.

85. taula. Mendetasuneko egoeran egonda egoitza-zentro zerbitzuaren onuradunak biztanleriaren aldean. Araba eta Gipuzkoa. 2007

	Biztanleria	%	Onuradun kopurua	Onuradunen tasa 1.000 biztanleko
Araba	305.459	14,26	1.330	4,35
Gipuzkoa	694.944	32,45	4.476	6,44


75. grafikoa. Egoitza-zentro zerbitzua: onuradunak (1.000 biztanleko). Araba eta Gipuzkoa. 2007



86. taula. Egoitza-zentro zerbitzuko altak biztanleriaren aldean.

	Biztanleria	%	Onuradun kopurua	Alten tasa 1.000 biztanleko
Bizkaia	1.141.457	53,29	5.465	4,79


76. grafikoa. Egoitza-zentro zerbitzua: altak (1.000 biztanleko). Bizkaia. 2007



87. taula. Mendetasuneko egoeran egonda egoitza-zentro zerbitzuaren onuradunak biztanleriaren aldean. Araba eta Gipuzkoa. 2008

	Biztanleria	%	Onuradun kopurua	Onuradunen tasa 1.000 biztanleko
Araba	309.635	14,35	1.425	4,60
Gipuzkoa	701.056	32,50	5.497	7,84


77. grafikoa. Egoitza-zentro zerbitzua: onuradunak (1.000 biztanleko). Araba eta Gipuzkoa. 2008



88. taula. Egoitza-zentro zerbitzuko altak biztanleriaren aldean. Bizkaia. 2008

	Biztanleria	%	Onuradun kopurua	Alten tasa 1.000 biztanleko
Bizkaia	1.146.421	53,15	1.788	1,56


78. grafikoa. Egoitza-zentro zerbitzua: altak (1.000 biztanleko). Bizkaia. 2008



89. taula. Mendetasuneko egoeran egonda egoitza-zentro zerbitzuen onuradunak biztanleriaren aldean. Araba eta Gipuzkoa. 2009

	Biztanleria	%	Onuradun kopurua	Onuradunen tasa 1.000 biztanleko
Araba	313.819	14,45	1.399	4,46
Gipuzkoa	705.698	32,49	5.942	8,42


79. grafikoa. Egoitza-zentro zerbitzua: onuradunak (1.000 biztanleko). Araba eta Gipuzkoa. 2009



90. taula. Egoitza-zentro zerbitzuko altak biztanleriaren aldean. Bizkaia. 2009

	Biztanleria	%	Onuradun kopurua	Alten tasa 1.000 biztanleko
Bizkaia	1.152.658	53,06	775	0,67

80. grafikoa. Egoitza-zentro zerbitzua: altak (1.000 biztanleko). Bizkaia. 2009




Zerbitzuaren estaldura tasa urtero hazi da Gipuzkoan (6,44 2007an, 7,84 2008an eta 8,42 2009an); Araban hazkundea 2007a eta 2008 artean gertatu da, baina 2009an tasa jaitsi egin da. Bizkaiko alta tasa urtetik urtera jaitsi da.

b) Banaketa onuradunaren sexuaren arabera


91. taula. Mendetasuneko egoeran egonda egoitza-zentro zerbitzuaren onuradunak sexuaren arabera. Araba eta Gipuzkoa. 2007, 2008 eta 2009. urteak

	2007						2008						2009					
	Gizonak		Emakumeak		Ez dago jasota		Gizonak		Emakumeak		Ez dago jasota		Gizonak		Emakumeak		Ez dago jasota	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Araba	480	36,09	848	63,76	2	0,15	511	35,86	912	64	2	0,14	504	36,02	890	63,62	5	0,36
Gipuzkoa	1.522	34	2.954	66	0	0	1.902	34,60	3.595	65,40	0	0	2.042	34,37	3.900	65,63	0	0


81. grafikoa. Egoitza-zentro zerbitzua: onuradunak (sexuaren arabera). Araba eta Gipuzkoa. 2007



82. grafikoa. Egoitza-zentro zerbitzua: onuradunak (sexuaren arabera). Araba eta Gipuzkoa. 2008




83. grafikoa. Egoitza-zentro zerbitzua: onuradunak (sexuaren arabera). Araba eta Gipuzkoa. 2009



92. taula. Egoitza-zentro zerbitzuko altak sexuaren arabera. Bizkaia. 2007, 2008 eta 2009. urteak

	2007						2008						2009					
	Gizonak		Emakumeak		Ez dago jasota		Gizonak		Emakumeak		Ez dago jasota		Gizonak		Emakumeak		Ez dago jasota	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Bizkaia	1.628	29,79	3.837	70,21	0	0	462	25,84	1.326	74,16	0	0	253	32,65	522	67,35	0	0

84. grafikoa. Egoitza-zentro zerbitzua: altak (sexuaren arabera). Bizkaia. 2007, 2008 eta 2009. urteak




Arabara, aztertutako hiru urteetan, emakumeak egoitza-zentro zerbitzuaren erabiltzaileen %62-63 izan dira. Gipuzkoan %65-66 izan dira. Bizkaian altek portaera horri jarraitu diote, eta portzentajeak 2009ko %67,35en eta 2008ko %74,16en artean mugitu da. Berriz ikusi dugu 65 urte arte, ordea, balioak aldatu eta gizonetakoak direla nagusi.

b) Banaketa onuradunaren adinaren arabera

93. taula. Mendetasuneko egoeran egonda egoitza-zentro zerbitzuaren onuradunak adinaren arabera. Araba eta Gipuzkoa. 2007

	GUZTIRA	0-3	4-18	19-30	31-45	46-54	55-64	65-79	80 edo gehiago
Araba	1.330	0	7	35	109	46	70	263	800
Gipuzkoa	4.476	0	5	71	327	204	199	928	2.742


85. grafikoa. Egoitza-zentro zerbitzua: onuradunak (adinaren arabera). Araba eta Gipuzkoa. 2007



94. taula. Egoitza-zentro zerbitzuko altak adinaren arabera. Bizkaia. 2007

	GUZTIRA	0-3	4-18	19-30	31-45	46-54	55-64	65-79	80 edo gehiago
Bizkaia	5.465	0	5	93	296	220	257	1.374	3.220


86. grafikoa. Egoitza-zentro zerbitzua: altak (adinaren arabera). Bizkaia. 2007



95. taula. Mendetasuneko egoeran egonda egoitza-zentro zerbitzua onuradunak adinaren arabera. Araba eta Gipuzkoa. 2008

	GUZTIRA	0-3	4-18	19-30	31-45	46-54	55-64	65-79	80 edo gehiago
Araba	1.425	1	5	40	118	51	64	273	873
Gipuzkoa	5.497	0	2	76	345	233	210	1.119	3.512


**87. grafikoa. Egoitza-zentro zerbitzua: onuradunak (adinaren arabera).
Araba eta Gipuzkoa. 2008**



**96. taula. Egoitza-zentro zerbitzuko altak adinaren arabera.
Bizkaia. 2008**

	GUZTIRA	0-3	4-18	19-30	31-45	46-54	55-64	65-79	80 edo gehiago
Bizkaia	1.788	0	0	35	90	70	68	268	1.257


**88. grafikoa. Egoitza-zentro zerbitzua: altak (adinaren arabera).
Bizkaia. 2008**



**97. taula. Mendetasuneko egoeran egonda egoitza-zentro zerbitzuaren onuradunak adinaren arabera.
Araba eta Gipuzkoa. 2009**

	GUZTIRA	0-3	4-18	19-30	31-45	46-54	55-64	65-79	80 edo gehiago
Araba	1.399	0	6	39	117	59	63	267	848
Gipuzkoa	5.942	0	8	64	362	264	261	1.142	3.841


89. grafikoa. Egoitza-zentro zerbitzua: onuradunak (adinaren arabera). Araba eta Gipuzkoa. 2009



98. taula. Egoitza-zentro zerbitzuko altak adinaren arabera. Bizkaia. 2009

	GUZTIRA	0-3	4-18	19-30	31-45	46-54	55-64	65-79	80 edo gehiago
Bizkaia	775	0	1	7	20	20	32	177	518

90. grafikoa. Egoitza-zentro zerbitzua: altak (adinaren arabera). Bizkaia. 2009



Arabian, aztertutako hiru urteetan, zerbitzu honen onuradunen %79-80 65 urtez gorakoak izan dira. Talde horren barruan, 80 urtez gorakoak, bestalde, %75 dira. Gipuzkoan, egoitza-zentroetan dauden pertsonen %81-84 65 urtez gorakoak dira. Haietatik, %74-77 80 urtez gorakoak dira.

Bizkaian alden portarera erakutsi digute %84-89 65 urtez gorakoak direla. 2007an, talde horren %70 inguru 80 urtez gorakoak ziren; 2008an, ia %82; eta 2009an, %74 inguru.

3.12.6. Mendetasuneko egoeran egonda zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren (ZLPE) onuradunak

a) Onuradun kopurua


99. taula. Mendetasuneko egoeran egonda zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren (ZLPE) onuradunak. EAE

	2007	2008	2009
Araba	788	1.093	1.004
Bizkaia*	0	0	0
Gipuzkoa	0**	191	303
GUZTIRA	788	1.284	1.307

*Bizkaian eskaerak ez dira izapidetu aratu gabe daudelako.

**Gipuzkoan ez zen eskaerarik izapidetu 2008 arte.

91. grafikoa. Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren (ZLPE) onuradunak. EAE. Bilakaera



Txosten honetan adierazi dugunez, Bizkaiak ez du prestazio hau 2010eko ekaina arte arautu. Hori dela-eta, ordura arte ezin izan zuen inork hura jaso.


Prestazioa batez ere forukoak ez diren egoitza plazak ordaintzeko ematen dira. Horregatik komeni da haren estaldura tasak [arestiko ataleko \(3.12.5.\)](#) egoitza-arreta zerbitzuan gertatutakoei lotzea.

Honako taula eta grafikoetan lurralde bakoitzeko onuradun kopuruaren eta biztanleen arteko erlazioa islatu dugu.

100. taula. Mendetasuneko egoeran egonda zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren (ZLPE) onuradunak biztanleriaren aldean. EAE. 2007

	Biztanleria	%	Onuradun kopurua	Onuradunen tasa 1.000 biztanleko
Araba	305.459	14,26	788	2,58
Bizkaia	1.141.457	53,29	0	0
Gipuzkoa	694.944	32,45	0	0


92. grafikoa. ZLPE: onuradunak (1.000 biztanleko). EAE. 2007



101. taula. Mendetasuneko egoeran egonda zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren (ZLPE) onuradunak biztanleriaren aldean. EAE. 2008

	Biztanleria	%	Onuradun kopurua	Onuradunen tasa 1.000 biztanleko
Araba	309.635	14,35	1.093	3,53
Bizkaia	1.146.421	53,15	0	0
Gipuzkoa	701.056	32,50	191	0,27


**93. grafikoa. ZLPE: onuradunak (1.000 biztanleko).
EAE. 2008**



102. taula. Mendetasuneko egoeran egonda zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren (ZLPE) onuradunak biztanleriaren aldean. EAE. 2009

	Biztanleria	%	Onuradun kopurua	Onuradunen tasa 1.000 biztanleko
Araba	313.819	14,45	1.004	3,20
Bizkaia	1.152.658	53,06	0	0
Gipuzkoa	705.698	32,49	303	0,43

**94. grafikoa. ZLPE: onuradunak (1.000 biztanleko).
EAE. 2009**




Arabaren ZLPEren onuradunen tasa 1.000 biztanleko 2,58 izan da 2007an, 3,53 2009an eta 3,20 2009an. Beraz, ikusten denez, 2009an murriztu egin da. Gipuzkoan, 2008 eta 2009 artean hazi egin da baina balioak (0,27 eta 0,43) Araban baino txikiagoak dira, Gipuzkoak egoitza-arretan estaldura handia daukalako eta Araban mota horretako prestazioak bazeukalako ibilbidea eginda.

b) Banaketa onuradunaren sexuaren arabera


103. taula. Mendetasuneko egoeran egonda zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren (ZLPE) onuradunak sexuaren arabera. EAE. 2007, 2008 eta 2009. urteak

	2007						2008						2009					
	Gizonak		Emakumeak		Ez dago jasota		Gizonak		Emakumeak		Ez dago jasota		Gizonak		Emakumeak		Ez dago jasota	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Araba	245	31,09	538	68,28	5	0,63	346	31,66	732	66,97	15	1,37	313	31,18	669	66,63	22	2,19
Bizkaia	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Gipuzkoa	0	0	0	0	0	0	58	30,37	133	69,63	0	0	74	24,42	229	75,58	0	0


95. grafikoa. ZLPE: onuradunak (sexuaren arabera). Araba. 2007



96. grafikoa. ZLPE: onuradunak (sexuaren arabera). Araba eta Gipuzkoa. 2008



97. grafikoa. ZLPE: onuradunak (sexuaren arabera). Araba eta Gipuzkoa. 2009




Orokorrean, prestazioa jasotzen dutenen %66-69 inguru emakumeak dira. Gipuzkoan, 2009an, portzentaje hori %75,58 arte igo zen.

b) Banaketa onuradunaren adinaren arabera

104. taula. Mendetasuneko egoeran egonda zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren (ZLPE) onuradunak adinaren arabera. EAE. 2007

	GUZTIRA	0-3	4-18	19-30	31-45	46-54	55-64	65-79	80 edo gehiago
Araba	788	0	0	0	0	0	14	191	583
Bizkaia	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Gipuzkoa	0	0	0	0	0	0	0	0	0
GUZTIRA	788	0	0	0	0	0	14	191	583


98. grafikoa. ZLPE: onuradunak (adinaren arabera). EAE. 2007



105. taula. Mendetasuneko egoeran egonda zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren (ZLPE) onuradunak adinaren arabera. EAE. 2008

	GUZTIRA	0-3	4-18	19-30	31-45	46-54	55-64	65-79	80 edo gehiago
Araba	1.093	0	0	0	0	5	14	232	842
Bizkaia	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Gipuzkoa	191	0	0	0	0	0	3	35	153
GUZTIRA	1.284	0	0	0	0	5	17	267	995


99. grafikoa. ZLPE: onuradunak (adinaren arabera). EAE. 2008



106. taula. Mendetasuneko egoeran egonda zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren (ZLPE) onuradunak adinaren arabera. EAE. 2009

	GUZTIRA	0-3	4-18	19-30	31-45	46-54	55-64	65-79	80 edo gehiago
Araba	1.004	0	0	0	1	4	17	195	787
Bizkaia	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Gipuzkoa	303	0	0	0	0	0	2	44	257
GUZTIRA	1.307	0	0	0	1	4	19	239	1.044

100. grafikoa. ZLPE: onuradunak (adinaren arabera). EAE. 2009



Prestazioa jasotzen dutenen %73 eta %84 artean (lurrealdearen arabera) 80 urtez gorakoak dira. Egiatan, jasotzen dutenen %98 inguru 65 urtez gorakoak dira.

3.12.7. *Mendetasuneko egoeran egonda familia inguruneko zaintzetarako prestazio ekonomikoaren (FIZPE) onuradunak*


a) *Onuradun kopurua*

107. taula. Mendetasuneko egoeran egonda familia inguruneko zaintzetarako prestazio ekonomikoaren (FIZPE) onuradunak. Araba eta Gipuzkoa

	2007	2008	2009
Araba	865	3.392	4.876
Gipuzkoa*	0	4.774	9.252

*Gipuzkoan ez zen eskaerarik izapidetu 2008 arte.


101. grafikoa. Mendetasuneko egoeran egonda familia inguruneko zaintzetarako prestazio ekonomikoaren (FIZPE) onuradunak. Araba eta Gipuzkoa. Bilakaera



108. taula. Mendetasuneko egoeran egonda familia inguruneko zaintzetarako prestazio ekonomikoaren (FIZPE) onuradunen altak. Bizkaia

	2007	2008	2009
Bizkaia	2.868	2.962	2.526

102. grafikoa. Mendetasuneko egoeran egonda familia inguruneke zaintzetarako prestazio ekonomikoaren (FIZPE) onuradunen altak. Bizkaia. Bilakaera




Honako taula eta grafikoetan lurralde bakoitzeko onuradun kopuruaren eta biztanleen arteko erlazioa islatu dugu.

109. taula. Mendetasuneko egoeran egonda familia inguruneke zaintzetarako prestazio ekonomikoaren (FIZPE) onuradunak biztanleriaren aldean. Araba eta Gipuzkoa. 2007

	Biztanleria	%	Onuradun kopurua	Onuradunen tasa 1.000 biztanleko
Araba	305.459	14,26	865	2,83
Gipuzkoa	694.944	32,45	0	0


103. grafikoa. FIZPE: onuradunak (1.000 biztanleko). Araba eta Gipuzkoa. 2007



110. taula. Mendetasuneko egoeran egonda familia inguruneko zaintzarako prestazio ekonomikoaren (FIZPE) onuradunak biztanleriaren aldean. Bizkaia. 2007

	Biztanleria	%	Onuradun kopurua	Alten tasa 1.000 biztanleko
Bizkaia	1.141.457	53,29	2.868	2,51


104. grafikoa. FIZPE: altak (1.000 biztanleko). Bizkaia. 2007



111. taula. Mendetasuneko egoeran egonda familia inguruneko zaintzarako prestazio ekonomikoaren (FIZPE) onuradunak biztanleriaren aldean. Araba eta Gipuzkoa. 2008

	Biztanleria	%	Onuradun kopurua	Onuradunen tasa 1.000 biztanleko
Araba	309.635	14,35	3.392	10,95
Gipuzkoa	701.056	32,50	4.774	6,81


105. grafikoa. FIZPE: onuradunak (1.000 biztanleko). Araba eta Gipuzkoa. 2008



112. taula. Mendetasuneko egoeran egonda familia inguruneke zaintzetarako prestazio ekonomikoaren (FIZPE) onuradunak biztanleriaren aldean. Bizkaia. 2008

	Biztanleria	%	Onuradun kopurua	Alten tasa 1.000 biztanleko
Bizkaia	1.146.421	53,15	2.962	2,58


106. grafikoa. FIZPE: altak (1.000 biztanleko). Bizkaia. 2008



113. taula. Mendetasuneko egoeran egonda familia inguruneke zaintzetarako prestazio ekonomikoaren (FIZPE) onuradunak biztanleriaren aldean. Araba eta Gipuzkoa. 2009

	Biztanleria	%	Onuradun kopurua	Onuradunen tasa 1.000 biztanleko
Araba	313.819	14,45	4.876	15,54
Gipuzkoa	705.698	32,49	9.252	13,11


107. grafikoa. FIZPE: onuradunak (1.000 biztanleko). Araba eta Gipuzkoa. 2009



114. taula. Mendetasuneko egoeran egonda familia inguruneke zaintzetarako prestazio ekonomikoaren (FIZPE) onuradunak biztanleriaren aldean. Bizkaia. 2009

	Biztanleria	%	Onuradun kopurua	Alten tasa 1.000 biztanleko
Bizkaia	1.152.658	53,06	2.526	2,19

108. grafikoa. FIZPE: altak (1.000 biztanleko). Bizkaia. 2009



Arabaren eta Gipuzkoaren, 1.000 biztanleko FIZPE jasotzen duten pertsonen kopurua urtez urte hazi da. Edonola ere, Araban (2,83 2007an, 10,95 2008an eta 15,54 2009an) Gipuzkoan (0 2007an, 6,81 2008an eta 13,11 2009an) baino tasa handiagoa dago. Ikusten denez, aldea pixkanaka murrizten doa.


Bizkaian altek antzeko balioak dauzkate lehenengo urteetan, eta 2009an murriztu egin dira.

b) Banaketa onuradunaren sexuaren arabera


115. taula. Mendetasuneko egoeran egonda familia inguruneke zaintzetarako prestazio ekonomikoaren (FIZPE) onuradunak sexuaren arabera. Araba eta Gipuzkoa. 2007, 2008 eta 2009. urteak

	2007						2008						2009					
	Gizonak		Emakumeak		Ez dago jasota		Gizonak		Emakumeak		Ez dago jasota		Gizonak		Emakumeak		Ez dago jasota	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Araba	334	38,61	526	60,81	5	0,58	1.261	37,17	2.106	62,09	25	0,74	1.889	38,74	2.928	60,05	59	1,21
Gipuzkoa	0	0	0	0	0	0	1.706	35,74	3.068	64,26	0	0	3.436	37,14	5.816	62,86	0	0


**109. grafikoa. FIZPE: onuradunak (sexuaren arabera).
Araba. 2007**



**110. grafikoa. FIZPE: onuradunak (sexuaren arabera).
Araba eta Gipuzkoa. 2008**




**111. grafikoa. FIZPE: onuradunak (sexuaren arabera).
Araba eta Gipuzkoa. 2009**



116. taula. Mendetasuneko egoeran egonda familia inguruneko zaintzeterako prestazio ekonomikoaren (FIZPE) onuradunak sexuaren arabera. Bizkaia. 2007, 2008 eta 2009. urteak

	2007						2008						2009					
	Gizonak		Emakumeak		Ez dago jasota		Gizonak		Emakumeak		Ez dago jasota		Gizonak		Emakumeak		Ez dago jasota	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Bizkaia	999	34,83	1.869	65,17	0	0	1.070	36,12	1.892	63,88	0	0	974	38,56	1.552	61,44	0	0

112. grafikoa. FIZPE: altak (sexuaren arabera). Bizkaia. 2007, 2008 eta 2009. urteak



Arabian, FIZPE jasotzen dutenen %60 eta 62 artean emakumeak dira. Gipuzkoan %62-64 artean dira. Hala ere, 65 urte arte gizonaek dira nagusi, argi eta garbi.


Bizkaian altetan emakumeak %65,17 ziren 2007an, %63,88 2008an eta %61,44 2009an. Han ere 65 urtez azpikoek dira nagusi.

b) Banaketa onuradunaren adinaren arabera

117. taula. Mendetasuneko egoeran egonda familia inguruneke zaintzetarako prestazio ekonomikoaren (FIZPE) onuradunak adinaren arabera. Araba eta Gipuzkoa. 2007

	GUZTIRA	0-3	4-18	19-30	31-45	46-54	55-64	65-79	80 edo gehiago
Araba	865	2	44	34	26	8	19	207	525
Gipuzkoa	0	0	0	0	0	0	0	0	0


**113. grafikoa. FIZPE: onuradunak (adinaren arabera).
Araba eta Gipuzkoa. 2007**



118. taula. Mendetasuneko egoeran egonda familia inguruneke zaintzetarako prestazio ekonomikoaren (FIZPE) onuradunak adinaren arabera. Bizkaia. 2007

	GUZTIRA	0-3	4-18	19-30	31-45	46-54	55-64	65-79	80 edo gehiago
Bizkaia	2.868	27	150	39	110	64	145	761	1.572


**114. grafikoa. FIZPE: altak (adinaren arabera).
Bizkaia. 2007**



119. taula. Mendetasuneko egoeran egonda familia inguruneke zaintzetarako prestazio ekonomikoaren (FIZPE) onuradunak adinaren arabera. Araba eta Gipuzkoa. 2008

	GUZTIRA	0-3	4-18	19-30	31-45	46-54	55-64	65-79	80 edo gehiago
Araba	3.392	34	170	133	173	88	125	731	1.938
Gipuzkoa	4.774	47	194	127	203	92	168	992	2.951


**115. grafikoa. FIZPE: onuradunak (adinen arabera).
Araba eta Gipuzkoa. 2008**



120. taula. Mendetasuneko egoeran egonda familia inguruneke zaintzetarako prestazio ekonomikoaren (FIZPE) onuradunak adinen arabera. Bizkaia. 2008

	GUZTIRA	0-3	4-18	19-30	31-45	46-54	55-64	65-79	80 edo gehiago
Bizkaia	2.962	156	142	19	54	55	126	703	1.707


116. grafikoa. FIZPE: altak (adinen arabera) Bizkaia. 2008



121. taula. Mendetasuneko egoeran egonda familia inguruneke zaintzetarako prestazio ekonomikoaren (FIZPE) onuradunak adinen arabera. Araba eta Gipuzkoa. 2009

	GUZTIRA	0-3	4-18	19-30	31-45	46-54	55-64	65-79	80 edo gehiago
Araba	4.876	65	290	191	299	147	209	1.011	2.664
Gipuzkoa	9.252	150	350	235	431	287	413	2.055	5.331


**117. grafikoa. FIZPE: onuradunak (adinaren arabera).
Araba eta Gipuzkoa. 2009**



122. taula. Mendetasuneko egoeran egonda familia inguruneke zaintzetarako prestazio ekonomikoaren (FIZPE) onuradunak adinaren arabera. Bizkaia. 2009

	GUZTIRA	0-3	4-18	19-30	31-45	46-54	55-64	65-79	80 edo gehiago
Bizkaia	2.526	258	110	17	48	35	101	573	1.384

**118. grafikoa. FIZPE: altak (adinaren arabera)
Bizkaia. 2009**



Orokorrean, esan dezakegu prestazio horren %54-60 artean 80 urtez gorakoak direla. Araban eta Gipuzkoan onuradun guztien %75 eta 84 artean 65 urtez gorakoak dira. Adin txikiagoko taldeetan bere bolumenagatik 4 eta 18 urte arteko adingabeak eta 31 eta 45 urte arteko helduak nabarmentzen dira.

Bizkaian, 65 urtez gorakoen altak guztien %77-81 artean dira.

3.12.8. Mendetasuneko egoeran egonda laguntza pertsonaleko prestazio ekonomikoaren (LPPE) onuradunak


a) Onuradun kopurua

123. taula. Mendetasuneko egoeran egonda laguntza pertsonaleko prestazio ekonomikoaren (LPPE) onuradunak. EAE

	2007	2008	2009
Araba	0	0	1
Bizkaia	0	0	0
Gipuzkoa*	0	707	1.175
GUZTIRA	0	707	1.176

*Gipuzkoa, 2008ra arte ez zen eskabiderik bideratu

119. grafikoa. Laguntza pertsonaleko prestazio ekonomikoaren (LPPE) onuradunak. EAE. Bilakaera



Ikusten denez, Bizkaiko lurralde historikoan prestazio hau ez da eman aztertutako hiru urteetan, eta Araban kasu bakarra egon da. Arabako Foru Aldundiak jakinarazi digunez, *“lanean ari den mendetasun handiko mutil bat da eta haren prestazioa 2009ko ekainetik dago indarrean”*.


Arabako Aldundiak honakoa adierazi digu prestazio horretaz: *“ez da ia eskatzen (hiru eskaera baino ez dira egon) araudia oso murriztailea delako: lan kontratua behar da eta hori, mendetasun handia dutenentzat, zaila da; ikasleei dagokienez, ELZren eta familia inguruneke zaintzetarako prestazioen bidez ari da konpontzen; horrela egiten da haur horien familiek arreta eurek ematea nahiago dutelako, ELZk lagunduta, eta horrela familiak berak kobratzen du prestazioa; laguntza pertsonalerako prestazioa aukeratuko balute familiaz kanpoko pertsona bat kontratatu behar lukete eta prestazio osoa laguntzaile pertsonal diharduen langilearentzat litzateke”*.

Gipuzkoako egoera oso bestelakoa da eta honako taula eta grafikoetan hari buruz baino ez dugu hitz egin. Onuradunen guztizko kopurua 2008an 707 izatetik 2009an 1.175 izatera igaro da, inolaz ere baztertu ezin den hazkundera. Onuradunen tasa 1.000 biztanleko, beraz, hazi egin da 2008tik 2009ra (% 1,01 eta % 1,66 hurrenez hurren). Zalantza barik, Gipuzkoako Foru Aldundiak prestazio hori lortzeko betekizunak betetzeari buruz egiten duen interpretazioak, [3.10.2 atalean](#) aipatu dugunez, lurraldeen arteko alde handi hori azaltzen du.

124. taula. Mendetasuneko egoeran egonda laguntza pertsonaleko prestazio ekonomikoaren (LPPE) onuradunak biztanleriaren aldean. EAE. 2008

	Biztanleria	%	Onuradun kopurua	Onuradunen tasa 1.000 biztanleko
Araba	309.635	14,35	0	0
Bizkaia	1.146.421	53,15	0	0
Gipuzkoa	701.056	32,50	707	1,01


120. grafikoa. LPPE: onuradunak (1.000 biztanleko). EAE. 2008



125. taula. Mendetasuneko egoeran egonda laguntza pertsonaleko prestazio ekonomikoaren (LPPE) onuradunak biztanleriaren aldean. EAE. 2009

	Biztanleria	%	Onuradun kopurua	Onuradunen tasa 1.000 biztanleko
Araba	313.819	14,45	1	0,003
Bizkaia	705.698	32,49	0	0
Gipuzkoa	1.152.658	53,06	1.175	1,66

**121. grafikoa. LPPE: onuradunak(1.000 biztanleko).
EAE. 2009**




b) Banaketa onuradunaren sexuaren arabera

Jarraian, Gipuzkoako banaketa erakutsiko dugu.

126. taula. Mendetasuneko egoeran egonda laguntza pertsonaleko prestazio ekonomikoaren (LPPE) onuradunak sexuaren arabera. Gipuzkoa. 2007, 2008 eta 2009. urteak

2007				2008				2009			
Gizonak		Emakumeak		Gizonak		Emakumeak		Gizonak		Emakumeak	
Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
0	0	0	0	188	26,59	519	73,41	303	25,79	872	74,21

**122. grafikoa. LPPE: onuradunak (sexuaren arabera).
Gipuzkoa. 2008 eta 2009. urteak**



Laguntza pertsonaleko prestazio ekonomikoaren onuradunen %73 baino gehiago emakumeak dira, bai 2007an bai 2008an.


b) Banaketa onuradunaren adinaren arabera

Jarraian, Gipuzkoan onuradun guztiek euren adinaren arabera duten banaketa erakutsiko da.

127. taula. Mendetasuneko egoeran egonda laguntza pertsonaleko prestazio ekonomikoaren (LPPE) onuradunak adinaren arabera. Gipuzkoa. 2007, 2008 eta 2009. urteak

	GUZTIRA	0-3	4-18	19-30	31-45	46-54	55-64	65-79	80 edo gehiago
2007	0	0	0	0	0	0	0	0	0
2008	707	0	12	4	10	8	13	120	540
2009	1.175	0	19	5	11	13	22	181	924

123. grafikoa. LPPE: onuradunak (adinaren arabera). Gipuzkoa. 2007, 2008 eta 2009. urteak



Ekitaldi bietan, 65 urtez gorako pertsonak onuradun guztien %93 baino gehiago dira. 80 urtez gorakoak guztizko horren %76 baino gehiago dira. Prestazio horren onuradunen adin handiak azaldutako tesia berresten du: Gipuzkoako Foru Aldundiak, prestazio hori esleitzeko, mendetasun handiko egoeran dagoen pertsonak hezkuntza edo lana izateko laguntza jasotzen duen kasuak ez ezik, laguntza "eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak egiteko bizimodu autonomoagoa" (AMALeko 19. art.) lortzeko jasotzen duen kasuak ere jasotzen ditu. Beraz, lan merkatuan edo hezkuntza sisteman egon gabe, bizimodu autonomoa errazteko laguntza behar duten pertsonen alde egiten du. Sarritan, Gipuzkoako Foru Aldundiak prestazio horren bidez FIZPE eman ezin zaien pertsonen ematen die arreta.

3.12.9. *Laguntza teknikoan (laguntza produktuak) edota etxebizitza egokitzeko laguntzen onuradunak*

Mendetasuneko egoerak prebenitu eta norberaren autonomia sustatzeko laguntza mota honi dagokionez, aldez aurretik adierazi behar dugu arazo handiak izan ditugula informazioa biltzeko. Hemen lortu ditugun datuak jarri ditugu.


Arabako Foru Aldundiak jakinarazi digu 2009an autonomiarako 275 laguntza eman zitzaizkiela 213 laguni, haietatik %14,55 adinekoak direla eta gainontzeko %85,45 minusbalio-tasuna duten pertsonak. Beraz, ez daukagu 2007 eta 2008. urteei ez sexu eta adinaren arabera banaketari buruzko informaziorik. Halaber, ez dakigu laguntza horien ehuneko zenbat zuzendu zitzaizen mendetasuneko egoeran dauden pertsonen.

Bizkaiko Foru Aldundiak laguntza produktuak erosteko laguntza ekonomikoaren onuradunen kopuruari informazio orokorra igorri digu, mendetasuneko egoeran dauden pertsonak diren zehaztu barik. Laguntza horiek administrazioari dakarkioten gastu ekonomikoari buruzko datuak ere eman ditu.

128. taula. Laguntza produktuak erosteko laguntza ekonomikoaren onuradunak eta zenbatekoa. Bizkaia. 2007, 2008 eta 2009. urteak

	Onuradunak	Zenbatekoa eurotan	Batez besteko zenbatekoa onuradun bakoitzeko
2007	106	93.495,66	882,03
2008	132	93.672,88	709,64
2009	526	709.296,80	1.348,47

124. grafikoa. Laguntza produktuak erosteko laguntza ekonomikoaren onuradunak. Bizkaia. 2007, 2008 eta 2009. urteak. Bilakaera



Ikusten denez, onuradun kopurua urtetik urtera hazi da. 2009an, onuradun kopurua aurreko urtekoa halako lau izan da ia. 2009 arte urteko laguntza deialdia 65 urte bete gabe zeuden

minusbaliatuei baino ez zitzairen zuzentzen. Harrezkero mendetasuneko egoeran dagoen pertsona orori zabaldu zaio, adina mugatu gabe. Horrek azaltzen du 2009an izandako hazkunde handia, bai onuradun kopuruan bai guztizko zenbatekoetan. Bestalde, jasotzaile bakoitzari zuzendutako zenbatekoak ere dezente igo direla ikusten da. (709,64 euro 2008an eta 1348,47 2009an).


Onuradunen tasa mila biztanleko 0,09 da 2007an, 0,11 2008an eta 0,45 2009an.

GIZATEK Bizkaiko Foru Aldundiko laguntza produktuei buruzko Orientabide eta Mailegu Foru Zerbitzu Publikoak 2009an holako laguntzak jaso zituzten pertsonen adinaren araberrako banaketari buruzko datuak eman dizkigu, zerbitzua urte horretan sortu baita.

129. taula. Laguntza produktuak erosteko laguntza ekonomikoen onuradunak (adinaren arabera) eta zenbatekoa. Bizkaia. 2009. urtea

Adina	Onuradunak	Zenbatekoa eurotan	Batez besteko zenbatekoa onuradun bakoitzeko
0-3	6	11.134,91	1.855,82
4-18	24	37.459,46	1.560,81
19-30	26	45.955,42	1.767,52
31-45	58	91.758,12	1.582,04
46-54	46	66.373,74	1.442,91
55-64	74	80.518,08	1.088,08
65-79	144	185.029,70	1.284,93
80 edo gehiago	148	191.067,37	1.290,99
GUZTIRA	526	709.296,80	1.348,47

125. grafikoa. Laguntza produktuak erosteko laguntza ekonomikoen onuradunak (adinaren arabera). Bizkaia. 2009. urtea




Holako laguntzen onuradun guztien artean 65 urtez gorakoen proportzioa nabarmentzen da (%55,51). Berriz ere, 31-45 urteko taldea oso handia da. 0-3 eta 19-30 urteko taldeei zuzendutako gastuaren batez besteko zenbatekoa nabarmentzen da. Orokorrean, 45 urte arte, onuradun bakoitzeko batez besteko zenbatekoak adin horretatik aurrera daudenak baino nahiko handiagoak dira, eta horrek esan nahi du adin txikienetan emandako produktuak garestiagoak direla.

Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako informazioa da osoena, baina argitu behar dugu pertsona autonomoei zein mendetasuneko egoeran daudenei buruzkoa dela –azken biztanleak izanik gure azterketaren helburua–. Igorritako datuek etxebizitza egokitzeko laguntzak ere biltzen dituzte.

2008ko ekitaldiari dagokionez, informazioa zabaldu eta adierazi digute Etxetek programak 4.576 laguntza eman zizkiela 1.936 laguni urte horretan eta gastua 4.164.946 eurokoa izan zela (fondo galduko laguntzak, berreskuratu ahal izateko konpromisodun laguntzak eta stocketik emandako laguntzen kostuaren estimazioa barne); horrek onuradun bakoitzeko batez beste 2.151,31 euroko inbertsioa dakar.

40. taula-grafikoa. Laguntza teknikoen edota etxebizitza egokitzeko laguntzen onuradunak. Gipuzkoa. 2007, 2008 eta 2009. urteak

	2007	2008	2009
Onuradunak	1.271	1.936	2.498
Onuradunen tasa 1.000 biztanleko	1,83	2,76	3,54




Ikusten denez, 2008an, onuradun kopurua %52,32 hazi zen 2007aren aldean. 2008tik 2009ra gutxiago hazi zen, %29,03.

Onuradunen tasa mila biztanleko 1,83 da 2007an, 2,76 2008an eta 3,54 2009an, alegia, hiru urteetan ia bikoiztu egin da.

b) Banaketa onuradunaren sexuaren arabera

41. taula-grafikoa. Laguntza teknikoan edota etxebizitza egokitzeko laguntzen onuradunak (sexuaren arabera). Gipuzkoa. 2007, 2008 eta 2009. urteak

2007				2008				2009			
Gizonak		Emakumeak		Gizonak		Emakumeak		Gizonak		Emakumeak	
Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
530	41,70	741	58,30	807	41,68	1.129	58,32	981	39,27	1.517	60,73




Laguntza teknikoan edota etxebizitza egokitzeko laguntzen onuradunen %58 inguru emakumeak izan ziren 2007 eta 2008an. 2009an portzentaje hori ia bi puntu inguru hazi zen.

Berriz ikusten da, azterketa 65 urtez azpiko adin taldeetan eginez gero, nagusitasuna aldatu egiten dela, eta gizonetzkoak, 2007 eta 2008an, onuradun guztien %58 baino gehiago direla, eta 2009an %53 baino gehiago.

b) Banaketa onuradunaren adinaren arabera

42. taula-grafikoa. Laguntza teknikoan edota etxebizitza egokitzeko laguntzen onuradunak (adinaren arabera). Gipuzkoa. 2007, 2008 eta 2009. urteak

	GUZTIRA	0-3	4-18	19-30	31-45	46-54	55-64	65-79	80 edo gehiago
2007	1.271	4	24	17	68	63	88	355	652
2008	1.936	6	36	27	105	96	134	541	991
2009	2.498	5	31	23	99	114	139	667	1.420



80 urtez gorako pertsonak, 2007 eta 2008an, laguntza horien onuradun guztien %51 inguru izan ziren. 2009an portzentajea %56,84 arte igo zen. 65 eta 79 urte artekoak onuradun guztien %26 baino gehiago dira.

4-18 eta 31-45 urtekoak asko dira, adinak gora egin ahala onuradun gehiago izateko joera orokorrari erreparatuz gero.

3.13. Pertsonaren elkarbizitza egoera mendetasuna onartzeko eskaera egiteko unean

Gai honi buruz Bizkaiko Foru Aldundiak 2008ko ekitaldiari buruz eta Arabako Foru Aldundiak 2007 eta 2008. urteei buruz emandako datuak baino ez dauzkagu.

Gipuzkoako Foru Aldundiak jakinarazi digu elkarbizitza egoera ez dagoela tipifikatuta egungo sistema informatikoan.

130. taula. Mendetasunaren onarpenaren eskatzaileen elkarbizitza egoera. Araba 2007 eta 2008. Bizkaia 2008

		Bakarrik		Familiarekin		Hirugarren pertsonekin		Egoitzazentroan		Zehaztu gabe		Guztira	
		Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
2007	Araba	1.320	23,50	3.908	69,56	390	6,94	--	--	--	--	5.618	100
	2008	Araba	780	29,50	1.649	62,37	215	8,13	--	--	--	--	2.644
	Bizkaia	1.056	18,66	3.539	62,53	73	1,29	391	6,91	601	10,62	5.660	100

Dauzkagun datuetatik ondoriozta daiteke eskatzaileen %60 baino gehiago beren familiekin bizi direla eskaera egiterakoan, eta %18,66 eta 29,50 artean bakarrik bizi direla une horretan.

Hirugarrenekin bizi direnak guztien %6,94 eta 8,13 artean dira, Araban, eta %1,29 Bizkaian.

Dena dela, joera horiek kontuz aztertu behar dira, Bizkaia dagokionez, identifikatu gabeen ehunekoa, elkarbizitza egoerari buruzko aldagai horren arabera, %10 baino gehiago delako, eta Araban, egoitzetan sartutako pertsonen kasuan, sartu aurretik zuten elkarbizitza egoera adierazi zaigulako.

Jarraian, datuak pertsonaren sexuaren arabera bereizita eman ditugu.

131. taula. Mendetasunaren onarpenaren eskatzaileen elkarbizitza egoera. Sexuaren araberako banaketa. Araba 2007 eta 2008. Bizkaia 2008

		Bakarrik			Familiarekin			Hirugarren pertsonekin			Egoitza-zentroan			Zehaztu gabe			Guztira		
		Zehaztu gabe	Gizonak	Emakumeak	Zehaztu gabe	Gizonak	Emakumeak	Zehaztu gabe	Gizonak	Emakumeak	Zehaztu gabe	Gizonak	Emakumeak	Zehaztu gabe	Gizonak	Emakumeak	Zehaztu gabe	Gizonak	Emakumeak
2007	Araba	10	429	881	4	1.504	2.400	0	153	237	--	--	--	--	--	--	14	2.086	3.518
2008	Araba	10	197	573	9	712	928	4	77	134	--	--	--	--	--	--	23	986	1.635
	Bizkaia		203	853	--	1.379	2.160	--	27	46	--	149	242	--	187	414	--	1.945	3.715

Emandako datuak bat datoz baietsi ditugun joerarekin, mendetasuneko egoeran dauden biztanleen artean emakumeak (%60 baino gehiago) gizonak (%40 baino gutxiago) baino gehiago izateari dagokionez. Hala ere, joera hori mendetasuneko egoeran egonda bakarrik bizi diren pertsonen kasuan areagotzen da (Bizkaian, 2008an, emakumeak %80 dira eta gizonezkoak %20). Emakumeek duten batez besteko bizitza luzeagoak eta etxe esparruan generoagatik gaitasun eta trebetasunek duten banaketa desberdinak azal dezakete hori.

3.14. Eskatzailearen egoera juridikoa

Mendetasuneko egoeraren onarpena eskatzerakoan legez ezgaituta zeuden pertsona kopuruari buruzko datua Gipuzkoa eta Bizkaiko aldundiek eman digute. Arabako Foru Aldundiak adierazi digunez, informazio hori ez da jasotzen mendetasuna baloratzerakoan eta, beraz, ez dago eskuragarri.

132. taula. Mendetasunaren onarpenaren eskatzaileen elkarbizitza egoera juridikoa. Bizkaia eta Gipuzkoa. 2007, 2008 eta 2009

	Mendetasuneko egoeraren onarpena eskatzen duten pertsona kop.		Eskatzerakoan legez ezgai jotako pertsonen guztizko kop.		Legez ezgai jotako pertsonen %	
	Bizkaia	Gipuzkoa	Bizkaia	Gipuzkoa	Bizkaia	Gipuzkoa
2007	12.068	13.051	343	428	2,84	3,28
2008	12.127	12.832	414	134	3,41	3,23
2009	12.220	8.525	262	76	2,14	3,07

Ikusten denez, eskaera egiterakoan legez ezgai jotako pertsonak eskatzaile guztien %2-3 dira.

Gipuzkoako Foru Aldundiak jakinarazi digunez, eskaera egiteko unean, 2007an, legezko 69 ezgaitasun onarpen ari zirela izapidetzen; 2008an, 25, eta 2009an, 16.

3.15. Mendetasuneko egoera eragin duen zioa

Gipuzkoako Foru Aldundiko arduradunek adierazi digutenez, ez da posible baloratutako biztanleak minusbaliotasun edo gaixotasun motaren arabera bereiztea sistema informatikoak ez darabilelako tipologia hori. Bizkaiko Foru Aldundiak ez du daturik bidali.

Arabako Foru Aldundiak minusbaliotasuna izanda mendetasuneko egoeran onartuak izan diren pertsonen gaitzen tipologiari eta lortutako mailaketari buruzko taula eman digu:

133. taula. Gaitzen tipologia. Mendetasuneko egoeran egon eta minusbaliotasuna duten pertsonak.
Mailaketa. Araba. 2007 eta 2008. urteak

Urtea	Gaitzak (taldeka)	Mendetasun gradua			Guztira
		I. gradua	II. gradua	III. gradua	
2007	Mugimen-asaldurak (nerbio eta muskulu sistema)	66	171	426	663
	Mugimen-asaldurak (hezur eta artikulazio sistema)	95	176	279	550
	Zentzumen-asaldurak (entzumena)	18	22	39	79
	Zentzumen-asaldurak (ikusmena)	48	100	117	265
	Ezgaitasun aniztuna	16	64	349	429
	Gaitz kronikoak (barruko organoak eta azala)	93	153	270	516
	Adierazpenekoak	1	4	6	11
	Mistoak	0	3	0	3
	Galera kirurgikoa	0	6	9	15
	Buru-nahasmendua (beste nahasmendu batzuk)	55	102	88	245
Buru-nahasmendua (adimen-atzerapena)	37	149	181	367	
2008	Mugimen-asaldurak (nerbio eta muskulu sistema)	61	112	113	286
	Mugimen-asaldurak (hezur eta artikulazio sistema)	141	153	87	381
	Zentzumen-asaldurak (entzumena)	19	25	12	56
	Zentzumen-asaldurak (ikusmena)	56	95	39	112
	Ezgaitasun aniztuna	25	41	56	122
	Gaitz kronikoak (barruko organoak eta azala)	116	137	78	331
	Adierazpenekoak	3	1	5	9
	Mistoak	1	1	0	2
	Galera kirurgikoa	15	16	4	35
	Buru-nahasmendua (beste nahasmendu batzuk)	48	87	28	163
Buru-nahasmendua (adimen-atzerapena)	35	103	53	191	

2007an, minusbaliotasuna izan eta, gainera, mendetasuneko egoeran onartuak izan ziren guztien %38,59k mugimendu-asaldura orokorrak (nerbio, muskulu, hezur eta artikulazio sistemarenak) zeuzkaten. Beraz, hori da talde ugariena minusbaliotasuna eta mendetasuna duten pertsonen artean. Barneko organoei eta azalari eragiten dieten gaitz kronikoak pairatzen dituztenak %16,42 dira eta minusbaliotasun aniztuna dutenak %13,65. Adimen urritasuna duten pertsonak %11,68 dira, ikusmenaren zentzumen-asaldurak dauzkatenak %8,43 eta osasun mentaleko arazoak dauzkatenak %7,79.

Orokorrean, minusbaliotasun mota guztietan, mendetasuneko III. graduan baloratutako pertsonak dira ugariena, alde handiz, osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonen dago-kienez izan ezik. Azken talde horretan, %41,53 II. graduak dira.

2008an, portzentajeak 2007koen antzekoak dira, aldaketa batzuk badaude ere; esaterako, minusbaliotasun aniztuna dutenen (%13,65etik %7,23ra) eta ikusmenaren zentzumen-asaldurak dituztenen murrizketa erlatiboa edo barneko organoetako eta azaleko gaitz kronikoak (%16,42tik %19,61era) eta osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonen (%7,79tik %9,66ra) proportzioaren hazkundera.

3.16. Baliabideak: plazak eguneko zentro eta egoitza-zentroetan

Honako tauletan eguneko zentroetan eta egoitza-zentroetan dagoen plaza kopuruari eta haien titulartasunari buruzko informazioa jaso dugu. Aurkeztutako tipologia AMALekeo 15. artikuluan –Autonomiarako eta Mendetasunarentzako Arretarako Sistemaren arreta zerbitzuen katalogoari buruz– xedatutakoa da.

Araba eta Gipuzkoako foru aldundiek 2007 eta 2008ri buruzko informazioa eman digute, proposatutako eskemaren arabera (134. eta 135. taulak). 2009ko ekitaldiari dagokionez, Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako informazioa baino ez daukagu (136. taula).

Bizkaiko Foru Aldundiak ez dizkigu eskatutako datu guztiak eman, adierazi digunez, informazioa beste sailkapen mota baten arabera erregistratzen duelako (137. taula).

134. taula. Eguneko zentroetan eta egoitza-zentroetan dauden plazei buruzko informazioa. Titulartasuna eta itxaron zerrendak. 2007. urtea. Araba eta Gipuzkoa

	Plaza eskuragarriak guztira (publikoak eta pribatuak)	Pertsonak itxarotzerrendan 07/12/31n	Foru titulartasuneko plazak		Udal titulartasuneko plazak		Titulartasun pribatu itunduko plazak		Titulartasun pribatuko plazak	
			Kop.	%*	Kop.	%*	Kop.	%*	Kop.	%*
Adinekoentzako eguneko zentroa	449	110	356	79,29	92	20,49	1	0,22	0	0
	1.408	223	256	18,18	340	24,15	793	56,32	19	1,35
65 urtez azpikoentzako eguneko zentroa	91		91	100	0	0	0	0	0	0
	747	5	60	8,03	0	0	687	91,97	0	0
Arreta espezializatuko eguneko zentroa										
Gaueko zentroa										
Mendetasuneko egoeran dauden adineko pertsonen egoitza	2.732	450	882	32,28	475	17,39	299	10,94	1.076	39,39
	4.795	1.001	634	13,22	1.202	25,07	2.814	58,69	145	3,02
Mendetasuneko egoeran dauden pertsonentzako arreta zentroa, minusbaliotasun moten arabera	269	0	262	97,40	0	0	7	2,60	0	0
	716	6	335	46,79	0	0	381	53,21	0	0

Araba

Gipuzkoa

* Plaza eskuragarri guztien gaineko ehunekoa.

Mendetasuneko egoeran dauden adinekoei dagokienez, eguneko zentroetan mila biztanleko dagoen plaza kopurua handiagoa da Gipuzkoan (2,03) Araban (1,47) baino. Egoitza-zentroko plazei dagokienez, alderantziz gertatzen da: 8,94 Araban eta 6,90 Gipuzkoan.

Eguneko zentroetako baliabideak lortzeko itzarote-zerrendan dauden adinekoen kopurua mila biztanleko antzekoa da lurralde historiko bietan, 0,35 inguru. Gauza bera gertatzen da pertsona horien egoitza-arretari dagokionez: bai Araban bai Gipuzkoan itzarote-zerrendako pertsonen tasa mila biztanleko 1,45 ingurukoa da.

Pertsona horientzako eguneko zentroko plazen titulartasunari dagokionez, Araban, foru plazek pisurik handiena dute (%79,29) eta udal plazak guztien %20,49 dira; Gipuzkoan, aldiz, plazen %18,18 dira foru titulartasunekoak, %24,15 udal titulartasunekoak eta gehienak, %56,32, titulartasun pribatu itundukoak.

Adinekoentzako egoitza-zentroetako plazen titulartasunari dagokionez, lurralde bietan banaketa desberdinak daude: Araban, sektore pribatuari egoitza plaza eskuragarri guztien %39,39 dagozkio, eta Gipuzkoan, aldiz, %3,02. Azpimarratzekoa da sektore pribatuarekin itundutakoek Gipuzkoan (%58,69) Araban (%10,94) baino pisu nabarmen handiagoa dutela. Foru titulartasuneko plaza gehiago daude Araban (%32,28) Gipuzkoan (%13,22) baino; dena dela, azken lurralde horretan plazen %25,07 udal titulartasunekoak dira, eta haietako asko Aldundiarekin itunduta edo hitzartuta daude.

65 urtez azpiko pertsonenganako –minusbaliotasuna izanda mendetasuneko egoeran dauden pertsonak– arreta zerbitzuei dagokienez, datuen arabera, mila biztanleko eskuragarri dauden plazen kopurua, bai eguneko zentroetan bai egoitza-arretan, handiagoa da Gipuzkoan (1,07 eta 1,03, hurrenez hurren) Araban (0,30 eta 0,88 hurrenez hurren) baino. Ia ez dago itzarote-zerrendarik lurralde bietan eta aipatu zerbitzu bietan.

Arabian, ia plaza guztiak dira titulartasun publikokoak. Hori ez da Gipuzkoan gertatzen; bertan, eguneko zentroetako plazen %91,97 eta egoitza-zentroetako plazen %53,21 pribatu itunduak dira (gainontzeko %46,79 foru titulartasunekoak dira.). Hala ere, esan behar da plaza pribatu itundu horiek, orokorrean, irabazi asmorik gabeko erakundeek direla; hirugarren sektorea deritzona, Gipuzkoan hedapen handia daukana.

135. taula. Eguneko zentroetan eta egoitza-zentroetan dauden plaza buruzko informazioa. Titulartasuna eta itxaron zerrendak. 2008. urtea. Araba eta Gipuzkoa

	Plaza eskuragarriak guztira (publikoak eta pribatuak)	Pertsonak itxarotzerrendan 08/12/31n	Foru titulartasuneko plazak		Udal titulartasuneko plazak		Titulartasun pribatu itunduko plazak		Titulartasun pribatuko plazak	
			Kop.	%*	Kop.	%*	Kop.	%*	Kop.	%*
Adinekoentzako eguneko zentroa	459	70	366	79,74	93	20,26	0	0	0	0
	1.507	262	212	14,07	390	25,88	886	58,79	19	1,26
65 urtez azpikoentzako eguneko zentroa	91	4	91	100	0	0	0	0	0	0
	825	32	194	23,51	0	0	631	76,49	0	0
Arreta espezializatuko eguneko zentroa										
Gaueko zentroa										
Mendetasuneko egoeran dauden adineko pertsonen egoitza	2.743	316	895	32,63	489	17,83	672	24,50	687	25,04
	5.061	1.149	642	12,69	1.202	23,75	3.049	60,24	168	3,32
Mendetasuneko egoeran dauden pertsonentzako arreta zentroa, minusbaliotasun moten arabera	271	25	264	97,42	0	0	7	2,58	0	0
	825	53	340	41,21	0	0	485	58,79	0	0

Araba

Gipuzkoa

* Plaza eskuragarri guztien gaineko ehunekoak.

Lurralde bietan, ikusten denez, plaza eskuragarrien kopurua zenbaki absolutuetan hazi da. Hala ere, lurralde bietako biztanle kopuruari erreparatuz gero, Araban, eguneko zentroko plazen hazkundea oso txikia da eta, egoitza-arretari dagokionez, jaitsi egin da. Gipuzkoan, hazkundea zenbaki absolutu eta erlatiboetan gertatu da. Izan ere, Araban eta Gipuzkoan aipatu dugun aldea, adinekoentzat egoitza-arretan mila biztanleko eskuragarri dauden plazen ratioari dagokionez -8,94 Araban eta 6,90 Gipuzkoan 2007an-, 2008an murriztu egin da, Araban 8,86 eta Gipuzkoan 7,22 izan baita. Dena dela, itxarote-zerrendako pertsona kopurua mila biztanleko apur bat igo da Gipuzkoan, kasu guztietan. Araban, murriztu egin da adinekoiei emandako arretan (bai eguneko zentroan zein egoitza-zentroan) eta hazi egin da 65 urtez azpikoei eta mendetasuneko egoeran egon eta minusbaliotasuna duten pertsonen emandakoan.

Titulartasunari dagokionez, azpimarratu behar da, Araban, egoitza-zentroetan titulartasun pribatu itunduko adinekoentzako plazen ehunekoak igoera handia izan duela (%10,94 2007an eta %24,50 2008an).

Gipuzkoan, mendetasuneko egoeran egon eta minusbaliotasuna duten pertsonentzako zerbitzuei dagokionez, eguneko zentroetako foru plazen hazkunde handia ikusten da (%8,03

2007an eta %23,51 2008an), plaza pribatu itunduen kaltetan (%91,97 2007an eta %76,49 2008an). Egoitza-zentroetan, mugimendua kontrakoa da eta askoz arinagoa: foru titulartasuneko plazak murriztu (%46,79tik %41,21era) eta pribatu itunduak hazi dira (%53,21etik %58,79ra).

136. taula. Eguneko zentroetan eta egoitza-zentroetan dauden plazei buruzko informazioa. Titulartasuna eta itxaron zerrendak. 2009. urtea. Gipuzkoa

	Plaza eskuragarri guztira (publikoak eta pribatuak)	Pertsonak itxarotze-zerrendan 09/12/31n	Foru titulartasuneko plazak		Udal titulartasuneko plazak		Itundutako titulartasun pribatuko plazak		Titulartasun pribatuko plazak	
			Kop.	%*	Kop.	%*	Kop.	%*	Kop.	%*
Adinekoentzako eguneko zentroa	1.615	212	248	15,36	553	34,24	652	40,37	162	10,03
65 urtez azpikoentzako eguneko zentroa	781	28	202	25,86	0	0	579	74,14	0	0
Arreta espezializatuko eguneko zentroa										
Gaueko zentroa										
Mendetasuneko egoeran dauden adineko pertsonen egoitza	5.243	873	851	16,23	1.331	25,39	2.301	43,89	760	14,49
Mendetasuneko egoeran dauden pertsonentzako arreta zentroa, minusbalotasun moten arabera	848	71	353	41,63	0	0	495	58,37	0	0

Gipuzkoa

* Plaza eskuragarri guztien gaineko ehunekoa.

Adierazi dugunez, 2009. urteari dagokionez Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako datuak baino ez dauzkagu.

Zenbaki absolutuetan, plaza eskuragarri gehiago dago aurreko urtean baino, eguneko zentroetan 65 urtez azpikoei eskainitakoak izan ezik, gutxiago baitira. Mila biztanleko ratioak ere handitu egin dira, kasu horretan izan ezik.

Mila biztanleko itxarote-zerrendan dagoen pertsona kopurua ere murriztu egin da zerbitzu guztietan mendetasuneko egoeran egon eta minusbalotasuna duten pertsonentzako egoi-

tza-arretan izan ezik. Beraz, pertsona horientzat dagon egoitza baliabide eskasiak handitzen jarraitzen du.

Eguneko zentro eta egoitza zentroetako adinekoentzako plazen titulartasunari dagokionez, ikusten denez, plaza pribatu itunduen proportzioa murriztu egin da eta pribatuena handitu.

Gipuzkoako Foru Aldundiak informazio zabaldu eta adierazi du adinekoentzako egoitza-arretako udal titulartasuneko 1.331 plazetatik, 1.298 Gipuzkoako aldundiarekin itunduak direla, %97,52.

Minusbaliotasuna izan eta mendetasuneko egoeran dauden pertsonentzako (65 urtez azpikoak) zerbitzuei dagokienez, ez da ikusi aldaketa handirik plazen titulartasunean; hala ere, eguneko zentroetan, foru plazen proportzioa apur bat igo eta pribatu itunduena murriztu egin dela ikusten da.

Laburbilduz, aztertutako hiru urteei buruz, honakoa esan genezake:

- Itxarote-zerrendei eta horrek dakarren arazoari buruz, Araban hobekuntza txikia ikusi da adinekoentzako zerbitzuetan, baina ez 65 urtez azpikoentzako zerbitzuetan (minusbaliotasuna izan eta mendetasuneko egoeran dauden pertsonak). Gipuzkoan, 2008an, egoera okertu egin zen, baina 2009an adinekoentzako zentroetako eta 65 urtez azpiko pertsonentzako eguneko zentroetako itxarote-zerrendak murriztu egin dira, minusbaliotasuna izan eta mendetasuneko egoeran dauden pertsonen egoitza-arretarako baliabideen eskasia larritu bada ere.
- Adinekoen arretarako zerbitzuetan:
Arabian, eguneko zentroetan, foru titulartasuna (ia %80) da nagusi, eta gainontzekoa uda titulartasuneko da. Egoitza-zentroetan, plazen %50 foru eta udalekoak dira. Plaza pribatuak %25 baino gehiago dira aztertu urte bietan.
Gipuzkoan, egitura bestelakoa da. Bai eguneko zentroetan bai egoitzetan, sektore pribatuekin itunduek pisu handia dute (%42 inguru 2009an). Udal titulartasuneko plaza asko ere badira (%24-34), eta haietako gehienak aldundiarekin itunduta edo hitzartuta daude.
- Minusbaliotasuna izan eta mendetasuneko egoeran dauden pertsonentzako (65 urtez azpikoak) zerbitzuetan:
Araba ia plaza guztiak dira foru titulartasunekoak, zerbitzu bietan. Gipuzkoan, sektore pribatuarekin itundutakoek garrantzi handia dute, baina badakigu hirugarren sektoreko irabazi asmorik gabeko erakundeak direna, lurralde horretan oso zabalduta baitaude. Eguneko zentroetan, itundutakoak murriztu egin dira, foru titulartasuneko plazen alde, baina hala ere, 2009an, %74 baino gehiago dira. Egoitza-zentroetan, pisua txikiagoa da, baina %58 baino gehiago da (apur bat hazi da). Foru plazen ehunekoa apur bat murriztu da 2009an plaza eskuragarri guztien %41,63 izan arte.

Jarraian, Bizkaiko Foru Aldundiak emandako informazioa jarri dugu:

137. taula. Eguneko zentroetako eta egoitza-zentroetako plazai buruzko informazioa. Estaldura tasak. 2007, 2008 eta 2009. urteak. Bizkaia

		BIZKAIKO BALIABIDEAK					
		2007		2008		2009	
		Kop.	Plazak 1.000 biztanleko	Kop.	Plazak 1.000 biztanleko	Kop.	Plazak 1.000 biztanleko
ADINEKO PERTSONAK	Egoitza-plazak	5.023	4,40	5.689	4,96	5.860	5,08
	EZ/eguneko arreta plazak	932	0,82	849	0,74	1.346	1,17
MINUSBALIOTASUNA DUTEN PERTSONAK (GUFERik gabeko datuak)	Egoitza-plazak	825	0,72	921	0,80	926	0,80
	Eguneko arreta plazak	2.294	2	2.332	2,03	2.341	2,03

Datu horien arabera, Bizkaian, hiru urteetan, adinekoen arreta-egoitzari dagozkion estaldura tasak apur bat hazi dira, oraindik ere Araban eta Gipuzkoan daudenak baino askoz txikiagoak izan arren. Talde horrentzako zentroetan, 2009an 2008aren aldean estaldura tasa igo dela ikusten da; 2008an apur bat murriztu zen.

Minusbalotasuna duten pertsonentzako eskaintzari dagokionez, ez dugu igoera aipagarririk ikusi estaldura tasetan; pertsona horien eguneko zentroko arretan, ordea, Bizkaiko tasa Araba eta Gipuzkoakoa baino handiagoa da, talde horren egoitza-arretan ez bezala.

3.17. Erabiltzailearen ekarpen ekonomikoak

Jarraian, telelaguntza, etxeko laguntza, egoneko arreta eta egoitza-arreta zerbitzuen erabiltzaileek egindako ekarpenei buruzko informazioa emango dugu. Taulak egiteko, honakoak erabili ditugu: Gipuzkoako Foru Aldundiak hiru urteei buruz emandako informazioa, araudiaren azterketa Bizkaiari dagokionez (2207, 2008 eta 2009) eta Arabako Foru Aldundiak 2007 eta 2008ko ekitaldiei buruz bidalitako informazioa eta haren araudiaren azterketa 2009ko zenbatekoetarako.

Bizkaiian adinekoei eguneko zentroetan emandako arretari dagokionez, psikogieratria eta geriatría orokorreko unitateetako plazen arteko batez besteko prezioa kalkulatu dugu –lehenengoak garestiagoak dira–. Bestalde, erabiltzaileek hilean, eta ez egunean, egiten duten batez besteko ekarpena kalkulatu dugu, gure aburuz, horrela, errazagoa delako zerbitzu bakoitzak dakartzan kostuak ulertzea, kasu askotan, informazioa euro/egunetan etorri arren.

Bizkaiko etxeko laguntza zerbitzuari buruzko datuak ezin izan dira erregistratu, nolabaiteko batasuna ahalbidetuko lukeen esparru-hitzarmenik ez dagoelako, udal bakoitzak bere tarifak ezartzen baititu.

Gutxieneko ekarpenari buruzko zutabea ezin izan da bete Araba eta Bizkaiari dagokienez.

Gipuzkoako Foru Aldundiak honela argitu dizkigu telelaguntzari dagozkion ekarpen ekonomikoen sistemaren gaineko zenbait kontu:

“Telelaguntzari dagokion ekarpen ekonomikoen sistema oso konplexua da (...) eta 6 hilean behin berrikusi ohi da.

Sistema nolabait azaltzeko, esan dezakegu 2007an gailu bakoitza instalatzeak 76,27 euro balio zuela, eta urteko mantenu kuota 81,26 eurokoa zela, medailoi gehigarria instalatzeak (etxean gailu bat instalatuta egon eta bertako beste pertsona batek zerbitzua behar izanez gero) 3,72€ balio zuen eta medailoi gehigarriaren mantenuak 12,41€/urte. Erabiltzailearen ekarpenaren portzentajeak honakoak ziren: Zerbitzuaren kostuaren %0 (beraz, 2007an gutxieneko ekarpena 0 eurokoa zen), %25, %50, %75 eta %100. Hala ere, erabiltzaileek jasan beharreko kostua zenbaitetan 0 eurokoa izateak zekartzen eraginkortasunik ezeko arazoak ikusita (esaterako, gailuak galtzea edo ez itzultzea), 2008rako gutxieneko bat ezartzea erabaki zen.

2008rako gutxieneko horrek %10eko ekarpena zekarkion erabiltzaileari. Aurreko urtean legez, ekarpen portzentaje maila bakoitzeko zenbateko batzuk ezarri ziren kontzeptu bakoitzeko. Honakoak izan ziren: 7,95€ gailua instalatzeagatik, 8,47 €/urte hura mantentzeko kuota, 0,39€ medailoi gehigarria instalatzeagatik eta 1,29 €/urte hura mantentzeagatik. Gehienezkoak (%100 izanda kostu osoa dakarte) honakoak izan ziren: 79,47€ gailua instalatzeagatik, 84,67 €/urte hura mantentzeko kuota, 3,88€ medailoi gehigarria instalatzeagatik eta 12,93 €/urte hura mantentzeagatik.

Erabiltzaileen gehienezko eta gutxieneko ekarpenari buruzko koadroetako ataletan gailuaren mantenuaren kostua baino ez da kontuan hartu, hura instalatzeko urtean izan ezik, orokorrean, ez dutelako besterik ordaindu beharko. Beraz, ez dira kontuan hartu medailoi gehigarria instalatu behar denekoak, dagoena ordezte, etab.

Erabiltzaileek finantzatutako zerbitzuaren kostu osoaren portzentajeari dagokionez, gutxi gorabeherako kalkulua egin da erabiltzaileen guztizko ekarpenei buruz dauzkagun datuak (2007ko bigarren sei hilekoan eta 2008. urtean) eta zerbitzuak zekarren kostu osoa (urte eta erdi berean) hartu dira kontuan. Horregatik koadro bietan portzentaje bera ikusten da. Kontua ez da aldatu ez denik, kalkulua zenbatekoen guztizko baturarekin egin dela baizik, informazio zehatz nahikorik ez izateagatik.

Azkenik, azpimarratu behar da zerbitzuaren kostuaren eta erabiltzailearen ekarpenaren arteko aldetik ateratako zenbatekoa erdi bana ordaindu zutela dagokion udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak.

2009ko datuei dagokienez, telelaguntza kostuetan erabiltzaileek zerbitzua mantentzeko egindako gehienezko eta gutxieneko ekarpena islatu dela. Gailu berria instalatzeari dagokion gehienezko eta gutxieneko ekarpenari dagozkion zenbatekoak 80,98€ eta 8,10€ dira. 2009an ezin izan da erabiltzailearen ekarpenaren portzentajea kalkulatu telelaguntzaren kasuan, ordainketa sistema etengabe aldatzen ari delako. 2007 eta 2008an erabilitako sistema ez da 2009an erabilitako bera, eta 2010ean erabiltzen ari dena ere aurreko bien desberdina izango da. Bestalde, sistemaren ezaugarriak direla-eta ondoren erregularizazio asko egoten dira, eta oraindik ere 2009ko erregularizazioak daude egiteke, oraindik kalkulatu ez baitira.”

Bestalde, etxeko laguntza zerbitzuari buruz, honakoa ere adierazi digu: “koadroetan jasotako gehienezko zenbatekoak muturreko kasuak dira, eta batez bestekoa askoz txikiagoa da aztertutako hiru ekitaldietan”. Argitu digunez, “ELZko gehienezko ekarpena Gipuzkoako Foru Aldundiaren urteroko erabakiaren ondoren udalek ezarritako prezio publikoaren parekoa da. Erabiltzailearen gehienezko ekarpena zenbateko horren % 100 izan daiteke. Hala ere, erabiltzaileen benetako ekarpenek batera kostu osoaren % 13 baino ez dute ordaintzen.”

Eguneko zentroei eta adinekoentzako egoitzei dagokienez, Gipuzkoako Aldundiak honakoa adierazi digu:

“Erabiltzaileen ekarpenei dagokienez, eguneko zentroen kasuan mendeko adinekoentzako plazak lortu eta esleitzeko araubidea arautzen duen 20/2002 Foru Dekretuak ekarpenen gutxieneko eta gehienezkoak ezarri zituen. Hala ere, kasu batzuetan plaza eskaerak dagokion udaletik iristen zaizkigu eta erabiltzailearen balorazio ekonomikoak ordainketaren salbuespena eskatzen du (haren egoera ekonomikoa dela-eta); hori dela-eta, zenbait kasutan benetako ekarpena eguneko 0 eurokoa da. Bestalde, erabiltzaile batzuen antzintasuna dekretukoa baino handiagoa da eta ekarpen handiagoa ari dira ordaintzen, aldatzeko izapidea egin ez dutelako, baina oso kasu gutxi dira, eta gehienezkoa eguneko 19,83 eurokoa da (...) baina besteekin parekatzen goaz.

Egoitzei dagokienez, (...) 2009an, (...) 9 lagunek ekarpen handiagoa izan dute (...) Aurreko kasuan bezala, alde horiek kendu nahi dira.

Erabiltzaileek finantzatutako zerbitzuaren kostu osoaren portzentajeari dagokionez, esan behar dugu atal horri buruzko informazioa ez dela besteei buruzkoa bezain zehatza. Arrazoa eskura dauzkagun datuak eta haien euskarria dira. Hori dela-eta, eguneko zentzoei dagokienez, portzentajea kalkulatzeko erabiltzailearen eguneko ekarpena ekarpen horren eta aldundiarenaren arteko baturaren (ez guztizko zenbatekoekin) artean zatitu dugu. Egoitzei dagokienez, erabiltzaileek 2008ko abenduan bakoitzari egindako ekarpenak eta Aldundiak ere bakoitzari emandako zenbatekoa atera dira. Une edo aldi oso bateko datu horietatik portzentajea atera da.

Eguneko zentzoei dagokienez, laneguneko egonaldiak (garraioa batuta) –hura izanda koadroan kalkulatu duguna– eta jaiegunetako egonaldiak bereizi behar dira (2007 eta 2008an erabiltzailearen ekarpena kostu osoaren %16,84 litzateke).

Egoitzen kasuan, (...) ez daukagu 2007ko informazioa kalkulatzeko berezia, baina aldaketa garrantzitsurik ekarri duen eragilerik egon ez denez, 2008koaren oso antzekoa izan zela kalkulatu dugu (arestian adierazi denez, egoitza bakoitzeko abenduko datuekin kalkulatu, guztizko datuak ez dauzkagulako)."

Azkenik, 65 urtez azpikoentzako eguneko zentzoei eta egoitza-zentzoei dagokienez, Gipuzkoako Aldundiak honela zabaldu du informazioa:

"Talde horretan minusbaliotasuna duten pertsonentzako zentroak eta osasun mentalekoak sartu ditugu.

Eguneko zentzoei dagokienez, aldundiak erabiltzaile bakoitzeko zenbatekoa eman arren, egun oraindik dira elkarreak eurak (Atzegi, Gautena eta ASPACE dira nagusiak) erabiltzaileen ekarpenak kudeatzen dituztenak (aldatzeko bidean) eta, beraz, ezin ditugu datu errealak eman gehieneko eta gutxienezko ekarpenari eta erabiltzailearen ekarpenaren portzentajeari buruz. Hurbilketa bat egitearren, esan dezakegun erabiltzaileak LGS baino diru-sarrera txikiagoak dauzkanean, ekarpena, 2008an adibidez, eguneko 4,60 eurokoa zela, diru-sarrerak minimoak direnean izan ezik, halakoetan ekarpena eguneko 2,18 eurokoa baitzen. Diru-sarrerak LGS baino handiagoak diren kasuetan, prezioa diru-sarreraren gaineko %40 kalkulatu ateratzen da, erabiltzaileak aske erabiltzeko eguneko LGSren %60 bermatzen den heinean. Diru-sarrerak oso handiak direnean, ekarpenak ezin du inoiz plazaren kostua –eguneko 70 euro inguru– gainditu.

Erabiltzaileek finantzatutako zerbitzuaren kostu osoaren portzentajea, aurreko atalean bezala, guztien artean esanguratsua den osasun mentaleko eguneko zentro bateko datuen arabera kalkulatu da, aipatu dugunez, minusbaliotasuna duten pertsonentzako eguneko zentro gehienak elkarreke eurek kudeatzen dituztelako.

Egoitzei dagokienez, argitu behar da kostuak aldaketa handiak dauzkatela zentroaren, arreta mailaren, eta abarren arabera. Hemen ere prezioa erabiltzailearen diru-sarreraren arabera kalkulatu da; gutxienezkoa haien %20 da eta gehienezkoa diru-sarreraren %50, azken kasuan, LGSren %40 bermatuz. Edonola ere, prezioa ezin liteke inoiz plazaren kostua baino handiagoa izan, eta prezio haiek gutxi gorabehera eguneko 30 eta 130 euro artekoak dira, esan dugunez, zentroaren, arreta mailaren, eta abarren arabera.

Kasu honetan ere portzentajea gehien erakusgarri den osasun mentaleko egoitza bateko datuekin atera da, ekarpenen guztizko datuak izan gabe, arestian adierazitako zio berberetatik."

138. taula. Erabiltzailearen ekarpen ekonomikoak. Teledaguntza, ELZ, eguneko zentro eta egoitza-zentro zerbitzuak. 2007. urtea. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa

	Erabiltzailearen gehieneko ekarpena (euro/hilebete)	Erabiltzailearen gutxienezko ekarpena (euro/hilebete)	Erabiltzaileek finantzatutako zerbitzuaren kostu osoaren ehunekoa
Teledaguntza	6,47		% 14
	30,42		
	6,77	0	%38,60
ELZ	278,43		% 13
	1.278,33	0	% 12,83
Adinekoentzako eguneko zentroa	378,84 (garraioa barne)		% 15
	1.008,69		
	363,60	198,30	% 18,89
65 urtez azpikoentzako eguneko zentroa	72,93		%4,20
	195,53		
	Sarreraren gaineko %40	64,20	% 12,86
Mendetasuneko egoeran dauden adineko pertsonen egoitza	932,87		% 15
	2.019,66		
	1.737,60	0	%38,3
Mendetasuneko egoeran dauden pertsonentzako arreta zentroa, minusbaliotasun moten arabera	932,87		% 10
	995,23		
	Sarreraren gaineko %50	Sarreraren gaineko %20	%21,26

- Araba
- Bizkaia
- Gipuzkoa

**139. taula. Erabiltzailearen ekarpen ekonomikoak.
Telelaguntza, ELZ, eguneko zentro eta egoitza-zentro zerbitzuak.
2008. urtea. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa**

	Erabiltzailearen gehienezko ekarpena (euro/hilebete)	Erabiltzailearen gehienezko ekarpena (euro/hilebete)	Erabiltzaileek finantzatutako zerbitzuaren kostu osoaren ehunekoa
Telelaguntza	6,74		%13
	30,42		
	7,05	0,70	%38,60
ELZ	290,12		%13
	1.636	0	%13,36
Adinekoentzako eguneko zentroa	394,75 (garraioa barne)		%15
	1090,16		
	378,90	206,70	%18,89
65 urtez azpikoentzako eguneko zentroa	162,82		
	195,53		
	Sarreraren gaineko %40	65,40	%12,86
Mendetasuneko egoeran dauden adineko pertsonen egoitza	972,05		%15
	2.176,61		
	1.810,50	0	%39,13
Mendetasuneko egoeran dauden pertsonentzako arreta zentroa, minusbaliotasun moten arabera	972,05		%10
	995,23		
	Sarreraren gaineko %50	Sarreraren gaineko %20	%21,26

- Araba
- Bizkaia
- Gipuzkoa

140. taula. Erabiltzailearen ekarpen ekonomikoak telelaguntza, eguneko zentro eta egoitza-zentro zerbitzuetan.

2009. urtea. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa

	Erabiltzailearen gehienezko ekarpena (euro/hilebete)	Erabiltzailearen gehienezko ekarpena (euro/hilebete)	Erabiltzaileek finantzatutako zerbitzuaren kostu osoaren ehunekoa
Telelaguntza	6,90		
	30,42		
	7,19	0,72	
ELZ	297,08		
	1.461,60	0	%13,40
Adinekoentzako eguneko zentroa	404,22 (garraioa barne)		
	1.111,88		
	386,10	0	%29,21
65 urtez azpikoentzako eguneko zentroa	166,82		
	195,53		
	1.365,30	0	%4,21
Mendetasuneko egoeran dauden adineko pertsonen egoitza	995,38		
	2.217,98		
	1.845	0	%40,43
Mendetasuneko egoeran dauden pertsonentzako arreta zentroa, minusbaliotasun moten arabera	995,38		
	995,23		
	2.433,3		Ez dago jasota

- Araba
- Bizkaia
- Gipuzkoa

Ekarpen ekonomikoari buruzko informazioari dagokionez, aipatu ditugun lurraldeen arteko aldeak ikusten dira, herritarrentzat hain ulertezinak direnak.

Telelaguntza zerbitzuari dagokionez, Bizkian gerta daitezkeen gehienezkoak (30,42 euro hilean) nabarmentzen dira Araba edo Gipuzkoakoan aurrean (hileko 6 eta 7 euro artean kasu bietan).

Minusbaliotasuna duten pertsonentzako (edo 65 urtez azpikoentzako) zerbitzuei dagokionez, gehienezko prezioek, bai eguneko zentroetan bai egoitzetan, ez dute alde handirik Araban eta Bizkaian, azken lurralde horretan apur bat handiagoak izan arren. Gipuzkoan, preziorik txikiak daude erabiltzailearen diru-sarrerak lanbide arteko gutxieneko soldata baino txikiagoak direnean baina, gaitzen dutenean, prezioa beste lurralde bietan baino handiagoa izan daiteke. Izan ere, erabiltzaileak finantzatutako zerbitzuaren kostuaren portzentajeari buruzko datuek erakusten dute Gipuzkoan ehunekoa Araban baino handiagoa dela

(ez daukagu Bizkaiko daturik). Horrela, eguneko zentroetan, %4 ingurukoa da Araban, eta %12,8 ingurukoa Gipuzkoan. Egoitzetan, Gipuzkoako ehunekoa (%21,26) Arabakoa (%10) halako bi da.

Adinekoenganako arreta zerbitzuen gehienezko prezioetan, aldiz, alde handiak daude hiru lurraldeen artean:

- Eguneko zentroetan, prezioak antzekoak dira Araban eta Gipuzkoan, baina apur bat handiagoak lehenengoan. Bizkaiko gehienezko prezioak, ordea, beste lurralde bietakoak baino askoz handiagoak dira (bikoitza eta hirukoitzaren artean). Ez daukagu Bizkaian erabiltzaileak finantzatutako kostuaren ehunekoa. Beste lurralde bietan, %15-29 bitartekoa da.
- Egoitza-zentroetan, lurralde batetik bestera alde handiak daude prezioei dagokienez. Txikiak Arabakoak dira eta handiak Bizkaikoak. Gipuzkoako prezioak Arabakoak baino handiagoak dira baina Bizkaiko prezioetatik gertuago daude. Horrela, Arabako prezioa 1 dela jarriko bagenu, Gipuzkoakoa 1,85 litzateke eta Bizkaikoa 2,23 gutxi gorabehera, hiru urteetan. Erabiltzaileak finantzatutako zerbitzuaren kostuaren portzentajea askoz handiagoa da Gipuzkoan (%40 inguru) Araban baino (%15). Esan dugunez, ez daukagu Bizkaian buruzko datu hori, baina pentsatzekoa da portzentajea nabarmen handiagoa izango dela.

Bestalde, Arabako Foru Aldundiak adierazi digunez, *"azken urteotan Gizarte Ongizatearen Foru Instrukzioak emandako zerbitzuen prezio publikoak arautzeko legeek beti adierazi diote prezio handiagoa adinekoentzako baliabideei, printzipioz, pertsona horiek euren diru-sarrerekin egiten diotelako aurre zerbitzuaren kostuari, minusbaliotasuna duten pertsonen kasuan, aldiz, euren diru-sarrerarik ez daukatenez, familiak ordaintzen baitu esleitutako baliabidea. 2008an, erabiltzaileen parte hartze ekonomikoa gerturatzeko ahalegina egin zen, adina gorabehera"*.

**39/2006 LEGEA, ABENDUAREN 14KOA, NORBERAREN
AUTONOMIA SUSTATZEKO ETA MENDEBASUNARI ARRETA
EMATEKO APLIKATZEAK ERAGINDAKO TALDEEK EGIN
DITUZTEN BALORAZIOAK**

Metodologiari buruzko atalean esan genuen bezala, pertsonen autonomiari eta mendekotasunari buruzko araudia bere hartzaille nagusien artean –besteen beharra duten pertsonak eta haien familiak– izaten ari den inpaktuaren berri izateko, informazioa eskatu diegu zenbait gizarte-erakunderi, organismori eta elkarteri, eta batzuek beren hausnarketak eta iradokizunak helarazi dizkigute.

4.1. Adinekoak

Adinekoen taldea da araudi horren hartzaille nagusia. Izan ere, mendekotasun-egoeran dauden pertsonen gutziaren %80k gutxi gorabehera 65 urte baino gehiago ditu.

Gero eta talde ugariago denez –egiatan, EAEko biztanleriaren zahartze-tasa nabarmen igo da azken urteetan (gaur egun, Euskadiko biztanleriaren %20 baino gehiagok 65 urte baino gehiago ditu, eta 1991. Urtean %12,4k baino ez zuen gainditzen adin hori) eta 80 urte baino gehiago dituzten pertsonen kopurua bikoiztu egin da 20 urtean–, aurreikus daiteke horrek ere eragina izango duela mendekotasun-egoera duten pertsonen multzoan.

Txosten hau bukatzen ari ginen egunetan, erakunde edo organismo hauek emandako informazioa eta balioespenak ditugu eskuartean:

- Bizkaiko Adinekoen Kontseilua.
- Gipuzkoako Adinekoen Kontseilua.
- HARTU-EMANAK, Etengabe Ikasteko eta Gizartean Parte Hartzeko Helduen Elkar-
tea.
- Alzheimer Gaitza duten Pertsonen Senideen Euskadiko Elkarleen Federazioa (AEF-FAE) eta bere baitan hartzen dituen elkarteak.
- Arabako Mendeko Adinekoen Familia Zaintzaileen Elkartea “ASCUDEAN”.

4.1.1. Bizkaiko Adinekoen Kontseilua

Kontseiluak, kide anitzeko organo aholkulariak eta kontsultarakoak, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintzako Sailera atxikita dagoenak, 39/2006 Legearen (AMAL) aplikazioa eta garapena nola balioetsi dituzten jakinarazi digute, eta era berean, Autonomiarako eta Menpekotasunari Arreta emateko Sistema (AMAS) hobetzeko proposamen multzo baten berri ere eman digute, [12/2008 Legean, abenduaren 5ekoak](#), Gizarte Zerbitzuei buruzkoan, xedatutako Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren testuinguruan:

Orain, Kontseiluaren balioespenaren eduki nagusiari buruz hitz egingo dugu:

- Lege hori aurrerapen eztabaida ezina da gizarte-politiken arloan, eskubide subjektibo gisa prestazioak eta zerbitzuak eskuratzea aitortu eta arautzen baitu.
- Bermatu beharreko balia bideak nahikoak diren jakiteko aurretik azterketa ez egi-teak, gutxienez araudia ezartzeko lehen urratsetan, profesionalak libre egoteko eta prestatzeko arazoak eragin ditu, sartzeko-prozedura arrazoizko epeetan egiten dela ziurtatzeko.
- Sistema iraunkorra egingo duen egituraren plangintza eskasa hautematen da, bai eta finantzazio defizita ere sistema abian jartzeko nahiz ondoren sistemari eusteko.
- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren iraunkortasunari eta finantzazioari buruz sakon hausnartzea beharrezkoa da.
- Hasierako komunikazio-estrategiak itxaropen handiak sortu zituen herritarren artean, sistema martxan jartzeko beharrezko balia bideak, irizpideak, tresnak eta prozedurak oraindik ezartzeko zeudenean.
- Prestazioak eta zerbitzuak eskuratzeko atzerapena azpimarragarria da.
- Mendekotasuna balioesteko, eta prestazioak eta zerbitzuak eskuratzeko prozedurak –Legea onartu aurretik jada bazeuden prestazio eta zerbitzu gehienak– are gehiago burokratizatu du haien esleipena eta lehen eta bigarren mailako arretako gizarte zerbitzuetan kolapsoa eragin du (balorazio- eta diagnostiko-taldeetan saturazioa, itxaro-zerrendak...). Oinarrizko gizarte zerbitzuak saturatzeak mendekotasunaren balorazio-eskaerarekin batera joan behar duten gizarte-txostenak egitea baldintzatu du.
- Legeak Autonomiarako eta Menpekotasunari Arreta emateko Sistema (AMAS, 2007-2014) pixkanaka ezartzeko xedatu duen aldia gehiegi luzatu dela uste da. Aldi horretan, prestazioak eta zerbitzuak jasotzeko eskubidearen eraginkortasuna pixkanaka gauzatuko da, pertsonaren mendekotasun-mailaren arabera.
- Autonomiarako eta Menpekotasunari Arreta emateko Sistema (AMAS) sartzeko unibertsaltasuna ez dago bermatuta praktikan (arretan izan beharreko gutxieneko babes- eta intentsitate-maileri dagokienez izan ezik). Izan ere, zerbitzu-sarea oraindik ez dago erabat ezarrita (hori dela eta, zerbitzuari lotutako prestazio ekonomiko bat ematea aztertzeko ari dira, zerbitzua eskuratu ezin dutenentzat).
- Autonomia-erkidagoen, lurralde historikoen eta udalerrien artean desberdintasun esanguratsuak daude prestazioei eta zerbitzuei, horiek eskuratzeko baldintzei, arretaren edukiari eta intentsitateari, prestazioen eta zerbitzuen bateragarritasunari edo finantzaketan ordaintzeko betebeharra duten pertsonen partaidetzari dagokienez.

- Zerbitzuen eta prestazioen katalogoak laguntzeko izaera nabarmena duela haute-maten da.
- Legeak ez du argitzen prebentzioaren eta autonomiaren sustapenaren arloan zer ekimen mota bultzatu nahi dituen (15. eta 21. artikulua).
- Arreta-maila arrunt oso oinarrizkoa bermatzen du, prestazioek eta zerbitzuek jada autonomia-erkidego, lurralde historiko eta udalerrri batzuetan zuten garapenarekin lotuta. Hala, Bizkaian, legeak xedatzen dituen zerbitzuak eta laguntzak jada ezarrita zeuden, gaueko zentzuak eta prestazio ekonomikoak izan ezik. Legea pixkanaka ezartzetik eratorritako konpromisoek, orain arte, ez dituzte gorantz aldatu Bizkaiko Foru Aldundiko [Gizarte Ekintza Sailak](#) jasotako helburuak zerbitzu eta laguntza horiei dagokienez. Gainera, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako prestazioen eta zerbitzuen katalogoak eta Gizarte Ekintza Sailak garatutako programek barne hartzen dituzte [39/2006 Legeak](#) jasotzen ez dituen ezinduei laguntzeko eta autonomia sustatzeko zerbitzuak, hala nola laguntza-zerbitzuak zaintzaileei, eta gizarte zerbitzuen alorrean parte hartzeko eta gizarteratzeko zerbitzuak .
- Mendekotasuna Balioesteko Baremoa (MBB) ez da egokitzen adimen urritasuna duten pertsonen errealitatera, ez eta gaixotasun mentalak dituzten pertsonen errealitatera ere. Izan ere, tresna hori eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak egi-teko ahalmen funtzionala balioesteko da.
- Legeak gizarte zerbitzuen sisteman jartzen du arreta osoa, nahiz eta aipatu gizarte-eta osasun-koordinazioa sendotzea beharrezkoa dela.
- Bi arrisku hautematen dira:
 - ezinduei laguntzearen eta autonomia sustatzearen eta gizarte zerbitzuen sistemaren artean identifikatzeak behar horiek dituen beste sistema batzuen konpromisoa murriztea (hala nola osasun-sistemarena);
 - gizarte zerbitzuen sistemak ezinduei laguntzen eta autonomia sustatzen jartzea indar osoa, berezkoak dituen eta adinekoei ere eragiten dieten beste behar batzuen arreta baztertuz.
- Legearen hasierako proiektua adinekoei zuzenduta zegoen. Beraz, azkenean, ez ditu beste talde batzuen beharrak jaso, eta ez dago pertsona autonomoengana zuzendua (zerbitzuen, prestazioen eta autonomia sustatzeko neurrien definizioan defizit bat dago). Horrenbestez, ez da autonomia sustatzeko eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arretarako lege integral bat.
- Legeak hirugarren sektorearen partaidetza historikoa eta administrazio publikoei gizarte zerbitzuak ematen eskainitako laguntza aitortzen du, baina ez dio tratamendu bera ematen laguntza informalarri.
- Etxeko laguntza-zerbitzua (ELZ) eskuratzeko egungo baldintzek laguntza hori behar harko luketen pertsona ugari zerbitzu hori erabiltzeko asmoa kentzen diete.
- EAEk geriatriako espezialitatea ez izatea salatzen dute.
- Tokiko erakunde batzuk zorrozki aplikatzen ari dira legea ezartzeko egutegia. Horrenbestez, I. gradua II. maila dutela balioetsi zaien pertsonak ez dute etxeko laguntza-zerbitzua (ELZ) jasotzeko eskubiderik izango 2011. urtera arte. Halaber, 727/2007 Errege Dekretuan ezarritako gutxienezko emateko arretaren intentsitatea doitzen hasi dira (70 eta 90 ordu artean hilean III.2. graduarentzat.; 55 eta 70

ordu artean III.1. graduarentzat; 40 eta 55 ordu artean II.2. graduarentzat; eta 30 eta 40 ordu artea II.1. graduarentzat).

- Familia-ingurunean zainketak emateko prestazioak (FIZPE) zainketa-lanak aitortzen ditu. Egiatan, emakume askok egiten dituzte lan horiek, eta hala, gizarte segurantzian afiliatzeko, alta emateko eta kotizatzeako aukera izango dute. Prestazio hori ematea, salbuespenekoa izango zela aurreikus arren, orokortzen ari da zerbitzuen kalterako. Izan ere, plazen eskaerak eguneko zentroetan atzera egin du.

Kontseiluak, adierazitako gaiak aztertu eta gero, hobetzeko zenbait proposamen jakinarazi dizkigu:

- Prestazioak eta zerbitzuak eskuratzeko epeak murriztea, bai eta balorazioa egiteko eta Banakako Arreta Plana eskuratzeko batez besteko denbora ere, prestazioak eta zerbitzuak eskuratzeko prozedura erraztea (eskaera *online* BFARA iristea, Gipuzkoan egiten den bezala), eta erabiltzaileei eskainitako informazioa eta orientazioa hobetzea.
- 12/2008 Legearen markoan, zerbitzuen katalogoari buruzko dekretuaren (zerbitzuen eta prestazio ekonomikoen edukia ezarri beharko du, besteak beste, baina baita horien zenbatekoak, horiek eskuratzeko baldintzak eta baterako ordainketa), Gizarte Zerbitzuen maparen, EAEko gizarte zerbitzuen plan estrategikoaren eta memoria ekonomikoaren arteko beharrezko koherentzia bermatzea.
- Atsedeen-zerbitzua, foru-erantzukizuna duena, zaintzaileei laguntzeko zerbitzuarekin, udal erantzukizuna duenarekin, lotzea.
- Zerbitzuen eta prestazioen erabilera konbinatua kontuan hartzea, esku-hartzea pertsonen eta bere laguntza-sare informalaren beharretara eta ahalmenetara egokitze moduan. Hala, esate baterako, mendekotasun handiko egoeran dauden pertsonen kasuan, beharrezkoa litzateke etxeko laguntza-zerbitzua beste prestazio edo zerbitzu batzuekin konbinatuta sustatzea. Izan ere, pertsona horientzat gehienez ezarritako hileroko 90 arreta-orduak ez dira nahikoak. Halaber, komenigarria litzateke familia-ingurunean zainketak emateko prestazio ekonomikoa etxeko laguntza-zerbitzuak, eguneko zerbitzuak, gaueko zerbitzuak eta atsedeen-zerbitzuak eskuratzearekin bateratzea (aukera horiek jada kontuan hartzen dira Araban eta Gipuzkoan, dagozkien kenkariak aplikatzearen bidez).
- Gaur egun, Bizkaian, mendekotasun-egoeran dauden pertsonen eta haien senideei arreta bermatzen jartzen da arreta osoa. Hala ere, hori guztia bezain garrantzitsua da mendekotasuna prebenitzea eta autonomia sustatzea, lehen mailako (telelaguntza, ELZ, laguntza-zerbitzuak familia zaintzaileei) eta bigarren mailako (estimulazio goiztiarra, atsedeen-zerbitzua) arreta-zerbitzuak sustatzearen bidez. Era berean, beharrezkoa da adinekoen zahartze aktiboa eta gizarte-partaidetza laguntzen duten programak babestea eta erraztea, beste arreta-sistema batzuekin lankidetzan: Hezkuntza (ikaskuntza bitzita osoan zehar), kultura (aisialdira sarbidea, aisialdi aktiboa sustatzea), etab.
- Etxeko laguntza-zerbitzuaren bideragarritasuna epe ertainera eta epe luzera bermatuko duten formulak bilatzea.

- Zenbaitetan, eguneko zentroak behar baino gutxiago erabiltzen dira. Horrenbestez, komeni da laguntza-baliabide horien okupazio handiagoa bermatzeko formulak aztertzea (ordutegiak malgutzera, egun erdia edo asteburuak egoteko aukera, baliabide hori egokitzea mendekotasun arina edo neurrizkoa duten pertsonen arretarako, zentroen eskaintza lurraldean banatzea, etab.) edo, aitzitik, eskaini behar diren plazen bolumen osoa berriz aztertzea.
- Gaueko zentroen –edo zerbitzuen– ezaugarriak argitzea eta beren behar eraginkorra aztertzea, ia ez baitago eskaririk. Bi esperientziaren berri dago: bata, Gasteizen, EULENek kudeatutako titulartasun publikoko zentro batean, eta bestea, Donostian, [Matia Fundazioaren](#) Julián Rezola zentro gerontologikoan.
- Txandaka lan egiten duten pertsona zaintzaileei edo egunaren bukaeran eta gauean asaldura-arazoak jasaten dituzten –gauean nora ezean ibiltzea, suminkortasuna, agresibitatea edo zaintzaileari aurre egitea– demenziak dituzten pertsonak zaintzen dituztenei laguntzeko balioko lukete, atsedean har dezaten eta egunez zainketa-lanekin jarrai dezaten.
- Bizkaiko Foru Aldundiak, Gipuzkoakoak eta Arabakoak ez bezala, ez du arautu zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa. Badirudi komenigarria dela zerbitzua arautzea, 39/2006 Legearen eta Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearen arteko koherentzia bermatuz⁷⁰.
- FIZPEren erabilera desegokiak saihesteko edo zaindutako pertsonaren nahiz zaintzailearen borondateari erantzuten zaiola bermatzeko kontrol-neurriak ezartzea (zainketak emateko eta zenbait kasutan aldiak aldi ebaluazioak egiteko zaintzailearen gaitasunak zehazteko irizpideak finkatzea). Saiatu behar da FIZPE ez izaten saturazioagatik edo eskuratzeepe gehiegizko atzerapenaren ondorioz beharrezko baliabidea esleitu ezin denean jaso beharreko prestazio bat.
- 39/2006 Legearen 36. artikuluan aurreikusitako profesionalak eta zaintzaileak prestatzeko eta gaitzeko neurriak sustatzea.
- [Osasun Sailarekin](#) protokolo bat ezartzea, lehen mailako arretako medikuek hirugarren pertsonentzat txostenak egiten dituztela bermatuko duena, mendekotasun-egoerak baloratzeko beharrezkoak direnean.
- Esku-hartzearen aldiak aldi jarraipena bermatzea. Jarraipen- eta kontrol-sistemak ezartzea.
- Mendekotasuna balioesteko tresnak (MBB) eta orientabide-tresnak (BAP) 12/2008 Legean aurreikusitakoekin konektatzea: gizarte-fitxa eta arreta pertsonalizaturako plana.
- Gizarte- eta osasun-koordinazioan aurrera egiten jarraitzea, baterako erantzunak hobetzeko: beharrezkoa da osasun-sistemak nahiz gizarte-zerbitzuenak aurrera egitea mendekotasun-egoerei egokitutako erantzunak eratzeke moduari buruzko hausnarketan, bi sistemen iraunkortasuna bermatuz epe ertainera eta epe luzera. Beraz, premiazkoa da zenbait gairi heltzea, hala nola bilakaera kronikoko gaixota-

⁷⁰ Proposamen horiek Bizkaiko Foru Aldundiak 90/2010 Foru Dekretua, ekainaren 29koa, mendetakosuna duten pertsonentzako Bizkaiko foru egoitzen zerbitzuari loturiko prestazio ekonomikoa arautzen duena argitaratu baino lehen jaso ziren.

sunen arreta, mendekotasun-egoeren prebentzioa eta bizi-baldintza osasungarrien sustapena, erabiltzailearen inplikazioa, eta lehen mailako arretaren eta ospitaleko arretaren arteko koordinazioa hobetzea.

4.1.2. Gipuzkoako Adinekoen Kontseilua

Kontseilua adinekoek eta adinekoekin lotutako erakundeak, elkarteak eta organizazioak parte hartzeko berariazko foro bat da, biztanleriaren sektore horren ongizatea lortzeko politiken eta jarduketan planifikazioan eta jarraipenean laguntzeko.

Kide anitzeko organo bat da, kontsultarakoa, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuari atxikia, adinekoekin zerikusia duen gizarte politikaren diseinuan, abian jartzean eta jarraipenean laguntzeko lana esleituta zaiona.

Gizarte Politikako Departamentuko Idazkaritza Teknikoak jakinarazten digunaren arabera, orain azalduko diren balioespenak eta ekarpenak Kontseilua osatzen duten elkarteek eta adinekoek egindakoak dira, erakunde publikoen edo enpresa kudeatzaileen ordezkartzan Kontseiluan parte hartzen dutenen esku-hartzerik gabe.

- Ezaugarri horiek dituen legea bat onartzea bera oso positiboa da; oso beharrezkoa zen familia asko erabat utzita baitzeuden.
- Mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzen dituzten senideei emandako laguntza ekonomikoa, legean jasotakoa, legearen lorpenetat hartzen da.
- Mendekotasun-araudiak lanpostuak sortu ditu eta sortzen jarraituko du.
- Legearen garapena moteltzat hartzen da. Halaber, autonomia-erkidego batetik bestera aldatu egiten dela ere uste da. Zehazki, euskal administrazio publikoek egindako garapenarekin lotuta, balorazioa oso positiboa da. Lege hau beste autonomia-erkidego batzuetan egoera okerragoan dagoela uste da.
- Teknikariek mendekotasuna balioesteko erabiltzen dituzten irizpideak desberdinak dira.
- Balioespenaren emaitzak ez ditu familia asko asetzen.
- Komenigarria litzateke Estatuko Administrazioak beharrezko baliabide teknikoak eta ekonomikoak jartzea, Legearen garapen eraginkorra eta unibertsala bermatzeko.
- Legearen ezartzeak mendekotasun-egoeran dauden pertsona asko, oinarrizko gizarte zerbitzuetara gerturatu ez zirenak, zerbitzu horietara gerturatzea eragin du. Horri esker, zehaztasun handiagoz jakin da mendekotasunaren errealitatea zer-nolako den.
- Legeak zerbitzuetarako eta prestazioetarako sarbidea bermatzen du, eskubide subjektibo gisa hartzen baitu.
- Mendekotasun-egoeran ez dauden adinekoak edo oso adinekoak bizitegi-zentroetara sartzeari zailtasunak eragiten du, nahiz eta behar duten. Alderdi horrek eragin berezia du premiazko egoeretan (familiararen edo auzokoen laguntzarik ez duten pertsonak, ospitalean sartu ondoren edo erorketa bat izan ondoren). Kasu horietan, mendekotasuna balioesteko prozesuak zerbitzuak eskuratzea atzera dezake eta eskuratze horrek

azkarragoa izan beharko luke. Udalerrri batzuetan larrialdi-protokoloak daude, baina beste batzuetan ez.

- Balioespena egiteko irizpideek gai fisikoetan jartzen dute arreta batez ere, zenbait alderdiri arreta ez jarriz, hala nola kudeaketak egiteko gizarte-ahulezia eta ahulezia pertsonal gabeziari, eta pertsonaren alkoholismoari.
- Prestazio ekonomikoak ematearen bidez, ez da bermatzen pertsona mendekoen zainketa zuzena etxean. Batzuetan, ezin da jakin zainketa horiek ondo ematen diren ala ez.
- Elkarrekin –administrazioen eragile laguntzaileak izan beharko zutenak– baztertuak geratu dira.
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren kudeaketa bizia izaten ari da. Mendekotasuna balioesteko 15 egun eta gehienez bi hilabete prestazio ekonomikoen izapidetzen. Zerbitzuak (hala nola eguneko zentroak eta harrera-zentroak) eskuratzeko atzerapenak erregistratzen ari dira, libre dauden tokien arabera baita. Zerbitzu horiek eskuratzeko itxaro-denboran desberdintasunak daude, bizitokiaren arabera. Hala, herri handietan itxaro-zerrendak luzeagoak dira.
- Gaixotasun kognitiboak dituzten pertsonen balioespen-prozedura azkarragoak eta etxeko laguntza zerbitzua arinago abian jartzea behar dute. Pertsona horien arreta ez dago behar bezala jasota sisteman.
- Premiazkoa da urritasuna duten edo muturreko egoeretan dauden adinekoentzat arreta psikologikoko programak sustatzea.
- Komenigarria litzateke gizarte zerbitzuen egungo ereduari, eta biztanleriaren zahartzea eta mendekotasun-egoeren areagotzea ikusita, eredu horrek duen bideragarritasunari buruzko eztabaida bat eratzea, eta norberaren autonomiaren eta mendekotasunaren arretaren arloan plan estrategikoa bat sortzea.

4.1.3. Bazkideetako adinekoak gizarte-partaidetzarako

HARTU-EMANAK, adinekoen etengabeko ikaskuntzarako eta gizarte-partaidetzarako elkarrekin da, 2002. urtean sortua. Gizarte parte-hartzaileagoa, demokratikoagoa eta solidarioagoa sustatzeko egiten du lan, gizarte-partaidetza aktiboaren, etengabeko ikaskuntzako proiektuen garapenaren eta elkarrekin kideek, oro har, gizarteari, eta batez ere, belaunaldi berriei, esperientzia transmititzearen bidez. Bizkaian dago.

2006. urtean, "Adinekoak eta Gizarte Zerbitzuak" izeneko lan-talde bat sortu zen. Talde horretan, AMALekin lotutako alderdiak aztertzen dira, besteak beste.

Elkarte horrek bidali digun balorazioan landu dituen gai nagusiak azpimarratuko ditugu:

- Legearen alderdi hauek positibotzat jotzen dituzte:
 - Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen autonomia eta arreta sustatzeko eskubidea biztanleriaren eskubide subjektibo gisa aitortzea.
 - Mendekotasun-graduak definitzea.
 - Prestazioen eta zerbitzuen katalogo bat ezartzea.

- Biztanleria pozik eta itxaropentsu zegoen AMALek eskaintzen zituen aukerak ikusita, baina orain etsita, mesfidati eta kritiko dago erakundeen aurrean, legearen aplikazioan izandako atzerapenengatik eta adostasun ezagatik.
- Ez du zehazten irizpide objektiboen bidez banakako mediku-txostenaren gizarte-ingurune osagarriaren balorazioa.
- Elkarre horren ustez, adinekoen eta hirugarren sektorearen elkarre-mugimenduen ordezkaritza AMALen 40. artikuluan jasotako Kontsulta Batzordean egon beharko litzateke. Oro har, ezinbestekoa da Adinekoen Elkarrean parte-hartzea eta ordezkaritza hobetzea Kontsulta Organoetan eta Aholku Kontseiluetan.
- Denbora-horizontea, egun 8 urtetan ezarria, 6 urtera aurreratu beharko litzateke, AMAL erabat ezartzeko.
- Eusko Legebiltzarrak abenduaren 5eko 12/2008 Legea, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa, onartzea oso positibotzat jotzen dute.
- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema orokortzeko epea, indarrean sartu zenetik hasita 8 urtekoa, ez litzateke handiagoa izan behar 5 urte baino.
- Gizarte- eta osasun-espazioa ez da behar adina arautzen eta espazioa horren garapenaren etorkizuna zalantzarikoa da.
- EAERI dagokionez, ez da sumatu aurrerapenik gizarte- eta osasun-espazio horren garapenean. Gizarte- eta osasun-esparruaren artean loturarik ez dagoela ikusten da, batez ere gaixoari arreta emateko jarraibideei dagokienez, osasun-egoerak aldaketak (okerrera egitea edo onera egitea) izaten direnean.
- Balorazio-prozeduren eta banakako arreta-plana egiten gehiegizko atzerapena.
- Udaletan egoitza duten oinarrizko gizarte zerbitzuetan hasierako kolapsoa.
- Etxeko laguntza-zerbitzuen ahulezia, nahiz eta adinekoek beren autonomia indartzeko eta ingurune naturalean egoteko gehien eskatzen duten zerbitzuetako bat izan. Premiazkoa da zerbitzu hori hobetzea.
- Baliabide ekonomikoaren hornidura ez da nahikoa; beharrezkoa da finantzazio publiko iraunkor bat bermatzea.
- Egun, gaitasunak administrazio publikoaren artean banatuta dagoen modua ez dela egokia uste dute, eta erakundeen arteko koordinazioa eta harmonizazioa zailtzen duela. Gainera, sistemaren eta baliabideen eraginkortasuna arriskuan jartzen du.
- Informazio-, orientazio-, balorazio- eta diagnostiko-zerbitzuak hobetzeko beharra dagoela ikusten da, bai eta oinarrizko gizarte zerbitzuen zeregina indartzeko ere.
- Beharrezkoa da etxean bizi diren mendeko adinekoei, eta beren familiei edo zaintzailleei arreta eta laguntza emateko programak indartzea eta sendotzea, batzuen nahiz besteen bizi-kalitatea hobetzen laguntzeko. Eredu ona da Bizkaiko Foru Aldundiko [ZAINDUZ](#) programa.
- Komeni da biztanleriaren arreta hobetzea, dagozkien organismoak premiatuz beren web-orrietan ageri den informazioa beti eguneratuta izan dezaten, batez ere indarrean dagoen araudiari dagokionez.

4.1.4. Alzheimer gaixotasuna duten adinekoak

Alzheimer gaixotasuna zahartzearekin lotutako gaixotasun neurodegeneratiboa da. Egia-tan, endekapenezko dementsia horren kopuruak handitu egiten dira adinarekin. Hala, 65-69 urteen artean biztanleriaren %1ak du; 90 urtera arte %32-38ak; eta 95 urte edo gehiago dituztenek %40-50ak.

Kalkuluen arabera, gaur egun, 20.000 pertsona inguruk dute gaixotasun hori Euskadin. Aurreikuspenen arabera, kopuru hori handitu egingo da datozen urteetan, bizi-itxaropena pixkanaka gorantz doa eta.

Egoera aurreratuan, memoriari, denbora- eta espazio-orientabideari, hizkuntzari, arazoiketari, adimen kritikoari eta erabakiak hartzeko ahalmenari eragiten dio, eta horiekin batera, mugimendu asaldurak eta beste arazo batzuk ere izaten dira. Horrek guztiak eragiten du pertsona mendekotasun handiko egoeran egotea.

Gaixotasunak gaixotasuna duen pertsonari, familiari eta gizarte osoari eragiten dio. Gaixoaren narriadura-prozesuak inpaktu emozional handia eragiten du bere pertsona maitteengan. Gainera, gertukoenek zama fisiko eta psikiko gogorra jasaten dute, eman beharreko zainketak direla eta.

2009ko martxoaren 10ean, [Euskadiko Alzheimerdun Gaixoen Senitartekoen Elkartearen Federazioak](#) (AEF-FAE), Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko elkarteak biltzen dituen, onura publikokotzat aitortu zen. Erakunde horiek 20 urte baino gehiago daramate lanean, Alzheimerria duten pertsonen eta beren familien bizi-kalitatea hobetzeko, gizarte- eta hezkuntza-programen, laguntza-taldeen, psikoestimulazio-zentroen eta asteburuko zentroen, prestakuntza- eta hedatze-lanen, fisioterapia-zerbitzuen, arreta psikologikoaren eta boluntario-programen bidez.

Orain, AMALi eta AMALen ezartzeari buruz emandako balorazioaren eduki nagusia jasoko dugu:

- Oro har, Bizkaiko Adinekoen Kontseiluak egindako balioespenarekin bat datoz.
- Positiboa da Legea zainzaile senitartekoen lana aintzatestea, familia-inguruneko zainketetarako prestazio ekonomikoaren bidez, eta gizarte segurantzaren haiei alta ematea jasotzea. Hala ere, prestazioak bere horretan ez du bermatzen mendekoari kalitateko arreta ematen zaiola, eta mendekoaren gizarte-bakartzea betikitzen lagun dezake.
- Hasierako kolapsoa eta azterketa-prozeduran izandako gehiegizko atzerapenak sortutako egoera pixkanaka gaituztuta, baina oraindik ez dira konpondu larrialdi-egoerak.
- Legearen hartzaileen eta beren senideen artean Legeak eskaintzen dituen prestazioei buruzko informazio eza dagoela antzematen da.
- Gizarte- eta osasun-koordinazio eskasa.

- Balioespen-prozesuan, komenigarria litzateke demenzia duen pertsonak jasotako informazioa zaintzaile nagusiak emandakoarekin alderatzea eta argitzea, bai eta Banakako Arreta Planean haien parte-hartzea bermatzea ere, Alzheimerra duten pertsona askok ez baitakite gaixotasuna dutenik, ez dira konturatzen zer jardueretan dituzten benetako arazoak edo iraganera jotzen dute egungo aukerei buruzko informazioa emateko. Zaintzaile nagusiarekin gaixoa gabe egiten den kontaktu hori protokolizatu egin beharko litzateke.
- Beharrezkoa da balioespena egiten dutenek demenziari buruzko berriazko prestakuntza jasotzea. Oso komenigarria izango litzateke neuropsikologo bat egotea balorazio-taldeetan.
- Balorazio-sistemak muga fisikoetan jartzen du arreta eta beste arlo hauek bigarren mailan uzten ditu, nahiz eta urritasun handia eragiten duten faktoreak izan:
 - Asaldura kognitiboak: haluzinazioak, eldarnioak, gezurrezko ezagutzak, memoriaren, arretaren, orientazioaren eta abarren asaldurak.
 - Jokabidearen asaldurak: agresibitatea, noraezean ibiltzea, objektuak ezkutatzea eta galtzea.
 - Emozio-egoera: lehen etapetan, demenziak depresioarekin eta/edo antsietatearekin batera gertatzen dira maiz, eta horrek zenbait jarduera egitea oztopa dezake.
 - Funtzio betearazleak: ekintzak egiteko eta planifikatzeko zailtasunak.
 - Lo egiteko arazoak.
- Mendekotasun-egoera aztertzeko prozedura luzea da, kontuan hartzen badugu Alzheimer gaixotasunaren bilakaera desberdina dela pertsona bakoitzarengan, eta batzuetan, egoera goitik behera alda daitekeela oso denbora-tarte txikian.
- Gizarte-ingurunearen eta gizarte- eta familia-egoeraren azterketa ezinbestekoa da, mendekotasun-egoera balioesteko, bai eta BAP egiteko ere.
- Berriazko baliabideak falta dira demenzia duten pertsonentzat. Halaber, beharrezkoa da dauden baliabideak egokitzea, kalitate handiagoko arreta bermatzeko.
- Positiboa da jasotako prestazioek zergarik ez izatea.
- Hartzaile gehienek (bazkide tutako zaintzaile nagusien ia %35ak 65 urte baino gehiago du) ez dute ia ulertzen Administrazioak erabilitako hizkuntza. Hizkuntza hori erraztea, eta presentiazko informazioa eta orientabidea ematea, lagungarria litzateke ulermenerako.
- Beharrezkoa da etxeko arreta ematen duten profesionalen prestakuntza eta akreditazioa.
- Komeni da larrialdiko etxeko laguntza-zerbitzuak, pertsona horien etxeko zainketan gertatu ohi diren egoera kritikoei erantzun azkarra eta eraginkorra emango dietenak, abian jartzea.
- Eguneko zentroen antzeko atsedeen-zerbitzuak sortzea proposatzen da, baina estaldura-ordu gutxiago dituztenak; eguneko zentro batzuetan arratsaldez libre geratzen diren tokiak aprobetxatzea eta adinekoentzako eguneko landa guneeetan demenzia ertaina duten pertsonentzat toki gehiago jartzea eta asteburuetan irekitzea, pertsonak bere ohiko gertuko ingurunean jarrai dezan.

4.1.5. Zaintzaileak

Adinekoak bere ohiko ingurunean ahalik eta denbora gehiena egotea egokiena dela argi eta garbi dago, eta denak horretan ados daude. Gaur egun, hori guztia zaintzaileek egiten duten lan goraipagarriari esker lortzen da.

Mendeko pertsonaren familiakoak diren zaintzaileen %80 baino gehiago emakumeak dira, eta beren batez besteko adina 52 urtekoa da gutxi gorabehera (%20ak baino gehiagok 60 urte baino gehiago ditu).

Azterketa askok adierazten dute zaintzaileen emozio-egoerak kalte handiak jasaten dituela, antsietate- eta depresio-maila kezkarriak dituztela. Gainera, jasaten duten gehiegizko zamak eragina du beren osasun-egoera fisikoaren narriaduran eta bizi-estiloa aldatzeak gizarte-bakartze handiagoa izatera bultzatzen dute.

Bestetik, duela gutxi azterketa batek⁷¹ adierazi du EAEn adinekoen zaintzaileen lanak euskal administrazio publikoei 1.014 eta 2.415 milioi euroren⁷² artean aurrezten laguntzen dietela –arreta-ordua baloratzeko hartzen den irizpidearen arabera–.

Arabako Mendeko Adinekoen Familia Zaintzaileen Elkarteak “[Ascudean](#)” AMALen ezartzeari buruz zer iritzia duten jakinarazi digute. Hemen laburbilduko dugu:

- Araudi horren ezartzeak ez du eraginik izan mendekoen eta beren senideen bizitzakalitatearen hobekuntzan.
- Legea aplikatzeari esker, talde ugari baten errealitatea azaleratu da, legeak jasotzen dituen prestazioak eta zerbitzuak behar dituenena.
- Ohartzen dira prestazio ekonomikoek, nahiz eta salbuespenezkoak izatea nahi den, zerbitzuak ordezkatzeko arriskua dagoela, hain zuzen ere zerbitzurik ez dagoelako. Itxaro-zerrendak daude eguneko zentroetan, harrera-zentroetan eta etxeko laguntza-zerbitzuetan.
- Haien ustez, egokiagoa izango litzateke berariazko balorazio-baremoak ezartzea adin-tarteentzat eta urritasun motentzat.
- Ez zaie egokia iruditzen baremoak “iraunkorrak ez diren” gaixotasun larriak, hala nola onkologikoak, dituzten pertsonak kanpo uztea.
- EAE osorako baterako eredu bat eskatzen dute zerbitzuei eta zerbitzuen esku-ratzeari dagokienez.
- Lege hori aplikatzeko behar adina finantza-baliabide ez dagoela uste dute.
- Zerbitzuen esleipena nabarmen atzeratzen ari dela sumatzen dute, legea indarrean jarri aurreko egoerarekin lotuta.

⁷¹ Gaztela-Mantxako eta Murtziako unibertsitateek eta Urrutirako Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalak (UHUN) Zerga Ikasketen Institutuarentzat egindako azterketa.

⁷² Iturria: Oliva, Vilaplana eta Osuna (2011), EDAD 2008ko datuak eta Espainiako Nazio eta Eskualdeko Kontularitzari buruzko informazioa (EIN) oinarri hartuta

- Beste zerbitzu batzuk eskuratzearen ondorioz familia-ingurunean zainketak emateko prestazio ekonomikoetan izandako murrizketak direla eta, familia askok uko egiten diete zerbitzu horiei.
- Hirugarren sektoreak atzera egin duela, eta irabazi-asmoa duten enpresek protagonismo handiagoa lortu dutela hautematen dute.
- Mendeko gisa balioetsi ondoren hil diren pertsonen kasuak izan dira, haien familiei prestaziorik ordaindu ez zaieneko, legez aurreikusitako atzeraeragina izan arren.
- BAPEk dauden balia bidetara bideratuta daude, ez benetako beharrera.
- Gizarte zerbitzuei buruzko legea onartu eta gero antzematen den egoera berriaren arabera, kasu batzuetan, foru-erantzukizuneko zerbitzuek (prestazio ekonomikoak, eguneko zentroak...) mendekotasun-egoeran dauden pertsona batzuk artatuko dituzte, eta udal-erantzukizuneko zerbitzuek (zaintzaileak laguntzeko zerbitzua), berriz zaintzaileak artatuko dituzte. Neurri horrek erakundeen arteko koordinazio ahula kalteztarren beldur dira.
- Autonomia-erkidegoan datu-sistema zentral bat, esku hartzeko eredu komun bat eta zerbitzuen katalogo bakar bat prestatzea premiazkoztat jotzen dute.
- FIZPERen zenbatekoak ez luke lanbide arteko gutxieneko soldata baino baxuagoa izan behar.
- Autonomiarako eta Menpekotasunari Arreta emateko Sistema (AMAS) gizarte segurantzako sisteman sartu beharko litzatekeela uste dute, berme handiagoak emateko.
- Zehazki, Araban, mendekotasun-egoeran dagoen pertsona gisa aintzatestea ez da hobekuntza izaten ari ordura arte Udalak autonomo gisa artatzen zuen pertsonarentzat (ELZ ordu gehiago zituen, ebazpenak azkarrago ematen ziren, etab.).
- Araban ELZrekin arazo asko erregistratzen ari direla diote: *“itxaro-zerrenda luzea dago eta familiek ez dakite noiz izango diren zerbitzu horren onuradunak; familiak gure elkartera etortzen dira 2008ra arte genuen larrialdiko zerbitzuaren bila. Urte horretan, aldundiak diru-laguntzak kendu zizkigun eskumen publikoko zerbitzu bat zela uste baitzuten.”*
- Araban FIZPERi eta ZLPri buruzko ebazpenetan gehiegizko atzerapena dagoela antzematen dute.
- Eskaera datatik prestazio ekonomikoen atzeraeragina kentzea oso kaltegarria izaten ari dela azpimarratu nahi dute.
- Eusko Jaurlaritzak araudian egindako aldaketa ongi dagoela uste dute, mendekotasun-egoeran dauden pertsonen gizon eta emakume zaintzaileei zuzendutako laguntza ekonomikoa, lan eta familia bizitza bateratzekoa, berdintzeko (lehen handiagoa zen gizonentzat) egin zena, hain zuzen.

4.2. Urritasuna duten pertsonak

Ezgaitasun fisikoak, intelektualak edo zentzumen-ezgaitasunak dituzten pertsonak ordezkatzen dituzten gizarte-entitate multzo batek AMALen aplikazioari buruzko balioespe-
nak helarazi dizkigu, bai eta hobetzeko zenbait proposamen ere.

- [FEKOOR](#) - Gutxitasun Fisikoa eta/edo Organikoa duten Bizkaiko Pertsonen Federazio Koordinatzailea.
- [EGINAREN EGINEZ](#) - Gutxitasun Fisikoa duten Arabako Pertsonen Elkarte.
- [ELKARTU](#) - Gutxitasun Fisikoa duten Gipuzkoa Pertsonen Federazio Koordinatzailea.
- [ELKARTEAN](#) - Euskal Autonomia Erkidegoko Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Konfederazio Koordinatzailea.
- [ASPACE-BIZKAIA](#) - Buru-paralisiaren Bizkaiko Elkarte.
- [ASPACE-GIPUZKOA](#) - Buru-paralisiaren Elkarte.
- [ASPACE-ÁLAVA](#) - Elbarritasun zerebralaren eta antzeko gaitzen elkarte.
- [FEATECE](#) - Hartutako Kalte Zerebralaren Elkarte Euskadiko Federazioa (ATECE Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba).
- [GORABIDE](#) - Adimen-ezintasuna duten pertsonen aldeko Bizkaiko Elkarte.
- [ATZEGI](#) - Gipuzkoako Adimen Urritasuna duten pertsonen aldeko erakundea.
- [APDEMA](#) - Arabako Adimen Urritasuna duten pertsonen aldeko erakundea.
- [FEVAS](#) - Adimen Ezintasuna dutenen aldeko Elkarte Euskal Federazioa.
- [ONCE Euskadi](#).
- [Euskadiko Itsugarren Elkarte](#).
- [Euskadiko Down Sindromearen Elkarte](#).
- [Bidegain Elkarte](#) arreta goiztiarrerako.
- [FEVAPAS](#), Euskal Herriko Gorren Lagun eta Gurasoen Elkarte Federakundea.
- [ITXAROPENA](#) Ikusmen Urritasuna duten Pertsonen Elkarte.

Orain, jakinarazi dizkiguten gairik garrantzitsuenetako batzuk aurreratuko ditugu:

- Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen autonomia eta arreta sustatzeko eskubidea biztanleriaren eskubide subjektibo gisa aitortzea aurrerapen bat izan dela aitortzen dute.
- Oso positibotzat jotzen dute zainketa erantzukizun publikotzat hartzea.
- Lege berri horren bidez, familia-ingurune pertsona zaintzaileen lana aitortzen da (dagokion prestazio ekonomikoaren bidez, eta Gizarte Segurantzaren alta emanez eta kotizatuz).
- Oso positibotzat hartzen da kaltetutako pertsonaren balioespena ingurunean egitea.
- AMALek laguntza pertsonala kontratatzeke jasotzen duen prestazio ekonomikoa aurrerapen handi bat da, baina ez da nahiko litzatekeen helmena izaten ari. Kezkagarria iruditzen zaie Araban eta Bizkaian laguntza pertsonalerako prestazioaren aplikazio-esparrua hezkuntzarako eta lanerako sarbidea erraztu nahi den kasuetara soilik mugatzea. Haien ikuspuntutik, eguneroko bizitzako oinarrizko jarduera multzora ere

hedatu beharko litzateke, bai eta kultura-, aisialdi- eta denbora libreko jardueretara ere.

Haien ustez, adimen-urritasuna duten pertsonen informazioa eskuratzeko erraztasunak ematea, barrera kognitiboak eta komunikazio-barrerak gaindituz, laguntzeko pertsona horrek izan beharko litzuzkeen funtzioetan sartu beharko litzateke.

- AMAL indarrean sartzearekin sortutako itxaropenak ez dira ase. Halaber, hasierako informazio-lanaren falta sumatzen da.
- Ez dute sentitzen lege horrek babesten dituenik, hasiera batean, adinekoen taldearentzat eratu zela uste baitute.
- AMAL legea batez ere laguntzazkoa dela hautematen dute, ustez lortu nahi zen autonomiaren sustapenaren kaltetan, eta autonomia sustatzea bereziki garrantzitsua da urritasunak dituzten pertsonentzat.
- Araudiak ez du hobetu adimen-urritasuna duten pertsonen bizi-kalitatea.
- Inplikaturako administrazioen artean koordinazio eskasa dagoela hautematen dute.
- Gizarte- eta osasun-espazioa ahulki garatu dela ohartarazten dute.
- Legea pixkanaka ezartzeko epea luzeegiak dira.
- Hiru euskal aldundiek beren gisara garatu dute araudia, eta horrek agerian utzi du, praktikan, lurralde-desorekak gainditu egin behar direla eskuratzeko-baldintzetan, mendekotasun-egoera aztertzeako prozeduran, bateragarritasun/erregimenean, administrazioaren isiltasunaren ondorioetan, etab.
- Prestazio ekonomikoen zenbatekoak ez dira nahikoak.
- Mendekotasun-egoera aintzatesteko, BAP egiteko, eta prestazioak eta zerbitzuak esleitzeko aurreikusi ziren prozedurak konplexuegiak dira biztanleriarentzat eta, praktikan, gehiegizko atzerapenak eta oinarrizko gizarte zerbitzuetan kolapsoa sortzen dituzte.
- Mendekotasun-egoera aitortzeko ebazpenetan, edonola ere, balioespina zer puntuaziotan oinarritzen den aipatu beharko litzateke (helegite bat aurkeztea egokia den ala ez ahalik eta azkarren erabakitzeko, eta hala balitz, helegitearen prestaketa errazteko, txosten hori berriz eskatzeak eragin ditzakeen alferrikako atzerapenak saihestuz).
- Bizkaian dagoen zerbitzuen eta prestazioen arteko bateraezintasuna kritikatzeko dute. Zerbitzuen eta prestazioen erabilera konbinatuaren alde egiten dute, mendeko pertsonaren arreta osoa erraztuko duena.
- Mendekotasuna Balioesteko Baremoak (MBB) ez du islatzen behar adina urritasuna duten pertsonen autonomia pertsonalerako zer zailtasun dituzten.
 - a) Nahiz eta adimen-urritasuna duten pertsonen kasu zehatzean item bakoitzari esleitutako puntuak berriz banatu eta hartzen diren erabakiak balioespenean sartu, ez da jasotzen pertsona horiek bizitza osoan zer laguntza behar dituzten. Beharrezkoa litzateke zenbait gauza kontuan hartzea, hala nola jarduera instrumentala egiteko eta esparru publikoan ibiltzeko ahalmena, komunikazio-zailtasunak, kognizioa, informaziora sarbidea, harremana eta parte-hartzea, mendekotasun emozionala eta zaurgarritasuna engainuaren aurrean.Haien ustez, komenigarria da balioespina egiten den testuingurua handitzea (etxea bakarrik kontuan hartzea oso mugatua da).

- b) Urritasun fisikoa edo zentzumen-urritasuna duten pertsonak etxean gauzak egin ditzakete, beren behar jakinei egokitutako ingurune bat baita. Hala ere, hiri-ingurunean –beti ez da izaten erabilerraza edo ezaguna–, baloratzen ez diren mendekotasun-egoera ugari eman daitezke.
 - c) Zentzumen-urritasunak, zehazki itsutasunak, mendekotasun handia sor dezake oinarritzotzat hartzen ez diren eguneroko bizitzako jarduera askotan, baina inpartu izugarria dutenetan (faktura bat irakurtzea, objektu bat aurkitzea, ezagutzen ez diren tokietan ibiltzea...).
 - d) Hartutako kalte zerebralak dituzten pertsonak ordezkatzen dituzten erakundeen ustez, erabiltzen den tresna ez da nahikoa nariadura kognitiboa (kalte horren ondorio nagusia) balioesteko eta urritasun handia eragin dezaketzen zenbait dis-funtzio ez dira baloratzen edo zehaztasunik gabe balioesten dira:
 - 1. komunikazioa (hitzezkoa eta idatzia);
 - 2. funtzio betearazleak (kontrola, plangintza, antolaketa);
 - 3. memoria;
 - 4. espazio- eta denbora-orientazioa;
 - 5. trastorno obsesiboak;
 - 6. norberaren defizitari buruzko kontzientzia aldatzea;
 - 7. asaldura emozionalak.Era berean, jokabide-asaldura motak (pasibitatea, suminkortasuna, agresibitate, desinhibizioa, inpulsiotasuna, obsesioa), eta horrenbestez, ezta zer mai-latakoak diren ere.
 - e) Tresnak gutxietsi egiten du eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak egitean ikuskatzea.
- Elkarte horien ustez, balioespenak egiten dituztenek prestakuntza handiagoa izan beharko lukete urritasunei buruz, batez ere esparru horretako egungo erreferente teorikoaren inguruan. Bizi-kalitatea, Laguntzen teoria eta Pertsonarengan arreta osoa jartzen duen plangintza. Halaber, balorazioa egiten duten profesionalak hartutako kalte zerebralari buruzko prestakuntza gutxi dutela sumatzen da. Talde horietan, neuropsikologiako eta gizarte-laneko profesionalak parte hartu beharko lukete, gaian prestakuntza dutenek.
 - Balioespenak egitean irizpide desberdinak daudela hautematen da (oso antzeko egoerek oso balioespen desberdinak jasotzen dituzte).
 - Beharrezkotzat jotzen dute balioespenean adimen-urritasuna duten pertsonen emandako informazioa zainzaile nagusiarekin alderatzea eta argitzea.
 - Urritasuna duten pertsonentzako baliabideen eskasia edo baliabideak ez izateak, eta dauden baliabideak pertsona horien behar espezifikoetara ez egokitzeak legeak bultzatzen duen eskubidea benetan exekututzea oztopatzen du. Zentzu horretan, aipatzen dute etxebizitza-eredu alternatibo, trebakuntza-zentro, gizarte- eta kulturajardueren eta aisialdiko jardueren zentro, urritasun fisiko handientzako zerbitzu, adingabeak aldi batean egoteko egoitza, itsu-gorrentzako berariazko zerbitzu (bitartekariaren eta gida-interpretarearen figura sartzea pertsona horientzat) gutxi daudela. Gainera, adierazten dute ezinbestekoa dela baliabideak norberaren autonomia sustatzeko erabiltzea txiki-txikitatik.

- Bizkaiko bateraezintasun-erregimena edo Gipuzkoan edo Araban familia-ingurunean zainketak emateko prestazioetan izandako murrizketak direla eta, familia askori zerbitzu horiek erabiltzeko asmoa kentzen ari zaio, eta horrek ez du autonomiaren sustapenaren alde egiten (zentroetan sustatzen baita gizarte-partaidetza, erlazioa, etab.).
- Arriskutsua iruditzen zaie prestazio ekonomikoek, askotan, berandu gabe sortu behar diren baliabideen gabezia ordezkatzeari.
- Bizkaian zerbitzuari lotutako prestazioa arautzeko eskatzen dute, lurralde horretan soilik ez baita arautu⁷³.
- Zaintzaile senideei laguntza psikologikoko eta prestakuntzako zerbitzuak sustatzeko eta banakako lagungoko eta familiak atsedean hartzeko programak zabaltzeko beharra azpimarratzen dute.
- Araban, hartutako kalte zerebrala duten pertsonentzako eguneko zentro bat sortzeko beharra planteatzen da (Gipuzkoak eta Araban jada badaude⁷⁴).
- Fisioterapian eta logopedian ondoko esku-hartze akutua areagotzea, egun ematen diren saioak ez baitira nahikoak (hartutako kalte zerebrala).
- Haurren hartutako kalte zerebralaren kasuan, ez dago behar adina baliabide eskolatze- eta prestakuntza-prozesuan.
- Araudia indarrean sartzearekin bat, hartutako kalte zerebrala duten pertsonen taldean sortu ziren itxaropenak ez dira bete. Izan ere, zerbitzuak falta dira, prestazio ekonomikoak ez dira bateragarriak ezintasun handiko gainerako pentsioekin, eta balioespenean ez dira kontuan hartzen jokabide-ondorioak edo ondorio kognitiboak.
- Hartutako kalte zerebrala duten pertsonen taldean gaixotasun bat dutela ez dakiten pertsonen kasuak daude. Horrenbestez, komenigarria litzateke ohiko zaintzaileak ematen duen informazioa kontuan hartzeko bideak prestatzea.
- Administrazioak arlo horretan lan egiten duten elkarteekin koordinazio zuzena eskatzen dute, eta elkarteek prozesu osoan partaidetza handiagoa izatea.

⁷³ Proposamen horiek Bizkaiko Foru Aldundiak 90/2010 Foru Dekretua, ekainaren 29koa, mendetakosuna duten pertsonentzako Bizkaiko foru egoitzen zerbitzuari loturiko prestazio ekonomikoa arautzen duena argitaratu baino lehen jaso ziren.

⁷⁴ Bizkaiko Foru Aldundiak GUFEn –Bekoetxe– kudeatutako eguneko zentro bat du, 45 lagunentzako tokia duena, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, berriz, Aita Menni ospitaleak kudeatutako beste bat du, 25 laguntzako edukia duena. Bi zentroek neuropsikologo baten zerbitzuak dituzte.

4.3. Osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonak

2007ko Ohiko txostenean jaso genuen osasun mentaleko arazoak zituzten pertsonak kezkatuta zeudela AMALen aplikazioari buruz, eta zehazki, prestazioen katalogoa diseinatzeko garaian, arazo mental larriak zituzten pertsonen beharrez gain, beren familia-ingurukoena ere kontuan hartzeko beharrari buruz (kasuen %80an haiekin bizi baitira⁷⁵).

FEDEAFESek AMALen aplikazioari buruz egin dituen balioespenen berri izan dugu. FEDEAFES Gaixotasun mentalak dituzten senideen eta pertsonen Elkarteen Euskadiko Federazioa da, lau elkarte barne hartzen dituen irabazi-asmorik gabeko gizarte-erakundea:

- ASAFES, Eri mentala duten pertsonen eta senideen Arabako elkarte.
- AVIFES, Buruko gaixotasuna duten senideen eta pertsonen Bizkaiko elkarte.
- AGIFES, Gipuzkoako famili eta eri psikikoen elkarte.
- ASASAM, Buruko gaixotasuna duten senideen eta familien Aiarako elkarte.

FEDEADES 1987. urtean sortu zen handitzeko asmoz eta 1976. urtean erreforma psikiatrikoaren testuinguruan lanean hasi ziren elkarte aitzindari batzuen indarrak batzeko. Helburu orokor hau du: *“gaixotasun mental bat duten pertsonen eta haien familien bizi-kalitatea hobetzen lagunduko duten neurriak hartzea, eta espezifikoki, xede hauek ditu:*

- *Gaixotasun mentalak dituzten pertsonen eta haien familien taldea ordezkatzeari zentzuzko erantzunak ematea, baita gobernu-organotan eta beste instantzia publiko eta pribatu batzuetan, haien berriazko problematikarekin lotuta.*
- *Taldearen interesak defendatzea, organo eta erakunde eskumendunen aurrean ordezkatzuz.*
- *Gaixotasun mentalak dituzten pertsonen eta haien familien osasun- eta gizarte-arreta egokia eskatzea, errehabilitazioa, gizarteratzea eta lan-integrazioa ahalbidertuko duena.*
- *Gaixotasun mentala duten pertsonen eta haien familien problematikari buruzko gizarte-sentsibilizazioa sustatzea, osasun-, gizarte- eta lan-alderdietan dauden murrizketak eta diskriminazioan arreta jarritz.*
- *Taldeak proposatutako eskaerak sustatzea eta koordinatzea, dagozkion organismo ofizialen aurrean ordezkatzuz, beren legezko eskubideak defendatuz, Osasun Mentalaren eta Gizarte Zerbitzuen arloko organo planifikatzaileetan eta legegileetan parte hartzearen bidez.*
- *Botere publikoei, bai eta FEDEAFESen erakunde kideei ere, gaixotasun mentalak dituzten pertsonen eta haien familien interesen alde egingo duten legeak egiteko eskatu.*
- *Ospitaleratzea ordezkatzeko zerbitzuen sorrera, eta familia txandakatzeko eta ordezkatzeko sistemen ezarpena eskatzea.*

⁷⁵ Gaixotasun mentalak dituzten senideen eta pertsonen elkarteen Euskadiko federazioak emandako datua.

- *Informazio etengabea eta eraginkorra garatzea, gaixotasun mentala duten senide eta pertsona guztiak biltzeko, talde osoa foro berdin batean sartzeko asmoz.*
- *Informazioa eta esperientzien trukaketa sustatzea elkarte kideen artean.*
- *Elkartasun-printzipioa indartzea elkarte federatuen eta gizartearen artean.*
- *Gaixotasun mentalei buruzko ikerketa eta gaixotasun horien prebentzioa bultzatzea.*
- *Prebentzioaren, laguntzaren eta errehabilitazioaren arloan zerbitzuen sorrera aldarrikatzea psikiatriaren esparruan, ospitalez kanpoko laguntzari lehentasuna emanez.*
- *Familiari eta komunitateari bideratutako tratamendu psikiatriko bat aldarrikatzea, ez bakartutako banakoari bideratutakoa.*
- *Osasun Mentaleko erabiltzaileen elkarteek osasun mentalarekin lotutako zerbitzuetan eta organoetan kontrola eta partaidetza izatea aldarrikatzea".*

Beraz, FEDEAFESek gaixotasun mentalak dituzten pertsonen eta haien familien euskal erakundeak biltzen ditu, eta gaixo horien eta haien senideen bizi-kalitatea hobetzeko ekimenetan ikerketa, trukaketa, ikaskuntza eta berrikuntza sortzeko eratu zen. Era berean, politikak eta esperientziak sustatu eta hedatu nahi ditu bizi-kalitatearen ereduaren barruan. Gaixotasun mentalak dituzten pertsonen duintasuna eta eskubideak defendatu eta aldarrikatu nahi ditu. Halaber, gizartea sentsibilizatu nahi du, eta foroetan eta sareetan parte hartu. Era berean, politika publikoak eskatzen ditu, gaixoen eta beren familien mesedetan.

FEDEAFESek ordezkari da Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluan, Gizarteratzeko Euskal Kontseiluan eta Osasun Mentalaren Euskal Aholkularitza Kontseiluan. Halaber, Eusko Jaur-laritzako [Enplegu eta Gizarte Gaietako Saileko](#) Elkarrizketa Zibileko Mahaiko kide da, eta gaixotasun mentala duten pertsonentzako Euskadiko Espetxe Batzordean parte hartzen du.

Elkarte-mugimenduetan duen parte hartzeari dagokionez, [FEAFESeko](#) kide da (Gaixotasun Mentalak dituzten Senideen eta Pertsonen Taldeen Espainiako Konfederazioa), bai eta [EDEKAKoa](#) ere (Elbarrituen ordezkarien euskal koordinatzailea). Halaber, Sareen Sarean hartzen du parte. Sare horretan daude Euskal Autonomia Erkidegoko hirugarren sektorea biltzen duten sare eta federakunde nagusiak.

Adierazten genuen bezala, FEDEAFESen iritzia bildu dugu (eta FEDEAFES sortzen duten elkarteena ere: AVIFES, ASAFES, AGIFES eta ASASAM) lege berria gaixotasun mentala duten pertsonengan izaten ari den inpaktuari eta ondorioei buruz. FEDEAFESen balioespeneren alderdirik garrantzitsuenak azpimarratuko ditugu:

- Federazioak eta aipatu elkarteek positibotzat jotzen dute legeak hauek egitea:
 - mendekotasun-egoeran dauden pertsonen autonomia eta arreta sustatzeko eskubidea lehen aldiz biztanleriaren eskubide subjektibotzat aintzatestea.
 - lehen aldiz gaixotasun mentala mendekotasunaren kontzeptuaren baitan sartzea (lege hori indarrean jarri baino lehen, hirugarren pertsonaren laguntza behar zen baloratzeko 1971/1999 Errege Dekretuak, ezgaitasun maila aitortu, ezarri eta kalifikatzeko prozedurari buruzkoak, ezarritako baremoa erabiltzen zen; gaixotasun mentala zuen ia pertsona bakar batek ere ez zituen lortzen gutxienez 15 puntuak, hirugarren pertsonaren laguntza behar zela aintzatesteko beharrezkoak zirenak);

- autonomia pertsonalerako laguntza beharrezkoa dela sartzen du mendekotasunaren definizioan, gaixotasun mentala duten pertsonen kasuan.
- Zenbait gabezia eta zailtasun hautematen dituzte, eta dagozkien hobetzeko proposamenak egiten dituzte:
- egungo baremoa berrikustea, gaixotasun mentalen berezko zailtasunak ez baititu islatzen. Egungo puntuazioa ordezkatzeko proposamen bat egiten dute. Taula honetan aurkeztuko dugu:

141. taula. FEDEFESek MMBan lanen eta jardueren zamei buruzko taularen inguruan egindako proposamen alternatiboa

JARDUERA	EGUNGO PUNTUAZIOA	PROPOSAMENA
Jatea/edatea	10,0	5,0
Gernu/kaka egitearen erregulazioa	7,0	2,0
Garbitzea	8,0	10,0
Beste gorputz-zainketa batzuk	2,0	4,0
Janztea	11,6	11,6
Osasuntsu egotea	11,0	14,0
Gorputz-transferentziak	2,0	0
Etxearen barruan ibiltzea	12,1	10,0
Etxetik kanpo ibiltzea	12,9	15,0
Etxeko lanak	8,0	10,0
Erabakiak hartzea	15,4	18,4
GUZTIRA	100	100

- Baremoaren aplikazioan, balioespen-gidaliburuak ezarritako jarraibideak kontuan hartzea (dokumentu horretan, jarduerak eta lanak gaixotasun mentalak dituzten pertsonekin nola balioetsi behar diren interpretatzen da), ohartarazten baitu ez direla zorrozki jarraitzen.
- prestazioak eta zerbitzuak bateratzea (hala, esate baterako, beharrezkotzat jotzen dute Bizkaian familia inguruneke zaintzetarako prestazio ekonomikoa (FIZPE) eta eguneko zentroetara joatea bateratzea, pertsoneri eta zaintzei nagusiei laguntzen baitiete).
- lege hori ezartzeko baliabide ekonomikoak handitzea, uste baitute urriegiak direla (langileei eta zerbitzuei dagokienez), eta ia ez daudela ostatu- eta bizitegi-baliabideentzat, eguneko zentroentzat, eta osasun mentalean espezializatutako eta esku-hartze hezitzailearen eta gizarte-abilezien ikuspuntu bat duten etxeko arreta-zerbitzuentzat.
- hasierako eskaeraren eta zerbitzuaren edo prestazioaren esleipenaren arteko batez besteko denbora-tartea murriztea.
- dagoen benetako eskaera islatzea, eskatutako baliabidea oraindik izan ez arren. Izan ere, kasu batzuetan, gaixotasun mentalak dituzten pertsonentzat baliabideak ez izategatik (besteak beste, aldi baterako bizitegi-baliabideak), profesio-

nalak familia eskatu ez duen norabidean bideratu du, eta horrek berekin dakar benetan dagoen eskaera idatziz ez jasotzea.

- prozedura erraztea, korapilatsua, oso burokratizaturia eta interesdunak ulertzeko zaila baita (hizkuntza ez oso argian).
- balioespenak egiten dituzten profesionalak osasun mentalari buruz prestatzea.
- balioespen-fasean familiak kontuan hartzea, haiek baitakite gaixoak zer zailtasun dituen ohiko ingurunean. Komenigarria litzateke mekanismoak ezartzea, gaixotasun mentala duen pertsonaren aurrean gaixoak zer muga dituen adierazteko zailtasunak dituzten familiekin informazioa alderatzeko eta argitzeko.
- BAP egiterakoan, mendekotzat hartutako pertsonarekin elkarrizketa bat izatea (batzuetan, elkarrizketa familiarekin edo zaintzaile nagusiarekin izaten da soilik). Elkarrizketa horretan, garrantzi handia du jakinaraztea zer prestazio eta zerbitzu eskuratzeko eskubidea dagoen.
- legeak aitortutako eskubideak betetzeko, Banakako Arreta Plana (BAP) egitea beharrezkoa dela argi eta garbi jakinaraztea. Batzuetan, Gipuzkoan, elkarrekin hauteman dute ebazpena ematean ez dela ematen BAP egitea eskatzeko behar den informazioa, eta horrenbestez, mendekotasun-egoeran dagoen pertsonari egoki dakizkiokeen prestazioak edo baliabideak eskatzeko.
- mendekotasun-egoera aitortzeko ebazpenarekin batera, item bakoitzean jasotako puntuazioak adierazten dituen balioespen-txosten teknikoa ematea (helegite bat aurkeztea egokia den ala ez ahalik eta azkarren erabakitzeke, eta hala balitz, helegitearen prestaketa errazteke, txosten hori berriz eskatzeak eragin ditzakeen alferrikako atzerapenak saihestuz).
- osasun- eta gizarte-esparruko profesionalen arteko koordinazioa sustatzea, baliabide baten edo besteren egokitasunari buruz batzuetan dituzten irizpide desberdinak gainditzeke.
- legean aurreikusitako zerbitzuak sortzea, batez ere bizitegi-zerbitzuak (iraunkorrrak nahiz aldi baterakoak).
- etxeko laguntza-zerbitzuak (ELZ) uniformetasunez arautzea –intentsitatea, kostea, bateragarritasuna, etab.–, gaixoa bizi den udalerriararen arabera desberdintasunik egon ez dadin.
- mendekotasun-egoera balioesteko prozeduraren faseetan, kontuan izatea gaixotasun mentala duten pertsona batzuek zailtasunak dituztela bere gaixotasuna onartzeko eta gaixotasun horren kontzientzia izateke, eta hori batzuetan oztopo bat dela beren eskubideak betetzeko.
- familiei –gaixotasun mentala duten pertsonen euskarri nagusia– laguntza ematea sustatzea, osasun-esparruan koordinatutako gizarte-baliabideen sare on bat sortzearen bidez.

FEDEFES osatzen duten elkarrekin eta federazioak berak informazio-kanpainak sortu dituzte lege berriari eta lege horren inplikazioei buruz, gaixotasun mentala duten pertsonen, senideei eta profesionalen zuzendurak. Horrek guztiak, autonomiaren eta mendekotasunaren esparruan behar duten arretarekin eta alderdi horiei buruzko lan-talde baten sorrerarekin batera, lagundu du eta laguntzen du araudi hori buruz, eta araudi horren inpaktuari eta hobekuntzari buruz gehiago jakiten, gaixotasun mentala duten pertsonen taldearekin lotuta.

4.4. Hiru urte baino gutxiagoko haurrak

BIDEGAIN elkarteak, garapenari lotutako ezgaitasunetan haurren arreta goiztiarra sustatzen duenak eta Bizkaiko Foru Aldundiak haurren arreta goiztiarreko programak garatzeko egokitasun-ziurtagiria eman dionak, haur jaioberri goiztiarrei eta kritikoki gaixo daudenei laguntzen die, eta haur-garapenean gaixo batzuek izandako ondorioez arduratzen da.

Mendekotasun-egoeran dauden haurren arretaren inguruan sortzen diren zalantza ugariak jakinarazten zizkigun batez ere. Profesionalek planteatzen zuten zer informazio eman behar zitzaion familiei eta familiek ez zekiten lege berriak benetan zer inpaktu zuen pisu txikiarekin jaiotako haurren artean, urritasuna aitortzeko eskatzea beharrezkoa al zen AMALen zerbitzuak eta prestazioak izateko, zer baldintzatan izango zuten esku-hartzeko programa goiztiar bat jasotzeko eskubidea, zer zen behar bereziak zituen haur bat edo nork definituko zituen haur baten eta bere familiaren beharrak.

Hori dela eta, ofiziozko espediente bat egiten hasi ginen, eta horren berri ematen dugu [5.14.2.](#) eta [3.12.0.](#) ataletan. Espediente hori mendekotasun prebenitzeko eta autonomia pertsonala sustatzeko zerbitzuei buruzkoa da.

APREVAS elkarteak, haur goiztiarren, eta batez ere goiztiar handien (15 gramo baino gutxiagoko haurrak) familiei laguntzeko eta informatzeko helburu nagusia duenak, ezinbestekotzat jotzen du gizartea haurtxo horien beharren inguruan sentibilizatzea. APREVASen ustez, amatasunaren atzeratzea, ugalkortasun tratamenduak, bizitzaren aldaketak eta abar direla eta, gero eta haur goiztiar gehiago jaiotzen dira. Osasungintzan izandako hobekuntzek haurtxo horien bideragarritasunaren alde egin dutela jakinda, laguntza profesional gaitua (psikologoak, fisioterapeutak, logopedak...) eskatzen dute haurtxo horien lehen urteetan, ondo hazteko aukera izan dezaten. Halaber, eskatzen dute familiei orain ematen zaiena baino arreta psikologiko handiagoa ematea, bai eta gizarte- eta ekonomia-laguntza bat ere, *“ospitaleratzeak sarritan luzeak eta konplexuak izaten baitira”*.

Diotenez, unitateek, gehienetan, langile gehiago behar dituzte, eta txikiak eta zaharkituak geratu dira, haurrei eta familiei beste ospitale batzuetan lanean erabiltzen dituzten aurre-rapen berriak eskaini ahal izateko (kanguru metodoa, gurasoen inplikazio handiagoa haur horien zainketan, etab.).

Profesionalen, gurasoen eta ospitaleen lankidetzaren bidez, haur horien baldintzak hobeto daitezkeela uste dute.

Bizkaiari lege berria haur goiztiarren taldeari aplikatzeko denbora asko behar izan digutela jakinarazten digute, baina une horretan ez dutela inolako kezarik erregistratu. Hobekuntza-proposamen gisa proposatzen dute prozesu horietan eman beharreko urrats guztien jarraibide argiak eta zehatzak sortzea, eta familiei neonatologiako unitateetan jarraibide horiek ematea.

IZAPIDETUTAKO KEXA-ESPEDIENTEEN ANALISIA

Txosten honen [lehen kapituluaren 1.4. epigrafean](#), metodologiari buruzkoan, esaten genuen bezala, [AMAL](#) indarrean sartu zenetik, erakunde honek zenbait herritarren kexak izapidetu ditu, eta kexa horiei esker, araudi horren hartzaileek zer arazo, zalantza eta abar nagusi dituzten jakin ahal izan dugu.

Hiru urte eta erdiko indarraldian, erreklamazioak egiteko arrazoi hauek izan dira:

5.1. Eskatutako balioespena egiten atzeratzea

Arrazoi horrengatik aurkeztu ziren kexak murriztu egin dira denboraren joanean. Baliteke mendekotasun-egoera aitortzen duen ebazpena emateko epeak laburtzeagatik gertatu izana.

5.2. Balioespenaren emaitzarekin ados ez egotea

Kexa horiek egin dituztenen ustez, aitortutako mendekotasun-maila txikiagoa da dagokiena baino. Batzuetan, maila txikiagoa esleitzeagatik, ezin da gauzatu prestazioak eskuratzeko eskubidea, legearen pixkanakako aplikazioaren egutegiarekin bat. Beste batzuetan, ez dute zenbait zerbitzu jakin edo laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa (III. gradukoei mugatutakoa) eskuratu.

Ez dugu ahalmenik edo judizio-elementurik, dagokion Foru Aldundiak baremoa nola aplikatu duen zalantzan jartzeko. Kasu horietan, pertsonak orientatzen ditugu emaitza horri administrazio- edo epai-bidetik kontra egiteko beren eskubideari buruz (dagozkien epeak, helegite mota eta helegite hori zer auzialditan aurkeztu behar duten adieraziz) edo, eskatzailearen osasuna narriatu den kasuetan, berrikusketa bat eskatzeko aukerari buruz.

Behinola, adimen-urritasuna zuen pertsona baten familiak planteatutako kexa zela eta, administrazioari informazioa eskatu genion, balioespen-zerbitzuek egindako balioespen teknikoak xeheetasun handiagok jakiteko. Espediente hori izapidetze-fasean dago.

5.3. Esleitutako baliabidea ematen atzeratzea (harrera, eguneko zentroa edo etxeko laguntza)

[Arabako Foru Aldundiak](#) etxeko laguntza-zerbitzua (ELZ) esleitzen atzeratu egin dela hauteman dugun zenbait kexa izapidetu ditugu. Atzerapen horiek batzuetan arrazoitu gabeak izan ziren. Aldundiari arazoaren berri eman eta gero, kexa horiek azkenean interesdunari zerbitzua esleitzuz ebazten ziren.

Ez zuten emaitza bera lortu Arabako Foru Aldundiak telelaguntzako zerbitzua esleitzen atzeratzea salatzen zuten herritarren kexek. Mendekotasun-egoeran zegoen adinekoa I. gradua II. mailan edo I. gradua I. mailan zegoela balioetsi zuten espedienteak ziren. Nahiz eta horrela balioetsitako pertsonentzat AMALen jasotako zerbitzuak eta prestazioak eskuratzeko eskubidea ez zen gauzatzen 2011ko urtarrilaren 1era arte edo 2013. urtera arte, hurrenez hurren, uste genuen interesdunei, oso adin handia izateagatik, 80 urte baino gehiago, eta osasun-egoera makala izateagatik, beren eskaera beteko zitzaizela, Araban apirilaren 24ko 39/2007 Foru Dekretuaren lehen xedapen iragankorren 2. puntuan ezarritako babes-maila osagarriari jarraiki.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak (GOFE) zerbitzu hori ematea zergatik ukatu duen erantzutean xedapen iragankor horren eskumeneko izaerari eusten dio –“*GOFEk, 39/2006 Legearen 14.6 artikuluan aurreikusitako lehentasun-irizpide berak aplikatuz, telelaguntzako zerbitzua esleitu ahal izango die mendekotasuneko 1. gradua dutela balioetsi zaien pertsonei*”– eta [12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa](#), Gizarte Zerbitzuei buruzkoa, aipatzen du. Horrenbestez, zerbitzuaren katalogazioa lehen mailako arretakoa dela esaten du, eta zerbitzu horren eskumena Eusko Jaurlaritzari ematen dion eskumen-marko berria aipatzen du.

Bigarren kontu horri buruz Administrazioari adierazi diogu [12/2008 Legearen](#) zazpigarren xedapen iragankorren edukiak, erabiltzailearen ekarpen ekonomia arautzen duen Dekretuari dagokionez, eta xedapen horren interpretazio analogikoak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazioen eta Zerbitzuen Katalogoari buruzko Dekretua aipatzen duenak, ondorio hauek aterarazten dizkigula: garapen-araudi hori onartu arte, arlo horretan indarrean dauden xedapen arauemaileak aplikatuko direla Legea indarrean sartu arte.

Bestetik, Eusko Jaurlaritzako [Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak](#) emandako informazioaren arabera, telelaguntzako kudeaketa ez da onartuko 2011ko ekitaldira arte⁷⁶.

Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen hirugarren xedapen iragankorrak xedatzen du eskumenak berriz banatzeak eta ondoriozko finantza-doitzeak, inolaz ere, ez dituztela legea inda-

⁷⁶ Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak hau jakinarazi zigun, 49/2009 ofiziozko espedientearen markoa: “*EAEko lurraldeetan gaur egun ematen diren sistemei buruz egindako azterketak agerian uzten du desberdintasun handia dagoela prestazio-mailetan, eskuratzeko-betekizunetan edo prezio publikoetan, telelaguntzako sistemaren baitan. Hori dela eta, beharrezkotzat jo da analisi xehakaturko lan bat egitea, 2011. urtean EAE osorako zerbitzu homogeen bat, Eusko Jaurlaritzaren titulartasuna izango duena, gure gain hartzeko moduan egoteko.*”

rrean sartzeko datetan zeuden prestazioen eta zerbitzuen intentsitate- eta estaldura-mailak murriztu behar.

Gasteizen bizi den biztanleria zalantzaz ikusten ari da I. graduako mendekotasun-egoeran dauden pertsonen mendekotasun-egoeran ez dauden beste pertsona batzuek (pertsona autonomoak, haien arreta udalaren eskumena da) erabiltzen duten zerbitzu bat eskuratzeko aukera ukatzen ari zaiela, eta zenbait baldintza betetzen dituztela, paradoxikoki, haiek ere betetzen dituztenak.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren garapen koherentearen eta orekatuaren ikuspuntutik edo zuzentasun-irizpideei jarraiki prestazioak eta zerbitzuak eskuratzeko ikuspuntutik, ulertzeko zailak diren ustezko kasuak dira.

Telealarmako zerbitzuaren onuraduna den pertsona autonomo baten ustezko kasua planteatu beharko litzateke, I. graduaren dagoen mendeko gisa balioestearen ondorioz, zerbitzu hori eskuratzeko eskubidea galdu duena. Zalantzarik gabe, egoera horrek zalantzan jartzen du 12/2008 Legearen 7. artikulua (f) atalean jasotako arreta jarraituaren printzipioa ("*... arreta jarraitua eta integrala izango dela bermatu beharko du, nahiz eta administrazio edo sistema bat baino gehiago jardun*"), aipatu Euskal Sistema zuzendu behar duena, edo lege horren ikuspuntu komunitarioa, pertsonak bere ohiko bizilekuan egoteari lehentasuna eman nahi diona (14. artikulua).

5.4. Arazoak etxeko laguntza-zerbitzuarekin (ELZ)

Etxeko laguntza-zerbitzuarekin lotuta, Arabako biztanleriaren zenbait kexa erregistratu ditugu, arretaren kalitatearekin, egin behar ziren lanekin edo zerbitzu hori ematen zuen profesionalaren egokitasunarekin zerikusia zutenak. Espediente horiek modu egokian konpondu dira, Arabako Foru Aldundiko langile arduradunarekin harremanetan jartzean. Gauza da gertakari mota horiek lehen administrazioak berak konpontzen zituela, etxeko laguntza zerbitzuei jarraipena egiteko eta kontrolatzeko programa bat baitzuen. Erregistratutako kexek argi adierazten dute beharrezkoa dela horrelako programa bat berreskuratzea.

Beste espediente batzuetan, Arabako Foru Aldundiak kontratatutako enpresetako langileek etxeko laguntza-zerbitzuak betetzean egindako zenbait akatsen berri ematen zitzaigun. Arazo horiek behar bezala konpondu ziren, eta berriz ere, lagungarriak izan ziren agerian jartzeko komenigarria izango litzatekeela, nolabait, foru-administrazioa egiten ari zen ELZ programak jarraitzeko lanak berriz hastea, hobe zitezkeen alderdiak erregistratzeko aukera ematen baitzuten, eta horren ondorioz, programak behar bezala egokitzeko aukera ere.

Halaber, AMALen pixkanakako aplikazioari jarraiki oraindik eskubide eraginkorra ez zuten zenbait pertsonen kexak bidali dizkigute, ELZ emateko eskaeraren aurrean jasotako erantzunagatik. Kasu horietan, zerbitzua eskuratzeko eskubidea aitortzen zitzaienten, baina baliabideak berriz esleitzeko programan sartzea erabakitzekeko puntuazio bat ematen zitzaienten,

zerbitzu hori eman arte. Ustezko kasu horrek ere telelaguntzako zerbitzuan izandako tratamendu bera jaso du.

Erakunde honek urtero argitaratutako txostenetan, idatziz jaso dugu zerbitzu horrek garapen desberdina izan duela zenbait euskal udalerritan lortutako arreta-mailei, eskuratze-baldintzei, kalitateari eta abarri dagokienez.

Araudi komun bat ez izateak lurraldeen artean desorekak egotea eragin du. Desoreka horiek gainditzeak 12/2008 Legearen, abenduaren 5ekoaren, gizarte zerbitzuei buruzkoaren, garapena eta ezarpena gidatu beharko du.

[Gipuzkoako Foru Aldundiak](#) esparru-hitzarmen bat sinatu zuen 2005. urtean bere lurraldeko udalekin, zerbitzu hori emateko zenbait irizpide berdin zehazteko. Lurralde horretako egoera nabarmen hobetu da.

Hala ere, Gipuzkoako udalerriren batean ez da jarraitu hitzarmenak adierazitako jarraibidea, zerbitzua emateko moduari dagokienez. Hala, udalak zerbitzuaren ematea bere gain hartu ordez, zuzenean edo zeharka, onuradunari diru-laguntza bat ematea erabaki zen, onuradunak berak egin zezan kontratazioa. Zerbitzua emateko modu hori, Bizkaiko udalerriren batean ere erregistratu zena, ez zen egokia, onuradunak etxeko laguntzailea bilatzearen eta kontratatzearen ardura osoa bere gain hartu behar baitzuen; gizarte zerbitzuek esleitutako lanekin bat zerbitzua egiten zela kontrolatzea zaila baitzen edo kontratatutako pertsonak arreta pertsonalerako behar zen prestakuntza espezifikoak ez izateko arriskua baitzegoen. Gainera, sistema horrek familiari uzten zion ordezkatzeko lana zerbitzua eman ohi zuen pertsona ez zegoen egoeretan (oporrek edo gaixotasuna).

5.5. Prestazioaren erreklamazioa atzeraeraginezko ondorioekin (mendeko pertsona hil ondoren)

Banakako Arreta Programa egin ondoren hildako mendeko pertsona baten familiari ukatu egin zitzaion atzeraeraginezko ondorioak zituen familia-ingurunean zainketak emateko prestazioaren (FIZPE) zenbatekoa ematea, nahiz eta programa horretan, Arabako Foru Aldundiak idatziz jaso prestazio horren egokitasuna.

Espediente hori eta beste antzeko batzuk izapidetzen ari dira.

Hala ere, hainbat iritzi aurrera ditzakegu:

Arabako Foru Aldundiak FIZPEren dekretu arauemailearen 21.a) artikuluan “*dagokion prestazioa eskuratzeko eskubidea sortuko da onuradunak jaso beharreko prestazio jakina aintzatesten duen ebazpena oinarri hartuta*” xedatzen du, [8/2010 Errege Lege Dekretua, maiatzaren 20koa](#), defizit publikoa murrizteko ezohiko neurriak hartzeko denak, aplikatzeko. Hain zuzen ere, Errege Lege Dekretuak AMALen lehen xedapen osagarria aldatu du zentzu horretan. Xedapen osagarri horren arabera, ebazpenetan jasotako eskubidea aitortzeak zer-

bitzuak eta prestazioak interesdunak eskatzen zituen unetik eskuratzeko eskubidea sortzen zuen. Hala, bere III. kapituluak mendekotasunagatiko prestazioen ordainketen atzeraeragina kentzen du eskatzaile berrientzat eskaera aurkezteko egunean, eta paraleloan, sei hilabeteko gehieneko ebazpen-epea ezartzen da. Epe hori ez betetzeak atzeraeragina ekarriko du berekin, betetzen ez den egunetik hasita.

Interesduna prestazioaren ondorioetarako data baino lehen hil denez, eta nolabait aipatu sei hilabeteko epea gainditu denez, ukoak legezko babesa du.

Halaber, [Bizkaiko Foru Aldundiak](#) bere araudian gehitu ditu Errege Lege Dekretuaren xedapenak, 93/2010 Foru Dekretua, uztailaren 200koa, menpekotasun-egoera aitortzeko prozedura arautzen zuen araudia aldatzen duena, onartzearen bidez.

Hala ere, ebazpenaren legaltasuna, bai eta aipatu xedapen arauemaileena ere, ez da oztopo AMALen jada aldatutako lehen xedapen osagarrian ezarritako erregimena egokiagoa zela pentsatzeko. 30/1992 Legearen 57.3. artikulua eskaintzen duen aukera, ekintzei atzeraeraginezko eraginkortasuna emateko zentzuan baldin eta *“interesdunari ondorio onuragarriak eragiten badizkio, ekintzaren eraginkortasuna atzera egiteko datan beharrezko gertaerak daudenean eta horrek beste pertsona batzuen legezko eskubideak edo interesak kaltetzen ez dituenean”*, aprobetxatu egin beharko litzateke mendekotasunaren moduko arlo sentikorrean. Bestetik, prestazio ekonomikoa jasatzeko eskubidea onuradunari dagokio –mendekotasun-egoeran dagoen pertsonari– helburu bakar baterako erabiltzeko, hain zuzen ere, zaintzaile nagusiari ordaintzeko. Ondorioen atzeraeraginaren zentzuak egindako zainketa bat ordaintzeko logikari erantzuten dio. Ez da egokia inorena ez den gertaera batek, eta edonola ere, borondatezkoa ez denak –heriotza horrelakoa da–, aurretiko zainketa horren ordainketa oztopatzea.

5.6. Ondorio desberdinak kasu berdin-berdinentzat, aldundi bakoitzak erabilitako balioespen-tresnen aplikazio desberdina dela eta

2007an, ikusi genuen Gipuzkoan eta Bizkaian baremo osagarria (RAI-RUG) aplikatzearen ondorioz, lurralde horietan bizilekua zuten mendeko gisa aitortutako pertsonek adinekoentzako egoitzen foru-sare publikoa erabiltzeko aukera zutela, nahiz eta AMALen arabera, beren mendekotasun-gradua oraindik eraginkorra ez izan. Hala ere, kasu horietan, Araban bizi ziren pertsonak, mendekotasun-gradu horiek zituztenak, babes-maila osagarri bati jarraiki, sare pribatuan sartzeko banakako laguntza ekonomiko bat jaso zezaketen soilik, erroldatzeko antzinasun-baldintzek gehitutako mugekin.

5.7. Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren arautzerik ez izatea Bizkaian

2008ko uztaillean, ofiziozko jarduketa bat hasi genuen Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailarekin batera, batez ere eguneko zentroetan eta harrera-zentroetan arreta

behar zuten adinekoei eta urritasuna duten pertsoneri eragiten dien araudi gabezia horren zergatiak jakiteko.

Adinekoentzako harrera-zerbitzuei dagokienez, Sailak esaten zuen bere egoitzen foru-sareak nahikoa baliabide zituela, lurraldeko harrera-eskaera iraunkor eta aldi baterako guztiak artatzeko. Eguneko zentroekin lotuta, adierazten zigun zenbait eremutan gerta zitekeen gabezia banakako laguntza ekonomikoen deialdien bidez ordezkatzeko zela. Azpimarratu genion laguntza horiek diru-laguntza izaera zutela (laguntza horiek ematea ekitaldian kreditua egotearen mende dago), eta AMALek jasotzen duen zerbitzuari lotutako prestazioa, berriz, eskubide subjektibo bat dela.

Eguneko arretako zentroi eta urritasuna duten pertsonen harrera-zentroi dagokienez, adierazi digute lurraldean zeuden plaza guztiak foruarenak zirela, eta horrenbestez, ez zegoela zerbitzu pribaturik lurralde horretan. Hala ere, esan genion lurralde historikotik kanpo egoitza-arreta pribatua jasotzearen kasua gerta zitekeela (Arabak kontuan hartu duen egoera).

Azkenik, Aldundiak jakinarazi zigun araudi hori egiten hasi zela, pertsona bat egoitza batean, erregimen pribatuan, zaindu eta erantzukizun publikoko plaza esleitzen zaion arteko denbora-tarte horri aurre egiteko beharra zela eta.

Hain zuzen ere, izapidetutako kexa batzuek frogatzen zuten plaza esleitu arteko itxaro-denbora luzeegia izan zitekeela –kexa batzuetan bederatziz hilabeteko itxaronaldia erregistratu zen–.

Espediente jakin batean, Bizkaiko Foru Aldundiak zerbitzuari lotutako prestazioa ukatzeko eman zuen arrazoia hau izan zen: *“eskatutako prestazio ekonomikoa funtsatuko zuen araudi ez izatea”*.

Gure ustez, egokia izango zen zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa onartzea (AMALen 17. artikulua), mendekotzat aitortu den pertsonari dagokion eskubide subjektibo bat baita (lege-testu horren 1. artikulua). Eskubide horren erabiltzeak ez luke egon behar derrigorrez bete beharreko legezko manua garatzen duen araudi bat izatearen edo ez izatearen mende.

Gure ondorioetan, hauek azpimarratu genituen: araudi hori ez izatearen ondorio negatiboak, Bizkaian bizi zen biztanleriari eragiten ari zitzaizkion kalteak, eta araudi hori ez egoteak dagokion administrazio-prozedura argitzea oztopatzen zuela eta administrazioari segurtasun gabezia juridiko argia eragiten ari zitzaiola. Foru-erakunderi adierazten genion komenigarria zela araudi hori ahalik eta denbora-tarte txikienean onartzea.

Araudi hori onartzen ez den bitartean, foru-administrazioari proposatzen genion antolamendu juridikoak eskaini zitzaizkion bideak aztertzeke, araudi gabeziak eragiten zituen kalteak arintze aldera:

- Erreferentziazko estatuko xedapenen aplikazio gehigarri posiblea: AMALen 1.1., 4.1., 5.1., 14.3., 17.1. eta 28.6. artikulua, de la AMAL; bere 28.1. artikulua, [30/1992 Legearen](#) aipamen orokorra jasotzen duena, eta foru-erakundearen jarduketa haren arabera bideratzeko eta mendea jartzeko aukera ematen diguna, bai eta administrazioarentzat gutxieneko bermeen sistema bat ezartzeko ere –ekintzen eraginkortasunaren atzeraeragina, sare publikotik kanpoko egoitzan mendeko-egoeran dagoen pertsonak igarotako egonaldiak eragindako gastuak zer datatik aurrera hartu behar diren kontuan ezartzeko 57.3. aginduarekin bat, esate baterako–; eta AMALeko 20. artikulua, 7/2008 Errege Dekretuak, urtarrilaren 11koak, AMALen 2008. urteko prestazio ekonomikoei buruzkoak, eta 73/2009 Errege Dekretuak, urtarrilaren 30ekoak, 2009 ekitaldirakoak, ezarritakoen arabera zenbatu beharko liratekeen hileko kantitateak kalkulatzeko.
- Administrazio publikoaren ondare-erantzukizuneko bide posiblea, zerbitzu publikoen funtzionamendu arruntaren edo ezohikoaren ondorioz. Hala, planteatu beharko litzateke erakunde kudeatzaileak 30/1992 Legearen 139. artikuluen eta ondokoei jarraiki sortutako kalte-galeren aurrean erantzun beharko lukeen. Aukera hori kontuan hartuta, azter daiteke administrazioak berak ondare-erantzukizuneko aipatu prozedura ofizioz hastea (lege horren 142. artikulua) eta haren bideratze laburtua (143. artikulua) adostea, zerbitzu publikoaren funtzionamenduaren eta eragindako kaltearen kausalitate-erlazioa bistakoa dela ulertzen baita, bai eta kaltearen eta kalte-ordainen zenbatekoaren kalkularen balioespena ere. Bukatzeko, iradokitzen genuen komenigarria zela bere garaian onartu zen araudiak zegokion xedapen iragankorra jasotzea, ordura arte erantzunik jaso ez zuten aurreko egoera guztiak atzeraeraginezko izaeraz jasoko zituena.

Azkenik, 2010eko ekainean, Bizkaiko Foru Aldundiak 90/2010 Foru Dekretua, ekainaren 29koa, mendetasuna duten pertsonentzako Bizkaiko foru egoitzen zerbitzuari loturiko prestazio ekonomikoa arautzen duena, onartu zuen. Ikusten dugunez, dekretu horrek saihestu egiten du harrerazkoak ez diren beste zerbitzu batzuei lotutako prestazioen arautzea, hala nola eguneko zentroena.

5.8. Bizkaian lan egiten duten zerbitzuen eta prestazioen arteko bateraezintasunetik eratorritako arazoak

Zenbait kexa-espedienteetan, sumatu dugu Bizkaian zerbitzuak eta prestazioak aldi berean egiteko ezintasuna mendeko-egoeran dauden pertsonen arretaren kalitatea kaltetzen duela.

Planteatutako kexa batzuetan, etxeko laguntza-zerbitzua aukeratzean, sustatzaileek familia-ingurunean zainketak emateko prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubidea galtzen zuten.

Hala, esate baterako, III. gradua 1. mailako mendeko pertsona batek, etxeko laguntza zerbitzuko hileko 25 orduan etxean artatua denak (kasu horretan esleitutakoak), ez luke prestazio ekonomikorik jasoko Bizkaian. Araban eta Gipuzkoan, berriz, egoera berean egongo

zen pertsona batek etxeko laguntza-zerbitzua (ELZ) jasoko luke, bai eta familia-ingurunean zainketak emateko prestazio ekonomikoa ere, zegokion ehunekoan murriztua (ikusitxoaren honen 6. taula).

5.9. Prestazio ekonomikoetan egindako murrizketekin adostasunik eza

- Murrizketa beste zerbitzu batzuekin batera pilotzeagatik.
Kexa-espeditente batean, interesduna ez zegoen ados Gipuzkoako Foru Aldundiak FIZPEren zenbatekoan egindako %50eko murrizketarekin. Foru-erakundeak murrizketa hori egiten zuen, hartzailea lanerako zentro batera joaten zelako.
Herritarrari adierazi genion lanerako zentroa gizarte zerbitzuen esparruaren barruan sartzen zela (12/2008 Legearen, abenduaren 5ekoaren, Gizarte Zerbitzuei buruzkoaren, 22.2. artikulua eta 2.274/1985 Errege Dekretuaren, abenduaren 4koaren, 2. artikulua) eta ez laneko esparruan. Horrenbestez, lanerako zentroa eguneko zentroaren zerbitzuaren pare jartzea zuzena zen, eta horrek erabat justifikatzen zuen egindako murrizketa, garai hartan indarrean zegoen 133/2007 Foru Dekretuaren, azaroaren 20koaren, AMALen prestazio ekonomikoei buruzkoaren, 4.4. artikulua araberaren egina zena.
Alderdi hori espresuki jasotzen da egungo 25/2009 Dekretuaren, uztailaren 21ekoaren, 4.5. artikuluan.
- FIZPE murriztea, etxean mendekotasun-egoeran dagoen pertsona bat baino gehiago dagoenean.
Etxean mendeko-egoeran dauden bi seme-alaba, adingabeak edo gazteak, FIZPEren onuradunak direnak, dituzten Arabako familien kexak jaso ditugu. Ez daude ados prestazio bakoitzari %25eko murrizketa egitearekin.
Neurri horrek legezko babesa du 70/2007 Foru Dekretuaren, urriaren 23koaren, Araban prestazio hori arautzen duenaren, 9.2. artikuluan. Hau adierazten du artikulua horrek: *“Laguntzen titularrak eta mendekotasun egoera dauden beste batzuk etxe berean bizi badira, horietako bakoitzari % 25 murriztuko zaio prestazioa”*
Murrizketa hori ez da horrela egiten beste bi lurralde historikoetan.
Gure ustez, zaila da neurri horren aplikazioari justifikazioari bilatzea, aurkeztu zaizkigun kasuetan. Arreta mota horretan izaten diren zenbait egoera direla eta (eguneko une askotan beste senide bat edo zaintzaile bat ezinbestean egon beharra, adinez txikikoak diren mendeko pertsonen beharrezko estimulazioa eta etengabeko arreta, adingabe horiek behar dituzten zerbitzuen koste ekonomiakoa –aulki bereziak, fisioterapiako saioak, estimulazioa, logopedia, familiarentzako ibilgailu bereziak, etab.–), komenigarria da murrizketa hori kentzea.
Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Sailari helarazi dizkiogu hautemate horiek, aipatu agindu arauemailea aldatzeko aukera balioetsi dezan. Saila oso harkorra izan da eta familia-inguruan zainketak emateko prestazioei buruz onartu den araudi berrian (40/2010 Foru Dekretua, abuztuaren 3koa), aurrekoa indargabetzen duenean, aipatutako %25eko murrizketa kendu du.
[6.5. atalean](#), murrizketa hori jasan zuen pertsona baten testigantza aurkezten dugu.

5.10. Prestazio ekonomikoa galtzea edo murriztea, mendeko-egoeran dagoen pertsonak hezkuntza bereziko zentrorra joateari utzi eta lanerako zentro batera joaten hasten denean

Antzeko bi kasu planteatu zitzaizkigun, bata Bizkaian, eta bestea, Gipuzkoan. Bi kasuetan, urritasuna zuen adingabea etxean bizi zen, FIZPE jasotzen zuen eta hezkuntza bereziko zentro batera joaten zen (hezkuntza-sarearen mendekoa zena). Adin-nagusitasunera iritsi zenean, beste unitate batean artatzen hasi ziren –zentro berean– lanerako zentro gisa katalogatuta zegoenean (gizarte zerbitzuen sarearen mendekoa).

Lehen kasuan, Bizkaian prestazioen eta zerbitzuen artean dagoen bateraezintasuna dela eta, jasotzen zuen prestazio ekonomikoa kendu egin zioten, eta bigarrean, prestazioa jasotzen jarraitu zuen baina %50ean murriztuta.

Bi erantzunak desberdinak izan ziren arren, araudiaren babesa zuten. Hala ere, kaltetutako pertsonak ez zituzten ulertzen.

5.11. Araututako zerbitzuekin desadostasunak

Arreta goiztiarren laguntzen, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saileko 246/2007 Foru Dekretuaren, abenduaren 18koaren, 9. artikulua aplikatze aldera jasotzen direnen, onuraduna zen neskato baten gurasoak ez ziren foru-erakundearen iritzi berekoak, eta uste zuten ez zela egokia neskatoak estimulazio goiztiarreko programa fisioterapiako modulurik gabe jasotzea. Balioespen- eta orientazio-taldeak gurasoen eskaerari erantzun eta beste balorazio bat egin zuen, baina hasierako preskripzioa berretsi zuen.

5.12. EAEn adinekoentzako bizitegi-zentro eskasia, zenbait mendekotasun motentzat zerbitzu jakinen eskasia, eta gaixotasun mentalak dituzten pertsonen gizarte- eta lan-integrazioa bideratutako baliabideei eta programei erakundeek laguntza eskasa ematea

- Adinekoentzako bizitegi-plazak esleitzeko itxaronaldiari buruzko kexak erregistratzen jarraitzen dugu.
- Gaixotasun mental larriak dituzten pertsonentzako lanerako zentrorren bat berehala itxiko delako kezkatuta dauden pertsonen kexak jaso ditugu. Administrazioekin zentroak mantentzeko sinatu ziren zenbait hitzarmen iraungitzearen ondorioz itxiko dira. Beste kasu batzuetan, kezkaren zergatia da erakundeek babes txikia ematen dietela pertsona horien gizarte- eta lan-integrazioa lortu nahi duten ekimenei. Kasu horietan guztietan, behin eta berriz esaten diegu administrazioei beharrezkoa dela gailu mota horien alde egitea, ahalmen terapeutiko frogatua eta indar handia baitute, gaixotasun mentalak dituzten pertsonak gizartearen eta lanean integratzeko. Hainbat baliabide motari buruz ari gara, hala nola eguneko zentroak, tailerrak,

prebentzio-programak, osasunaren eta errehabilitazioaren sustapena, komunitate terapeutikoak, babestutako etxebizitzak, lanerako zentroak eta klubak.

- 65 urte baino gutxiagoko pertsona batek, mendekotasun handia duenak, batez ere fisikoa, eta etxean bizi denak, aldi baterako bizitegi-plaza bat eskuratzeko eskaera egin zuen, familiari atsedena emateko, baina ukatu egin zioten. Zerbitzu hori Bizkaiko Foru Aldundiko gizarte zerbitzuen egindako Banakako Arreta Programan ezarritako pautan zerbitzu hori jaso arren, zerbitzu horretara sartzea ukatu zitzaion, zerbitzu mota hori ez baitzegoen erabiltzeko moduan pertsona horrek zuen urritasun motarako. Halaber, udalaren eskumenekoa den ELZ bidez arreta pertsonala eskatu zuen, baina Bilboko Udalak erantzun zion “...*beharrezkoa da inplikaturako erakundeek zenbait gauza adostea*”. Zenbait hilabete geroago, ELZ abian jarri zen.

5.13. AMALen jasotako zerbitzuen eta prestazioen onuraduna izateko baldintzak betetzeari buruzko desadostasunak

5.13.1. Mendekotasun-egoeran zegoen eta kongregazio bereko beste lekaike baten zaintzen zuen lekaike baten kasua planteatu zitzaigun. Familia inguruneke zaintzetarako prestazio ekonomikoa (FIZPE) ukatu zitzaion, ahaidetasun-baldintza ez betetzeagatik.

AMALen 2. artikulua profesionalak ez diren zainketei buruz egiten duen definizioa (“*mendekotasun-egoeran dauden pertsonen etxean familiako edo inguruneke pertsonen eman-dako arreta, arreta profesionalerako zerbitzu bati lotua ez dagoena*”); 615/2007 Errege Dekretuak, maiatzaren 11koak, zaintzaile ez profesionalen Gizarte Segurantzaren arautzen duenak, jasotzen duen salbuespenak (“... *salbuespen gisa, inguruneke pertsona baten zainketa ez profesionalak jaso ahal izango dira, adierazitako ahaidetasun-maila izan ez arren, mendekotasun-egoeran dagoen pertsonaren udalerrira berean edo ondoko batean bizi denarena, eta aurreko urtean zaindu duenarena*.”); beste arreta mota batzuk jasotzea eragozten duten kasuaren berariazko baldintzak (klausura-erregimena); eta gure ustez, komunitate mota horretan familia zibila bereizten duten elementu guztiak egotea direla eta, komenigarria litzateke irizpide hori malgutzea.

Iritzi horiek –Gipuzkoako Foru Aldundiari jakinarazi genizkionak– harrera ona izan zuten, eta 2009ko abuztuaren 4an, 25/2009 Foru Dekretua, uztailaren 21ekoa, AMALeko prestazio ekonomikoa arautzekoa, argitaratu zen. Foru Dekretu horren 14.d) artikuluan, ahaidetasun-baldintzatik salbuesten dira “*erlijiosoek beren komunitateko beste kideei emandako zainketak*.”

Arabako eta Bizkaiko foru dekretuek ez dute egoera hori jasotzen, baina jakin dugu barne-jarraibide sendoen bidez artatzen dituztela, eta hori oso egokia dela uste dugu. Hala ere, behin eta berriz esaten dugu hobeto litzatekeela, segurtasun juridikoko arrazoiengatik, us-tezko kasu horiek dagokion araudian sartzea.

5.13.2. Euskal familia batean harreraren zegoen saharar jatorriko adingabe batek mendekotasun-egoera aitortzea eska zezakeen kontsultatu ziguten.

AMALek bere 5.2. artikuluan estatu, autonomia eta nazioarte mailan indarrean dauden adingabeen legeei lotzen da, espainiar nazionalitatea ez duten adingabeentzat.

1989ko haurren eskubideei buruzko Nazio Batuen Hitzarmenak, 1/1996 Lege Organikoa, urtarrilaren 15ekoa, Adingabearen babes juridikoari buruzkoa, eta Euskal Legebiltzarraren 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, haurrak eta nerabeak zaintzekoa eta babestekoa. Lege horiek ezartzen dute administrazio publikoek adingabearen interes gorenaren arabera jokatu behar dutela eta haurraren eskubideak babesten direla bermatu behar dutela, haurrari jatorri nazionalako diskriminaziorik gabe garatzen utziz. Adingabearen interes gorenak beste edozein legezko interesen gainetik egon beharko du.

Betebehar horiek kontuan izan behar dira hauek interpretatzean: AMALen 5. artikulua eta gure erkidegoen hiru aldundiek mendekotasun-egoera aitortzetik eratorritako eskubideak erabili ahal izateko baldintzak arautzeko egin duten araudia.

Adingabeei aplikatzeko antolamendu juridikoak ezartzen du berdintasun-printzipioa adingabeen tratamenduan eta jatorri-arrazoengatik diskriminazioa debekatzea⁷⁷.

AMALek haurrei eta nerabeei aplikatzeko araudiari buruz egiten duen oharriari esker, adingabearen aldeko interpretazioa egin daiteke. –hau da, “adingabearen interes gorena”– legezko egoera administratiboan 5 urtean bizitzen egon dela eragiten du desberdintasunik ez izatea adingabe atzerritarren eta adingabe nazionalen tratamenduaren artean.

Bestetik, 1/1996 Lege Organikoaren, urtarrilaren 15ekoaren, adingabeen babes juridikoari buruzkoaren, 10.3. artikulua hau xedatzen du: *“arrisku-egoeran edo administrazio publiko eskumendunaren babespean edo zaintzan dauden adingabe atzerritarrek osasun-laguntza eta gainerako zerbitzu publikoak eskuratzeko eskubidea dute, legez Espainian bizi ez arren”*.

⁷⁷ Haurren eskubideei buruzko Hitzarmena 2. artikulua

“Estatu alderdiek konbentzio honetan adierazitako eskubideak errespetatuko dituzte, eta ziurtatuko dute konbentzio hau aplikatzen zaiela euren jurisdikzioaren mende dauden haurrei, inolako bereizketarik gabe, haurren, gurasoen nahiz euren lege-ordezkarrien arraza, larru-kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, politikako edo bestelako iritzia, jatorri nazionala, jatorri etnikoa edo gizarte-jatorria, ekonomia-maila, ezintasun fisikoak, jaiotza edo beste edozein ezaugarri dela bide” 23.1. artikulua:

“Estatu alderdiek aitortzen dute ezintasun mentala edo fisikoa duten haurrek izan beharko dutela bizitza bete-betea eta egokia, baldintza jakin batzuetan, duintasuna ziurtatuko dietenak, beraiei kabuz baliatzea ahalbidetuko dietenak eta haurrek komunitatean modu aktiboan parte hartzea ahalbidetuko dutenak.

Estatu alderdiek aitortzen dute ezintasuna duten haurren eskubidea arreta bereziak izateko, eta bultzatu eta ziurtatuko dute, eskuragarri dituzten baliabide guztiekin, zein baldintza ezarri eta baldintza horiek betetzen dituzten haurrei eta haur horiek zaintzeko ardura dutenei laguntza ematea, hala eskatu beharko dena, eta bat etorri beharko dena, haurren egoerarekin eta gurasoen edo haur horiek zaintzen dituzten pertsonen inguruabarrekin. Ezintasuna duten haurren beharrian berezien arabera, artikulua honetako 2. paragrafoarekin bat etorritik ematen den laguntza dohainekoa izango da, ahal den guztietan, kontuan harturik gurasoen edo haurrak zaintzen dituzten beste pertsonen egoera ekonomikoa; laguntza hori bideratuko da ezintasuna duten haurrek modu eragingarrian eskura izan ditzaten hezkuntza, gaitasuna, osasun-zerbitzuak, birgaikuntza-zerbitzuak, enplegarako prestakuntza eta aisialdirako aukerak, eta zerbitzu horiek jaso ditzaten, haurrek gizarteratzea eta banakako garapena erdiesteko, bai eta euren kultura- eta espiritu-garapena ahalik eta gehien erdiesteko ere”

Gure ustez, mendekotasun-egoeren aurreko babesa aginduak aipatzen dituen zerbitzu publikoen baitan sartzen da.

Iritzi horiek Bizkaiko Foru Aldundiari jakinarazi ondoren, aldundiak kasua barne-bideratzearen bidez artatu du, dagokion araudiaren aldaketa onartzen den bitartean.

5.13.3. Espainiar nazionalitateko hiru urteko haur baten amak hiru urte baino gehiago zera-matzen EAEn legez bizitzen. Haur horri FIZPE emateko eskaera ukatu zitzaion, Gipuzkoako Foru Aldundiak ulertzen baitzuen amari eskatu behar zitzaion legezko bizitegi-aldia bost urtekoa zela, AMALen 5.1.c) artikulua aplikatze aldera. Egitan, amak duela bost urte baino gehiagotik bizi zen Gipuzkoan –baina ez legezkoa administrazio-egoeran–. Adingabeari III. gradua 2. mailako mendekotasuna aitortu zitzaion.

Gure ustez, kasu horretan, espainiar nazionalitateko adingabea izateagatik, [4/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 11koa](#), atzerritarren Espainian dituzten eskubideei eta askatasunei eta pertsona horien gizarteratzeari buruzkoa, ez aplikatzeak amaren legezko bost urteko bizialdia ziurtatzeko betekizunaren aldeko interpretazioa egiteko aukera ematen du, xede horretarako amaren bizialdia nahikotzat hartzeko zentzuan.

Espedientearen izapidetzean, amak espainiar nazionalitatea eskuratu du eta berriz FIZPE eskatu du. Gipuzkoako Foru Aldundiak berriz ere uko egin du, 5 urteko legezko bizitegi baimendua ziurtatu behar duela ulertzeagatik, espainiar nazionalitatea eskuratu duen kontuan hartu gabe. Foru-erakunde horri erabaki horrekin ados ez gaudela jakinarazi diogu, espainiar nazionalitatea eskuratu eta gero, ez baitzaio eskatu behar legezko administrazio-egoeran 5 urtean bizitzen egon dela ziurtatzeko, eta beste pertsona nazional batzuei ematen zaien tratu bera eman behar zaiela.

5.13.4. Beste kexa batean, galdetzen zitzaigun diskriminaziorik izan al zen mendekotasun-egoera aitortzea eskatzeko eskubidea eta aitortze horretatik eratorritako zerbitzuak eta prestazioak eskuratzeko eskubidea ukatu zitzaion adingabe atzerritar baten kasuan. Erabakiak legezko babesa zuen, adingabeak ez baitzuen betetzen atzerritarrei nahiz nazionaleri eskatutako betekizuna, Espainiako lurraldean bost urtean bizi behar izatekoa –bost urte baino gutxiagoko adingabeen kasuan, zaintza eta babesa betetzen duenari eskatzen zaio bizialdi hori–. Beraz, ez zen hauteman diskriminaziorik.

Hori, ordea, ez da oztopo esateko behar bereziko kasuetan, eskuartean duguna bezalakoetan, beharrezkoa litzatekeela adingabearen interes gorenaren nagusitasunari arreta jarriz formulak egitea, mendekotasun-egoeraren babes eraginkorra eskaintzeko aukera emango zutena.

5.13.5. Portugaldar jatorriko pertsona bati, Espainian hogeita hamar urte baino gehiagoan lan egin zuenari, ukatu egin zitzaion Autonomiarako eta Menpekotasunari Arreta emateko Sistema erabiltzeko eskubidea, ez baitzuen ziurtatzen eskaera egin aurreko bi urteetan bertan bizi izan zela.

Komunitateko pertsona bat zenez, 4/2000 Legea ezin zitzaion aplikatu. Lege horrek⁷⁸ ezartzen du erregimen komunitarioko arauak, eta aldekoagoak izan daitezkeen alderdietan aurreko araudiak bakarrik, zuzentzen dituztela Europar Batasuneko estatu kideetako nazionalak.

Kasuari aplika dakioken araudiak, komunitateko herritarrei buruzkoak⁷⁹, ezartzen du⁸⁰ pertsona horiek edozein jarduera egiteko eskubidea dutela, besteren kontura edo norberaren kontura, zerbitzuak ematen edo ikasten, Espainiako biztanleriaren baldintza beretan, [Europa Erkidegoa eratzeko Itunaren](#) 39.4. artikuluan ezarritako mugari kalterik egin gabe.

Erregimen komunitarioko araudiak langileen zirkulazio askerako eskubidea ezartzen du. Hortik eratoritzen da pertsona horiek gizarte-laguntza edo gizarte-prestazioak nazionalen baldintza beretan eskuratzeko eskubidea. Eskubide komunitarioak kanpo uzten du diskriminazio zuzen edo zeharkako oro eta prestazioak langilearen senideengana zabaltzen ditu (ezkontidea, 21 urte baino gutxiagoko ondorengoak edo bere kargura daudena)⁸¹.

⁷⁸ Atzeritarrek Espainian dituzten eskubideei eta zereginei eta beren gizarteratzeari buruzko Lege Organikoaren 1.3. artikulua:

“Erregimen komunitarioko arauak, eta haien artean aldekoagoak izan daitezkeen alderdietan Lege honek, zuzenduko dituzte Europar Batasuneko estatu kideetako nazionalak eta erregimen komunitarioa aplikatzen zaienak.

⁷⁹ 240/2007 Errege Dekretua, otsailaren 16koa, Europako Espazio Ekonomikoari buruzko Ituna sinatu duten beste estatu batzuetako herritarrek Espainian sartzeari, askatasunez joan-etorrian ibiltzeari eta bizitzeari buruzkoa.

⁸⁰ 3. artikulua:

(...)

“2. Era berean, errege-dekretu honen aplikazio-esparruan sartutako pertsonak, kargura bizi diren hogeita bat urte baino gehiago ondorengoak eta errege dekretu honen 2.d) artikuluan jasotako arbasoak izan ezik, edozein jarduera izateko eskubidea dute, besteren kontura edo norberaren kontura, zerbitzuak ematen edo ikasten, Espainiako biztanleriaren baldintza beretan, Europako Komunitatea Eratzeko Itunaren 39.4. artikuluan ezarritako mugari kalterik egin gabe.

Kargura dagoen senidearen egoera ez da aldatuko, baldin eta kargura dagoen senideak lortutako diru-sarrerak bere mantenturako ez direla ziurtatzen duen lan-jarduera bat egiten badu, urteko zenbaketan hiru hilabete baino gehiagoko iraupena ez duten eta lan-merkatuan lanbide gisa jarraipenik ez duen lanaldi osoko lan-kontratu bat badu, edo lanaldi partzialeko lan bat egiten badu, ordainketa mantenturako beharrezkoa ez izanik.

Kargura dagoen senidearen egoera bukatuz gero eta Europar Batasuneko biztanlearen senide izateari aldi baterako utziz gero, 4/2000 Lege Organikoaren Erregelamenduari 96.5. artikulua aplikatuko litzateke.

(...)

4. Espainian bizi diren Europar Batasuneko biztanle guztiek, errege-dekretu honetan xedatutakoarekin bat, tratu-berdintasuna izango dute espainiarrekin, Europako Komunitatea Eratzeko Ituna aplikatzeko esparruan. Eskubide horren ondorioak Europar Batasuneko estatu kide bateko edo Europako Espazio Ekonomikoari buruzko Itunaren kide diren estatu bateko nazionalitatea ez duten familiako kideengana hedatuko da, bizileku eskubidearen edo behin betiko bizileku-eskubidearen onuradunak.”

⁸¹ 45. artikulua (antzinako 39. artikulua TCE):

“1. Langileen zirkulazio askea ziurtatuta geratuko da Batasunaren barruan.

2. Zirkulazio askeak berekin ekarriko du estatu kideetako langileen artean nazionalitate-zioengatik diskriminazioak indargabetzea, enpleguari, ordainketari eta beste lan-baldintzei dagokienez.

3. Ordena publikoko, segurtasuneko eta osasun publikoko arrazoiengatik justifikatutako mugei kalterik egin gabe, langileen zirkulazio askeak eskubide hauek ekarriko ditu berekin:

a) lan-eskaintza eraginkorrei erantzutekoa;

b) xede horretarako estatu kideen lurraldeetan lekualdatzekoa;

c) estatu kideetako batean bizitzekoa, bertan lan egiteko, langile nazionalen enpleguari aplika dakizkiokeen xedapen legalak, erregelamenduzkoak eta administratiboak kontuan hartuta.

d) estatu kide baten lurraldean egotekoa, bertan lan egin ondoren, Batzordeak ezarritako erregelamenduetan aurreikusitako baldintzetan.”

Europako komunitateen Auzitegi Judizialaren⁸² dotrinaren arabera, besteren kontura lan egiten duten edo beren kontura lan egiten duten langileei edo estatu kide baten edo batzuen legediaren mende egon diren langileei eta estatu kideetako bateko nazionalak direnei, eta beren familiei eta bizirik atera direnei aplikatzen zaie 1408/71 Erregelamendua. Araudi horrek bermatzen du estatu eskumendunaren kargura dagoela besteren kontura edo norberaren kontura lan egiten duten langileek eta beste estatu kide batean bizi diren langilearen senideek, beren estatuak laguntza behar duenean bizilekua den estatu kidearen lurraldean, eskubidea izango dutela gauzak gaixotasun-prestazioak jasotzeko azken estatu kide horren erakundeak emandakoak⁸³. Helburua da besteren konturako langileak eta bere kontura ari den langileak, bizi tokia duen edo egonaldian dagoen estatu kidean, bere osasun-egoerari dagokion laguntza estatu kide horretako gizarte segurantzako sistemara afiliatutako pertsonekin berdintasun-baldintzetan jasotzeko aukera izango duela bermatzea. Beraz, araudi komunitarioak ez du babesten komunitatekoak diren biztanleek tratu desberdina izatea.

Portugalدار herritarraren kasuan, ez genuen antzeman tratu desberdina. Izan ere, Espainian bost urtean baino gehiagoan bizi izan zela ziurtatzen zuen arren, ez zuen egiaztatzen eskaera egin aurreko bi urteetan bertan bizitzen egon zenik, eta hori bete beharreko baldintza da, jatorria edozein izanda ere. Hori dela eta, jakinarazi genion bi urteko bizi tokia bete arte itxaron behar zuela, AMALek aitortzen dituen eskubideen jabe izateko.

5.13.6. Bizkaiko Foru Aldundiak, FIZPEren dekretu arauemailea aplikatzeko, 93 urteko pertsona bati, mendekotasun-egoeran dagoenari (III. gradua 1. maila), prestazioa ukatzea ebatzi zuen, ahaidetasun-betekizuna ez betetzeagatik (hirugarren mailaraino) dekretu horretan ezarritako zainzaile nagusiarekin.

Kasu horretan, oso baldintza bereziak zeuden: osaba-izebek beren lehen haurtzaroan hartu zuten mendeko-egoeran zegoen pertsona, eta seme bat gehiago balitz bezala zaindu

⁸² Petra von Chamier-Glisczinskik Krankenkasseren aurka egindako kasua, 2009ko uztailearen 16ko epaia.

⁸³ 1408/71 Erregelamendua. 19. artikulua. Estatu eskumenduna ez den estatu kide batean bizi:

"1. Besteren konturako langileak edo bere kontura lan egiten duenak, estatu eskumenduna ez den estatu kide baten lurraldean bizi denak eta estatu eskumendunak prestazioak eskuratzeko eskubidea izateko eskatzen dituen baldintzak betetzen dituenak, bere kasuan 18. artikulua xedapenak kontuan izanda, bizileku duen estatuan hau izango du.

a) Erakunde eskumendunaren kontura bizilekuko erakundeak gauzak emandako prestazioak, erakundeak aplikatzen duen legediaren xedapenen arabera eta bertara afiliatuta egongo balitz bezala.

b) Erakunde eskumendunak emandako prestazioak dirutan, erakundeak aplikatzen duen legediaren xedapenen arabera. Hala ere, erakunde eskumendunaren eta bizilekua duen erakundearen artean aurretik hitzarmena egin ondoren, azken erakunde horrek eman ahal izango ditu prestazioak, lehenengoaren kontura, estatu eskumendunaren legediaren xedapenen arabera.

2. 1. ataleko xedapenak analogiaz aplikatu ahal izango dira estatu eskumenduna ez den estatu kide baten lurraldean bizi diren familiako kideei, bizi diren Estatuko legediari jarraiki prestazio horiek eskuratzeko eskubidea ez badute.

Baldin eta familiako kideak estatu kide batean biziko balira, non gauzako prestazioen eskubidea aseguru- edo enplegu-baldintzen mende ez dagoena, emango zaizkien gauzako prestazioak besteren konturako edo bere konturako langilea afiliatuta dagoen erakundearen konturakoak izango dira, seme-alaben zaintza duen pertsonak edo ezkontideak estatu kide horretan jarduera profesional bat egiten duenean izan ezik."

zuten, izatezko egoera hori legez formalizatu gabe. Lehengusinarekin bizi izan zen bitzta osoan zehar, arreba bat balitz bezala, biak baserrian geratu baitziren. Izatezko arreba hil ondoren, alaba arduratzen zen osaba zuzentzat zuen gizon hartaz.

Foru-erabakia legezketasunari atxikitzen zitzaion, formalki ahaideak baitziren laugarren graduan. Hala ere, ulertu genuen kasu horri artatzea justiziazkoa zela eta hala planteatu genuen Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrean.

Foru-erakundeak jakinarazi zigun gure iritzi berekoa zela, eta aurreikusita zegoela kasu hori eta beste batzuk FIZPEren dekretu erregulatzailer berriari kontuan hartzea. Araudi berriaren onarpena atzeratzen ari zenez, eta pertsona oso zaharra zenez eta mendekotasun-maila handia zuenez, Gizarte Ekintzako Sailak instrukzio bat onartu zuen, kasu jakin hori artatzeko aukera eman zuena.

5.13.7. Pertsona bat mendekotasun-egoeran zegoen (III. gradua), eta ez zuen berarekin batera bizi eta zain zezaketen seniderik. Hori zela eta, familiakoa ez zen batek zaintzen zuen, eta berarekin batera bizi eta lan-harreman bat zuen.

Bizkaiko araudiaren arabera, ezin zuen FIZPE jaso, ez baitzegoen ahaidetasunik bien artean. Era berean, ezin zuen laguntza pertsonaleko prestazio ekonomikorik eskuratu, ez baitzuen lan- eta hezkuntza-jarduera bakar bat ere garatzen –Bizkaian betekizun hori eskatzen dute, prestazio hori emateko–. Une hartan, ohartarazi genuen egoera hori beste bi euskal lurralde historikotan artatu zela: Araban, orduan indarrean zegoen urriaren 23ko 70/2007 Foru Dekretuaren 7. artikulua aplikatzeagatik, eta Gipuzkoan, laguntza pertsonalerako prestazioa ematearen bidez.

5.13.8. Zuzeneko senide batek mendekotasun-egoeran zegoen pertsona bat zaintzen zuen. Berarekin batera bizi ez arren, etxetik metro gutxira bizi zen.

Lehen aipatutako arabar aginduak ustezko kasu hori jasotzen zuen. Hala ere, ez Gipuzkoan (mendeko handia izateagatik), ez eta Bizkaian ere, ez luke prestazioa jasotzeko eskubiderik izango.

5.13.9. Gipuzkoan bizi izan zen adineko bat Arabara joan zen bizitzera, semearen etxera, bere osasun-egoerak okerrera egin zuenean. II. graduko mendekotasun-egoera aitortu zitzaion eta FIZPE eskatu zuen. Arabako Foru Aldundiak ukatu egin zion, eskaera egin zuen unean, mendeko-egoeran zegoen pertsonak eta bere zaintzaileak ez baitzeramaten urte bat elkarrekin bizitzen (orduan indarrean zegoen urriaren 23ko 20/2007 Foru Dekretuaren, prestazio hori arautzen zuenaren, 7. artikulua 4. atalak eskatzen zuen betekizun hori).

Uztailaren 21eko 25/2009 Dekretuaren 51.b) artikulua aplikatzeagatik, ezin zuen prestazio hori eskuratu Gipuzkoan, jada ez baitzegoen han erroldatuta, eta ez baitzen han bizi. Hala

ere, pertsona horrek prestazioa eskuratzeko oinarrizko betekizunak betetzen zituen: mendekotasun-gradua eta –maila eraginkorrak izatea eta zuzeneko senide batek etxean zaintzea.

AMALek (14.4. artikulua) ezartzen du beharrezkoa dela mendeko-egoeran dagoen pertsona eta zaintzailea elkarrekin bizitzea, eta 615/2007 Errege Dekretuak, maiatzaren 11koak (1.1. artikulua), zer ahaidetasun eskatu behar den adierazten du (ezkontideak edo odolki-detasunagatik ahaideak, ahaidetasuna edo adopzioa, hirugarren ahaidetasun-mailara arte), baina inolaz ere ez da ezartzen gutxieneko elkarbizitza-aldi bat, prestazio hori eskuratzeko eskubidea izateko.

Betekizun hori beste bi euskal lurraldeetan aztertuta, ikusi dugu bietako batean ere ez dela eskatzen antzinatasuna erroldatzean.

Hala, EAE barruko mugimenduetan, Bizkaira edo Gipuzkoara joaten den pertsonak prestazio hori berehala jaso dezake, eta Arabara joaten bada, berriz, urte bat itxaron beharko du jasotzeko.

Ez da egokia tratu desberdin hori izatezko egoera beraren aurrean, are gehiago kontuan izaten badugu, mendekotasun-egoeran dauden adinekoen kasuan, leku-aldatze horiek ohikoak direla, seme-alabek txandaka zaindu ditzaten.

Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Sailari adierazi genion gure kezka eta azalduakoa balioestea ere eskatu genion, betekizun horren araudi-aldatzeko bultzatzeko xedez. Foru-erakundeak adierazi zuen gai hori aztertuko zuela. Hala ere, dekretu berriak eskatzen du zaintzaile ez-profesionala prestazioaren onuradunaren etxe berean erroldatuta egotea eta bizileku eraginkorra bertan izatea, gutxienez urte bat aurretik (kasu horretan, BAP egiteko datan -jada, ez eskaeran). Aldundiari berriz eskatu diogu betekizun hori kentzeko.

5.13.10. Kexaren bultzatzaileari laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubidea kendu zitzaien, koinata, senarraren arreba, kontratatu zuenean, eta hala, legez kontra jasotako prestazioak itzultzeko prozedura bat hasi zen.

Gipuzkoako Foru Aldundiak ondo aplikatu zuen bere araudia, zehazki uztailaren 21eko 25/2009 Foru Dekretuaren, prestazio horren erregulatzailaren, 16. artikulua. Artikuluak betekizun bezala ezartzen du laguntzaile pertsonalak familia-harremanik ez izatea onuradunarekin (odolkidetasunatik, senidetasunagatik edo adopzioagatik laugarren ahaidetasun-mailatik aurrera harremanik ez dagoela ulertuz).

Hala ere, foru-erakundeari iritzi multzo bat helarazi genion, betekizun hori kentzea sustatzeko, faboratzen zuen bazterketak legezko babesik ez zuela ulertzeagatik (ez da jasotzen AMALen epigrafe bakar batean, ez eta garapen-araudi estatalean ere).

AMALen 18. eta 14.4. artikulua, mendekotasun-egoeran dauden pertsonen zaintzaileen Gizarte Segurantzaren arautzen duen Errege Dekretuaren 1. artikulua eta 25/1009 Foru Dekre-

tuaren 14. d) artikulua batera interpretatuz gero, ondorioztatzen da laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoaren baliabidea soilik debekatuko zitzaiela mendekotasun-egoeran dagoen pertsonarekin bizi diren senideei (hirugarren ahaidetasun-mailaraino), kasu horretan, FIZPE soilik jasotzea egokitu baitzitzaien. Hori ez zen eskuartean genuen ustezko kasua.

Kontratututako pertsona mendekotasun-egoeran zegoen pertsona bat zaintzeko zen. Nabardura hori bereziki hartu behar zen kontuan, arreta mota horretan ezinbestekoa baita kontratatutako pertsonarekin ahalik eta konfiantza handiena izatea. Interesdunak eta bere senarrak pentsatu zuten senarraren arrebak zela pertsonarik egokiena eta laguntza pertsonalerako lanak egiteko berme handienak ematen zizkiena. Pertsona hori ez zen mendekotasun-egoeran zegoen pertsonarekin batera bizi, eta horrenbestez, ez zen egokia familia-ingurunean zainketak emateko prestazio bat jasotzea.

Gure ustez, senidea izateak ez luke eragotzi behar pertsona batek laguntzaile pertsonalaren jardura profesionala egitea, eta era berean, ez luke eragin behar jardura hori egiteko duen gaitasuna eta egokitasuna gutxietea ere. Gure ustez, egokiena izango litzateke, kasu bakoitzean, langileak eskatzen diren betekizun profesionalak betetzen dituen eta jardura edo lanbidea betetzeko prestatzeko duen egiaztatzea. Kontratututako pertsona ahaideak izateak ez digu *iuris et de iure* pentsarazi behar ez dela soldatapeko profesional bat.

Ez dugu ulertzen zergatik baztertzin diren arau horren aplikazio subjektibotik laugarren ahaidetasun-mailara arteko senideak. Bazterketa horren azpian egon daiteke berez jardura profesionala betetzen ez duten senideek gehiegikeriak edo iruzurrak egiteko beldurra. Gure ustez, egokia eta komenigarria da Administrazioak iruzurra eragozteko eta iruzurra jazartzen duten mekanismoak sustatzea. Hala ere, ikusten den bezala, *iuris tantum* uste bat da; hau da, soldatapeko pertsona langile gisa enplegatua izatea ziurtatzen duten zenbait betekizun betetzea eta izatea batez ere oinarri izango litzuzkeen aurka proba onartzen du. Baldintza hauei buruz ari gara, besteak beste, enplegatuekin ez bizitzea, enplegatua kargura ez egotea, Gizarte Segurantzak dagokion erregimenean alta emanda egotea eta kuoten ordainketa egunean izatea, eta lan-kontratu bat izatea. Baldintza horiek guztiak kasu horretan ematen ziren.

5.14. Pertsona horiei eman beharreko arretan zenbait alderdi hobetzeko beharra

5.14.1. 40 urte baino gutxiagoko pertsona batek, mendekotasun-egoeran zegoenak eta urritasun fisikoa zuenak, bizitegi-plaza bat eskatu zuen zentro batean, non urritasun bera zuen bere arrebak zegoen. Beste zentro batean, duela gutxi irekitakoan, esleitu zitzaion plaza, adinekoentzako egoitza batean txertatua zegoenean. Zentroan sartu eta gero, haren egoerarentzat eta gogo-aldartearentzat desegokia zela pentsatu zuen, eta hurrengo egunean, alta eskatu zuen. Arrazoi nagusia izan zen inguruko pertsonen beste kidetasun eta interes batzuk zituztela, eta askok arazo kognitiboak zituztela. Horrek guztiak zailtasun handiak eragiten zizkion bere gizarte-harremanetan eta zentroan integratzeko garaian. Aldundiak alta hori plazaren ukotzat hartu zuen, eta beste plaza bat lortzeko bi urteko zigorra aplikatu zion (ekainaren 7ko 96/2005 Dekretuaren 2.6. artikulua aplikatuz).

Gai hori planteatu genion foru-erakundeari, interesdunak emandako arrazoiak zentzuzkoak zirela ikusaraziz, eta ohartaraziz komenigarria zela ahizparen ondoan egotea. Azkenean, Bizkaiko Foru Aldundiak agindu hori aldatu zuen, zigorraldia bi urtetik sei hilabetera murriztuz (118/2009 Foru Dekretua, uztailaren 28koa), eta horrek mesede egin zion kaltetutako pertsonari.

5.14.2. Basurtoko Ospitaleko pediatria-neonatologiako medikuek bere zalantzak helarazi zizkigun Jaioberrien Unitateak goizegi eta pisu gutxirekin jaiotako haurren eta/edo urritasun bat izateko arriskua zuten haurtxoen familiei ematea komeniko litzatekeen jarraibideei buruz.

Zalantzarik gabe, gizarte- eta osasun-zerbitzuen arteko koordinazioaren ustezko kasu argi baten aurrean gaude, ezinbestekoa dela kaltetutako haurtxoei eta haien familiei arreta oso bat emateko.

Bizkaiko Foru Aldundian gai horretan jarduten diren langileekin harremanetan jarri ginen eta mezu argi bat transmititu ziguten: haurtxo horiek baloratzen ari dira eta beren mendekotasun-egoeraren aitortpena eskuratzen ari dira; kasu askotan, prestazio ekonomiko bat eta arreta goiztiarreko zerbitzuak arautzen ari dira. Komenigarria iruditu zitzaigun foru-erakundearen eta Basurtoko Ospitalearen artean ezinbestean harremana egon beharko zukeela. Ziur badakigu 2010eko otsailean bilera bat egin zela (Basurtoko Ospitalea, Pediatria Neonatologia Gizarte Ekintza Sailarekin, Gaigabeziarekin, Bizkaiko Foru Aldundiko Bizkaia Oinarri-zko Zentroarekin), eta topaketa horren ondorioz, gizarte- eta osasun-jarduketako prozedura bat abian jarri dela Basurtoko Ospitalean, Neonatologiako, Pediatriako eta Gizarte Laneko atalen partaidetzarekin, gaixoen eta osasun- eta gizarte-sistemaren artean komunikazioa errazteko.

5.14.3. Arartekoak ofiziozko espediente batean esku hartzeagatik, Arabako Foru Aldundiak zentro bateko (bizitegikoa edo egunekoa) erabiltzaile bati beste zentro batera lekualdatzeko eskatzen zitzaion betekizun bat kendu zitzaion. Betekizun horrek ezartzen zuen beharrezkoa zela jatorrizko zentroan egokitzapen-aldi bat betetzea, hasieran 6 hilabetekoa⁸⁴ zena, eta ondoren 3 hilabetera⁸⁵ murriztu zena. Arartekoaren ustez, ez zen betekizun hori eskatu behar, batez ere lekualdatzeko arrazoiak erabiltzailea bere familia- eta gizarte-ingurunera gerturaztea zenean, eta batez ere, lekualdaketa horrek udalerriz aldatzea eragiten bazuen.

Azkenik, Arabako Foru Aldundiak 85/2008 Foru Dekretua, irailaren 16koa⁸⁶, egun indarrean dagoena, onartu zuen. Foru Dekretu horrek betekizun hori kentzen du eta lekualdatzeko arrazoi hauek ezartzen ditu:

⁸⁴ 18/2003 Foru Dekretua, otsailaren 25ekoa.

⁸⁵ 39/2007 eta 45/2007 Foru Dekretuak, apirilaren 24koa eta maiatzaren 8koa, hurrenez hurren.

⁸⁶ 39/2007 eta 45/2007 dekretuak aldatzen dituen Dekretua.

- familiaren etxera gerturatzea;
- eskatutako zentroa egokiagoa izatea, erabiltzailearen beharrei dagokienez.
- eskaera behar bezala arrazoitzen duen beste edozein arrazoi pertsonal eta/edo familiako arrazoi.

Hala, pertsona batek zentroz aldatzea eskatzen badu, familia-baldintzak eta baldintza pertsonalak kontuan izango dira, eta bere ingurune naturaletik gertu dagoen plaza bat esleitu ahal izango zaio, jatorrizko zentroan zenbat denbora daraman kontuan izan gabe, foru-erakundeari helarazi genion iradokizunarekin bat.

5.15. Murrizketak aurretik eskuratutako eskubideetan

Zerbitzuari lotutako prestazioari buruzko Arabako foru-araudiaren (24/2008 Dekretua, apirilaren 8koa) aplikaziotik eratorritako arazo multzo baten berri izan dugu, abenduaren 30eko 77/2004 foru-dekretuen eta uztailaren 3ko 53/2007 foru-dekretuen, sare publikokoak ez ziren egoitzetan mendeko-egoeran dauden pertsonak sartzeko banakako prestazio ekonomikoak emateko sistemaren araudi erregulatzaila ezartzen zutenen, arabera, mendekotasun-egoeran zegoen pertsonak antzeko laguntzak jasotzen zituen kasuetan.

Kasu horietan, araudi berriak zenbateko txikiagoak aurreikusten ditu orain arte jasotzen zirenak baino, eta Administrazioak araudi hori atzeraeraginez aplikatu du, jada ordaindutako zenbatekoak eskatuz, eta horrenbestez, aurretik eskuratutako eskubide batzuk mugatuz.

Erakunde hori murrizketa horien kontra dago, eta araudi berria indarrean jartzen denetik araudi hori aplikatzearen alde, segurtasun juridikoaren, kontrako zigor-xedapenen edo banakako eskubideen xedapen murriztaileen (Espainiako Konstituzioaren 9.3. artikulua) atzera-eraginezintasunaren printzipioei eta Auzitegi Konstituzionalak gai horri buruz behin eta berriz errepikatutako jurisprudentziari (97/90, 42/1986 eta 70/1988 Epaiak) jarraiki.

5.16. Beste laguntza mota batzuk eskuratzeko arazoak

5.16.1. 118/2007 Dekretuak, uztailaren 17koak, familiako bizitza eta lana bateratzeko neurriak arautzen dituenak, bere 16.2. artikuluan aurreikusitako laguntzei heltzea eragozten zuen mendekotasun-egoera zegoen pertsona, hura zaintzeko lanaldia murrizteko eskatu zena, gizarte zerbitzuetako eguneko zentro batean zaintzen bazen. Muga hori ez da egiten seme-alabak zaintzeko lanaldiaren murrizketa bat denean.

Beraz, adingabea (mendekoa izan edo ez izan) hezkuntza-sareko zentro batera joaten bazen, adingabea zaintzeko lanaldia murrizten zuenak laguntza eska zezakeen. Aitzitik, gizarte zerbitzuetako sareko zentro batera joaten bazen, ezin zuen laguntza jaso, nahiz eta bi kasuetan mendeko-egoeran zegoen pertsona etxetik kanpo eguneko antzeko ordu kopuruan zaindua izan.

Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailari helarazi genion kasua eta planteatu genion tratuan izandako desberdintasun hori diskriminatzailea izan zitekeela, behar bezala justifikatuta ez bazegoen. Sailak adierazi zigun kontuan izango zuela gure gogoeta aipatu Dekretuaren berrikuseta bat egiten bazen. Hain zuzen ere, horrela egin zuen, eta 177/2010 Dekretu berriak, ekainaren 29koak, familiako bizitza eta lana bateratzeko laguntzei buruzkoak, mendeko-egoeran dagoen senide bat zaintzeko lanaldi murrizketa eskatu duen bati laguntza eskatzeko aukera ematen dio, mendeko-egoeran dagoen pertsona gizarte zerbitzuetako sarearen eguneko zentro batera joan arren.

Dekretu horrek mendeko-egoeran dauden pertsonen laguntzeko zenbait taldek eskatzen zuten araudiaren aldaketa bat ere barne hartzen du. Zehazki, 21. artikulua bermatzen du emakumeen eta gizonen zenbateko ekonomikoak berdinduko direla. Aurreko araudiari jarraiki, zenbateko handiagoak ezartzen ziren gizonentzat, ekintza positiboko neurri gisa. Hala ere, zainketaren gizarte-errealitatea dela eta, aholkatzen zen emakumeak ez kaltetzea gai horretan.

5.16.2. Bere garaian, hainbat kexa jaso genituen, 65 urte baino gehiagoko pertsonen Bizkaian laguntza-produktuak erosteko eskaintzen ziren laguntza ekonomikoak eskuratzeko zuten ezintasunarekin zerikusia zutenak. 2003. urtean, ofiziozko espediente bat izapidetu genuen, eta espediente horretan, Aldundiari adierazten genion komenigarria zela adinaren betekizuna kentzea laguntza horiek eskuratzeko. Gai hori aztertuko zutela jakinarazi ziguten, baina araudia ez zen aldatu hainbat urte igaro ziren arte, zehazki 2009. urtean.

2008. urtean, mendekotasun-egoeran zegoen bizkaitar baten kasuaren berri izan genuen, etxebizitza egokitu gabea zuenarena. Mendekotasun hori zela eta, etxean obrak egin behar izan zituen eta beharrezko laguntza-produktuak erosi, familia-ingurunean zainketak emateko prestazioa eskuratu ahal izateko. Paradoxikoki, pertsona hori ezin zen foru-laguntza ekonomiko bakar baten onuradun izan gastu horiek ordaintzeko, 65 urte baino gehiago baitzituen.

Muga horrek desegokia ematen zuen, mendekotasun-egoeran zeuden adineko askori beren autonomia errazteko behar zituzten produktuak eskuratzeko eragozten baitzien. AMAL indarrean sartu zenean, nabarmendu zen neurri hori erabat desegokia zela, araudiak iradokitzen zituen printzipioak ikusita. Pertsona etxean egoteak, lortu nahi den helburu gisa, eskatzen du etxean bizigarritasun-baldintza egokiak egotea, familia-ingurunean zainketak emateko prestazio ekonomikoa jasotzeko *sine qua non* betekizuna baita. Era berean, laguntza-produktuak izatea, ezinbestekoa izan daiteke betekizun hori betetzeko.

2009. urtetik aurrera, Bizkaiko Foru Aldundiak Autonomia pertsonala sustatzeko, orientazioa emateko eta, sustapen horretan laguntzeko produktuak mailegatzeko, foru zerbitzu publikoa –Gizatek– sortzeak eta dagokion erregulazioa aldatzeak arazoa bukatu zuen, aipatutako adin-betekizuna kenduz.

5.17. Prezio publikoaren kalkuluarekin desadostasuna

Bizkaiko udal batek mendekotasun-egoera aitortu zitzaion pertsona batekin (III. gradua 2. maila) bizi zirenen diru-sarrera guztiak zenbatu zituen, arautu zitzairen ELZren prezio publikoa kalkulatzeko. Udalak errentaren eta bizikidetzako unitate ekonomikoaren ondarearen zehaztapena zuzentzen duten irizpideak aplikatzen zituen, diru-sarrerak bermatzeko errenta izateko eskubidea ematen duten baliabide ekonomikoak ez daudela egiaztatze aurreikusitako arauen arabera.

Udalari jakinarazi genion hori ez zela moldatzen 12/2008 Legearen, abenduaren 5ekoaren, Gizarte Zerbitzuei buruzkoaren, 57.4.b) artikulua agindutakora. Artikulu horren arabera, erabiltzailearen baliabide ekonomikoak soilik hartu beharko lirateke kontuan, gainerako seni-deak ekonomikoki pertsona horren mende daudenean izan ezik.

Udala ados egon zen iritzi horrekin, eta horren ondorioz, zenbatekoa aldatu zuen, mendekotasun-egoeran zegoen pertsonaren diru-sarrerak soilik kontuan hartuz.

5.18. Beste alderdi batzuei buruzko salaketak

Beste espediente batean, Bizkaiko Foru Aldundiak mendekotasun-egoera balioesteko zerbitzuak egiteko beste enpresa batzuk azpikontratatzan zituela jakinarazi zitzaigun, AMALen 28.6. artikulua edukiak hau esan arren: *"Administrazio publikoek zuzenean egin behar dituzte mendekotasun-egoeraren balioespen-zerbitzuak, zerbitzuen eta prestazioen aginduak, eta Lege honetan aurreikusitako prestazio ekonomikoaren kudeaketa, eta ezingo zaie erakunde pribatuei zerbitzu horiek eskuordetu, ezingo dira erakunde pribatuak zerbitzu horiek betetzeko kontratatu, ez eta erakunde pribatuekin zerbitzu horiek ematea hitzartu ere"*.

Gai hori txosten honen 3.2.2.3. atalean lantzen da.

Aurkeztutako kexa batzuk Arartekoaren gomendioen sorburu izan dira:

- **Arartekoaren ebazpena, 2009ko uztailaren 23koa.** Horren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiari gomendatzen zaio familia-ingurunean zainketak emateko prestazio ekonomikoa ematea, mendekotasun-egoera balioesteko eskaera egin zen datatik aurrera. FIZPE emateko betekizunen betetzean desadostasunak zeudela planteatzen zen, zehazki, familia-esparruan zainketak eraginkortasunez egiteari buruzko betekizuna, prestazioa eskatzeko unean, emate horren ondorioak atzera egin beharko luketen garaian. 133/2007 Foru Dekretuaren lehen xedapen iragankorrak betekizun hori egiaztatze-ko etxe berean erroldatuta egotea, eta zaintzailea eta mendeko-egoeran zegoen pertsona elkarrekin bitztea eskatzen zuen.

Kexaren sustatzaileak bizikidetza hori ziurtatzen zuen, eskaera egin zen unetik, udal agintaritzak egindako bizikidetza-ziurtagiri baten bidez, baina erroldatze-ziurtagiriaren datak beranduagokoa zen.

Gure ustez, erroldatze-ziurtagiri bat izateak ez luke berariazko betekizuna izan behar prestazioa emateko, baizik eta eskubidez onar daitezkeen proben artean beste bat. Ez zirudien egokia foru-araudi berak frogatzeko bideak mugatzea. Izan ere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legearen 80.1 artikularekin bat, eskubidez onargarriak diren guztiak baitira frogatzeko bideak (Kode Zibilean eta auzipetze zibilari buruzko Legean aurreikusitakoak: dokumentu publikoak, pribatuak, alderdien itaunketak, lekukoenak, presuntzioak, etab.), are gehiago, behin eta berriz aipatutako jurisprudenziaren arabera, muga hori lege lerruneko arau baten bidez soilik ezar daitekeenean, aipatu foru-dekretuak ez duen lerruna hain zuzen.

Hori dela eta, Arartekoak Gipuzkoako Foru Aldundiari gomendatu zion FIZPE emateko mendekotasun-egoera balioesteko eskaera egin zen datatik hasita, bizikidetza-betekizuna behar bezala egiaztatuta zegoela uste baitzuen.

Gaur egun, 25/2009 Foru Dekretuak, uztailaren 21ekoak, AMALen prestazio ekonomikoak Gipuzkoan arautzen dituenak (eta aipatu 133/2007 Foru Dekretua indargabetzen duenak), ez du aipatzen erroldatze-ziurtagiria, eta 14. artikuluan hau xedatzen du: *“zaintzaile ez profesionalak legezko egoeran bizi beharko du Gipuzkoako Lurralde Historikoan.”*

6

**MENDE TASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONEN ETA HAIEN
ZAIN TZAILEEN LEKUKOTASUNAK**

ararteko

Txosten honen [1.2. idatz-zatian](#) jada aurreratu genuen moduan, bost pertsonaren lekukotasunak aurkeztuko ditugu. Haien bizitzak, zuzenean edo zeharka, mendetasunaren fenomenoak eraginda daude. Pertsona horien bizitzako esperientziak aztertu genituen, sistema publiko ezberdinetatik eskaintzen zaien laguntza, eskura dituzten laguntza formalak edo informalak, gizarteak beren arazoari emandako erantzuna eta, bereziki, Autonomiaren aldeko eta mendetasunari arreta emateko legearen aplikazioak beren bizitzetan eduki duen eragina.

6.1. Carmenen lekukotasuna: senarrarekin Bizkaiko Foru Aldundiaren itunpeko egoitza-zentro batean bizi den 95 urteko emakumea

Carmen 95 urteko emakume bat da, bizitzaz beterikoa. Jantzi dotoreekin eta ongi zaindu-tako itxurarekin, bizitzeko gogoz eta aldarte onez gainezka dago. Profesional liberal gisa aritu da lanean bizitza osoan zehar. Gerra zibil bat, gerraoste bat eta beste hainbat inguruabar bizi izan ditu. Hala ere, bere energiak berean dirau. Oraindik hunkitu egiten da lehenengo senargaia frontean galdu zuela gogoratzen duenean –“*min iraunkor bat da*”–, eta, baieztatzen duenaren arabera, bere bizitzako urte onenak laurogei urte zituenetik laurogeita hamar izan zituen arte igarotakoak izan ziren, Javier senar maitearen ondoan, berak autonomia zuenean eta senarrak gidatu ere egin zezakeenean.

Gaur egun, biak Bizkaiko Foru Aldundiaren itunpeko egoitza-zentro batean bizi dira, eta bertan oso tratua jasotzen duela dio.

Aipatu digunaren arabera, bere gainbehera 91 urte zituelarik hasi zen, eskuetako indarra galdu zuenean eta arazo horrengatik ebakuntza egin ziotenean. Ordura arte bere etxeke lanak, otorduak... berak egiten zituen, garbiketa lanetarako pertsona baten laguntza edukita. Une horretatik aurrera, hiru emakume txandakatu egiten ziren berari eta Javier senarrari arreta emateko. Laugarren pertsona bat ere bazen, asteburuetarako. Carmenen esanetan, “*hori iskanbila itzela zen, beraz, egoitza batera joan behar ginela erabaki genuen*”.

Egoitza pribatu batean sartzeko beharrezko izapide guztiak egin zituzten, baina eraikin hura eraitsi egin zuten.

Une horretan, Carmenek bere konfiantzazko pertsona batengana jo zuen. Pertsona horrek egun bizitokitizat duen egoitza-zentroarekin harremanetan jarri zuen, orienta zezaten eta bertan sartzeko izapideak erraz ziezakioten. Egoitza-zentro horretako gizarte langileak beharrezko kudeaketa guztietan gidatu zuen, besteak beste mendetasuna baloratzeko eskabidearen izapideetan.

Esan digu Sendagileen Elkargo Ofizialeko sendagile bat bere etxera joan zela, balorazioa egitera.

Hasiera batean, bikotekideetatik bakar batek ere ez zuen mendetasunaren egoeraren aitortpenik eskuratu, eta autonomo izatearen balorazioa eduki zuten. Ondorioz, ezinezkoa izan zitzaien foru sareko plaza bat eskuratzea. Horregatik, balorazio hori berrikus ziezaietela eskatu zuten, eta, horretarako, osasun txosten berriak aurkeztu zituzten. Horietan, besteak beste, gerrako zauri batzuk Javier bere ezkontideari utzi zizkieten ondorioen berri ematen da.

Berrikuspena eta gero, senarraren mendetasun egoera aitortzen da, eta horrek egoitza arretako foru zerbitzuan sartzeko eskubidea eman zien. Mendetasuna duen pertsona baten ezkontide den heinean, emakumea ere sartu zen egoitzan, hain zuzen ere araudi bizkaitarraren aurreikuspenari jarraiki.

Carmen nahastuta dabil beren sarreraren izapideei buruzko gai teknikoekin: *“egun osoan pertsona bat behar ez dudala eman didate”*; *“niri mendetasuna eman didate”*; *“Zein mailatan? Uste dut ez dagoela idatzita, baina elbarritzat jo naute”*; *“gu Aldunditik sartu gara.”* Edonola ere, horrek ez du kezkatzen; informazioa eta orientazioa ongi eman dizkietela uste du eta baita senarrak eta berak nahi zutena lortu dutela uste ere, alegia, atentzio egokia eskuratzea. Hilero beren diru-sarreraren % 85 eta % 95 artean ordaintzen dute.

Carmenek emandako xehetasunen arabera, esan daiteke eskuratu duten egoitza arretarako baliabideak arreta soziosanitario osoa ematen diela.

Egia esan bikoteko bi kideak pozez zoratzen daude beren egoera berriarekin. Egoitzara etortzea askatasun osoz erabaki zuten, etxean eguneroko bizitzako jardura batzuekin zenbait arazo zituztela ikusi zuten-eta. Arazo horiek egoitzan konponduta dituzte. Horrela, Carmenek zera esan digu: *“kontent zaude altxa egiten zaituztelako”*.

Gainera, aurreko bizitokitik gertu dagoen ingurune batean daudenez, ez da aldaketa adierazgarririk egon haientzat eta iloben bisitak edukitzen dituzte maiz.

Egunerokoa, jaiki egiten dira eta, beren burua txukundu eta gosalduta eta gero, Carmen mezetara eta goiz horretan animazio sailean dauden jardueretara joan ohi da. Javier senarrak denbora luzera eskaintzen dio irakurtzen aritzeari. Bazkalduta eta atsedena hartu eta gero,

animazioko jarduera orokorretara jaitsi ohi dira berriro. Carmenek lagun bat du egoitzan eta harekin berriketan hainbatetan aritzen da. Udan, asko irteten dira egoitzako lorategira eta asteburuetan senideen bisitak izaten dituzte.

6.2. Mirenen lekukotasuna: Mirenek 49 urte ditu eta bere amak, 84 urte, Alzheimerrekin bateragarri den gaixotasun neurologiko bat du. Amaginarrebak, 81 urte, Alzheimerra pairatzen du

Miren adin ertaineko emakume bat da, institutuko irakasle, arduratsua, serioa eta oso tratu atseginekoa. Bere amak, 84 urte dituen Ana, Alzheimer gaixotasunarekin bateragarria den dementzia mota bat du, eta bere amaginarrebak, 81 urte dituen Bertak, Alzheimerra du.

Orain hiru urte, familiak portaera arraroak igarri zituen amarengan, adibidez sistematikoki otordu berdinak egitea, behin eta berriro jantzi zehatz bat janztea, klimatologiaren arabera egoki ez janztea, edo puntuko janzi bakarra behin beta berriro jostea. Ahazteak, gauzak galtzea eta nahasmendu batzuk ere antzeman zizkieten; egoera hain larria izatera iritsi zen, behin *“nire aitaren aurkako krisi bortitz bat jasatera iritsi zela lo egiteko hartzen zituen eta aurkitu ezinik zebilen pilula batzuen kontura”*.

“Gogorra da pertsona dinamiko eta aktibo batek ahalmenak hain azkar galtzen dituela ikustea”

Neuropsikologoak gomendatu egin zien Ana estimulazio kognitiboko tailer batera bertaratzea. [Donostiako Udaleko](#) gizarte langilearengana jo zuten, eta hark auzoan bertan horrelako tailer bat hasteko orientazioa eman zien, hain zuzen ere erretiroa hartuta dutenen elkarte batean. Aitzitik, Ana ez zen erregularitasunez bertaratzen, izan ere, Mirenen ustetan, lotsagarria egiten zitzaion horrelako tailer batera bere auzoan joatea. Horregatik, eta Josek –Mirenen aita eta Anaren senarra, harekin bizi zena– bizi zuen egoera estuagatik, 2008. urtean harremanetan jarri behar izan ziren [Gipuzkoako Alzheimerdun Gaixoen Senitateko Elkartearekin \(AFAGI\)](#). Elkarteak bikotearengandik urrun zegoen auzo batean kokaturiko bere egoitzan tailer batera joateko aukera eskaini zien (egun Ana tailer horretara bertaratzen jarraitzen du). Elkarte horretan bertan elkarrizketa bat eduki zuten Joserekin, kaltetuaren zaintzaile nagusi den partetik, eta hari egoerari aurre egiteko jarraibide batzuk eman zizkieten.

Mirenen ikuspegitik, elkarte honek egiten duen lana *“zoragarria da, eta ez bakarrik amarekin egiten duten lanarengatik, baizik eta baita ere aitarentzat eta guretzat, lau seme-alabontzat, dakarren laguntzarengatik”*. Mirenek zera erantsi du: *“nik hainbat ikastarotan parte hartu dut, eta oso tresna erabilgarriak eman dizkidate arazoari aurre egiteko”*.

2009ko apirilean, gizarte zerbitzuetara jotzea erabaki zuten berriro ere, izan ere, bikotearen egoera etxean zailtzen ari zen. Kalteturiko pertsonaren portaera-arazoen eragina zuten familiako bakean, eta baita otorduak prestatzea bezain oinarrizkoak ziren gaietan ere. Gizarte langileak mendetasun egoera aitortzea eskatzea proposatu zien.

"Balorazioa maiatzean egin zen; I. gradua eta 1. maila aitortu zizkioten. Ekainean gizarte langilearekin batera erabaki genuen komenigarria zela etxeko laguntza eskuratzea, 12:30etik 14:00etara, astelehenetik larunbatera. Horrela, otorduetan neurri bateko ordena bermatuko zitzairen. Uztailean ELZko laguntzailea lanean hasi zen." "Izapideak arin egin ziren, ez dut kexarik horrekin".

"Hirugarren pertsona bat etxean sartzeak krisi handia eragin zion amari, bera ez zelako inolaz ere jabetzen, ezta gaur ere, gaixotasunaz. Nire ahizpari eraso fisikoa ere egin zion. Hori oso gogorra izan zen familia osoarentzat".

"Sendagaiak aldatzeak lagundu egin zuen ama lasaiago egoten eta, azkenean, laguntzailearen laguntza onartzen".

Mirenek adierazi digunaren arabera, etxeko laguntza zerbitzuak, etxeko martxan laguntzeaz gain, Joserentzat arnasa ere ekarri zuen. Mirenek jakinarazi nahi digu *"horrelako gaixotasunetan, aro bat gainditu duzula uste duzunean eta gauzak antolatzea lortu duzula uste duzunean, atsedena oso txikia dela, beste zailtasun berri bat sortzen delako"*. Bere kasu zehatzean, Ana zelotipia esaten dioten egoera baten sintomak jasaten hasi zen, zenbaitetan gaixotasunari elkartuta egon ohi dena. Zelotipia bikotea fidela ez dela arrazoirik gabe sinestaututa ibiltzean datza. Hori oso mingarria izaten ari da bai Anarentzat, bai Joserentzat, izan ere, horrelako aurpegiatzeen alde egitearen beldur izateagatik ez da ia etxetik irten ere egiten.

Mirenek baieztatu du *"horrelako gaixotasunak bizi dituzten pertsonen zaintzaile nagusien papera oso gogorra dela, eta eragin emozionala itzela dela"*. Josek Anari ematen dion arreta etengabekoa da. Bere kemena oso urria da, eta horrek bere osasun fisikoari kaltea dakarkio ere. Ana estimulazio tailerrera bertaratzen den asteko bi egunetan bakarrik hartzen du arnasa (tailerrera lagundu egiten diote, bestela galtzeko arriskua edukiko lukeelako), eta baita bikotearen lau seme-alabek astean zehar egiten dizkieten bisitetan ere. Edonola ere, bisita horiek norberaren aukeren arabekoak dira, izan ere, guztiak lanean ari dira eta bigarren familia bat dute beren ardurapean. Gainera, astean bi egunetan alabek erosketak egiten dizkiete, izan ere, Ana ez da jabetzen diruaren balioaz eta Josek ez du etxeko lan hauetarako gaitasunik.

"Izapideak eta paper kontuak seme-alabok egiten ditugu; nire aita ez zen gauza izango horiek egiteko, dagoen kemen egoeran egonda"

"Aitak uste du bertan egon behar duela beti, baina beti egote horrek estres handia eragiten dio. Arnasa hartzea beharrezkoa du, baina ez du arnasa hartze horretaz gozatzen"

"Mendeko pertsonak mendetasun emozional ikaragarria sortzen du zugan, harekin ez egotea beharrezkoa duzulako baina ezin duzulako bera gabe egon. Beharrezkoa da errudun sentimendu hori kudeatzen ikastea"

"Lana, seme-alabak, ama, aita... estresa ikaragarria da eta horrelako kasuetan beharrezkoa da emozionalki oso indartsua izatea..."

Mirenek esan zigun aita lagundu zuela AFAGIk zaintzaileentzat emandako ikastaro batera, eta horrek lagundu egin ziola *“ikusten beste pertsona asko dagoela berak bizi duena bezalako egoera batean.”* Mirenek esan digu *“ikaragarri ongi etorri zitzaiola,”* eta *“gaitasunak hartzen ari dela baino ikaragarri kostatzen zaiola horiek praktikan jartzea.”*

“Zaintzaileentzako ikastaroetan balio handiko gauzak ikasten dituzu. Alzheimerra duen pertsona batek galdera berdina egin diezazuke zazpi aldiz bost minuturo. Esan egiten badiozu: ‘baina erantzun dizut-eta orain bost minutu!’; urduritasun eta ezinegon itzelak sortzen dituzu beragan, bera ez delako jabetzen galdetu izanaz. Aitzitik, ikaragarri antzematen dituzte zuk emandako maitasuna eta lasaitasuna.”

Mirenek adierazi digunaren arabera, gaixotasunak ama isolatu du pixkanaka garai batean zituen gizarte harremanetatik. Aitzitik, elkartearekin eratutako harremanak eragin egin du beste pertsona batzuekin harremanetan jartzea eta, zera ere bultzatu du: *“2009. urtean lagun batekin irten izan da, gaixoa hura ere, astean egun batean hiru orduz, bi lagunen bi familiok, modu pribatuan, kontratatu dugun pertsona baten laguntzarekin. Izan ere, funtsezkoa iruditzen zaigu familiaren ingurunetik kanpo ongi pasatzeko toki bat eduki ahal izatea.”*

“AFAGIk ahalbidetu duen harreman hau oso garrantzitsua iruditzen zait, baita bi familien artean sortu diren erlazioengatik ere.”

Elkarteak eskaintzen dituen beste zerbitzu batzuei buruz hitz egin digu, eta hark [Gipuzkoako Foru Aldundiaren](#) partetik eskuratu izan duen diru-laguntza galdu izana kritikatu du:

“AFAGIren estimulazio kognitiboaren tailerra doakoa zen joan den urtera arte, baina esan digute Aldundiaren diru-laguntza kendu egin dietela eta, beraz, aurten hilero 50 euro ordaintzen ari gara.”

“Tamalgarria da Aldundiak Alzheimerra duten pertsonentzat eta beren senideentzat (...) hain baliotsua den zerbait laguntzeari uztea. Pentsatzen dut krisiagatik izango dela.”

“Urtean arnasa hartzeko bonu batzuk ere eskaintzen dizkizute, eta oso erabilgarriak dira, adibidez familia guztiak ezkontza bat, hileta bat... bezalako ekitaldi batera joan behar duenean. Horrela, gaixorik dagoen pertsona ongi zainduta geratzen da. Dena den, ez ditugu horiek erabili nire amak hirugarren pertsonak onartzeko dituen arazoak direla-eta.”

“Oporraldiak antolatzen dituzte gaixoentzat eta zaintzaileentzat; horietan, gaixoak beste gaixo batzuekin egoten dira, eta zaintzaileek atseden pixka bat hartu ahal dute.”

“Gaixo hauek tratatzeko gu bertaratu ginen gaitasunen ikastaroa AFAGIk kudeatu zuen eta [Matia Fundazioaren](#) INGEMAK antolatu.”

Gipuzkoako Foru Aldundiaren SENDIAN programa ere aipatu du:

“Foru Aldundiak SENDIAN izeneko programa bat du; hartara ere joan nahi genuen, baina momentuz utzi egin dugu, zelotipiaren gaiarekin aitak ez du-eta etxetik ezertarako atera nahi. Zaintzaileak hamabostean behin elkartzen dira profesional batekin. Arazoak bateratzen dituzte, barrena husten dute eta jokabide eta estrategiak eskaintzen zaizkie arazoari aurre hobeki egiteko. Ezin izan dugu erabili, baina bertaratzen diren pertsona batzuk ezagutzen ditut eta haiek benetan pozik daude. Zaintzaileari eta familiaren inguruneari laguntza emateko prestazioak funtsezkoak dira. Administrazioak haien alde egin behar du gehiago.”

Gai ekonomikoei dagokienez, Mirenek adierazi digu gurasoek duten pentsioarekin ohiko gastuei aurre egin diezaieketela eta baita etxeko laguntza zerbitzuari ere. Aitzitik, amarekin eta bere lagunarekin paseatzeko kontratatu den pertsonaren kostuaren erdiari seme-alabek egiten diote aurre, izan ere, Anak eta Josek hileko kuota bat ordaindu behar dute etxebizitzaren hipoteka erako maileguarengatik.

2010eko apirilean, izendatutako gizarte langile berriak bisita egin zien Anari eta Joseri, eta familiari balorazio berri bat egitea proposatu zion. Emaidza II. Graduko 1. mailaren mendetasuna aitortzea izan da.

Gizarte zerbitzuen lehenengo balorazioa dela-eta, familiako sendagileak bete beharreko txosten eredu bat eman zieten. Mireni ez zitzaion egokia iruditu txostena neurologoak egin behar ez izatea, izan ere, bere ikuspegitik begiratuta, *“ezinbestekoa zen jokabide nahas-menduak aipatzea, mendetasuna baloratu ahal izateko.”* Aitzitik, bigarren baloraziorako, gizarte langileak esan zien AFAGIren eta neurologoaren txostenak ere eransteko. Bere ustez, *“zentzu horretan hobetzen ari dira.”*

Mirenek esan digu Donostiako Udaleko gizarte zerbitzuen nahiz Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldetik jaso duten arreta paregabea izan dela, AFAGItik eskuratu dutena bezalaxe:

“Gaiaren aurrean sentikorra den jendea da; lagundu egingo dizute, nondik jo ahal duzun erakutsiko dizute...”

Aitzitik, osasun sistemari buruzko pertzepzioa ez da berdina. Bere esperientzia **Osakidetza**ko neurologia zerbitzuek amari emandako arretari buruzkoa da. Bertan, hondamen kognitiboa murriztera eta antsietatea txikitzaera zuzendutako tratamendu bat adostu dute. Mirenek esan digu gaixoari emandako tratua maitekorra eta errespetuzkoa den arren, familiak ez duela harmenik topatzen eta, zenbaitetan, erabateko intimitate falta ere izaten dela.

“Amaren zelotipiarengatik krisiaren urgentziarekin joan ginenean, erizainari pasilloan eman behar izan genion egoeraren berri, beste gaixo batzuen aurrean. Oso gogorra izan zen (...). Ez dakit horrelako kasuetan larrialdietarako mekanismorik ba ote dagoen... Egonez gero, familiok ez dugu horren berri.”

Mirenek uste du zenbait gauza neurologoari kontatu behar dizkiola familiak, gaixoa bertan egon gabe, baina *“neurologoak ez du horrelakorik onartzen”*.

Bestalde, Mirenek uste du gaixo hauek beren egoerarentzat egokia den tratua jaso beharko luketela.

“Hanka bat apurtuz gero edo apendizitisa edukiz gero, ezin dira beste gaixo batzuk bezala tratatu. Adibidez, zenbait kontsultatan ezin dira lagunduta sartu eta laguntza hori funtsezkoa da, izan ere, sendagileak informazio fidagarria eduki behar du eta informazio hori, askotan, senideek bakarrik eman dezakete (...). AFAGIn aipatu egin zen Osasun Sailean lanean ari direla osasun txartelean bertan inguruabar hau nolabait jaso ahal izateko. Ez dakit zertan izango den gaia.”

Mirenek Berta bere amaginarrebari buruz ere hitz egin digu. Hura gaixotasunaren maila aurreratuago batean dago, eta II. Graduko 1. mailako mendetasun egoera aitorturik du. Hasiera batean, seme-alabak bisitekin, erosketekin eta otorduekin antolatzeke saiakera egin zuten –bostek lan egiten dute eta beren familiak dituzte–, Bertak bere etxean bizitzen jarrai zezan, baina behin etxetik irten eta galdu egin zen. Ondorioz, udaleko gizarte zerbitzuetara jo behar izan zuten, eta etxeko laguntza zerbitzua jarri 12:00etatik 14:00etara. Hondamena geroz eta handiagoa zen, eta etxeko laguntza hori ez zen nahikoa izan. Horregatik, eguneko zentro batean sartzea eskatu zuten, 10:00etatik 18:00etara. Zerbitzu hori bateragarria da etxeko laguntzaren zerbitzuarekin, beraz, pertsona bat goizez joan ohi da jaikitzen, gosaltzen eta autobusera joaten laguntzeko, eta beste batek 18:00etan hartzen du. Egun bakoitzean seme-alabetako bat Bertaren etxera joaten da gaua pasatzera; 19:00ak aldera iristen da eta berarekin geratzen da hurrengo eguneko goizera arte.

“Berta gauez jaikitzen da, argi guztiak pizten ditu eta itzaltzen atzetik joan behar da. Neke fisiko nabarmena igarri dugu txanda hauekin, baina nire amaren arazoa baino eramangarriagoa da.”

Asteburuei buruz, Mirenek zera esan digu: *“Seme-alabok txandak egiten ditugu”*. Bertak mugitzeko zailtasun ugari ditu, baina ez ditu portaera nahasmenduak, eta horrek, Mirenen ustetan, *“lan handia ematen du, baina ez horrenbeste atsekabe”*. Gaixotasunaz ere ez da jabetzen.

Egoera ekonomikoari dagokionez, Bertak pentsio urria du, baina etxeko laguntzaren kostua sinbolikoa da eta eguneko zentroaren prezioak ez ditu hilean 300 euroak gainditzen, beraz, *“benetan gastuei aurre egin diezaieke. 300 euro inguru geratzen zaizkio bizitzeko, baino horrekin eta gure laguntzarekin ongi moldatzen da”*.

Miren pozik dago eguneko zentroko prestazioekin, arretarekin eta instalazioekin. Faltan botatzen du *“aire zabal pixka bat, irten ahal izateko lorategitxo bat...”*

“Egia esan gizarte honetan pribilegiatuak gara eskura ditugun prestazioekin. Jen-dea harritu egiten da esaten diegunean nire amaginarreba etxeko laguntzaile batek

eramaten duela autobusera eguneko zentrora joateko eta ondoren haren bila ere joaten dela, eta gutzia hutsaren hurrena den kopuru batengatik. Ezin dute sinetsi.”

Gizarte inguruneak emandako erantzunari dagokionez, Mirenek uste du erantzuna positibo dela, nahiz eta oraindik sentsibilizazio handiagoa beharrezkoa dela uste duen.

“Kezkatu egiten dira zure amak edo amaginarrebak gaixotasuna duela jakiten dutenean, eta esan egiten dizute: ‘aintzakotzat har nazazu behar duzunerako’.

“Zenbaitetan aipamen ergelak entzuten ditut nire egoera ezagutzen ez duten horien ahotan. Adibidez, lanean, norbaitek zerbait galtzen duenean eta Alzheimer goiztiarra duela esaten duenean. Jendeak uste du Alzheimerra memoria galera besterik ez dela, baina portaera nahasmenduak ere gaixotasunaren alderdi bat dira. Sentsibilizazio kanpainak ezinbestekoak dira gaixoa eta bere arazoak gizartera hurbiltzeko.”

6.3. Marianen lekukotasuna: ezgaitasun fisikoa duen 25 urteko emakumea

Marian 25 urteko emakume bat da, Gizarte Lanean diploma eskuratu zuena [Deustuko Unibertsitatean](#) eta Familiako bitartekaritzako eta esku-hartzeko graduondokoa duena. Aldarte bikainarekin eta adore berdinarekin, engainurik gabe hitz egin digu bere bizitzako esperientziari buruz. Garun paralisia du, eta mugitzeko bere gaitasunari erabat eragiten dio horrek. Adimena, ordea, berean mantentzen du.

“Gertatzen dena da muga batzuk dituen gorputz batean giltzapetuta nagoela, baino adimenaren aldetik ez dut inolako arazorik.”

Oso ume goiztiarra izan zen, 900 gramo besterik ez zituen pisatzen jaio zenean, eta garun paralisia jasan zuen txikitan.

“Inkubagailuan sartu ninduten, oxigenoa ematen ari zitzaizkidan. Nik apneak nintuen, arnasa hartzea ahazten zitzaidan eta, orduan, monitoreak soinua ateratzen zuen. Baina halako batean nire amak inkubagailutik atera ninduen eta ondoren atzera inkubagailuan sartu ninduen berriro, eta erizainei pasa egin zitzaien monitorea konektatzea. Orduan, halako batean arnasa hartzea ahaztu zitzaidan eta monitorea itzalita zegoen. Orduan ordu laurden-edo geratuko nintzen arnasarik gabe, eta, ondoren, erizain bat irten zen eta beltz nengoela ikusi zuen. Beltz geratua nintzen erabat, jantzita daramazun galtza bezala. Orduan ipurdian joka hasi zitzaizkidan. Orduan nik negar egin nuen, bai, baina garun kaltea egina zegoen. Alta eman zidaten, ama nirekin joan zen etxera, eta nik haur normal batek bere eboluziorako normalak diren gauzak egiten ez nituela ikusi zuen, adibidez burua tente mantentzea, esertzea edo biltzea...”

“Orduan nire amak buelta ugari egin zituen eta sendagileak esaten zion: ‘oso goiztiarra da, jabetu egin behar zara oso neskatila goiztiarra dela’. Beno, eta nire ama etxera

joaten zen baina kezkatu. Halako batean, ordea, neurologo batengana jo zuen eta hark zera esan zion hitz hauekin: 'zuk ez al dakizu zure alabak garun paralisia izan duela jaioberritan?'. Nire amak: 'ba ez' '(...) ba jakizu maila intelektualean ez duela kalterik jasan, baina bai, ordea, mugikortasunarenean (...). Zure alaba, agian, iritsiko da ibiltzea, baina iristen bada ere makuluak erabilia izango da'. Eta begira non na- goen orain, gurpil-aulki batean. Itxaropen faltsuak eta guzti eman zizkidaten, beraz."

Seta eta balio propioz betetako bizitza bat eta baldintzarik gabeko familia laguntza eduki eta gero, egun [Bilboko Udalean](#) ari da lanean. Orain hilabete baino gutxiago hasi zen lanean.

"FEKOORrek (Gutxitasun fisikoa edo/ta organikoa duten Bizkaiko Pertsonak koor- dinatzeko federazioa) enplegu zerbitzua du. Eskaintza batzuk iritsi zitzaizkien LAN EKINTZAREN bitartez (Bilboko Udala), eta dei egin zidaten, eta curriculuma ikusita ni hartu ninduten."

Marianen mendetasun egoera Bizkaiko Foru Aldundiak aitortu egin du III. Gradu 1. mailan. Marianek esan digu III. Gradu 2. mailakoa dela ez dutela erabaki, ahalmen intelektua- lako gabe duelako, esfinterrak kontrolatzen dituelako eta aulki elektrikoa erabili ahal duelako. Ez dago balorazio horrekin ados; are gehiago esatearren, hiru aldiz errekurritu du, nahiz eta arrakastarik gabe.

"Begira, uler diezadazun, sendagaiak noiz hartu behar ditudan kontrola dezakedala baloratzen dute. Bai, noski baietz, baina amak ematen ez badizkit, nik ezin ditut hartu. Edo etxean eta etxetik kanpo arriskuei aurre egiteko gai naizela. Bai, noski baietz, baina nik balorazioa egiten zuenari azaldu nion bezala, nik esan dezaket: 'ama, sukaldea erretzen ari dela!', baina amak ateratzen ez banau, hil egingo naiz, badakizu? (...) Nik esfinterrak kontrolatzen ditut, egia da, baina, zertarako balio dit niri horrek ondoren komunera joan ezin banaiz?... Bada, esfinterrak kontrolatzen ditudalako soilik hiru puntu kendu zituzten. (...) Balorazioa egiteko baremoak beste gauzak batzuk eduki beharko lituzke kontuan."

"Edo, adibidez, aulkiarena. Ongi da, nik aulkia daramat, eta, nolabait, autonomia naiz, baina, adibidez, aulkiak gainditu ezin duen zintarri batekin topo egiten badut, nik laguntza behar dut. Haiak uste dute gurpil elektrikoa eramateagatik autonomia zarela jada, eta puntuazioa jaisten dizute berriro ere (...). Lehenengo errekurtsioa aurkeztu nuenean, puntuazioak gora egin zuen pixka bat, aulkiarena aldatu egin zu- telako, etxera etorri zen bigarren sendagileak eskuzko aulkia nerabilela ikusi zuen- eta."

"FEKOORren errekurtsioen gaiarekin aholkularitza eman zidaten."

Mendetasun egoeraren aitorpenak familia inguruneko zaintzarako prestazio ekonomikoa (FIZPE) jasotzeko eskubidea eman dio. Lehen, familian kobratzen zen Gizarte Segurantzak emandako diru kopuru bat ardurapeko seme-alaba bat edukitzeagatik, eta kopuru horrek hi- rugarren pertsona baten laguntzaren osagarria zuen (% 75eko edo gehiagoko ezgaitasuna

edukitzeagatik). Azken osagai horren zenbatekoa FIZPETik kentzen da, biak bateraezinak direlako. Horrela, FIZPETik kobratzen duena, 2010. urtean, 350,79 euro dira. Horrela, bada, "Mendetasun Legea" deitzen den horren aplikazioak 350,79 euroko hazkundera ekarri du familiako hileko diru-sarreretara.

Aitzitik, Bilboko Udalean lan egiten hasi den une honetan, Marianek bizi duen arazoak zerkusua du bere lana egin ahal izateko laguntza pertsonal bat edukitzeko beharrekirin:

"Ez bakarrik ni eraman eta ekarri nazan, baizik eta, baita ere, telefonoa har dezan, ura eman diezadan, jaten eman diezadan, bilera batean zenbait ohar har ditzan, berokia jar diezadan... (...) Nik, nire egunerokoan... laguntzaile pertsonalarengatik edo laguntzen nauen norbaitengatik izango ez balitz... nik ezingo nukeen nire kabuz ezer egin. Irakurri dezaket, baina jan, komunera joan, zuk normalean inoren laguntzarik gabe egin ditzakezun bizitzako gauza horiek... nik ezin ditut egin."

III. Graduko 1. mailan, laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa, 625,47 eurokoa da. Laguntzaile pertsonalaren Gizarte Segurantzako gastuen batura eta kontratatu behar duen aseguruaren kostua, hark adierazi duenaren arabera, 180 eurokoa da. Gainerako kopuruarekin, 450 euro inguru, ezinezkoa litzateke laguntzaile bat lanaldi osoan kontratatzea, beraz, soldataren zati handi bat xede horretarako erabili beharko luke.

"Baino hori ez da larriena... benetan gogorra dena da Bizkaiko Foru Aldundian prestazio hau emateari buruzko esperientziarik ez dagoenez eta laguntzailea nola kontratatu behar den inork ez dakenez, ezta zer paper eraman behar diren ere, nire ama eta ni ziba modura gauzkatela leihatilaz leihatila."

"Lanean hasi naizen honetan begira zein egoeratan nagoen. Laguntzaile bat behar dut, prestazioa eskatzera zoaz eta inork ez daki ezer. Funtzionario batek ez eskatzeko ere gomendatu izan digu leihatila batean. Oso minduta nago."

"Hasiera batean esan zidaten pertsonari alta eman behar zitzaiola etxeko langileen araubide berezian, ondoren Gizarte Segurantzaz; ezetz, autonomoetan alta har zezala. Ondoren autonomoetara jotzen duzu eta esaten dizute gaixoak zaintzeko atalean dela, baina zenbat ordaindu behar zen ere ez zekiten..."

Udaletxean udan duten lan ordutegia 8:00etatik 14:00etara bitartekoa da. Egun, goizeko 7:00etatik 9:00etara eta 14:00etatik 15:00etara FEKOORek eskainitako laguntza programa bat du. Gainerako denboran, alegia, 9:00etatik 14:00etara laguntza pertsonala emateko pertsona bat kontraturik du. FEKOORekin programa laster bukatuko da, eta, orduan, beharrezkoa izango da laguntzailea ordutegi zabalago batean kontratatzea, zehazki 8:00etatik 15:00etara.

"Espero dugu laguntza pertsonala eskuratzeko prestazio ekonomikoa ahalik eta lasterren iristea, izan ere, hilabete honetan ardurapean seme-alaba bat edukitzeagatik eskuratutako prestaziorik gabe geratuko gara eta baita FIZPETik gabe ere."

Lanean hasi eta Gizarte Segurantzaren alta hartzerakoan, ardurapean seme-alaba edukitze-agatikoko pentsioa iraungi egiten da automatikoki, FIZPE laguntza bezalaxe. Ondorioz, datoren hilean ez du jada prestazio hauetako bakar bat ere kobratuko, eta bere soldata ia osoa laguntzaile pertsonala kontratatzeke erabiliko du.

“Hitz egin dezagun argi. Antza denez, autonomia pertsonala sustatzen duen lege bat da... Gauzak erraz jarri ordez, bidean oztopoak jarri da egiten dutena. Laneko merkatura sartzen garen pertsonon gizarteratzearen alde egin ordez –ezgaitasunaren gaian modan dagoen hitz hori–, egiten dutena trabak jartzea da”

Mendetasun egoera aitortzeko prozedurari dagokionez, Marianek esan digu 2007an aurkeztu zuela mendetasun egoera aitortzeko eskaera, eta urtebete behar izan zutela hura ebazteko. Etxean egindako balorazioari dagokionez, Marianen ustea da balorazioa egin zuen sendagileak ez zuela bisita egin aurretik bere egoeraren gaineko informaziorik jaso:

“Egia esan, apur bat iraingarriak iruditu zitzaizkidan galderak egin zizkidan. Gobernuko lehendakaria nor zen eta zer egun zen galdetu zidan. Pentsatzen dut karrera bat ikasten ari nintzela ere ez zekiela”

“Uste dut pertsona baten etxera joan aurretik espedientean jasotzen diren txosten medikoa eta gizarte txostena irakurri beharko lituzketela, horrela, gutxienez, kontu pixka bat gehiagorekin ariko lirateke”

“Niri sendagile bat bakarrik etorri zitzaidan, baina ez Aldundiko sendagile bat, baizik eta Sendagileen Elkargo Ofizialeko sendagile bat”

Lehenengo ebazpena eta gero, BAPen onespena beste lau hilabete igarota egin zen.

“Une hartan eskubidez eskura nitzakeen prestazioen artean, FIZPE aukeratu genuen, nire ama nitaz arduratzen zelako egun osoan. (...) la inoiz bakarrik geratzen ez naizenez, telelaguntzako zerbitzua ez genuen eskatu (...). Bizkaian ez dago prestazioen arteko bateragarritasunik. Hala eta guztiz ere, udalek ELZ eskaintzen dute FIZPE ere eskuratu arren. Hori gertatzen da adibidez nire herrian, Barakaldon. Aitzitik, nire ama galdetzera joan zen eta esan zioten hamar urteko itxaron zerrenda zegoela”

Bere bitzta osoan zehar gozatu ahal izan dituen baliabide publikoei dagokienez, esan digu arreata goiztiarrik ez zuela eduki.

“Ni jaio nintzenean, arreata goiztiararen kontu hori ez zegoen oso garatuta. 10 hilabete zehar eta hamabost egunean behin errehabilitazioa besterik ez nuen izan. Orain hiru urteetara arte iristen da, nahiz eta badakigun garun paralisiaren edo bes-telako aniztasun funtzional fisiko batzuen kasuan 6 urteetara arte jasotako arreata ezinbestekoa dela”

Marianek hezkuntza sistematik nola igaro zen adierazi digu:

“Haur Eskola egin nuen ikastetxea ez zegoen egokituta. Aldi hartan laguntzeko pertsona bat eduki nuen. Lehen hezkuntzan, ikastetxea irisgarria zen. Aldi horretan, zehazki seigarren mailan, bost hilabete egin nituen ikastetxera joan gabe, [Hezkuntza Sailak](#) ez zidalako laguntzailea bidaltzen. Nire ama Lakuan esertzera eta guzti iritsi zen protesta modura. Beti izan da borrokalaria; orain esan diot uzteko borroka egiteari, orain nire txanda dela.”

“Nik ordenagailuarekin idatzi dezaket, inolako egokitzapenik egin gabe. Joystik bat bakarrik behar dut saga mugiarazteko. Liburua jartzeko atril berezi bat ere behar dut. Bada, atrila iristeko hiru urte behar izan ziren, eta Lehen Hezkuntzako lehenengo mailan eskatutako ordenagailua DBHko 4. mailan ekarri zidaten.”

“Nire esperientzia kaskarrena institutukoa izan zen. Heziketa Fisikoko irakasleak izkina batean uzten ninduen, eta ‘ez dakit zurekin zer egin’ esan ohi zidan. Eta ordubete pasatzen nuen izarrei begira. Nik denbora hori aprobetxa nezakeen irakasle taldeak prestakuntza handiagoa izan balu ezgaitasuna duten pertsoneri eman beharreko arretaren gaian.”

“Unibertsitate pribatuan oztupo arkitektoniko ugari topatu nituen, eta baita oso solidaritate gutxi ere ikaskide batzuen partetik. Unibertsitate pribatuan ez duzu laguntzaile bat publikoan bezala. Nire amak laguntzaile baten hiru ordu estaltzen zituen diru-laguntza bat lortu zuen. Gainerakoetarako, bera zegoen.”

Babeseko gizarte sistemari dagokionez, FIZPEri buruz jada esan dugunaz aparte, hiru urtetik behin gurpil aulkia aldatzeko laguntza bat jasotzen du, gurpil aulkiaren kostuaren % 50ekoa hain zuzen. Etxean laguntzeko garabia Bizkaiko Foru Aldundiak diruz lagundutakoa da % 100ean, baina momentuz ez dute eskatu.

Marianek adierazi digu asko direla ezgaitasuna duen pertsona batek dituen ezohiko gastuak.

“Nire kasuan, aulkiarentzako bateriak, 3 urtetik behin aulkiaren kostuaren % 50, idazteko sistema bereziak, agenda, sendagaiak, gurasoak etxean izango ez diren une zehazetan pertsonaren bat kontratatu beharra edo fisioterapia gastuak daude, izan ere, osasun publikoak ez dit inoiz fisioterapiarik eskaini. Beti bide pribatutik ordaindu izan dut, [ASPACEren](#) laguntzarekin –Aspacek bai jasotzen dituela diru-laguntza publikoak–. Hori horrela izan da hiru urte nituenetik eta 20 urtera iritsi arte, astean behin. Azken horrek, gutxi gorabehera, 120 euroko gastua zekarren hilero.”

Marianen ama erabat arduratu izan da Marianez, eta oraindik ere egiten du. Ondorioz, ezi-nezkoa izan zaio laneko merkatuan sartzea.

“Gainera, nire amak ezin izan ditu oporraldiak planeatu nire aitarekin bakarrik edo asteburuak harekin, nirekin baitoa toki guztietara. Horrek guztiak bere bizitza pertsonalari eta bikoteko bizitzari eragiten dio. (...) Zerbait egin ahal izan badu, pertsona bat kontratatu behar izan da, eta hori oso garestia da soldata bakarra duen familia batentzat.”

“Zorionez, FEKOORrek asteburuko irteerak antolatzen ditu (hilean behin) erabiltzaileentzat. Hori benetako arnasaldia da familientzat. Zerbitzu hauek oso garrantzitsuak dira.”

Egunerokotasunari dagokionez, esan digu egunero goizeko 6:00etan esnatzen dela, lanean 8:00etan hasteko. Zaintzaileek egiten duten lan goraipagarria azpimarratu du.

“Nire gurasoek komunean jartzen naute, dutxatu egiten naute, jantzi, eta gosaltzen ematen didate. 6:45ean FEKOORreko programako laguntzailea nire bila dator, metrora joateko. Metroan guztia ondo badago, ez dago aparteko arazorik. Igogailu bat matxuratuta badago, bada txangoa egin behar dut. Udaletxean laguntzaileak atek irekitzen dizkit, ordenagailua jartzen dit, ura edaten ematen dit... 9:00etan nik kontratatutako laguntzailea dator. Lanaldia amaitzen dudanean etxera eramaten naute berriro ere. Nire amak bazkaltzen ematen dit, siestan jartzen nau eta ondoren paseatzera ateratzen nau eta askaria ematen dit. Etxera itzultzen gara, afaltzen ematen didate eta lotara eramaten naute. Gauez jarrera aldaketak behar ditut, beraz, nire ama gauean lau aldiz jaikitzen da horiek egiteko. Esaten ari natzaizun honekin pentsa zer iruditu dakidakeen zaintzailearen irudia. Hura gabe, ni bezalako pertsona bat balduta zatekeen. Ezinbestekoa da pertsona hauei laguntza ematea.”

6.4. Carlosen lekukotasuna: buruko gaixotasuna duen 51 urteko gizona

Carlos gizon altua, indartsua, patxadatsua eta lasaia da; industria ingeniari teknikoaren ikasketak ditu eta oso tratu atseginekoa da.

Gaixotasuna hogeita bost urtean jasaten aritu bada ere, ados dago bere bizitzarekin, eta udalerrri bizkaitar batean joaten den zentroko gainerako erabiltzaileekin eratutako harreman pertsonalen garrantzia azpimarratzen du.

Hiru seme-alabaren familiaren baitan jaio zen, eta anai-arrebetatik zaharrena da. Haurtzarora poztasunez gogoratzen du, eta nerabezaroa eta gaztaroa ere zoriontsuak izan zituen bere lagunekin.

25 urte zituela, neskalaguna eta lanarekin, bere adineko inork bezalako bizi proiektua zuen: familia bat eratu nahi zuen eta hura aurrera atera. Bizi proiektu hau lehen krisi psikotiko bat agertzearekin apurtu zen, 27 urte zituelarik. Horren ondotik, ospitale psikiatriko batean sartu behar izan zuten:

“Bizitza pixka bat aldatu zitzaidan, gehiegi derrigortzen nintzen pentsatzen.”

29 urterekin bigarren sarrera psikiatriko bat eduki zuen. Bigarren sarrera honen ondotik, egun duen eskizofrenia diagnostikatu zioten.

“29 urterekin izandako krisia ikaragarria izan zen, balde bat ezagutzea ere zaila egiten zitzaidan.”

Neskalagunarekiko harreman afektiboa galdu egin zuen, eta ez daki nolatan galdu zituen ere adiskidetasunak. Kontua da pertsonen arteko harremanetarako zailtasunak dituen pertsona bat bihurtzen joan zela. Ezin izan zuen bere lanarekin jarraitu eta izugarri kostatzen zitzaion ordutegiak mantentzea nahiz bere orduan jaikitzea. Pixkanaka okerrerantz egiten zihoan, eta, horregatik, erabateko baliaezintasun iraunkorra aitortu zioten, % 65eko ezgaitasun mailarekin.

Gaur egun bakarrik bizi da landa eremuan, eta egunero joaten den elkarteko laguntza du. Bertan, errehabilitazio prozesuan laguntzen diote. Anai-arreben laguntza du, haiek ere eskualdia ematen diotelako, eta baita garbiketa lanak egiteko etxera joaten den pertsona baten laguntza ere:

“Anai-arrebek gauza dezente ordaintzen dizkidate.”

“Nik garbiketa lanekin ezin dut, mundu oso bat egiten dira niretzat, eta otorduekin ezta ere.”

Aitortzen du elkarteak emandako laguntzak (zentroak berak eta gainerako euskarriak) ezinbestekoak direla beretzat.

Mendetasun egoera aitortzeko eskatu zuen, eta autonomotzat jo dute. Aitortzen du ebazpena ikusi zuenean ez ziola garrantzirik eman. Barrutik lorpen txiki bat izango balitz bezala da, beretzat ez delako atsegina mendekotzat jotzea. Egunero atenditzen duten profesionalen arabera, mendetasun arinaren barruan egongo litzatekeen pertsona bat da, izan ere, argi eta garbi laguntza behar du neurri bateko autonomia mantendu ahal izateko.

Buruko gaixotasunak eragin emozional garrantzitsua ekarri dio, izan ere, harremanak eratze-ko zailtasunak ditu. Esan digunaren arabera, egunero joaten den zentroan bakarrik ditu lagunak:

“Nire lagunak burutik gaixo dauden pertsonak dira bakarrik.”

Horren zergatiari buruz galdetzerakoan, gainerakoekin harremanak eratzeak dakartzan zailtasunez hitz egin digu:

“Besteen begiradetan antzematen dut ez nautela onartzen. Herrian mamu bat izango banintz bezala begirutzen naute.”

Familia arteko harremanek ere okerrera egin zuten gaixotasunaren ondorioz, nahiz eta denborarekin hoberantz egin duten.

Gaur egun, kezkaturik dago Bizkaiko Foru Aldundiaren partetik jaso zuen erantzunarekin mendetasun egoera aitortzeari dagokionez. Bertan pertsona autonomotzat jo zuten. Bere kezka nagusia hau da: azaldu diotenez, okupazio zentrora joaten jarraitzeko, mendetasuna aitor diezaiotela behar du. Gaur egun, ebazpena berraztertzeko prozesuan dago eta espero du, zentroko profesionalak esan dioten bezala, mendetasun mailaren bat aitor diezaiotela.

Okupazio zentroari buruz hitz egin digu –bere laguntza nagusia–; hara egunero joaten da goizez. Halaber, profesional arduradunen jarraibideen ondotik han garatzen dituen lanak buruz hitz egin digu. Zentro honek aukera ematen dio errehabilitazio prozesuarekin jarraitzeko eta eguneroko jarduera edukitzeko gaixotasunaren beraren sintomen aurka borrokatzeko. Baina berarentzat, zentroa zerbait gehiago ere bada: lagunekin elkartzeko eta isolaturik sentitzea saihesteko toki bat. Halaber, adierazi du zentroak lagundu egin diola bere gaixotasunean berezkoak diren krisiak saihesten.

Koordinazioari dagokionez, esan du ez duela ulertzen zergatik jotzen duen ebazpen batek pertsona autonomotzat, berekin egunero dauden profesionalak mendetasun mailaren bat duen pertsona bezala baloratzen dutenean:

“Profesional hauekin harremanetan jarri behar ziratekeen eta haiei iritzia eskatu laguntzarekin egiten dudanari eta laguntzarik gabe egiten dudanari buruz. Niri kostatzen egiten zait onartzea laguntza behar dudala, baina ezagutzen nauten profesionalak benetan dakite zertarako behar duen laguntza hori.”

Carlosek bere egunerokotasunari buruz hitz egin digu. Jaiki eta gosalduta egiten du –onartu egiten du goizetan egunari ekitea kostatzen zaiola–, eta ondoren txakurrei jaten ematen die:

“Goizez kostatzen zait pixka bat martxan jartzea (zentzora etortzeko), eta arratsaldean ez naiz ateratzen.”

“Txakurrek hain bakarrik ez sentitzen laguntzen didate.”

Berak esan bezala, pixkanaka “egunari ekiten dio”, okupazio zentrora joaten da eta han goiza pasatzen du piezak egiten, edo, bestela, baratzean, lurra landuz. Zentroan bertako kideekin hitz egiten du eta gustura dago. Bazkaldu eta gero etxean gelditzen da eta lo egiten du, oso nekatuta egoten delako eta atsedean hartzea beharrezkoa zaiolako. Gutxi gorabehera, egunero berdina egiten du.

Lekukotasun honen kasuan, atenditzen duten hainbat profesionali galdetu egin diegu. Haiek adierazi digute Carlosek errehabilitazio baliabide gisa behar duela okupazio zentrora joan, eta, hala ez balitz, oheratuta egotea ekarri ahalko lukeen isolamendu kasu argi bat litzatekeela. Bestalde, otorduak eta etxeko lanak antolatzeko laguntza behar duela esan digute, beraz, badirudi egokia litzatekeela etxeko laguntza zerbitzua hari antolatzea.

6.5. Marisaren lekukotasuna: 42 urteko emakume bat da, eta gaixotasun arraro bat (edo agerpen eskaseko bat) duten mendetasun handiko bi alabaren ama da

Marisa begirada zintzoko emakume bat da, bakea eta maitasuna transmititzen ditu ingurura eta aldarte paregabea du. Pedrorekin, senarrarekin, alegia, partekatzen du bizitza orain hamalau urtetik hona.

Orain hamaika urte, alabak jaio zirenean, “*bere bizitza goitik behera eraldatu zen*” –berak adierazi digun bezala–. Une hartan, hamahiru urte zeramatzan enpresa batean lan egiten, informatikako teknikari modura. Bere lanpostua finkaturik zegoen eta lan baldintzak oso onak ziren.

Alabak, Maider eta Irati bikiak, osasuntsu jaio ziren, familia osoaren zorionerako. Aitzitik, hemezortzi egun zituztelarik, zerbait ongi ez zihoala jabetu ziren, eta hori izan zen osasun proben bide luze baten hasiera, arazoa diagnostikatu zieten arte neskatilek bi urte bete baino pixka bat lehenago. Maiderrek e Iratik, oso neskatila irribarretsua, [Aicardi-Goutières izena duen sindromea](#) dute. Malformazio genetiko bat da, eta horrek mugimenaren eta adimena-
ren garapenean defizita dakarren entzefalopatia larria eragiten du. Maider eta Iratiren kasuan, mugimendu kontzienteak egiteko, hitz egiteko, ibiltzeko, buruari eusteko, gorputza zurrun mantentzeko, esfinterrak kontrolatzeko eta abarretarako ezintasuna ekarri du gaixotasunak.

Mendetasuna baloratzeko baremoari jarraiki, bi alabek III. graduako 2. mailako mendetasuna dute aitortuta. Hori baino lehen, % 94ko eta % 76ko ezgaitasunarekin kalifikatu izan zituzten, hurrenez hurren.

Marisak bere alaben lehenengo hilabeteak nolakoak izan ziren esan digu:

“Alabetako bat etxean zegoenean bestea ospitalean zegoen, zoratzekoa zen... Nire amak salda egiten zuen etxean, ni ospitaletik iristen nintzen, nire amak salda katilukada bat jartzen zidan, nik hartu egiten nuen, txikiari bularra ematen nion eta hortik bi ordura ospitalera itzuli behar nintzen; itzuli egiten nintzen eta berriro...”

“Ondoren, etxean jada biekin, bati titia ematen nion, Pedrori pasatzen nion eta hark biberioa ematen zion eta aldatu egiten zuen; nik, bitartean, titia ematen nion besteari. Horretarako beti egon da hor”.

Ama izateagatiko baja eta gero, lanaldia murriztea erabaki zuen. Amaginarrebaren eta aita-
ginarrebaren eta gurasoen aldetik jasotako laguntzaz hitz egin digu Marisak:

*“Pedroren gurasoek errehabilitaziora eramaten zituzten alabak Txagorritxura, eta, ondoren, haurtzaindegira. (...) Gurditxoan zihoazen lehenengo urtean eta gurpil aul-
kian bigarreanean, eta, han, hamakatxo bat zuten. Ez zioten eusten ez enborrari, ez buruari... (...) Otorduak gauean eginda uzten nituen nik. Eguerdian lanetik itzultzen nintzenean, haiek alabei jaten ematen ari ziren jada. Hirurak eta zerbait aldera, nire ama etortzen zen, alabak hartu, eta Manuel Iradierrera joaten ginen ([Arabako Foru Aldundia](#)), estimulazio goiztiarrera”.*

Alabek urte eta erdi egin zutenean, eta familiaren arazoak ikusita, Marisak lana uztea erabaki zuen alabak zaintzeari denbora osoa emateko. Bere bizitza profesionala amaitu egin zen, laneko jardunari uko egiten dion horrenbeste emakumerekin gertatzen den bezala, maite dituzten horiei kalitatezko zaintza eskaintzeko. Lehen urte haietako zailtasunei buruz hitz egin digu:

“Txikitan asko esnatzen ziren... Nik zutik lo hartzen nuen. Besoetan nituela lokartzen zitzaizkidan, eta orduan lo egiteko aprobeztatzen genuen. Gehien kostatu zaidana lo egiteko unea izan da, digestioaren kontua dela-eta.”

“Gasteizen bizi ginen, igogailua zuen laugarren solairu batean, baina atalondoak eskailerak zituen. Orduan, alabekin nenbilenean garajeko arrapatatik irten behar nintzen (...). Bi pertsona izan behar ginen, bi aulkiak ez zitzaizkidalako igogailuan sartzen eta ezin nuen bat bakarrik utzi, listua kontrako eztairitik joan zekiokoelako eta bere listuarekin ito (...). Beraz, bi pertsona beti haiek eramateko, ekartzeko, irteteko, guztirako.”

“Nire gurasoek egokitutako etxe bat egiteko lurzatia oparitu ziguten, guztia beheko solairuan. Behin bukatuta egonda, haiekin hara joatea pentsatu genuen, Pedroren gurasoak baino gazteagoak zirelako eta lagun ziezaguten.”

Lana utzi eta astebete geroago, aitari eta amari minbizia diagnostikatu zieten:

“Ama ospitalean, aita ere bai, alabak... Nire ama irten egin zen, Alava Klinikara bidali behar zuten, baina nik esan nuen etxera eramango nuela (...). Oso gogorra izan zen, baina ordurako nik asko ikasia nuen alabekin. 2002ko irailean nire aita hil zen eta abenduan ama, 59 urterekin... Guztiak bata bestearen atzetik izan ziren”.

Alaben bizitzan zehar izandako baliabide eta laguntza publiko ezberdinen gaineko errepasoa egin du Marisak:

Arreta goiztiarra

“Urtebete egin baino lehen arreta goiztiarrarekin hasi ziren, neuropediatrak hala adierazita. Hark, egia esan, ez zekien oso ondo gaia nola zihoan, baina bazekien zerbitzua bazegoela eta harantz bideratu gintuen –uste dut garai hartan informazio gutxi edo koordinazio gutxi zegoela Osakidetzaren eta Aldundiaren artean–. (...) Ezin duzu imajinatu ere egin zein garrantzitsua den zerbitzu hau, hobekuntza nabarmena igarri zaie. Nire alabak, urtebete zutela, irribarre egiten hasi ziren. Gaur haien barre algarek bizitza pozten digute.”

Jakinarazi digu behin haur onuradunek hiru urte betetzen dituztenean, zerbitzua ikastetxeek ematen dutela. Gaur egun, alaben ikastetxeak estimulazioa eta fisioterapia eskaintzen dizkiete.

Osasun sistemak emandako arreta

“Osakidetzak fardeletan egindako gastuaren zati bat estaltzen du (gutxi gorabehera % 60koa) eta baita sendagaietan egindakoarena ere. Urari edo zukuei lodigarria bota behar diet, izan ere, bestela, ura besterik ez daraman xiringa bat hartu ahal izateko, luzatu egiten zara eta kontrako eztarrira joateko arriskua duzu. Farmaziako lodigarria Osakidetzak estaltzen du.”

Marisak gaixotasun arraroak dituzten pertsoneri emandako arretari buruzko oharren bat egin du, eta alabek urtebete egin eta gero fisioterapiarekin jarraitzeko izandako arazo berri ere eman digu:

“Uste dut Osakidetzak asko duela hobetzeko gaixotasun arraroen gaian... Medikuntzaren alorreko profesionali ikertzeko denbora falta zaie. Neuropediatra gutxi dago Araban (Txagorritxun). Egunerokoak denbora irensten die eta ezin dira berrikuntzetara adi egon.”

*“Errehabilitazioan, esate baterako, alta ematen zieten urtebete egin eta gero... eta neskatila hauek askoz ere denbora gehiago behar dute errehabilitazioan. Errehabilitazioa amaitu bagenuen ere, Aldundiak eskainitako arreta goiztiarrekin jarraitu genuen. ASPACEekin harremanetan jarri ginen, nire alaben kalteek antza handia dutelako garun paralisia duten pertsonak dituztenekin. ASPACEren bitartez, Osakidetzarekin eta Aldundiarekin harremanetan jarri ginen, fisioterapia ordain zezaketen ikusteko. Osakidetzak esan zigun urtebete igaro eta gero Aldundiaren kontua zela, eta Aldundiak, berriz, fisioterapia Osakidetzaren gaia zela. Azkenean, fisioterapia jarri ziguten Aldundiaren arreta goiztiarrearen programaren barruan. Orduan **APDEMAK** estimulazioaren kontura zeraman eta ASPACEk, aldiz, fisioterapiarena. Horrela egon ziren astean ordubete edo bi orduz, haurtzaindegiarekin bat eginez hiru urte bete arte. Hiru urterekin eskolara joaten hasi zirenetik, zerbitzu horiek eskolan bertan izan genituen”.*

Osasunaren alorreko profesionalen gainean egindako balorazioa oso positiboa da:

“Orain hitzordua dugu urtean behin neurologoarekin. Pozik nago. Gurutzetako genetista zoragarria da. Ez dut horrelako pertsona bat ikusi, maitekorra, eta nola hartzen zaituen... Hura harremanetan dago gaixotasuna ikertzen duen Ingalaterrako genetista batekin, oraindik ez baitakite zein den kromosoma eragilea. Digestioko sendagilearekin urtean bitan dugu hitzordua, elektroentzefalogramak urtean behin, ikastetxeko errehabilitazio sendagilea (hura ikastetxera doa, astean behin uste dudanez, haurrak ikusteko behar den bakoitzean eta harremanetan egoteko ikastetxeko fisioterapeutekin) eta ASPACEko errehabilitazio sendagilea, urtean behin ikusten dituen ere. Ondoren ohiko azterketak daude: oftalmologoa, dentista... Pediatra ere bai, eta zoragarria da, profesional onaz gainera...”

Hezkuntza sistemak emandako arreta

Alabak hezkuntza ziklo ezberdinetatik igaro dira, eta igarotze horretako alderdi ezberdinen berri eman digu, adibidez, beretzat ezgaitasunaren errealitatea ikusgai bihurtzeak duen garrantzia, logopedia eta fisioterapia zerbitzuekin antzemandako arazoak, ezaugarri berezi horientzako erizaintzako profesional bat hezkuntza bereziko ikastetxean sartzeko beharra edo lanbide taldeen egonkortasun faltatik etorritako eragozpenak:

“Hiru urteetatik aurrera ikastetxe publiko batera joan ziren; bertan, atzeko aldean, integraziora joan ezin ziren neska-mutilentzako gela egonkorreko beste sarrera bat zuten. Fisioterapia, logopedia, eta abar bezalako zona zuten. Profesionalak oso onak ziren (tutoreak, logopedak, fisioterapeutak, psikologoa...), baina ez nuen inplikazio berdina antzeman Zuzendaritzako langileen partetik. Uste dut garrantzia handiagoa ematen ziotela gainerako ikastetxeari, ‘jende normalari’... Benetan ikaragarri sentitu nuena ikastetxeko propaganda bat izan zen. Bertan esaten zen: ‘Ordenagailu aretoa dugu’, eta nik nioen: ‘hau edozein gurasok ikusiz gero esango du: ordenagailu gelak dituzte’, eta, benetan, garun paralisia dutenentzako gelak dira. Hidroterapia, fisioterapia... aretoak edukitzeari inolako aipamenik ez... Iruditu zitzaidan lotsatu egiten zirela horrelako umeak ikastetxean edukitzeaz. Ikasturte hasieran hitzaldia eman ziguten eta web orrialdea aurkeztu ziguten. Nik nioen: ‘Argazkiak jarriko zituzten?’. Bada, ez. Niretzat, ikastetxe baten barruan hori edukitzea balio erantsi bat da; aitzitik, ez dakit zergatik ez zen erakusten...”

“Gero logopedia kendu egin zieten eta urtarrilean jakin genuen ikasturte osoa zera-matela logopedarik gabe, noten orrian zuri zetorrelako. Tutorea gaiaren alde borroka egiten aritu zen, eta azalpenak eman zizkigun. Arrazoia aurrerapenik ez zutela ikusten izan zen. Zuzendariarekin hitz egin nuen... ez dakit ikuskaritzara joan nintzen edo ez... jada ez dut gogoratzen, izan ere, horrenbeste buelta eman ditut batera eta bestera eta horrenbeste kexa aurkeztu ditut... Badirudi egun osoa jendearekin haserre zabiltzala, eta nik ez dut inorekin haserre egon nahi. Berritzegunearekin egon nintzen, eta azalpena hori zen, ez zutela aurrera egiten, eta nik esan nien nire asmoa ez zela... nik ez nuela nire alabentzat logopeda bat nahi ‘r’ ongi esateko edo ez, baizik eta lerderik ez botatzeko, irensterakoan arazorik ez edukitzeko. Eta nik bai ikusi nituela aurrerapenak, lerde-zapia zein neurritan zikintzen dizuten ikusten duzulako. Hala eta guztiz ere, nik esaten nien: ‘ume batek... ezin badu matematikarik ikasi eta huts egiten badu, huts egiten badu eta huts egiten badu, matematikaren ikasgaia kendu egiten al diozue ere? Bada, logopedia beste ume batentzako matematikak diren gauza bera da nire alabentzat”

“Orain 2 urte daramatzate hezkuntza bereziko ikastetxe batean. Hogeita hamar eta koska ikasle dago bertan. Lehen neurri bateko autonomia zuten ikasleak bertaraten ziren, adibidez Down sindromea zuten ikasleak. Orain haur gehienak gurrpil aulkian doaz. Ikastetxea oso ondo dago, baina zenbait gauza behar ditu. Igerilekua du hidroterapia egiteko, uretako errehabilitazioa, eta aldagelak prest daude dutxetan sartzen diren haurrentzat. Nik alaba, altua dena, dutxa horren azpian jartzen badut,

eta ura horrela erortzen bazaio gainean, hozmina eduki dezake. Uste dut aldagelak oso hondaturik daudela, 25 urte dituzte eta, gainera, ikastetxeko haurren arabera egokitu beharko lirateke. Oso arazo serioak dituzten umeak daude... trakeotomia-ekin, botoi gastriko batekin elikatzen diren haurrak, konbultsioak dituzten haurrak, epilepsia krisiak dituztenak, eta nik uste dut ezinbestekoa dela OLT bat edukitzea ikastetxean, izan ere, tutoreak ez du zertan jakin nola erabili xurgagailu bat trakeotomia duen haur batekin edo zer erreakzio eduki konbultsio baten aurrean. Jangelan, haur hauetatik edozeini janaria kontrako ezterrira joan dakioko. Adibidez, Iratik erraz egiten du oka, errefluxua duelako eta ahotik eta sudurretik egiten du ia egunero. Ikusten duzunean, azkar ibili behar zara eta buruz behera jarri... Zenbaitetan arnasarik gabe geratzen da, ito egiten da, eta buruz behera jarri behar da, askatu dezan, eta arreta jarriz birikara joan ez dakion, bestela Txagorritxura joan behar zarelako maskara jar diezaioten... Uste dut OLT bat egon beharko litzatekeela, adinekoen egoitzetan egon ohi den bezala."

"Fisioterapia ezinbestekoa da ezaugarri hauek dituzten adingabeen kasuan. Eskolio-sia zuzendu daiteke manipulazio bereziekin... Fisioterapia konplexua da. Ikastetxean hasten diren fisioterapeuta batzuk traumatologiakoak dira, ez dira neurologiakoak, eta errehabilitazioa oso ezberdina da. Ez da gauza bera apurtuta dagoen txorkatila bat mugitzea edo mugimendu horiek borondatez egiten ez dituen pertsona batekin lan egitea, eta hori ez da aintzat hartzen Hezkuntzan. Gainera, fisioterapeuta urtetik urtera alda daiteke; eskarmentua hartzen duenerako eta fisioterapia mota hau ikasten duenerako, hurrengo urtean jada ez dago... Hori ere gertatzen da tutoreekin, laguntzaileekin... Badakit hori ez dela Hezkuntza Sailaren mendekoa, izan ere, pertsonak lekualdaketa eskatzen badu... zaila da hori kudeatzea, jabetzen naiz, baina haur hauek bereziki behar dute egonkortasuna irakasleen taldean, beste modu batera komunikatzen direlako eta modu hori konplexua delako, eta profesionalak ikasi arte aurpegi jakin bat desatseginekora dela edo gosea duela edo nekaturik dagoela, denbora luzea igaro daiteke ordezkoa iristeagatik prozesuari berriro ekin behar izateko."

Ikastetxean dauden beste arazo batzuk ere aipatu ditu:

"Hezkuntza bereziko ikastetxe bat da eta ez dago ongi egokituta. Goiko solairua ezin da hustu sute bat gertatuz gero. Ez dago arrapalarik, igogailu bat eta eskailerak bakarririk, baina Hezkuntza Saila zaharberrikuntzari ekiteko izapideekin ari da jada. Arazoak genituen jangelarekin, zenbait egunetan pureak ura bezala iristen ziren, beste batzuetan hormigoia bezala... Haur hauentzat ez jateak gastroskopia bat ekar dezake neurritz gain argalduz gero. Egitura poto batek duena bezalakoa izan behar da. Urtsuegia bada, kontrako ezterritik joaten zaie; lodia bada, aldiz, ez zaie pasatzen. Jangelako arduradunak berak kexatu ziren, eta egia esan orain askoz ere hobeto dago."

Edonola ere, ikastetxeko jarduerekin oso pozik dago:

"Bi ordu hidroterapian, bi fisioterapian, logopeda beste bi orduz, areto multisentsoriale, psikomotritzitatea. Etengabeko estimulazioa dute."

Eguneko zentroa etorkizuneko aukera bezala

Ikastetxeko garaia amaitzen denerako aurreikuspenez hitz egin digu:

“Uste dut hezkuntza sisteman 18 urte bete arte egon ahalko direla. Ondoren, eguneko zentroak izango dira.”

“Etxebidea eguneko zentroa ongi dago, baina beteta dago eta oso zaila da plaza bat topatzea. Gainera, zahartuta geratu da apur bat Gipuzkoakoarekin –Goienetxe, Aspacerena– edo Bizkaian ireki berri dituztenekin alderatuz gero. Jaten emateko aukeri erregulagarri bereziak eta guzti dituzte. Langileen bizkarrean ere pentsatzen dute. Zentroek behar guztiak estaltzen dituzte irekitzen duten unean, baina denborak aurrera egin ahala beharrezkoa da eraikina eta ekipamendua erregulartasunez konpontzea edo modernizatzea, eta nik uste dut ez dela ez konpontzen, ezta modernizatzen ere.”

Etxez etxeko laguntza zerbitzua

Etaparen batean Marisak jo du zerbitzu honengana, eta bere balorazioa ezberdina da zerbitzuak nork ematen zuen.

“Gasteizen bizi ginenean, etxez etxeko laguntza eskatu nuen, nik bakarrik ezin nituelako ikastetxera eraman. Aitona-amonek haurtzaindegira eraman izan zituzten, eta jada izan zen nahiko nahaste. Eta, gainera, erretiroa hartuta egonda, gozatzeko txanda zuten jada.”

Laguntzailea goizez etortzen zen, eta nik ordurako alabak gosalduta nituen. Hark bat janzten zuen, ni janzten nintzen bitartean. Bestea jantzita nuen nik jada. Autobusera jaisten laguntzen ninduen, eta itzultzerakoan haiek hartzen eta askaria ematen laguntzen zidan.

Azkeneko laguntzailea zoragarria izan zen. Behar baino gehiago eta guzti laguntzen ninduen. Beste batzuk, aldiz, etxera iristen ziren, eseri egiten ziren, liburu bat hartzen zuten eta irakurtzen jartzen ziren nik alabak prestatzen amaitzen nuen artean.

Orain ez dut ELZrik. Orain, herrian, autobusa etxeko ateraino iristen da. Nik gajea itxaroten ditut. Ordu horretan okinak bozina jotzen digunez eta auzotar batek, familiakoa bezalakoa dena, ogia hartzen duenez ere, lagundu egiten dit autobusera sartzen.

Egia esan, nik nahiago dut pertsonalki hartu alaben gaineko ardura, horrekin arropa garbiketak, lisatzeak, eta abar pilatzen bazaizkit ere.”

Familia inguruneko zaintzetarako prestazio ekonomikoa (FIZPE)

Mendetasunari buruzko araudian familiaren ingurunean zaintzak eskuratzeko jasotako prestazioa eskuratzen du, bi alabetatik bakoitzarengatik:

“Prestazio ekonomikoa azkar izapidetu zuten. Harritu ninduen gauza bakarra alaba bakoitzarengatiko % 25en murriztapena izan zen, baina pentsatu nuen: ‘hala izango da, bada’. Bada zerbait behintzat. Gure egoera Legea indarrean jarri baino lehen genuen berdina da, baina alaba bakoitzarengatik hilean 390 euro gehiago edukita lagundu egiten gaituzte fisioterapia ordaintzen –hilero 280 euro inguru–, taxien gastu estrak ordaintzen, estalita ez dagoen fardelen gastuaren zatia, oheen gastua, masajeetarako erosi dugun esku-ohearena –1.000 euro balio izan zituen–, dutxako hamakarena –600–, eta abar. Guretzat arnasaldia da. Gu apur bat lasaiago gabiltza.”

Araudi arabarraren arabera⁸⁷, prestazio bakoitza % 25 jaisten da zaintzailea berdina delako. Bere ustez neurri hau ez da oso egokia, eta hobe litzateke bi kasuetan % 100 kobratzea:

“Bi pertsona ez badago, bat bera ere ez da paseatzera irteten. Ibilgailuan eramateko beste pertsona bat egon behar da beti, bere lerdea kontrako eztarrira joaten zaie-lako eta itozteko arriskua dutelako. Gastuak bikoitzak dira –ez digute inon % 25eko deskontua egiten bi izateagatik–. Dedikazioa bikoitza da atentzioa emateko, janzteko, estimulatzeko, gauez jarrera aldaketak egiteko, fisioterapiarako... Guztia da bikoitza, eta denbora librea, aldiz, erdia. Egoitza batean % 25 gutxiago ordainduko al genuke bi pertsona izateagatik? Ez dut uste.”

Nik egiten dudan eta aldi berean bientzat balio duen gauza bakarra eltzea prestatzea da, nahiz eta berezia den ere. Alaben janaria eta gurea ezberdina da: txanotik igarotakoa da eta bi platerak batera ematen dizkiet. Errefluxu arazoengatik ez diet haragi gorri gehiegi ematen. Soja esnea hartzen dute, eta kontu handiagorekin ibiltzen naiz gatzarekin.

Bakarrik ez daude inoiz. Haiek besoetan edukita edo zuzenean arreta eman ez gauden eguneko uneak ia ez dira existitzen. Sofan apur bat uzten baditut, segituan eskatzen dute arreta... agian bat aulkian tolestu da eta harengana joan eta berriro jarri behar dut jarrera egokian. Jarrera aldaketen aurrean adi zaude... Pisu handia dute, pisu hila da, ez dizute laguntzen. Igeltsuarena gertatu zenean, kontraktura bat eduki nuen bizkarrezur osoan.”

⁸⁷ Abuztuaren 3ko 40/2010 Foru Dekretuak kendu egin du FIZPE arautzen zuen urriaren 23ko 70/2007 Foru Dekretuak finkatutako % 25eko murriztapen hori, hain zuzen ere erakunde honek bidalitako iradokizuna aintzat hartuta. Ikusi txosten honetako [5.9. idatz-zatia](#).

Laguntza teknikoak (produktu lagungarriak) eta etxebizitza eta ibilgailua egokitzekoak

Adierazi digu bere garaian diru-laguntza bat eskatu zutela etxebizitza egokitzeko, eta ate irristailuak jartzeko. Aitzitik, laguntza horri ezezkoa eman zieten:

“Errentaren gaineko azkeneko aitortpena eskatzen zizuten, eta nik lan egin nuen.”

Ibilgailuaren gaiarekin ere ez zuten zortetik izan:

“Bikiak zetozenez, monobolumen bat erosi genuen, baina gurpil aulkiak ez ziren sartzen; beraz, 2 urte zutelarik, furgoneta bat erosi behar izan genuen. Bigarren eskukoa zenez, ez ziguten inolako laguntzarik eman.”

Gurpil aulkiei buruz, zenbait hobekuntza egon direla aipatu digu:

“2006an erosi genituen gurpil aulkientzat, Osasun Sailak 3.000 euro ordaintzen zizkizun, baina aulki bakoitzaren prezioa 3.679 eurokoa zen. Aldea bider bi ordaindu behar izan genuen: 1.258 euro inguru. Hori egun Aldundiak estaltzen du, aulkia eskatzen duen pertsonaren diru-sarrerak begiratzen dituztelako orain. Uste dut orain berritzaera goazen aulkiek 8.000 euro balio dutela bakoitzak, eta badirudi Osasun Sailak estaltzen ez duen zatia Aldundiak bere gain hartuko duela oso-osorik.”

“Etxerako aulki bat erosi dugu. Altuera erregulatu dakiok jaten emateko, eta ibilgailuan ere joan daiteke. 4.500 euro ordaindu ditugu. Aldundiak 2.500 eman dizkigu.”

Beste laguntza ekonomiko batzuk

Familiaren baitan ezgaitasuna duten pertsonak dituzten familiek aurre egin beharreko neurri gainera kostuak ordaintzea ahalbidetzen dieten beste laguntza ekonomiko batzuk zerrendatu dizkigu:

“Familia ugaria izateagatik deskontuak ditut OHZn, zerbait zapata dendan, garraioetan... Elbarritasunengatik, ibilgailuen gaineko zergan. Gizarte Segurantzak 1.000 euro ematen dizkigu urtean gizarte babesagatik.”

“Astearteetan fisioterapia dute etxean. Lehen zentrora joan behar ziren, baina nahasgarria zen... Askaldu gabe geratzen ziren, gehiegi nekatzen ziren. Orain etxera datoz eta zati bat Aspacek ordaintzen dit. Nik hilean 280 euro ordaintzen ditut gutxi gorabehera.”

Garraioa

Alabekin joan-etorriak egiteko dituen arazoak deskribatu dizkigu, eta baita bonotaxiaren zerbitzua eskuratzeko ezintasuna ere:

“Autobusa loteria bat da. Egokituriko autobusa iristen zaizu, baina bi plaza okupatuta ditu. Hurrengoa, agian, ez dago egokituta. Hurrengoa, agian, okupatuta egongo da berriro ere. Goiz erdia itxaroten eman dezakezu, ezin duzu kalkulatu. Noski, hori Gasteizen barrena egiten ditugun joan-etorrietan gertatzen da. Herritik Gasteizera joateko ez dut egokitutako garraio publikorik.

Tranbian oso denbora laburra dago sartzeko, eta zaila da ezgaitasuna duten pertsonentzako tokira joatea jaioberrien gurditxoren bat edo helduen beste aulkiren bat egonez gero. Behin alabarekin sartu behar izan nuen; aurreko gurpilak altxa, aulkia altxa, eta hori guztia tranbia martxan zegoela.

Panorama hori ikusita, bat beti geratzen da alabekin, eta bestea erosketak egitera joaten da. Gainera, inoiz ez ditugu alabak erosketak egitera eramaten, izan ere, bakoitzak alaba bat badarama, ez zaizkigu eskuak gelditzen supermerkatuko gurdia bultzatzeko.

Ez dut taxiaren bonua eskuratzeko aukerarik, 12 urtetik gorakoak izan behar direlako eta autonomia pertsonal altua eduki behar dutelako beren kabuz hartu ahal izateko.

Sendagilearengana joan behar dudanean, taxi bat hartu behar dut, edo alabaren bat gaixo jarri delako ikastetxetik deitzen didatenean ere hartu behar dut. Ebakuntzen aurreko probetara joan behar dutenean, proba bakoitzera taxian joan behar izan naiz, baita errebisioetara ere...”

Marisak bere eguneroko bizitza deskribatu digu, eta horrek aukera eman digu ikusteko zein zailtasun dituen eta zein garrantzitsuak diren laguntza eta baliabide formalak zein informalak:

“Goizeko 6:30ean jaikitzen ditut. Lehenengo Maider jaikitzen dut, fardela aldatzen diot, garbitu, jantzi... Ondoren, Irati jaikitzen dut eta gauza bera egiten dut. Honi sendagaia ematen diot urdailerako jogurt batekin, eta ordu erdi igaro denean gosaldu behar du. Gosaria ematen diot Maiderri, eta biak prestatzen ditut garajera eramateko 8:15ak aldera. 8:30ean autobusean uzten ditut. Behin alabak hartu dituztenean, etxeko lanekin hasten naiz: aspiragailuak, komunak garbitzea, hautsa, otorduak prestatzea, arropa esekitzea, lisatzea, eta erosketak egin behar baditut... agur goiza. Gainera, arropak antolatu behar dira, oka egin badute garbitu. ‘Eskua’ dugu jada, zoru garbigailuak kilometroak ditu... Gero, 13:30ak aldera, nire anaia dator etxera bazkaltzera. Pedrok goizez egiten du lan eta 15:30ean iristen da. Arratsaldean biok gaude. Hark bazkaldu, eta nik askaria prestatzen dut, eta alabak 17:25erako iristen dira ikastetxetik. Askaria biok elkarrekin ematen diegu, eta eguraldi ona bada, paseatzera irteten gara. Bakoitzak aulki bat darama. Biotakoren bat bakarrik badago, ezin dira paseatzera irten. Eguraldi txarra egiten badu, etxean gelditzen gara, haiek besoetan hartuta”

“Alabak dutxatzeko gainean jartzen ditut. Dutxarako egokitutako aulki bat erosi genuen, baina handia da haientzat eta irrist egiten dute. Horregatik, biok egon behar gara dutxatu ahal izateko, eta denbora bikoitza behar dugu. Laster erabili behar

izango dugu, pisu handia dutelako besoetan egiteko. Aulki bat dut dutxan; sartu egiten naiz, Pedrok alaba bat ematen dit eta nire besoan artean dutxatzen dut, Pedrok beste alabari arropa kentzen dion bitartean. Ondoren, beste alaba pasatzen dit eta biek in gelditzen naiz barruan. Pedrok dutxatuta dagoena eramaten du berekin, eta, hura lehortzen duen bitartean, nik bigarrena dutxatzen dut. Ondoren, bakoitzak bati lehortzen dio ilea eta kito. Pedrok pijama janzten die gauero, nik afaria egiten dudana bitartean. Afaldu aurretik, sendagaiak eman behar dizkiegu. Horretarako hamar minutu behar ditugu. 8:00etan afaria ematen diegu. Asko kosta zaigu lo egiten ondo hastea. Iratik urtebete darama lo ongi egiten, eta Mainerrek bi hilabete. Haize guztiak ateratzen ez dituzten bitartean, ezin dira lokartu eta horrek denbora asko eskatzen digu. Bakoitzak alaba bat lokartzen du. 9:30erako lo daude. Orain dela gutxi hasi gara Pedro eta biok elkarrekin afaltzen.”

“Eta, noski, hori guztia, kasurik onenean, tartean ebakuntzarik ez dagoenean, izan ere, Mainerrek, lau urte zituenean, ebakuntza izan zuen bi aldaketan. Gorputz osoa igeltsatuta eduki zuen hiru hilabetez. Bere pisua gehi igeltsuarena garraiatu behar ziren. Xaflak eta torlojuak (osteosintesiko materiala) kentzeko ebakuntza egin zioten berriro. Iratiri Akilesen tendoiko ebakuntza egin zioten 7 urterekin, eta bederatzi urterekin eskuineko aldakakoa. Hilabete eta erdi egin zuen igeltsuarekin, eta egunero errehabilitaziora joanez ibili ginen. 10 urte zituela, xaflak kentzeko operatu zuten. 3 aldiz sartu da ebakuntza gelan alaba bakoitza.”

“Egunean zehar, ikastetxean ez dauden denboran, nik lau aldiz aldatzen diot bakoitzari fardela gutxi gorabehera, eta horrek esan nahi du ordu eta erdiro fardelak aldatzen gabiltzala. Besoetan hartu behar ditut, eta guk geuk eraikitako aldagailura eramana.”

“Gu, bikote bezala, ez gara irteten. Uste dut Pedrorrekin afaltzera irten nintzen azkeneko aldian pezetatan ordaindu nuela”, dio barrez.

“Bion gurasoek laguntza handia eman digute diruaren aldetik. Pedroren soldatarekin bakarrik ezinezkoa litzateke etxea egokiturik edukitzea.”

“Laguntza handiena nire anaiarena, koinatarena eta Pedroren gurasoena da batez ere. Lagunek bere burua eskaintzen dute, baina zaila da.”

Marisak aitortu digu beretzat, alabak hezkuntza bereziko ikastetxe batera joatea, arnasaldi handia dela, etxea eta bizitza antolatu ahal izateko eta oporraldietako tentsioa ez jasateko:

“Oporraldietan, egunean alabekin 24 ordu egitea nekagarria da. Udako oporraldiek, Gabonek, San Prudentziok eta Aste Santuak gogaitu egiten naute, goizeko saioa besterik ez duten eskola asteek bezalaxe: 13:30ean irteten dira, 14:00etan iristen dira bazkaldu gabe eta lehenengo bati eta gero besteari eman behar diet jaten. Nire anaiak haizeak ateratzeko ardura hartzen du bere gain, jaten ematea oso zaila delako. Niretzat oso erraza da, baina beste batek jaten ematen dienean, orduan jabetzen naiz zein zaila den.

Alabek oporrak dituztenean, aitona-amonak goizero etortzen dira, 11:30ean, eta paseatzera eramaten dituzte 13:00ak arte. Ondoren, bazkaria ematen laguntzen didate. Paseatzera doazen tarte horretan, azkar, etxeko lanak edo erosketak egin behar ditut... Izan ere, alabak egonez gero, ezin ditut bakarrik utzi, itoko zaizkidanaren beldur. Ezin ditut, adibidez, garbigailuan garbitutako jantziak eseki. Bazkaria edo oheak egin ditzaket, hori bai, baina gertu egonez beti. Egongela eta sukaldea lotuta daude, nahiz eta edozein lan eten egiten den beti..."

Arnasa hartzeko zerbitzuak

Alabei arreta emateak dakarren lan karga eta dedikazioa ikusita, ikastetxeko arretaz aparte inolako arnasaldirik ba ote duen galdetu diogu:

"ASPACEn, hilero larunbat batean, tailer multisentsorial bat egiten dute 10:30etik 12:30era. Arnasa hartzeko balio diguten bi ordu dira, izan ere, biok elkarrekin erosketak egitera joan gaitezkeen egun bakarra da."

"ASPACEk gurasoentzat antolatutako jarrera higieneko tailer batzuetara joaten gara hilean behin. Horrek ere pixka bat erlaxatzeko balio digu. Ongi pasatzeko jarduerak ere erakunde horri esker ditugu."

"Udan, 15 egun joaten dira ASPACEko udalekuetara, 10:00etatik arratsaldeko 18:00etara."

"Etxebidea zentroa oso gaizki dabil plazen aldetik. Oporraldirako ezer aurreikusirik ez dakit, eguneko zentzoren bat edo... Egokiena ikastetxeak berak uztailean funtzionatzea litzateke, goizeko udalekuen bitartez adibidez, ikastetxea horretarako prestaturik dagoelako."

"Orain, nire oporrak urte osoan ekaineko azken asteburua dira, ostiraleko 17:00etatik igandeko 17:00ak arte. Pedro gelditzen da bere gurasoekin. Pedro urtean behin irteten da ere bai. Baina biok elkarrekin, inoiz ez. Nik esan ohi dut nire oporrak ikasturtearen hasierarekin hasten direla."

Bere gertueneko inguruneak ez diren pertsonen aldetik eskuratu duen laguntzari buruz ere hitz egin digu Marisak, eta beretzat zenbait jarrera zein garrantzitsu diren azaldu:

"Haurtzaindegiko urteetan, jende guztiak ahalegina egiten zuen. Izan nuen lehenengo guraso bileran beldurra nuen... uste nuen gainerako gurasoek pentsa zezaketela nire alabak bertan egoteak beren seme-alabak kaltetuko zituela. Kontrakoa gertatu zen erabat; ama batzuk eskerrak eman zizkidaten, nire alabak gelan izateari esker beren seme-alabek beste era batera ikasi zutelako... eta ni horrek hunkitu egiten nau."

“Ez dut gizarte bazterkeriarik sumatzen. Bikiak direnez, kalean beti gelditu izan naute. Jende askok esaten dit: ‘tamalgarria!’. Nik badakit jendeak solidaritateagatik esaten duela, baina ez dut erabat ongi hartzen.”

“Badirudi mendeko pertsoneri buruz hitz egiten dugunean, guztiok pentsatzen dugula aitona-amonengan, Alzheimerra dutenengan... inork ez du pentsatzen jaioberrietatik hasi eta adinezkoentzako egoitzetan daudenetaraino mendeko izan daitezkeenik... eta oso mendeko dira gainera. Eta adin honetan ume hauekin egiten duzun lan guztia funtsezkoa da: fisioterapia, jarreraren kontrola... Zerbitzu hauetan esfortzu handiagoa egingo balitz, baita epe luzera ere, diru asko aurreztuko litzateke, eta emaitzak onuragarriagoak izango lirateke. Beharrezkoa da kontzientziarioa eta sentsibilizazioa zentzu horretan.”

Marisak esan digu mundu osoan bere alabek duten gaixotasunarekin 80 pertsona bakarrik dagoela. Baieztatu digu Internet tresna ona suertatu zaiela, bai Frantziako klinika batean diagnostikoa berresteko, bai beste kasu batzuekin eta Italian pertsona hauen alde lan egiten duen elkarte batekin harremanetan jartzeko. Sindrome hau jasaten dutenek 13 urte baino gehiagoko bizitza ez dutela normalean edukitzen esan badiete ere, Madrilén jada 26 urte bete dituen neska bat ezagutu dute.

Azkenik, Marisaren hainbat aipamenek gizatasun lezio bat eman digute, hain zuzen ere bizitzaren inguruabarrak maitasunarekin eta aldartearekin aurre egiteko eta etorkizunari itxaropenarekin eta ilusioarekin begiratzeko jakiteko:

“Ez dut denborarik gaixo jartzeko. Jaio direnetik ez dut katarro, gripe bat... ezer hartu. Nik denbora faltagatik dela diot”, dio barre artean.

“Zenbaitetan beste ama batzuk ikusten ditut seme edo alabari errieta egiten, lora-tegia hondatzen ari zaizkielako. Nik zer ez nukeen emango lau lore errotik ateratzen ikusteagatik...! Gauza batzuk askoz ere gehiago baloratzen ikasten duzu. Orain barre egiten dute, zoragarria da, nik barre egiten ikusten ditut, pozik ikusten ditut eta esaten dit: ‘azkenean, jendeak zer bilatzen du bizitzan?... Zoriontsua izatea’. Bada, nire alabak baino zoriontsuagorik ez dago munduan. Nahi duten guztia dute. (...) Besoak nahi dituztenean, besoak dituzte; besarkatu egin behar badira, besarkatu egiten ditugu; dantza egin behar bazaie, dantza egiten diegu... Etxera etortzen den jende guztia, etxera iritsi eta... musuka. Inoiz ez dago oihu bat edo hitz itsusi bat (...). Nik helburua lortua dut. Edo bizitza osoa ernegatuta egiten dut ‘zergatik tokatu zait hau niri eta zergatik ez zait beste ezer tokatu?’ esanez (eta horrek ez lidake aukerarik emango ez nire bizitzaz gozatzeko, ezta nire alaben bizitzaz gozatzeko edota alabek eta ondoan ditudanek gozatzea lortzeko ere), edo aurrerantz egiten dut eta daukadanaz gozatzen dut. Abantailak ikustea nahiago dut.”

“Uste dut ez dituztela gauzak ulertzen... ez dute bere burua adierazten... Askotan galdetzen diot hori nire buruari. Baina ulertzen didatena maitasuna da, ahots tonua... Erantzuten diete emozioei, izugarri gustatzen zaie besarkatzea eta mu-

sukatzea. Nik beti 2 hilabete edukiko dituzten haurrak ditut, hamaika urteko umeen tamaina badute ere.”

“Ez dut etorkizunean pentsatzen. Egunerokoa bizi dut. Egunaz gozatzen dut, alabez, haiekin egoteaz eta kito. Zenbaitetan bere etorkizunean pentsatzen dut ni ez banago... Pedro dago, nire aitagarreba eta amagarreba, nire anaia... ez dakit.”

“Garabi bat erosi behar dugu. Egongelan fisioterapia areto bat egin nahi dugu.”

“Zailtasunak zailtasun, proiektu ugari ditugu eta guztiak alabengatik eta alabentzat dira, haiek dira gure motorra. Badakit oso zorionekoa naizela Pedro aldamenean edukitzeagatik, bere maitasun eta laguntzagatik, egon daitekeen aita onena izateagatik. Badakit bikote ugari, zailtasunak iristen direnean, banandu egiten direla. Gu, alaba hain paregabe hauek, gehiago elkartu gaituzte.”

7

ONDORIOAK

ararteko

7.1. Menpekotasunaren babesari eta autonomia pertsonalaren sustapenari heltzeko modu berri bat

Menpekotasunari dagokionez, estatu-mailan lege berriak sustatzen duen babesari ezin da esan berritzailea denik; izan ere, autonomia erkidegoak beren geografia-esparruetan gizarte-zerbitzuek arduratu izan dira. Hala ere, gizarte-politikekarako aurrerapen eztabaidaezina da, barne hartzen dituen prestazioak eta zerbitzuak eskuratzea eskubide subjektibotzat jotzen du eta.

Egokia da [AMALek](#) jasotzen duen menpekotasun-kontzeptua zabala izatea eta, ondorioz, eguneroko bizitzako oinarritzko zereginak gauzatzeko autonomia pertsonalik ez duten pertsonak –dela adinagatik, dela gaixotasun edo ezgaitasun batengatik– barne hartzea. Hala ere, hobe izango zen menpekotasunaren nozioan iraunkortasun-izaera ez ezik, iraunkorrak izan ez arren menpekotasun-egoeraren iraupen luzea dela eta menpekotasun iraunkorren parteko arreta merezi dutenak ere barne hartu izan balituzte⁸⁸.

Ukaezina da oso garrantzitsua dela arautegi horrek familiak eta inguruko pertsonak egiten duten zaintza-lana balioesten duela, baita zaindari nagusiari eskubide sozial batzuk bermatzea eta Gizarte Segurantzaren altan ematea oso egokia dela ere.

Onuradunak bere egoerarako zerbitzu edota prestaziorik aiposenak zein diren zehazterakoan parte hartzea ere lege horren beste alderdi positibo aipagarri bat da.

⁸⁸ MONTOYA MELGAR, Alfredo et al. *La protección de las personas dependientes: comentario a la Ley 39/2006, de promoción de la autonomía personal y atención a las personas en situación de dependencia*. Cizur Menor: Civitas, 2007.

7.2. Autonomiarako eta Menpekotasunari Arreta emateko Sistema (AMAS) martxan jartzea

Menpekotasunaren babesean parte hartzen duten eragileek antzeman dute sistema martxan jarri baino lehenagoko planifikazioa oso urria dela, sistemaren finantzaketari eta iraunkortasunari dagokienez, bereziki. Halaber, sistema aplikatzean, nolabait, azkarregi jokatu dutela ohartzen dira; izan ere, beharrezkoak diren gutxienezko baliabideak, irizpi-deak, instrumentuak eta prozedurak zehaztu baino lehen jarri zen martxan.

Espainiako gobernuaren hasierako komunikazio-estrategiak herritarren artean itxaropen handiak piztu zituen; baina, halere, ez dirudi itxaropen horiek ase direnik, eta legearen hartzaile nagusiak neurri batean desengainatuta sentitzen direla ikusi dugu.

AMALek eraturako sistema gizarte zerbitzuen eta arreta sozialaren arloan barne hartzen da, ez Gizarte Segurantzaren arloan, eta horrek haren finantzaketari egonkortasun txikiagoa ematen diola dirudi. Jurisdikzio eskuduna, beraz, ez da soziala, administrazioarekiko auziena baizik, eta horrek prozedura judicialaren arintasunarekin lotutako eragozpen batzuk sortzen ditu.

Sistemak legezko egoiliartasuna ez duten etorkinen kolektiboa babesetik kanpo utzi ohi du, baina batzuetan atzerritarrei edo adingabeei buruzko legerietara jotzeko esaten du. Adingabeen kasuan, arreta eskuratzeko arazoak dauzkatela ikusi dugu. Gure erkidegoan egiaztatu dugu araudia behar bezala garatuz gero hori gainditzea posible izan litekeela babesgabetasun sozial eta sanitarioa eta menpekotasun-egoera aldi berean gertatzen direnean, gizarte- eta familia-babesen falta dagoenean edota harrera-gizarteko hizkuntza edo kultura ez ezagutzean sortzen diren egoera larriak ekiditeko.

7.3. Menpekotasunaren eta autonomia pertsonalaren araudiaren ezarpena EAEen

AMAL indarrean sartu zenetik, udalen gizarte-zerbitzuek herritarrei zuzendutako informazio- eta orientazio-lana gauzatu dute, eta, foru-erakundeekin batera lan egin dute txosten sozialak jaulkitzen eta katalogoan aurreikusten diren zerbitzu eta prestazio ekonomikoak eskuratzeko espedienteak kudeatzen. Kasu batzuetan, legearen aplikazioaren ondorioz lan-bolumena asko handitu denez, zerbitzuak kolapsatu egin dira. [EUDEL-Euskadiko Udalen Elkarteak](#) azpimarratzen du hori guztia, halere, ez dela legokiokeen zuzkidura ekonomikoarekin batera etorri.

EAEko hiru foru aldundiek AMALen garapena beren gain hartu dute, eta, bakoitzak bere lurralde-esparruan, menpekotasunaren balorazioa egiteko beharrezkoak diren zerbitzuak eta baliabideak kudeatu ditu, baita legean jasotzen diren prestazio ekonomikoak eta autonomia pertsonala eta menpekotasunaren arreta sustatzeko zerbitzuak ere.

Onartu beharra dago hiru foru aldundiek lan bikaina egin dutela, sistema ezartzeaz kezkatu direla eta gizte baliabideak nahiz baliabide materialak hornitzeko ahalegin handia egin dutela.

Hala eta guztiz ere, gure ustez, lurraldeen artean dauden desorekak gainditzea ahalbidetzeko nahiz garapen-araudia azkarrago onesteko hobe izango zatekeen modu koordinatuan lan egiteko borondate handiagoa lortu izan balitz ([Bizkaiko Foru Aldundiak](#), adibidez, zerbitzua-rekin lotutako prestazio ekonomikoa ez zuen arautu 2010eko ekainera arte).

[Eusko Jaurlaritzak](#) AMALen aplikazio-esparruan egin duen lana ondorengo zeregin hauetan kontzentratu da:

- Osasun-sistema sozialak menpekotasuna baloratzeko eta baliabide egokiak esleitzeko prozesuak kudeatzeko emandako informazioa.
- Estatuko Administrazio Orokorrari kupoaren bidezko finantzaketarako irizpideak aplikatzeko beharrezkoa den informazioa ematea.
- AMALen Informazio Sistemara informazio estatistiko zehatza helaraztea eta informazio hori alde zuzenetik biltzea aldundietan.

Beharrezkoa da Eusko Jaurlaritzak argi jokatzeko lider gisa sistemaren ezarpenean. Gainera, Gizarte Zerbitzuei buruzko [abenduaren 5eko 12/2008 Legearen](#) garapenaren atzerapena ez da mesedegarria izan lurraldeen artean dauden desberdintasunak gainditzeko, ezta prestazioen eta zerbitzuen zorroarekin lotutako alderdi batzuk gainditzeko ere.

Gure ustez, AMAL indarrean sartu izana ez da mesedegarria izan gure administrazioek azken urteotan gizarte-zerbitzuen arloan egin duten apustu sendorako. Estatuko Administrazio Orokorrak markatutako gutxieneko intentsitateak –oro har, lehendik EAEn aplikatzen zirenak baino txikiagoak– nahiz administrazio horrek, krisi-egoera dela eta, prestazioak eskuratzeko eskubidearen eraginkortasunari buruz onartutako irizpideak, batzuetan, oztopo bihurtu dira arreta areagotuz eta etengabe hobetuz joateko bidean.

Gizarte-esparruarekin lotutako administrazioen erakunde-arte koordinazio egokian eta osasun-sistemaren arlo horietan sakontzea beharrezkoa dela egiaztatu dugu; koordinazio sozio-sanitarioa lehentasunezko lan-arlo bat da.

7.4. Menpekotasunari eta autonomia pertsonalaren sustapenari buruzko araudiaren EAEko aplikazioarekin lotutako datu estatistikoaren analisia

Menpekotasunaren arretaren eta autonomia pertsonalaren sustapenaren arloan, oso zaila da analisi kuantitatibo fidagarria egitea, ez baitago datuak jaso eta ustatzeko irizpide bateraturik darabilen informazio-sistema integratu zorrotzik. Horrenbestez, desberdintasunak egoten dira iturri desberdinetatik lortzen ditugun datuen artean. Hori guztia dela eta, gure azterlanaren ondorioei buruzko atal honetan, iturri bat baino gehiagorekin alderatu ondoren koherenteagozat jo ditugun datuak aipatuko ditugu nagusiki.

7.4.1. Menpekotasun-egoeran dagoen pertsona

Estatu-mailan, onuradunen %67 (alegia, menpekotasuna onartuta duten eta, dauzkaten eskubideen arabera prestazioen bat jasotzen dutenak⁸⁹) emakumezkoak dira. Onuradunen multzo horren %76k 65 urte baino gehiago dituzte.

EAEren kasuan, menpekotasun onartua duten pertsonen profila analizatzea erabaki dugu; izan ere, AMALen mailaketaren aplikazioa edo prestazioak jasotzen dituzten ala ez kontuan hartu gabe, jorratzen ari garen esparru honetako politika publikoek pertsona horiengana zuzenduta egon behar dute. Hortaz, 2007ko urtarrilaren 1a eta 2010eko uztailaren 1a bitartean, beren menpekotasun-egoera onartua izan dadila lortzen duten pertsonen %63,74, EAEEn, emakumezkoak dira. Lurraldeei dagokienez, baloreak batez besteko horren ingurukoak dira; baina, menpeko biztanlerian, emakumezkoen kopurua Bizkaian eta Gipuzkoan altuagoa da Araban baino.

Adinari dagokionez, menpekotasun-egoera bizitzako fase guztietan gerta daitekeela ikusten da. Nolanahi ere, azpimarratzekoa da menpekotasun-egoera gisa onartzen diren kasuen %80 65 urte baino gehiagoko pertsonak direla eta 80tik gorakoak kasuen %50 eta 60 bitartekoak direla.

Adina eta sexua aldi berean hartzen baditugu kontuan, 65 urtetik beherako pertsonen artean menpekotasun-egoera onartua dutenen kasuan, gizonezkoen kopurua pixka bat altuagoa da; aitzitik, adin horretatik aurrerakoan artean, menpekotasunaren fenomenoaren eragina nabarmen handiagoa da emakumezkoen artean.

Mailaketari dagokionez, emakumeek menpekotasun-maila larriagoa izaten dute, neurri batean. Menpekotasun-maila handiko pertsonen artean, 80 urtetik gorakoena da presentzia handiena duen taldea. Adin-taldeei dagokienez, berriz, 18 urte baino gutxiagokoan eta, bereziki, 3 urte baino gutxiagokoan artean menpekotasun-maila handia dutenen ehunekoa batez bestekoa baino askoz altuagoa da.

7.4.2. Menpekotasun-egoeran daudela onartzea eskatzen duten pertsonak

Legea indarrean sartu zenetik (2007ko urtarrilaren 1a) 2010eko uztailaren 1era EAEdo 98.673 biztanlek eskatu zuten beren menpekotasun-egoera onar zedila, hau da, EAEdo biztanleria osoaren %4,54k. 1.000 bizkaitarreko 39 inguruk eskatu zuten; 1.000 arabarreko 49k eta 1.000 gipuzkoarreko 53k. 93.395 pertsona baloratu dira guztira, eta horietako 77.352k (%82,82k) menpekotasun-egoeran daudela onar dadila lortu dute (hots, Estatuko Administrazio Orokorrak 2007ko maiatzean egin zuen estimazioan EAEren kasurako kalkulaturakoa baino 22.808 pertsona gehiagok). Hortaz, EAEEn baloratuak izan diren pertsonen %17,18k ez du lortu menpekotasun-egoeran daudela onar dadila. Irizpen negatiboen tasarik altuena

⁸⁹ Prestazioei buruz hitz egiten dugunean, prestazio ekonomikoari nahiz zerbitzuei buruz ari gara, AMALen bezala.

Bizkaian egon da. Menpekotasun-egoera onartu zaien pertsonen tasa honakoa da, lurraldeka: 1.000 biztanleko 43,77 Gipuzkoan, 41,64 Araban eta 28,97 Bizkaian.

Gure azterlanak barne hartzen dituen 3 urteetako bilakaerari dagokionez, EAEn menpekotasun-egoeran daudela onartzea eskatu zuten pertsonen ehunekoa, biztanleria osoarekin alderatutakoa, pixkanaka gutxitzen joan zen: 2007an %1,45, 2008an %1,37 eta 2009an %1,12. Lurraldeka, Bizkaian indizeak egonkor mantendu ziren hiru urteetan; Araban behe-arakadarik garrantzitsuena 2008an egon zen, eta Gipuzkoan, berriz, 2009an.

Foru administrazioek menpekotasun-egoerakotzat jo dituzten pertsonen %43,74 menpekotasun-maila handiko pertsonak dira (III. Gradukoa); %31,22 II. Gradukotzat (menpekotasun larria) eta %25,04 I. Gradukotzat (menpekotasun arina) jo dira. Lurraldeka, Bizkaia da I. Gradu balorazio-indizerik altuena duena; Gipuzkoak, berriz, III. Gradu balorazio-indizerik altuena dauka.

7.4.3. Menpekotasun-egoeran daudela onartzea eskatzen dutenen espedienteak

EAEn menpekotasun-egoeran daudela onartzeko eskaerak (berrikuspen-espedienteak barne) Estatuko kopuru osoaren %5,65 dira⁹⁰. Menpekotasun-egoeran daudela onartzeko eskaeren espedienteen kopuru osotik %92,40k baloratutako pertsonaren menpekotasun-mailaren irizpena (irizpenen %83,93) edo autonomotzat jotzen duen irizpena jaso du (gainerako %16,07a) Beraz, gure erkidegoa, Estatuko gainerako autonomia erkidegoekin alderatuta, zazpigarrena da irizpena dagoeneko emanda duten eskabideen ehunekoari dagokionez. EAEn barruan, Gipuzkoan eskaera-espedienteen bolumena handiagoa da, eta hori, neurri handi batean, egin diren balorazioen berrikuspenaren ehunekoa ere altuagoa delako gertatu da.

7.4.4. Arreta: menpekotasun-egoeran dauden eta zerbitzuak eta prestazioak jasotzen dituzten pertsonak

Prestazioa jasotzeko eskubidea duten pertsonen tasa (II. Gradua edo III. Gradua dutenak), EAEn 1.000 biztanleko 19,62koa da. Lurraldeka, Gipuzkoan eta Araban antzeko tasa dute, Bizkaian, berriz, askoz baxuagoa da.

Euskal herritarren %1,59k jasotzen du AMALen aurrez ikusten den prestazioetakoren bat.

Prestazioa jasotzeko eskubidea duten pertsona guztien artetik, %19,01 arretaren zain daude; hau da, ez zaie eskubidez dagozkien prestazioetakoa bat ere esleitu, eta kezagarria da. Estatuko hamaika autonomia erkidegotan, arretaren zain dauden pertsonen ehunekoa EAEn erregistratutakoa baino are altuagoa da. Gure erkidegoan, onuradun bakoitzeko pres-

⁹⁰ Datuak noiz hartu diren: 2010eko urria.

tazioen ratioa 1,15ekoa da, Estatuko zortzigarrena, baina Estatuko batez bestekoaren azpitik (1,18), hala ere.

EAEEn prestazioak jasotzeko eskubidea izan arren eta beren eskubidea balioetsi den arren prestaziorik jasotzen ez duen %19,01 horri dagokionez, lurraldeen arabera banaketa honakoa da: Gipuzkoan %15,52 erregistratu da, Bizkaian %19,94 eta Araban %24,71. Ikusten den bezala, eskubidea izan arren itxaron zerrendan dauden pertsonen ehunekoa altuagoa da Araban, baina lurralde horretan dago onuradun bakoitzeko prestazioen ratorik altuena: 1,35 (Estatu-mailan Errioxak soilik gaingitzen du); Gipuzkoan eta Bizkaian, berriz, 1,17koa eta 1,05ekoa da, hurrenez hurren.

EAEEn menpeko biztanleriak eskatzen dituen zerbitzuei dagokienez, egoitza-arreta eta etxez etxeko laguntza-zerbitzua gailentzen dira. Gehien eskatzen duten prestazio ekonomikoa, alde handiarekin gainera, familiaren barruan zaintzeko prestazio ekonomikoa da.

Menpekotasun-egoeran dauden pertsonak izaten duten prestazio-motari dagokionez, argi ikusten da familiaren barruan zaintzeko prestazio ekonomikoa nagusitzen dela (%41,90), eta, ondorioz, argi dago AMALek prestazio ekonomikoak ezohikotzat jotzeko eta zerbitzuei lehenetasuna emateko helburua zuen arren, ez dela betetzen ari. Bigarren tokian egoitza-arreta dago (%20,72), eta ondoren etxez etxeko laguntza-zerbitzua (%11,88), eguneko zentroa (%11,15) eta telelaguntza. Zerbitzuarekin lotutako prestazio ekonomikoak (Bizkaian ez da esleitu, ezta behin ere, aztergai ditugun hiru ekitaldietan) eta laguntza pertsonalak (ia-ia kasuen %100ean esleitu dira Gipuzkoan) askoz garrantzi txikiagoa dute (%2,38 eta %2,32, hurrenez hurren).

7.4.4.1. Zerbitzuak

Menpekotasun-egoeran dauden⁹¹ eta telelaguntza-zerbitzua jasotzen duten pertsonen tasa, 1.000 biztanleko, urtero hazten da gure erkidegoan. Telelaguntza-zerbitzuaren onuradunen %72 baino gehiago emakumezkoak dira. Zerbitzua jasotzen duten pertsonen %70 inguru 80 urtetik gorakoak dira. 65 urte baino gutxiagoko pertsonak, berriz, ez dira zerbitzu horren onuradun guztien %6 baino gehiago.

2007an eta 2008an etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren estaldura-tasa nabarmen igo zen; halere, 2009an, beherakada bat egon zen, eta kezka garrantzitsuak jo daiteke kontuan hartzeko baina herritarrek gero eta gehiago eskatzen duten zerbitzu bat dela. Zerbitzu honen onuradunen profila eta telelaguntzaren erabilzaila antzekoa da, baina azken horiek pixka bat zaharragoak direla eta emakumeen kopurua apur bat altuagoa dela esan daiteke.

⁹¹ Analizatzen den biztanleria beti da menpekota, nolana ere, zerbitzuren baten onuradunari erreferentzia egiten diogunean, foru administrazioak onartuta menpekotasun-egoeran dauden pertsonen buruz ari gara soil-soilik.

65 urte baino gehiagoko menpekoen artean eguneko zentroaren zerbitzua erabiltzen duten pertsona gehienak emakumezkoak dira (%70 baino gehiago). Nolanahi ere, 65 urtetik beherakoen artean, gehiengoa gizonezkoak direla ikusi dugu (%58 inguru). Hala ere, 65 urtetik beherakoen artean, gehiengoa gizonezkoak direla ikusi dugu (%58 inguru).

Egoitzako arretan ere gizonezkoak dira nagusi 65 urtetik beherakoen artean. Zerbitzu horretan, onuradunen batez besteko adina altuagoa da eguneko zentroko onuradunena baino. Egoitzako arreta-zerbitzua jasotzen dutenen %63 baino gehiago emakumezkoak dira.

AMALen zerbitzuen katalogoan barne hartzen den gaueko zentroa ez dago martxan une honetan EAEn, baina egia da iraganean esperientzia batzuk egon zirela. Ez dirudi zerbitzu horren inguruan dagoen eskaerak ezaugarri horiek dauzkan baliabideak sortzera animatzen duenik.

Zerbitzuen estaldura zenbat eta txikiagoa izan, orduan eta handiagoa da 65 urtetik gorako emakumeen proportzioa onuradunen artean.

Eguneko zentroetan eta egoitzetan eskuragarri dauden plazei dagokienez, itxaronzerrendak daude oraindik –egoitzetan neurri handiagoan– eta horrek adierazten du baliabideak ez direla nahikoa; bereziki, menpekotasun-egoeran dauden eta 65 urte baino gutxiago dauzkaten herritarrei dagokienez.

7.4.4.2. Prestazioak

AMALek barne hartzen dituen hiru sari ekonomikoak modu desberdinetan ezarri dira gure autonomia erkidegoan.

2007an bakarrik hasi zen esleitzen, Arabako lurralde historikoan. Gipuzkoako lurralde historikoan, berriz, 2008an jarri zen martxan, eta Bizkaian ez zuten 2010eko ekaina arte arautu. Oro har, 65 urtetik gorako pertsonari eman zaie, kasuen %98 baino gehiago dira, eta emakumezkoak %66tik gora dira.

Adierazi bezala, familiaren barruan zaintzeko prestazio ekonomikoek eragin handia izan dute gure autonomia erkidegoan; AMALek aurreikusitako prestazio eta zerbitzuen multzoaren barruan estaldura-tasarik handiena lortu dute. Prestazio horren esleipena, gainera, areagotu egin da urtez urte. Lurraldeka, Arabak tasa altuagoak lortu ditu. Jasotzen dutenen %60-65 bitartean emakumezkoak dira, baina 65 urte baino gutxiagokoaren artean, gizonezkoak gailentzen dira.

Arabaren erregistratutako kasu puntual batean izan ezik, laguntza pertsonalerako prestazioa Gipuzkoako lurraldean soilik eman da. Prestazioa jasotzen duten gehienak emakumezkoak eta adineko pertsona direla ikusirik, esan daiteke [Gipuzkoako Foru Aldundiak](#) gainerako lurraldeek baino interpretazio zabalagoa egiten duela AMALen 19. artikuluari dagokionez –baita autonomia erkidegoek baino zabalagoa ere–. Hori dela eta, prestazioa lan-merkatuan

edo hezkuntza-sisteman dauden eta menpekotasun handia duten pertsonei ez ezik, maila hori duten eta *“eguneroko oinarrizko zereginak gauzatzeko bizitza autonomoagoa”* erraztea (AMALek jasotzen duen bezala) behar duten eta baldintzak betetzen ez dituztelako FIZPE eskuratu ezingo luketen pertsonei ere esleitzea posible da.

7.5. EAEko araudiaren garapenean eta ezarpenean lurraldeen artean dauden desorekak

Hiru lurralde historikoetan AMAL modu desorekatuan aplikatu izanak oso alderdi desberdinei eragiten die; besteak beste, honakoak dira azpimarratzekoak:

- Datuak jaso eta ustiatzeko irizpideak.
- Oinarrizko gizarte-zerbitzuen eta foru-zerbitzuen arteko koordinazioa, baita horien eta osasun-zerbitzuen artekoa ere.
- Balorazio-ekipoen osaketa.
- MBBren aplikazio-irizpideak.
- RAI-RUG baloraziora jotzea menpekotasun-egoeraren balorazioa egiteko tresna osagarri gisa.
- Balorazioaren berrikuspenen tipologia.
- Homologazio bidezko balorazioak egiteko modua.
- Presako prozeduraren gaikuntza-maila.
- Oinarrizko gizarte-zerbitzuek BAParen diseinuan parte hartzea.
- Menpekotasun-egoera onartzeko eta sistemako prestazioak eskuratzeko prozedurarekin lotutako arauketa zehaztea.
- Kasuan kasuko prestazioak eskuratzeko eskubidearen eraginkortasuna.
- Administrazio-isiltasunaren izaera.
- Prozeduretan ezartzen diren epeak.
- Zerbitzuen eta prestazio ekonomikoen arteko edo zerbitzuen arteko bateragarritasun-erregimena (adibidez, etxez etxeko laguntza-zerbitzua eta eguneko zentroa).
- Zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak eskuratzeko baldintzak eta betekizunak.
- Babes-mailak zehaztea.
- Zerbitzuen estaldura-maila.
- Prestazio ekonomikoen zenbatekoa eta jasan litzaketan murrizketak.
- Zerbitzuarekin lotutako prestazioaren bidez ordaindutako zerbitzuak.
- Erabiltzaileak esleitu zaion gizarte-zerbitzuaren finantzaketan parte hartzea.
- Familia-unitatearen edo bizikidetz-unitatearen definizioa, diru-sarrerak kalkulatzeko.

Herritarrentzat ulertzeko oso zailak diren egoerak sortzen dituzte, eta, batzuetan, eskubiak modu desorekatuan baliatzen dira. Auzi horrek Eusko Jaurlaritzak Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 12/2008 Legea garatzeko araudia onetsi zuela-eta ezarritako lehentasunetako bat izan beharko luke, baita Gizarte Zerbitzuen Erakunde-arteko Organoak gauzatzen duen lanean ere (legeko 44. artikulua).

7.6. Menpekotasun-egoera onartzeko eta sistemako prestazioak esleitzeko prozedura

Oro har, herritarrek prozedura luzea eta konplexua dela pentsatzen dute. Interesdunek ez dute ulertzen menpekotasun-egoeraren onarpenari buruzko ebazpenen edukia; izan ere, ebazpen horietan zerrenda batean jasotzen dira eskuratzeko eskubidea duten hainbat zerbitzu eta prestazio, baina gero ez da egia bihurtzen, dela ondoren egiten den Banakako Arreta Planean (BAP) ez direlako jasotzen, dela AMALen arabera ez dutelako eraginik une horretan, dela azken erabakiaren arabera ez direlako betetzen zerbitzua edo prestazioa emateko exijitzen diren baldintzak.

Gure ustez, prozedura bakar baten bidez egin beharko litzateke; baina, oro har, elkarren segidako hiru prozedurarekin egiten dugu topo:

- Menpekotasun-egoera onartzeko prozedura. Bertan ebazten da zein den menpekotasun-gradua eta maila, eta balorazioari dagozkion eskubideen berri ematen da.
- BAP lantzeko prozedura. Horren bidez, menpekotasun-egoeran dagoen pertsonarentzat egokiak diren prestazioak edota zerbitzuak onesten dira.
- Prezio edo zerbitzu zehatza esleitzeko prozedura.

Horren ondorioz, gure ustez, gehiegizko burokratizazioa eragiten da, eta AMALen aldarrikatzen diren eskubideak benetan baliatzea eta eraginkorrak izatea atzeratzen da.

Arazoa are larriagoa da kontuan hartzen badugu aipatutako bigarren prozeduran (BAPa lantzeko prozeduran) ez dela ezarri Plana lantzeko eperik eta fase hori gaintitzea nahitaezkoa dela hurrengo hasteko: dagokion prestazioa eskatzea, alegia.

Ezarpenaren lehenengo bi urteetan zenbait kasutan izapideak gehiegi atzeratu zirela ikusi dugu. Bizkaian, hasieran kolapsatu egin zela eta denbora joan ahala arazo hori gaintitzen joan dela esan genezake. Gipuzkoako Administrazioaren arintasuna gailentzen da menpekotasun-egoeraren onarpenari eta BAPa gauzatzeari dagokienez.

Prestazioen esleipenari dagokionez, egoitzetan eta eguneko zentroetan (neurri txikiagoan) plazak esleitzeko prozesua gainerako prestazioena baino gehiago atzeratzen da; izan ere, izapidea kontuan hartu gabe, eskuragarri dagoen plaza-kopurua da esleipenaren erritmoa zehazten duena.

Badakigu hiru aldundiek ahalegin ikaragarria egin dutela sistema berria ezartzeko, eta, gainera, azpimarratzekoa da izapidea burutzeko pausoak nabarmen laburtu direla; baina, nolahi ere, gure ustez, menpekotasun-egoera onartzeko eskaera egiten denetik prestazioa edo zerbitzua benetan esleitzen den arte igarotzen den denbora, oro har, behar baino luzeagoa da, kontuan hartzekoa da-eta menpekotasun-egoeran dauden pertsonen zaurgarritasun berezia.

AMALen aipatzen diren zerbitzuen analisia ez da inola ere kontuan hartu azterlan honetan; are gutxiago analisiaren indarraldia Eusko Jaurlaritzak Gizarte Zerbitzuei buruzko abendua-

ren 5eko 12/2008 Legea garatzeko Prestazio eta Zerbitzuen Zorroa arautzen duen Dekretuak baldintzatzen duela aintzat hartuz. Hala eta guztiz ere, analizatu ditugun alderdietako batzuek lotura zuzena dute zerbitzu horiekin eta aipatu egin behar ditugu:

- Etxez etxeko laguntza-zerbitzua asko eskatzen da gure erkidegoan, eta ezinbesteko tresna da menpekotasun-egoeran dagoen pertsona bere etxean geratzeko ahalbidetzeko. Zerbitzu hau eskaintzeko ordu-kopurua zehazteko, hainbat faktore hartu behar dira kontuan, besteak beste, menpekotasun-egoeran dagoen pertsonaren benetako beharrak zein diren eta sare formalean nahiz informalean zein babes duen. Hortaz, malgutasuna behar du, eta, batzuetan, gutxieneko babes-intentsitateak ezarri izanak eragina izan du malgutasun horren gainean. Bestalde, zerbitzu horren kudeaketan eta haren kalitatearen kontrolean arazo batzuk antzeman dira. Oinarrizko zerbitzua dela kontuan hartu behar da zerbitzuaren prezio publikoa zehazterakoan, prezio horrek ez diezaion asmoa burutik kendu laguntza behar duen pertsonari.
- FIZPE gainerako zerbitzu eta prestazioen artetik gailentzea hainbat faktoreren ondoriozkoa izan liteke, hala nola: administrazioak ikusten ez zuten errealitate sozial bat azalerratu izana; herritarrei zuzendutako informazio-kanpaina jakin batzuen eraginkortasuna; erraz kudeatzen den eta Administrazioari erlatiboki kostu baxua eragiten dion prestazio bat izatea; dagoen zerbitzu-sarea urria delako ezin zutela-eta zerbitzurik eskuratu, lehenagotik ere zaintza ematen ari ziren familia batzuentzat pizgarri ekonomiko bat dela. Prestazio hau, kasu jakin batzuetan, oztopo bihurtu da zerbitzuak aukeratzeko; bereziki, zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak bateraezinak direnean edo, bateragarriak izan arren, aplikatutako murrizketek eta onartutako prezio publikoak ia guztiz agortzen dutenean. Kasuren batean, prestazio horretara jotzeak menpekotasun-egoeran dagoen pertsonak ordura arte erabiltzen zuten zerbitzua uztea ekarri du, edo gizarteratzeko eta laneratzeko eta norbere autonomia sustatzeko ibilbide bat oztopatzea ekarri du, beren prestakuntza bukatzen duten pertsona ezgaituen kasuan. Zentzu horretan, funtsezkoa da gure administrazioak distortsio horiek gerta ez daitezen ahalegintzea.
- 65 urtetik gorako pertsonen kasuan, laguntza teknikoak edo babeserako produktuak eskuratzeko zailtasun jakin batzuk antzeman ditugu.
- Zaindarien atsedenera bideratutako programak, baliabideak eta tresnak ez dira nahikoa eta, batzuetan, adineko pertsonen kolektiboari soilik daude zuzenduta, menpekotasun-egoeran dauden pertsona guztiei zuzendu beharrean.

7.7. Araudi berriak eraginpeko kolektiboetan duen eragina

Menpekotasun-egoeran dauden pertsonen eta haien familia eta inguru sozialaren kolektiboak ordezkatzen dituzten elkarteek, gizarte-erakundeek eta organismoek, menpekotasun-egoeran dauden pertsonen eta zaindarien nagusiek –gurekin hitz egin dutenek– balio handiko

informazioa eman digute. Azken finean, legearen azken hartzaileen iritzia eta balorazioa da, eta horiek dira legeak barne hartzen eta lortu nahi duen guztiaren protagonistak.

Hainbat kolektibo (adineko pertsonak, hiru urtetik beherakoak, ezgaitasun fisikoa, intelektuala edo sentsoriala duten pertsonak eta gaixotasun mental bat duten pertsonak) babes-ten eta ordezkaten dituzten erakundeen ikuspuntua bildu dugu.

Elkarteetako asko bat datoz bai egiten duten balorazioari dagokionez, bai helarazi dizkigu-ten proposamenei dagokienez; eta, horrez gain, beren ikuspuntua ere adierazi dute, kasuan kasu ordezkaten duten kolektiboaren behar berezien arabera.

Denek jotzen dute positibotzat legearen onespena; bereziki, barne hartzen dituen presta-zioak eta zerbitzuak eskuratzea eskubide subjektibotzat jotzen duelako. Hala ere, itxaropen asko piztu dituela eta beti ez dituela ase uste dute. Era berean, benetako beharrekin eta beharrezkoak diren baliabide ekonomikoekin lotuta behar besteko plangintza falta izan dela pentsatzen dute, eta sistemaren iraunkortasun publikoagatik kezkatuak agertu dira.

Batzuen ustez, ezarpen-epea –8 urte– luzeegia da eta 5 urtekoa egokiagoa izango litzateke, Gizarte Zerbitzuen Legearen kasuan bezala. Arlo komunetan lege horrekiko koherentzia mantentzeko ere eskatzen dute. Halaber, gizarte-zerbitzuen egungo ereduari eta horien bideragarritasunari (zahartze-tasak eta, ondorioz, menpekotasunak gora egingo dutela kon-tuan hartuz) buruzko eztabaida bat proposatu dute.

Gizarte-zerbitzuetan egon zen saturazioagatik (lehenengo ezarpen-urtean bereziki) kexatzen dira. Legeak ez duela zerbitzuetarako eskubide unibertsala bermatzen uste dute, izan ere, menpekotasun-kalifikazioa duten pertsonen soilik ematen die arreta; baina positibotzat jo-tzen dute ordura arte babesaren sarera jo ez zuten pertsonengana hurbildu dela eta gizarte-zerbitzuak eskuratzeko aukera eman zaiela. Informazio gehiago eta hizkera ulerterrazagoan eman dadila ere eskatzen dute.

Lurralde historikoetan legea oso modu desberdinean garatu dela eta horrek lurraldeen ar-tean desberdintasunak eragiten dituela kritikatzan dute. Egoera desorekatuak salatu dituz-te, baita herrien artean ere. Bizkaian prestazio eta zerbitzuetarako ezarri den bateraezinta-sunaren kontra agertu dira. Ezinbestekotzat jotzen dute esparru autonomikoan koordinazio handiagoa egon dadila. Bestalde, ez daude ados Estatuko autonomia erkidegoen artean ikusten ari diren desberdintasunengatik, eta, horren harira, EAE egoera onean dagoela onartzen dute.

Haien ustez, legeak barne hartzen dituen prestazio ekonomikoak berritzaileak ziren arren, araudi honek gure autonomia erkidegoak lehendik ere bazeukan gizarte-zerbitzuen oinarri-zko arreta bermatzen du, eta, ondorioz, ez du aurrerapen handirik ekarri. Halaber, faltan bo-tatzen dute osasun-sistemarekiko koordinazioa eta esparru sozio-sanitarioaren garapena. Era berean, elkartearen arabera, legea laguntzera bideratuta dago nagusiki, eta, ondorioz, ez du autonomia sustatzeko ekimenik eskaintzen, eta ez ditu kontuan hartzen zahartze aktiboa bultzatzen duten alderdiak.

Menpekotasuna baloratzeko baremoak (MBB) kritika ugari jaso ditu. Haien ustez, ez da egokia: izaera funtzionala edo motorreko menpekotasunak hartzen ditu kontuan, baina ez dago menpekotasun intelektual edo kognitiboetara edo gaixotasun mentaletara bideratuta. Ez du aldi baterako menpekotasun-egoera barne hartzen, behin betikoa baizik. Balorazioak egiten dituzten teknikariei dagokienez, elkarteen ustez prestakuntza handiagoa behar dute eta baremoa aplikatzeko irizpideak bateratu behar dituzte. Baremoa aplikatzerakoan askotariko irizpideak erabiltzen direnez, oso menpekotasun-egoera antzekoetarako gradu eta maila desberdinetako ebazpenak ematen dira. Era berean, menpekotasun-egoeran dagoen pertsonarengandik jasotako informazioa eta haren familia edo ingurutik jasotakoa alderatzea oso garrantzitsua dela azpimarratzen dute.

Aurrekoarekin bat etorritz, haien ustez baremo honek –eta legeak oro har– oso aintzakotzat ditu adineko pertsonak, baina ez hainbeste beste kolektibo batzuk, adibidez, menpekotasun fisikoa, intelektual edo sensoriala edo gaixotasun mentala duten pertsonena. Baremoak ez dituela jokabidearen alterazioak neurtzen salatzen dute, baita ez dituela hartutako kalte zerebralek dakartzaten disfuntzio kognitiboak edo menpekotasun handia sortzen dutenak behar bezala neurtzen ere.

Halaber, orokorra da zaindarien lanaren balioespena eta familia inguruneke zaintzetarako prestazio ekonomikoa (FIZPE) ezartzeko aukerarena ere. Aldi berean, beldur dira kasu batzuetan horrek ez ote duen baldintzatzen menpekotasun-egoeran dagoen pertsonak zerbitzu jakin batzuk eskuratzea edo ez ote dion ideia burutik kentzen. Hori dela eta, etxez etxeko laguntza eta eguneko zentroak prestazioarekin batera gehiago erabili beharko liratekeela uste dute; hartara, beren etxean geratzeko aukera emango litzaieke. Elkarre batek baino gehiagok adierazi du senide eta zaindariantzako babesa sustatu beharko litzatekeela, baita menpekotasun-egoeran dagoen pertsonari eskaintzen dioten arretaren kalitatea egiaztatzeko kontrolak ezarri beharko liratekeela ere; izan ere, *"FIZPEren ordainketak, berez, ez du bermatzen arreta ona eskainiko denik"*.

Zenbait elkarrek faltan botatzen dute sisteman parte-hartze sozial handiagoa egotea, eta legeak ez duela elkarteen mugimendua kontuan hartu diote. Hori dela eta, elkarteren batek planteatu du legearen 40. artikuluan aipatzen den kontsulta-batzordean mugimendu horrek parte har dezala.

Zerbitzuarekin lotutako prestazioa arautzea eskatu dute (Bizkaian)⁹², eta laguntza pertsonalerako prestazioa ez dadila mugatu hezkuntza-sisteman edo lanean dauden pertsonetara soilik ere eskatu dute. Autonomia bultzatzeko bide gisa jasotzea nahi dutela adierazi dute, Gipuzkoan egin den bezala.

Halaber, elkarre batzuek proposatzen dute prozedura sinplifikatzea, epeak laburtzea eta erantzun azkarra eskatzen duten egoerak kontuan har daitezela. Bestalde, menpekotasunaren balorazioari buruzko administrazio-ebazpenekin batera item bakoitzean jasotako

⁹² Azkenean, 2010eko ekainean haren arauketa onetsi zen (informazio hau bildu ostean).

puntuazioak islatzen dituen balorazioaren txosten teknikoak aurkez dadila eskatzen dute, errekurtsioa aurkeztuz gero elementu objektiboak eskuragarri izateko.

Azkenik, 60 urtetik beherako pertsonak ordezkatzeko dituzten elkarteek zerbitzu gehiago eta haien behar espezifikoetara egokituta egon daitezela eskatzen dute.

7.7.1. *Osasun mentaleko arazoak dauzkaten pertsonen kolektiboaren inguruko erreferentzia berezia*

AMALek oso eragin txikia izan du gaixotasun mentalak dauzkaten pertsonen kolektiboan, eta, zerbitzuak edo prestazioak eskuratzeari dagokionez, ez dute areagotze garrantzitsurik izan.

Administrazioaren nahiz sare sozialaren ustez, menpekotasuna baloratzeko baremoak (MBB) gutxietsi egiten du arazo horiek dauzkaten pertsonen menpekotasun-egoera –berez ez dago pentsatuta gaixotasun mentaletarako–, ez baitira behar bezala kontuan hartzen beren autonomia pertsonalerako behar dituzten laguntzak –gehiago daude lotuta ekimen– eta motibazio-arazoekin arazo funtzionalekin baino–; MBBk gaixotasun mentaletarako barne hartzen dituen egokitzapenak ez dira nahikoa kanpoko laguntzaren beharra edo besteekiko menpekotasuna baloratzeko. Haien ustez, esleitutako baliabideak urriak dira, beharrezkoa da kolektibo horrentzat egoitza–, laneratze– eta gizarteratze-baliabide berriak sortzea, gaur egungoak ez baitira nahikoa, eta bereziki kezkarria da gaixotasun mentalen bat duten 60 urtetik gorako pertsonen egoera.

Lurraldean artean desberdintasunak daude menpekotasun-egoeran dauden eta gaixotasun mentalak dituzten pertsonen arreta eskaintzeko baliabideen (normalean izaera sozio-sanitariokoak dira) ezarpenean eta haien finantzaketan duten parte-hartzean.

Bestalde, osasun-administrazioak ohartarazten du gizarte-zerbitzuen eta osasun-zerbitzuen artean koordinazio egokia egon ezean balitekeela banakako tratamendu-plana (BTP) –osasun mentaleko sarean erabilitako tresna, besteak beste, pertsona bakoitzari esleitu beharrekiko baliabide egokiak zein diren zehazten duena– ez etortzea bat gizarte-zerbitzuen egoitzan prestatutako Banakako Arreta Planarekin.

Kolektibo horri zuzendutako egoitza-baliabideen eskaintza, laneratzea eta gizarteratzea ez dela nahikoa ikusten dugu.

7.8. Herritarren kexak

Herritarrek helarazi dizkiguten [kexak](#) askotarikoak dira, eta, jakina, AMALen garapenarekin, administrazio-kudeaketarekin eta, azken finean, herri-administrazioek eskainitako arretarekin lotuta daude. Oro har, etengabeko hobekuntzarekin zerikusia duten administrazioetan oso jarrera ona ikusi dugu, eta, horri esker, askotan moldaketa garrantzitsuak egin dira –arauketa mailan nahiz praxi administratiboarekin lotuta–.

8

ARARTEKOAREN GOMENDIOAK

ararteko

Egoeraren analisia egin eta dagozkion ondorioak atera ondoren, kapitulu honetan, antzemandako arazoei konponbidea aurkitzeko eta ase ez diren beharrei erantzuteko proposatutako gomendioak jaso dira.

Aldez aurretikoa. Autonomia pertsonala sustatzera eta menpekotasun-egoeraren arretara zuzenduta dagoen edozein politikaren trazadurak kontuan hartu beharko du menpekotasunaren fenomenoak emakumeengan eta adineko pertsonengan duen eragin handia.

Esan bezala, EAEn menpekotasun-egoeran dauden pertsonen %64 inguru emakumezkoak dira. Menpekotasun-egoera onartuen %80 65 urtetik gorako pertsoneri dagozkie. Menpekotasun-egoeran dagoen pertsonaren zaindaria senide bat denean, kasuen %80 baino gehiagotan zaindaria emakumezkoa da eta 52 urte inguru ditu batez beste (%20 baino gehiagok dute 60 urtetik gora).

Politika publikoak prestatzerakoan ezin da ahaztu errealitate hori, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren aldeko apustu sendoa egiteko.

1. Informazio-sistema integratu bat sortzea bultzatzea

Txostenean behin eta berriz aipatu ditugu menpekotasunaren arretaren eta autonomia pertsonalaren sustapenaren arloan analisi kuantitatibo fidagarri bat egin nahi izan dugunean aurkitu ditugun arazoak: ez dagoela datuak jaso eta kudeatzeko sistema integraturik, irizpide desberdinak aplikatzen direla eskatutako datuak interpretatzeko, administrazioentzat materialki ezinezkoa izan dela eskatu dizkiegun datu batzuk eskaintzea, horien sistematizazioagatik edo sistema informatikoekin lotutako arazoengatik, etab.

1.1. Arlo honetan esku hartzen duten administrazio guztien parte-hartzea barne hartzen duen informazio-sistema integratu bat sortu beharko litzateke.

1.2. Badirudi gomendagarria dela [Eusko Jaurlaritzak IMSERSOra](#) bidaltzen dituen datuetan berrikuspena barne hartzea, bai banakako arreta planari (BAP) dagokionez, bai onartutako gradu eta mailai dagokienez; bereziki, kontuan hartuz aldaketa horien bidez zerbitzu edo prestazio bihur daitezkeela, baita kopuruaren aldaketa –prestazio ekonomikoen kasuan–, etab. ere.

1.3. Beharrezkoa da informazio bateratua, ulergarria eta herritar guztientzat eskuragarria eskaintzen duten bideak sortzea.

2. Lurraldeen artean dauden desorekak gainditzea bermatzea

Txosten honetako [7.5. atalean](#) azaldu dugun bezala, lurraldeen artean desberdintasunak daude autonomia pertsonalari eta menpekotasunari buruzko araudiaren garapenean, aplikazioan eta interpretazioan, eta baliteke horrek euskal herritarrek beren eskubideak berdintasunez gozatzearen gainean eraginak izatea. Hori dela eta, komenigarria izango litzateke distortsio horiek ekiditeko bide egokiak lantzea.

Zentzu horretan:

2.1. [Gizarte Zerbitzuen Erakunde-arteko Organoa](#)⁹³ euskal herri-administrazioen artean erakunde-arteko lankidetzeta eta koordinazioa artikulatzeaz arduratzen da, Euskadiko Gizarte Zerbitzuen Sistema bateratuta bermatzeko eta lurralde autonomiko osoan prestazioak eta zerbitzuak modu koherente eta harmonikoan gara daitezen; eta horretarako, bere ekintzak helburua erdiestera bideratu beharko ditu, kasuan kasuko administrazioen parte-hartzea eta inplikazioarekin.

2.2. Gizarte-zerbitzuen arloko Goi Ikuskaritzak Gizarte Zerbitzuei buruzko [12/2008 Legeko](#) 2. artikulua aldarrikatzen duen eskubide subjektiboa benetan gauzatzeko eskubidea bermatzeko eskumena du, eta haren jarduera gizarte-zerbitzuen sistemak behar bezala eta modu orekatuan funtzionatzen duela egiaztatzeko egingo du lan, haren dekretu arauemai-leko 4.2. artikuluan xedatzen den bezala⁹⁴.

2.3. Beharrezkoa izango da Gizarte Zerbitzuen Legearen garapenak EAEEn oro har lortzea komeni den arreta-maila ezartzeko, gizarte zerbitzuak eta prestazioak berdintasunez eskuratzeko direla bermatzeko, haien estaldurarako eta kalitate-mailarako, eta prezio publikoen arloko irizpide bakarrak ezartzeko ematen duen aukera aprobetxatzea. Azken finean, garapenak gizarte-zerbitzuen arloan oreka bermatu behar du lurraldean, baliabideak berdintasunez banatzeko eta zerbitzuak eta prestazioak berdintasunezko irizpideen arabera eskuratzeko.

⁹³ [101/2010 Dekretua, martxoaren 30ekoa.](#)

⁹⁴ [238/2010 Dekretua, irailaren 14koa, Gizarte-zerbitzuen arloko Goi Ikuskaritzarena.](#)

3. Administrazioetan erakunde-arteko koordinazio egokia erraztea

Oinarrizko gizarte-zerbitzuetan eta espezializatuetan nahiz horien eta autonomia erkidegoko administrazioaren artean erregistratu diren koordinazio-arazoak direla eta, beharrezkoa da esparru sozialean koordinazioa hobetzea menpekotasunaren babeseta eta autonomia pertsonalaren sustapenaren arloko administrazioen artean. Horretarako, informazioa eskuratzeko sistema partekatua sortu behar dira⁹⁵ –datuen babesaren arloko araudia betetzen duten sistemak–; eskuragarri dauden zerbitzuei buruzko informazio fidagarria eskaintzen duten mekanismoak ezarri behar dira; akordioak edo hitzarmenak sinatu behar dira; beharrezkoak diren baliabideak eskualdatu behar dira eta lan integratua gauzatu behar da.

4. Sistema sozialaren eta sanitarioaren arteko koordinazioa bultzatzea, baita esparru sozio-sanitarioa garatzea ere

Sistema sozialaren eta sanitarioaren arteko koordinazioa eta esparru sozio-sanitarioa delakoaren garapena ezinbestekoak dira menpekotasunari eta autonomia pertsonalaren sustapenari behar bezalako arreta eskaintzeko. Laguntza-maila desberdinen artean arreta integrala, jarraitua eta koordinatua bermatzea da helburua, eta, horretarako, arretaren egiturak menpekotasun-egoeran dauden pertsonen beharretara egokitu behar dira.

Zehazki, nahitaezkoa da:

4.1. Pertsonaren osasun-egoera osoki ezagutzea bermatzea haren menpekotasuna behar bezala baloratzeko, eta sistema sozialak osasunaren arloko informazioa eskuratzeko prozesua arintzea.

4.2. Erantzun ezin hobea ematea osasun-sistemak emandako jarraibidea koherentea izan dadin sistema sozialak esleitutako baliabidearekiko.

4.3. Baliabide sozio-sanitarioak martxan jarri eta mantentzeko prozesuan bi sistemek behar bezala parte hartzen dutela bermatzea.

4.4. Modu integralean erantzutea biztanleriako kolektibo jakin batzuei, adibidez, gaixotasun kronikoak dauzkaten pertsoneri; buru-gaixoei, goizegi, pisu gutxirekin edo ezgaitasunak izateko arriskuarekin jaiotako umeei; ezgaitasunak dauzkaten pertsoneri edota arreta sanitario berezi gehiago behar duten pertsoneri.

Gaixotasun mentalak dituzten eta menpekotasun-egoeran dauden pertsonen kasuan, haiei eskaintzen zaizkien baliabideek –normalean sozio-sanitarioak izaten dira– bi sistemen artean

⁹⁵ Eskuragarri dugun informazioaren arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiak informazioa eskuratzeko garatutako sistema partekatua (EXTRANET) emaitza onak ematen ari dela dirudi, eta gizarte-zerbitzuak eta osasun mentaleko zentroak sistema horretara sartzera ahalbidetzen du.

behar bezalako koordinazioa eskatzen dute; eta, ondorioz, beharrezkoa da baliabide horien kostuak partekaturik onartzea, eta ez dirudi hiru lurraldeetan modu orekatuan egin denik.

Halaber, lehentasunezkoa da paziente psikiatrikoak arreta sozio-sanitariorako euskal Kontseiluak erdietsitako egitura sozial normalizatueta kokatzeko akordioak osoki betetzea.

5. Toki-erakundeei behar besteko finantzaketa ematea AMAL indarrean sartu zela eta egokitu zaizkien zereginen areagotzeari aurre egin ahal izateko, eta erakunde horiek gizarte-politiken diseinuan protagonismo handiagoa izatea bultzatzea

Toki-erakundeek, [AMAL](#) indarrean sartu zela eta, zeregin gehiago hartu dute beren gain. Gainera, Gizarte Zerbitzuen Legeak menpekotasun-egoeran dauden pertsonen arretarekin eta autonomia pertsonalaren sustapenarekin zuzenean lotuta dauden hainbat eskumen esleitzen dizkie. Ondorioz, beharrezkoa da toki-erakunde horien finantzaketa zeregin horiei behar bezala aurre egin ahal izateko nahikoa dela bermatzea.

Zerbitzuen hornikuntzan administrazio batek baino gehiagok esku hartzen dutela kontuan hartuz, komenigarria dirudi herritarrengandik hurbilen dauden administrazioei protagonismo handiagoa ematea, ziurrenik egokienak baitira banakako beharrei erantzuteko egokiak diren irtenbideak proposatzeko.

6. Baliabide sozialak sortu eta mantentzera bideratutako lanarekin jarraitzea, hala nola, menpekotasun-egoeran dauden herritarrei eta haien zaindariei zuzendutako zerbitzu, prestazio eta programekin

Autonomia pertsonala sustatzera eta menpekotasun-egoerari erantzutera bideratutako zerbitzu eta prestazioen eskaera etengabea eta gero eta handiagoa da, argi dago gaur egungo baliabideak ez direla nahikoa eta beharrezkoa da hutsune batzuk betetzeko baliabideak sortzea. Hori guztia dela eta, beharrezkoa da EAEEn azken urteotan gauzatu den inplementazio-lanarekin jarraitzea. Gure erkidegoak ezin du pentsatu nahikoa denik Estatuko Administrazio Orokorrek ezartzen dituen gutxienekoak betetzea.

Oro har, zerbitzuen estaldura-tasak eta prestazioen pixkanaka gure erkidegoan menpekotasun-egoeran dauden herritarren tasetara egokitzuz joan beharko lukete. Beharrezkoa da, era berean, baliabideak eskuratzeko itxaron behar den denbora-tartea –plaza-kopurua nahikoa ez izatearen ondoriozkoa– laburtuz joatea, baita oinarrizko zerbitzu jakin batzuk lortzeko itxaron behar dena ere (adibidez, etxez etxeko laguntza edo telelaguntza zerbitzua).

Behin betiko nahiz aldi baterako egoitza-baliabideak, eguneko arretakoak eta etxez etxeko laguntza-zerbitzura bideratutakoak areagotzea ezinbestekoa da AMALek zerbitzu publikoei ematen dien lehentasuna egia bihur dadin. Horrek, gainera, onuradunek beren Banakako Arreta Programaren diseinuan eraginkortasunez parte hartzeko eskubidea izatea bermatzen lagunduko du.

Bereziki, nahitaezkoa da:

6.1. Menpekotasun-egoeretako eta autonomia pertsonalaren sustapeneko prebentzio-zerbitzuak bultzatu eta mantentzea:

- gaikuntza eta terapia okupazionala;
- arreta goiztiarra;
- estimulazio kognitiboa;
- autonomia funtzionala sustatu, mantendu eta berreskuratzea;
- gaikuntza psikosoziala adimen-gaixotasunak edo ezgaitasun intelektuala duten pertsonentzat;
- gaikuntza ezgaitasun sensoriala duten pertsonentzat;
- laguntza pertsonalak eta zaintza egoitza berezietan;
- menpekotasun- edota ezgaitasun-mota desberdinetara egokitutako teknologia berriak gaitzea.

